





A.T.V.
2851



M-10012

R-4409

DEVOCIOZCO

VICITZARACO SARRERA

SAN FRANCISCO SALESEC

ATEREA.

Euscaldunen amorez , eta ayen-
zat modu egoquian Eusqueraz
ipiñi duena. Orrezaz gañera az-
quenean , eriotzaraco prestatce-
co Exércicioa , San Francisco
SALESEN berarén liburutie
atera dú:

AITA FRAI JOSÉ CRUZ ECHEVERRIA
ZARAUZCO MISIONEROAC.

BEAR DAN BECELA.

*TOLOSAN : DON FRANCISCO DE LA
LAMA-REN Echean. 1821 URTEAN.*

CONTRATO DE COMPRA Y VENTA

DE UN TERRENO EN LA CIUDAD DE SAN FRANCISCO

EL DIA CINCO DE ABRIL DE 1851

Yo, el Sr. JUAN PABLO RAMOS, de legal edad, soltero, de la Ciudad de San Francisco, por el presente contrato de compra y venta, he vendido y he vendido a la parte de abajo firmada, el terreno que se describe en el presente contrato, situado en la Ciudad de San Francisco, y que se describe en el presente contrato, y que se describe en el presente contrato, y que se describe en el presente contrato.

En testimonio de lo cual, yo, el Sr. JUAN PABLO RAMOS, he firmado y he sellado el presente contrato en la Ciudad de San Francisco, a los cinco dias del mes de Abril de 1851.

YUAN PABLO RAMOS

Yo, el Sr. JUAN PABLO RAMOS, de legal edad, soltero, de la Ciudad de San Francisco, por el presente contrato de compra y venta, he vendido y he vendido a la parte de abajo firmada, el terreno que se describe en el presente contrato, situado en la Ciudad de San Francisco, y que se describe en el presente contrato, y que se describe en el presente contrato, y que se describe en el presente contrato.



**IRACURTZ ALLIARI ADVER-
TENCIA LABUR BAT PROVECHUAZ
IRACURRI DEZAN.**

Y pintzen dizut cristau maitia escu-
etan tratatcen duen gayan bere pareric
ez duen libru bat, orregatic cristau ca-
tolicoen nacio guztia beren itzcuntzan
para dute. Balitzaque zú icaratcia, edo
gogoan jotcea libru onen tituloac, au-
dá; Devociozco vicitzaraco sarrera,
ta beragatic atcera cintezque iracurt-
cetic. Onelaco gauzaric guertatu ez de-
din, jaquin zazu, ez duela titulo orrec
beste gauzaric aditcera eman nai, ez
bada Jaungoicoaren bildur santuan vi-
citceco, ta Ceruco gloria obeto irabaz-
teco erreglac libru onec eracusten di-
tuela. ¿Baña cér erreglac? Errazac,

atseguñac, ta egoquiac persona modu guztientzat, nola pobreentzat, ala aberatsenzat, nola ezconduentzat, ala libreentzat. Eracutsi cion Jaungoicoac Ecequiel Profeta Santuari, libru bat, ta esan cion, artu zazu, ta jan zazu, jan zuen, ta ezta beceñ gozoa eguin citzayon aboan; iracurtcen badezu zuc ere libru aú, icusico dezu ceñ gozoa ta atseguña iruituco zaitzun. Ta ez dá atseguintasun utsean gueldituco liburu aú iracurtciac eguingo dizun provechua, ez bada icasico dezu-ere zure salvacioco eguitecoan nola empleatu, ta muguituco cera ere empleatcera.

Eguiozu bada zure buruari caridade libru aú iracurciac. Baña nola iracurri bear dezu? Jaungoicoac, ta Santuac zure salvacioco negocioaren gañean Cerutic ematen dizquitzen conseju santu batzuec becela, bada ez dago dudaric, ce San Agustinec, ta San Francisco Salesec berac dioten bezela, libru devotoac, Jaungoicoac, ta Santuac gure salvacioco negocioaren ga-

Sean Cerutic escribitcen dizquiguten
 cartac becela dirala. Oracioa dala me-
 dio itz eguiten degu guc Jaungoicoare-
 quin, ta bere Ministroac, ta libru onac
 dirala medio Jangoicoac gurequin. Pen-
 sa zazu oraiñ cér atencio, cér devocio,
 ta errespetoarequin iracurri bear dezun
 libru au ta beste eroceñ libru devoto, ta
 nola aleguiña eguin bear dezun ayetan
 eracusten zaitzuna cumplitceco. Ciñatu,
 edo santigua zaitex bada libru aú ira-
 curucen asitcen ceranian, jasozu viotza
 Jaungoicoagana, ezcatcen diozula be-
 re gracia libru onetan iracurtcen de-
 zuna cumplitceco, iracurri zazu espa-
 cioz, ta atenciorequin, iracurtcen de-
 zuna gogoan artceco, ta cumplitceco
 deseo andi batequin. Prestaera onequin
 iracurtcen badezu maiz libru aú, ta
 beste oroceiñ libru devoto, esperanza
 andia izan desaquezu zure salvacioaz.
 Eman dizazula onetaraco Jaungoicoac
 bere gracia. Ta acordatuco baciñaque
 noiz bait nitzaz zure oracioetan, pa-
 gatu ceñiraque nolaz bait zure animaren

onagatic libru au eusqueraz ipintciaz eguin dizuran caridadea.

Libru onetan curiosoac falta asco topatuco dituzte, ta aguirienac, eusqueraren gañian izango dira. Topatuco dute bear bada Provinciaco eusquerarequin batian Nafarroacoa, Vizcayacoa, ta Arabacoa, cer gatic guztietatic nabillela, ta beti corraca, escribitu det. Baña erreparoric andiena erderaz nastutaco itzac gatic eguingo dute. Bañazuc, cristau maitia, ez dezazula onelaco aurqueriaz casoric eguin. Ez dezu libru onetan doctrina gaiztoric topatuco; animarentzat ogui gustosoa, ta probechu-garria izango dezu, ta aurrentzat eguiten dan opilla bezala, polita, ta gaintzutua ez egonagatic, ez dezazula jan gabe utci, ez dezazula iracurri gabe utci. Eusquera garbi garbian gucia ipiñi izan banizun, etcenduan guztia entendituco, ta ala ez nuen deseo nuena logratuco. Utcí bada aurqueriai: Eta beguiratu sustanciari. Beste gauzacho bat esan nay dizut,

7
au dá, libru onetan iracurri nay de-
zannean, juan zaitecela azquenera, ta
ban billatuco dezu señalatua gusto de-
zun Capituloa.

JESUS VIOTZECOARI LIBRU
ONETAN EGUITEN ZATON ESCA-
ÑIA, TA ORACIOA.

O Jesus maita garria, nere Jabe,
Salvadore, eta Jaungoicoa, zure aur,
rean aguertcen naiz Zure onraraco,
ta gloriaraco liburu aú escaintcera,
ta consagratcera, errecibi zazu bada,
ta emayezu zure bendicioarequin one-
tan dauden itzai indarra, iracurtcen,
ta enzuten dituzten animae, deseo de-
dan frutua atera dezaten: batez ere
emayezu libru aú iracutcen, ta enzu-
ten dutenai gracia ni-gatic zuri er-
regutceco, emen besteai devociozco vi-
dea eracutsita, nerau bestean betico
condenatua icusi ez nadin; Ez bada,

ayequin batean eanta dezadan victo-
riaren consueloz beti leyala izateco
prueban viotz guztitic oraiñ esaten
deran: *Vici bedi Jesus, Vici bedi Je-
sus: Bay Jesus nere jabea, vici zaitetz
ta erreina zazu gure viotcetan oraiñ,
eta beti. Amén Jesus.*



VICI BEDI JESUS.

DEVOCIOZCO VICITZARACO
sarreraren lembicico partia, ceñian
ematen zayozca devociozco vici modua
artcen asiten dan cristauvari eguiaz
devotoa izatera allegatceco conveni di-
ran aviso, ta egercicioac.

I. CAPITULO.

Onetan eracusten zayo cristavarè
eguiazco devocioa cer dan.

NAY dezu zuc, cristau maitia, eguiaz devotoa izan, cer-gatic, cristauva izanic, badaquizu cembat gustatcen zayon Jaungoicoari, cristauva eguiaz devotoa izatia. Baña cergatic eroceñ gaucetan asieran eguiten diran utseguitiac, azqueneraco asco acitcen diran, ta ascotan eciñ erremediatu ditez queneraño, orregatic nai det lembicicasi dezazun cer dan devocioco vir-

tutea ; cergatic eguiazcoric bat baicic ez bada ere , falsoac , edo devocioaren ichura baicic ez diranac asco dira , ta orregatic beregatic erraz engaña ciñtezteque , contuan ez egotera , ta ala seguicenezaque devocio falsoaren bat , edo ichura baicic ezdanen bat , eguiazcoa dalaco ustian. Aurelioc pintatcen cituen imagiña guztiac , berac maite cituen emacumeen antcera pintatcen cituen , ala ere ascoc beren genioac , ta imaginacioac aguintcen dien modura devocioa pintatcen dute. Barautcera aficionatua danac , chit devototzat iruquico du bere burua , bere viotza projimoaren contra gorrotoz betia iruquiagatic ere ; ta ez bacarric ardoa , ez bada ura ere templantzagatic mingañarequin icuitcera ere eciñ atrebitu bada ere , ez du bildurric izango projimoaren odolán mingaña sartceco murmuracio , ta falso testimonioac dirala mediante. Beste batec berriz , chit devototzat iruquico du bere burua oracio asco errezatcen dituelaco , itz gor-

rotodun , soberbioso , ta injuriosoac
nola echecoen , ala campocoen contra
esa nagatic ere. Beste bat erraza da li-
mosna eguiteco bolsatic dirua aterat-
cen , tá ez du beratú nay bere viotza
gaizquilliai barcatceco. Beste batec
barcatuco dio bere gaizquilliarí, ta zo-
rrac pagatuco baditu , Justiciac obli-
gatu bearco du. Esan dituran persona
modu abec guztíac munduac devoto-
tzat daucazqui , baña ez dira eguiac
ala. Saulec David perseguitcen zuen
demboran , jaquiñic beñ batian Da-
videc , Saúlen soldaduac preso artce-
ra cetozquiola , eheti igues eguin zu-
en , ta Micol , aren emaztiac ipiñi zu-
en aren oyan soldaduac engañatceco
guizonaren ichura bat Daviden erro-
paquin janciric ; alá asco persona jaz-
ten dira devocioaren antceco obra-
quin , ta onela iruquitcen ditú mun-
duac eguiac devototzat , ala ez iza-
nic. Eciñ izan diteque , cristau maitia ;
eguiac devocioric Jaungoicoaren a-
morio gabe , edo obeto esateco , egui-

azco devocioa Jaungoicoaren amorioa
 bera da , baña ez eroceñ moduzco
 Jaungoicoaren amorioa , cergatic asco
 modutara adi diteque amorio au. Ce-
 ren gure anima edertcen duen , ta
 Jaungoicoaren gustocoac eguiten gai-
 tuen , deitcen zaio gracia , ceren obra
 onac eguiteco indartcen gaituen , deit-
 cenzayo caridadea ; ta allegatcen da-
 nian amorio au añ perfectoa izatera,
 ce eraguiten diozca cristauvari obra
 onac ez eroceñ moduz , ez bada cui-
 dadoarequiñ , maiz , laster , ta erraz,
 orduanche deritza devocioa Jaungoi-
 coaren amorioari. Sayea deritzan e-
 gaztiac iñoiz egatcen ez du , olloac gu-
 chi , lurraren aldetic ta guchitan , ba-
 ña egaztien Erreguea esaten dioten
 Aguila deritzanac , usuac , Enadac , ta
 onelacoac ascotan , agudo ta goitic e-
 gatcen dute ; ala pecatuan dabilitzanac
 ez dute Jaungoicoagan egatcen ez bada
 beren ibillera gustiac lurrian , ta lurre-
 tic eguiten dituzte. Orañdic devocio-
 ra allegatu ez dan gende onac Jaun-

goicoagan egatcen du bere obra onen
 medioz, baña guchi, nagui, ta neque-
 tan, baña persona devotoac maiz,
 erraz, ta altutic egatcen dute Jaun-
 goicoagan. Itz batian, devocioa ez da
 beste gauzaric, ez bada vicitasun es-
 piritual bat, ceña mediante Jaungoi-
 coaren amorioac eguiten ditu guban,
 edo obeto esateco eguiten ditugu guc
 arequin obra onac agudo, ta gustora.
 Ta nola Jaungoicoaren amorioac ca-
 ridadiaren icena duen aldetic ematen
 digun indarra mandamentuac cum-
 plitceco, ala devocioac eraguiten di-
 gu abec agudo, ta gustora cumplitcea.
 Motivo onengatic, eciñ esan diteque
 Jaungoicoaren mandamentuac cumpli-
 tzen ez dituen ez ona, ta ez devotoa,
 cergatic ona izateco, bear dú Jaungoi-
 coaren amorioa, edo gracia, ta devo-
 toa izateco gracion egonaz gañera, be-
 ardú vicitasun, ta erraztasun andi bat
 obra onac eguiten. Eta nola devocioa-
 ren izatea Jaungoicoaren amorio an-
 dian dagoen, ez bacarric eguiten gai-

tu viciac , ta errazac Mandamentuac
 cumplitceco , ez bada muguitcen gaitu
 ere erraz ta gustora eguitera eguin al-
 ditzaquegun obra on guztiaç , obligaci-
 ozcoac ez izanagatic ere. Cergatic gor-
 putceco eritasun andibatetic ateratcen
 danac , orañdic indar andiac artu baño
 lenago , preciso eguin bear dituen pau-
 soac ere gueldi , ta nequetan eguiten
 dituen bezala , ala peccariac peccatu-
 tic ateratcen dan lembician cumplit-
 cen dú Jaungoicoac aguintcen diona,
 baña gueldi , ta nequetan devociora al-
 legatu arteraño. Devocioa alcantzatu
 ezquero , persona sano , ta disposicio
 onian dagoana becela ez bacarric ibi-
 lli , ez bada corritcen ere badú Jaun-
 goicoaren legueco vidian , ta berriz
 gueyago aurreratuaz , corritcen dú
 conseju , ta Jaungoicoac viotcera egui-
 ten diozcan deyen videetatic. Itz ba-
 tian esateco, Jaungoicoaren amorioac,
 ta devocioac ez dute beren artian su-
 bac , ta aren garrac beren artian baño
 diferencia gueyago ; cergatic amorioa

dá sú espiritual bat , ta guztiz iraza-
quia dagoenian deitzen zayo devocioa,
alaco moduan , ce devocioac ez dio e-
maten amorioari garra baicic , ceñare-
quin eguiten dá vicia , ta erraza ez ba-
carric mandamentu santuac cumplitce-
co , ez bada bai ta ere conseju , ta Jan-
goicoac viotcera eguiten diozcan deiac
cumplitceco.

IL CAPITULO A.

*Devocioaren propiedade ,
ta excelenciac.*

Promisioco lur aberatsera juateric le-
raeltarrac atceratu nai cituztenac bil-
durtcia gatic , esaten cien ; alaco lecu-
zala ura , ce tragatcen cituela au vici
ciranac ; au dá añ aire gai toac cirala
lecu artan ce eciñ iñor luzaro vici oite-
quela , ta ango guizonac añ izugarniac
cirala , ce jaten cituztela personac lan-
gostac bezala . Onela ere munduac ,
cristau maitia , quentcen dio aleguia

guztian creditua devocioari, esanaz, persona devotoac arpegui aserrecoac, tristiciac, ta eticoen colorecoac dirala, devocioac personac tristiciac, ta ecin sufrigarriac eguiten dituela. Baña nola Josue, ta Calebc (*veguira bean*) aseguratcen cien Isrrael tarrai Promisioco lurra edo paragia ez bacarric ona, ta ederra zala, ez bada an vicitcia ere gauza atseguña, ta gustosoa zala, orobat Espiritu Santuac Santu guztien abotic, ta Jesusec bere abotic aseguratcen digu, devociozco vici modua ona, atseguña, dichososoa, ta tratablea dala.

Icusten dú munduac persona devotoac barautcen dirala, errezatcen dutela, sufrितcen dituztela injuriac, servitcen dituztela eriac, laguntcen diela pobreaki, beren gorputzari loa quentcen diotela, sugetatcen dutela colera, mortificatcen dituztela beren griña gaistoac, igues eguiten dutela ara-

guaren gustoétatic, ta eguiten dituz-
 tela beste gauza on ascó, berez gus-
 tocoac ez diranac, baña munduac ez
 dú icusten onelaco personac viotce-
 an daucaten devocioa, ceñac gauza
 oriec guztiac atseguñac gozoac, ta
 errazac eguiten ditu. Erliac ezcayan,
 edo tomillua esaten dioten lorean chu-
 patcen duen ura berez samiña dá, ba-
 ña bere propiedadiaren medioz ezti
 gozora biurtcen dú. O mundutarrac;
 Cristau devotoac samintasun asco ar-
 quitcen dute, eguia dá, mortificacioco
 egercicioétan, baña eguitian gozoac,
 atseguñac eguiten zaizte. Súac, gar-
 rac, curpilla edo ruedac, eta ezpata
 zorrotzac loreac, ta lurriñ usai oneco-
 ac Martiriai iduritzen citzaizten, cer-
 gatic devocioco virtutea beren viotze-
 tan zuten, ta baldin tormentu aiñ an-
 diac, eta eriotza bera ere devocioac
 gozoa, ta atseguña eguin badezaque;
 ;Cenbat gueyago atseguñac eguingo
 ez ditu obra virtutezcoac? Azücreac
 gozatcen ditú fruta eldu gabeac, ta

asco erremediatzen dū elduen gordin
tasuna, ta gaiztot suna. Devozioco vir-
tutea eguzco azucre espirituala dá,
mortificacioai samintasuna, eta consue-
loay caltea quentcen diena. Quentzen
die pobreai beren estutasuna, ta aberat-
sai beren sobervia, consolatcen dū afli-
gitua, ta favorecitu a izan danari quent-
cendibarrota suna, bacarric dagoenari
tristura, ta acompañatuari gueyegnico
alegría. Devocioac servitzen dū neguan
sutzat, ta udán intzatzat. Badaqui as-
corequin bezala guchirequin conten-
tatcen, eguitén ditu provechu garrí
berdiñac honrac, eta desprecioac, er-
recibitcen ditu viotz berdiñarequin
consueloac, eta penac, ta zoragarriz-
co atsegvintasunez betetzen gaitu.

Considerazazu Jacob Patriarcaren
Escallera, (*veguira bean*) bada vicitza

Jacob Patriarca Santuac icusi zuen Esca-
llera bat lurretic Cerurafio allegatcen zana,
eta Aingueruac artatic jatchi ta igo zabiltza-
la. Escallera aren gafean emen itz eguiten dá.

devociozcoaren iduri bat dá. Escalle-
 rarén mallac ceuczquiten bi aldeac,
 Oracioa aditcera ematen dute, ceña
 dala mediante alcanzatcen dá Jaun-
 goicoaren amorioa, bai ta ere ematen
 dituzte aditcera Sacramentuac, ceñac
 ematen dute amorio aú. Escallera ma-
 llac ez dirá beste gauzaric, ez bada
 Jaungoicoaren amorioaren gradu dife-
 rentiac, ceñatatic juaten dá virtute-
 tic virtutera, edo jatchiaz progimoa-
 ri eguiten diozcagun obra onen me-
 dioz, edo igoaz contemplacioa da-
 la mediante Jaungoicoarequin bat
 eguite amorosoan. Considera ezazu
 arren orain cuidadoarequin, esca-
 lleraren gañean daudenac Aingue-
 ruen viotzac dituzten personac di-
 rá, edo obeto esateco, personen gor-
 putzac dituzten Aingueruac. Ez dirá
 gazteac, baña ala dirala dirudite, cer-
 gatic indar, ta vicitasun espiritualaz
 beteac daude. Dituzte egoac egatze-
 co, ta Jangoicoagana sartceco oracioa
 mediante, badituzte ere oñac perso-

naquin ibiltzeco conversacio santu, ta
 atseguin baten videz. Ayen arpeguiac
 ederrac, ta alayac dira, cergatic ale-
 gria, ta atseguin tasunarequin gauza
 guztia errecibitcen dituzte. Berneac,
 besoac, ta buruac aguirian daucazqui-
 te, cergatic ayen pensamentuac, de-
 seoac, ta obrac ez daramate beste fi-
 nic, ez bada Jaungoicoari gusto ema-
 tia. Gorputzaren beste gañeraco guz-
 tia estalia daucate, baña erropa ariñ,
 ta eder batequin, cer-gatic munduco
 gauzaz bear dan bezala usatcen dute
 beren estaduac, ta empleoac escatcen
 diena besteric artcen ez dutela. Orra
 nun dezun, Cristau maitea, cer diran
 persona devotoac. Siniszadazu, devo-
 cioa dá atseguin guztien atseguina, ta
 virtutien Erreguina, bada Jaungoicoa-
 ren amorioaren perfeccioa dá: Jaun-
 goicoaren amorioaren esnia baldin ba-
 da, devocioa dá aren gaña, landaria
 baldin bada, devocioa dá aren lorea;
 arri precioso baldin bada, devocioa
 dá aren arguia: Balsamo guztiz ona

baldin bada , devocioa dá aren usay gozoa personac indartzen , eta Aingueruac alegratcen dituená.

III. CAPITULO A.

Conveni zayela devocioco virtutia estadu , eta empleo guztietaco personai.

Jaungoicoac mundua eguin zuenean, aguin du cien landare genero guztiai, bacoitzari cegoquion frutua eman cezatela, ala ere bada aguintcen die Jaungoicoac cristauvai, cénac dira Elizaco landare viciac, eman ditzatela devocioco frutuac, bacoitzac bere estaduaz, ta empleoaz bat. Modu diferentian ejercitatu bear dute devocioa Cavalleroac, ta oficioren batian beren vicia sortcen dutenac, Vasalloac, ta Erregueac, alargunac, doncellac, ta ezconduac; ta ez au bacarric; beguiratu biarda ere bacoitzaren indar, eguiteco, ta obligaciona orietzaz bat

bacoitzac eguin bear dituen devocio
 moduac acomodatceco. Deritzatzu,
 cristau maitia, ongui izango litzaque-
 la, Cartujuac bezala beti erretiruan
 Obispoac egon nai izatia? ; Ta ezcon-
 duac Capuchinuac baño ondasun gue-
 yago ez procuratcia? ; Ongui iduritu-
 co litzaitzuque, bere nequearequin vi-
 cia sortu bearduen oficioa persona,
 Riligioso bat bezala egun guztian Eli-
 zan egotia ; ta Religiooa Obispoa be-
 zala personac billatcen duten gauza
 guztietaraco prest beti egotia? ; Ezlira-
 que onelaco devocio moduac parra-
 garriac, burugabeac, ta ecin sufri-
 garriac izango? Aguerian dago, ta
 orregatic ere onelaco asco icusten dá.
 Ta munduac onetzaz cargu eguin ga-
 be, ta devotoen icenarequin dabil-
 zanen devocioan, ta buru gabeque-
 rian, diferentciaric cergatic eguiñ nai
 ez duen, deshonoratcen du devocioa,
 burugabequeri orien motivoa baldin
 balitzaque bezala, orretan batere cul-
 paric izan ez ta.

Ez, Cristau maitia, ez, eguiazco
 devocioac ez dú orrelaco burugabeque-
 riric, ez bada contrara guztia per-
 feccio andian ipintcen dú, ta bacoit-
 zaren estadu, ta oficioarequin ongui
 ez datorren devocioa, ez dá eguiazcoa.
 Aristotelec esaten du, loreac bat ere
 galdu gabe, lénago ceuden bezala o-
 soac, ta frescuac utcita, ateratcen due-
 la ayetatic Erliac ezta. Eguiazco de-
 vocioac orañdic gueyago eguiten du,
 ez bacarric ez dio bacoitzaren estadu,
 ta empleoari calteric eguiten, ez ba-
 da contrara, edertcen, ta perfeccio-
 natcen dú erocēñ estadu, ta ocupa-
 cio genero. Eztitan sartcen diran ar-
 ri genero guztia sartu ciranian baño
 ederragoac guelditcen dira ateratcian
 bacoitza bere colorian, ala ere ba-
 da devocioarequin, lénago zan baño
 ederragoa guelditcen dá bacoitza be-
 re estaduan. Devocioarequin familia-
 ren cuidadua atseguñagoa eguiten dá
 senar emazteen amorioa eguiazcoagoa.
 Erregue leyalago servitcen dá, ta itz

batian ocupacio genero guztia ac atse-
guñagoac, ta moitagarriagoac egui-
tén ditu devocioac.

Ez bacarric dá engañua, ez bada
bai ta ere eregia pensatcia, eciñ izan
ditequela devocioric Soldaduen arti-
an, bear guille, edo ofeciocoen artian,
Erregueen, ta ezconduen artian. Eguia
dá beti Ceruco gaucen considera-
cioan egotia, ta Moogen, ta Religio-
soen vici modua eciñ eguin dezate-
quela esan dituran persona modu guz-
tiac, baña eguin dezateque beste de-
vocio moduric. Eguin ditzateque beren
estaduaz bat beste obra on asco, ce-
ñac dirala medio izango dira eguiaz
devotoac, ta perfectoac. Eguia onen
testimonioa ematen dute beren vicitza
santuarequin Jesus mundura etorri ba-
ño lénagoco persona santu ascoc, nola
diran Abraham, Isaác, Jacob, Da-
vid, Job, Tobias, Sara, Rebeca, ta
Judit. Ta Jesus mundura etorri ez-
quero San Josef, Lidia, ta San Cris-
pin izan ciran eguiaz devotoac beren

oficioan, Santa Ana, Santa Marta,
 Santa Monica, Aquila, eta Priscila
 beren familian, Cornelio, San Sebas-
 tian, ta San Mauricio Soldaduen ar-
 tian, Constantino, Helena, San Luis,
 San Eduardo, ta beste asco, Erregue,
 ta Erreguiñetan. Baita ere ascoc gal-
 du dute perfeccioa erretiruan, au añ
 egoquia bada ere perfeccioa alcant-
 zatceco, ta beste ascoc conservatu
 dute gende tartian, ez baldin badi-
 ruri ere onec egoquia perfeccioa al-
 cantzatceco. San Gregorioc dió, Lot
 Ciudadian añ garbia izanzana, etzala
 andic campuan ala (*veguira bean*)
 izan. Eroceñ lecutan egon gaitecela,
 gure escuan dago Jaungoicoaren gra-
 ciarequin perfectoac izatia, ta ala
 procuratu bear degu.

Ez dú orregatic ere esan nai, pecatu egui-
 ten zuela.

IV. CAPITULO A.

*Ceñ bearra degun Aita espiritual
bat devocioan aprobechatzeco.*

A guindu cionean Tobias gazteari bere aitac, Rages zaritzan guizon baten gina artceco bat cobratcera jua-teco, erantzun cion, etcequiela ura vici zan errira videric. Esan cion orduan aitac, billa zazu bada araco videa eracutsico dizunen bat: orobat esaten dizut nic ere zuri, cristau maitia; ; nai dezu seguruago devociora allegatu? billa zazu bada orretaraco guizon virtuoso bat. Auda conseju guztien consejua. Besteren goviernora humildadiarequin sujetatce au da orañ dañoco Santu ta Devoto guztiac ecin gueiagoraño itcez, ta obraz consejatcen dutena, ta vide onetatic baño seguruago ez dezu iñoiz topatuco Juangoicoaren vorondatea, Juan de Avila devotoac esaten zuen

bezala. Icusiric Santa Teresac Doña Catalina Cardonac penitencia izugarriac eguiten cituela, sortu citzaion ura imitatceco deseo andia. Etcion utcinai Confesoreac bere deseoa cumplitcen, ta ala asco penatcen zan. Aimbesteraño irazaqui citzaion deseoa, ce tentatua cegoen, Confesoriari casoric eguin gabe esan deran Monjac bezala penitencia andiac eguiteco. Onetan cegoela esan cion Jaungoicoac, nere alaba, zuc vide ona, ta segurua daramazu Confesoreari obeditciarequin; ¿icusten dezu beste orrec eguiten duen penitencia? bada jaquin zazu gueiago estimatcen dera-la nic zure obediencia.

Onembesterequin. utci zuen Santa Teresac Confesorearen vorondatiaren contra bestia penitencian imitatceco ceucan deseoa, ta gueroztic aimbeste enamoratu zan obedienciao virtutiaz, ce bere Religioo Aguintariai obeditceco eguiña ceucan votoaz gañera, eguin zuen orduan bereala Con-

fesore jaquintsu , ta virtuoso bati o-
 beditceco , ta arc aguintcen cion guz-
 tia eguiteco , ta onembesterequin eciñ
 gueyagoraño consolatua guelditu zan.
 Gueroztic persona devota ascoc su-
 jetatu dute beren vorondatia echecho ,
 ta servitzarien vorondatera , onela
 Jaungoicoari obeto sujetatceco , ta as-
 co alabatcen dú au Santa Catalina Se-
 nacoac. Princesa devota Santa Isa-
 bel sujetatu citzaion obediencia mi-
 ragarriarequin Conrado Doctoriari.
 San Luise bere semeari eriotzaco or-
 duan eman ciozcan consejuetatic bat
 au izan zan ; esan cion bada escogi-
 zazu Confesore on bat , guizon pru-
 dentia , ta cer eguin bear dezun se-
 guridadearequin eracutsico dizuna.

Escritura Sagraduac dió , adizqui-
 de leyala amparu sendoa dala , ta
 topatcen duenac tesoro bat topatcen
 duela. Adizquide leyala vicitceco , ta
 iñoiz (*vegura bean*) ez iltceco erre-

Animan iñoiz ez iltcia aditcen dá , ez gorputcian

medioa dá, ta onelaco adizquidia Jaungoicoaren bildurrecoac topatcen dute. Itz santu abec, ieusten dezun bezala, cristau matia, betico vicitzara beguiratcen dute, ta onetaraco guztietan lembici conveni dana dá adizquide leyal bat bere consejuaquin, ta avisoaquin orretara encaminatuco gaituena, onela libratuco guera etsayarren lazo, ta engañuetatic.

Izango dá guretzat jaquinduriaren Tesoro bat bezala gure pena, tristura, ta nequeetan, servituco digu medicinatzat gure viotzac consolatceco eritasun espiritualetan guardatuco gaitu gaitcetic, ta lagunduco digu eguin bear degun ona obeto eguiten, ta gaitcen bat datorquigunian, eragotcico dú erlotsua izatia, artatic ateratcen gaituela.

Baña norc topatuco dú onelaco adizquidia? Jaungoicuoren bildurrecoac, erantzuten dú Espiritu Santuac; esan nai dú; guero ta gueyago obeac izatia deseatcen duten humillac to-

patcen dutela. Aimbeste importa dizun ezqueroztenic bada, cristau maitia, devocioco vide santuan vide eracustzalle onarequin ibiltcia, esca zayozu Joungoicoari eman dizazula beraren gustocoa danen bat, ta zaudzque cuidado gabe emango dizula falta gabe ona, ta leyala, orretaraco cerutic Aingueru bat bialtceco premian arquituco balitzaque ere, Tobias gaztiarequin eguin zuen bezala.

Ceruco vide eracustzalle onec izan bear dú beti zuretzat Aingueru bat; esan nai derana dá, topatcen dezunian Aita Espiritual on au; ez dezula pensatu bear, guizona dala; orregatic beragatic ez dituzula aren avisoac, ta consejuac guizonarenac bezala artu bear, baicican Jaungoicoarenac bezala, cer gatic Jaungoicoac zure provechua gatic aren aboan, ta viotcian ipinico ditu zure animaren oneraco bear dituzun gauzac, ta ala Cerutic jachitaco Aingueru bati bezala aditu bear diozu, ara eramana

zaitzan. Aguertu bear diozu zure viot-
 za claro, ta leyalqui, zure ona, ta
 gaitza claro aditcera ematen dio-
 zula, engañuric gabe, ta ecer esta-
 li gabe, onela izango dá zure ona on-
 gui examinatua, ta aseguratua, ta
 zure gaitza corregitua, ta erreme-
 diatua, izango cera zure penetan ali-
 viatua, ta sendotua, ta icasico dezu,
 nola gobernatu zure consueluetan.
 Confianza andi bat izan bear dezu ar-
 gan, baña zor zayon errespeto san-
 tuaz aztu gabe; alaco moduan ce erres-
 petuac confianza guchitcen ez duela,
 ta confianzac errespetoa eragozten ez
 duela. Confiaz zu argan doncella batec
 bere aitari dion errespetoarequin beza-
 la, errespeta zazu seme batec bere ama-
 gan duen confianzarequin bezala. Iiz
 batian, adizquidetasun onec izan bear
 dú sendoa, ta atseguña, guztia san-
 tua, guztia Jaungoicozcoa, ta guztia
 espirituala.

Orregatic esaten dú Juan de Avi-
 la veneragarriac, milla Aita Espiri-

tualen artian bat escogi zazu, baña
 nic, amar millen artian bat diot, cer-
 gatic uste degun baño guchiago arquit-
 cen dira oficio onetaraco bear bezala-
 coac. Aita Espiritualac caridadez, ja-
 quinduriaz, ta prudenciaz betia izan
 bear dú, ta iru gauza abetatic ero-
 ceñ falta bazayo, peligro andia dá;
 baña lenago esan dizurana diot ber-
 riz ere esca diozazula viotz guztitic
 Jaungoicoari; ta topatu ezquero, e-
 man zaiozcatzula berari esquerrac,
 ta etzabiltzala guero besteren billa,
 ez bada segui zazu arequin claro, hu-
 mil, ta confianzarequin, orrela eguin-
 go dezu viage zori onecoa.

V. CAPITULO.

*Devocioco videari animaco gaitzac
 garbitcetic asiera eman bear
 zayola.*

Asi dira loreac aguertcen gure er-

rian, podatceco dembora etorri dá,
 dió Espiritu Santuac. ; Ceñ dira gu-
 re viotceco loreac, cristau maitia,
 ez bada obra onac? Abec gugana
 aguertcen asi ezquero bada, artu bear
 degu itaya obra gaizto, ta ecer ser-
 vitcen ez duten guztiac gure anima-
 tic ebaquitceco. Israeldarraquin ez-
 condu nai zuen doncellac utci bear
 zuen bere cautiberioco erropa, ta
 ebaqui bear cituen azcazalac, ta illia;
 ala ere bada Jaungoicoaren semiaren
 esposa izan nai duen animac utci be-
 ar dú lenagoco izatia pecatutic eran-
 tzitzen dala, ta artu bear dú izate be-
 rria; ebaqui, ta quendu bear ditu gue-
 ro Jaungoicoaren amoriora allegatcia
 eragozten duten gauza guztiac, cer-
 gatic gure santidadiaren asiera peca-
 tuc humore gaizto guztietatic garbi-
 tuac egotia dá. San Pablo instante
 batian izan zan perfeccio guztiarequin
 garbitua, baita Santa Catalina Ge-
 nobacoa, Santa María Magdalena, San-
 ta Pelagia, ta beste asco ere. Baña

onelaco garbitcia milagrosoa , ta gu-
chitan guertatcen dana dá , illac vis-
tutcia bezala , ta ala ez du iñorc pre-
tenditu bear. Comunqui eguiten dan
garbitce , ta sendatcia ez dá eguiten
ez bada piscaca , piscaca , obetic
obeagora , pena , eta demborarequin.

Jacob Patriarcac icusi zuen esca-
lleran cebiltzan Aingueruac, egoac bal-
din bacituzten ere , etzuten egatcen ez
bada mallatic mallara bata bestiaren
ondoren jaisten , ta igotcen ciran. Pe-
catutic devociora igotcen dan anima,
egun sentiari comparatcen dá , ceñac
ez ditu batian quentcen gabaren illun-
tasunac , ez bada piscaca , piscaca.
Medicuaac esaten dute Aforismo, edo
sentencia jaquin bat , ta au dá , espa-
cio andiarequin eguiten dan sendat-
cia, dala seguruen. Animaco erita-
sunac , cristau maitia , zaldiz etort-
cen dira gorputcecoac bezala , baña
oñez , ta chit espacioz juaten dira ;
conveni da bada animo , ta paciencia
andia artcia zuc eguiteco onetan. O

cer gauza negargarría dan asco ani-
 maquin guertatcen dana! Cergatic,
 dembora lucian devocioan egercita-
 tu esquero ere, falta asco berengan
 icusten dituzten, asitcen dira inquie-
 tatcen, ta estutcen, ta animoa galt-
 cen; utcitcen dituzte beren obra on
 guztia, ta biurtcen dira beren oitu-
 ra gaiztoetara. Peligro andia ere dute
 devocioan asi orduco, falta guztietat-
 tic garbituac daudela uste izaten du-
 tenac, ta asitcen dira egatu nayan,
 perfecciora allegatu diralaco ustian.
 O cristau maitia, cer peligro andian
 dauden onelacoac lenagoco pauso gaiz-
 toetara biurtceco, cergatic bear ba-
 ño lenago atera ciran Medicu espi-
 ritualaren escuetatic. Etzaitzeltela jai-
 qui, arguitu baño lenago, jaiqui zai-
 tezte eserita egon esquero, dió Da-
 videc. Berac cumplitu zuen conseju
 santu an, bada bere pecatuen mancha-
 tic garbitua egonta ere, deseatcen zuen
 guero ta gueyago garbitcia. Pecatu-
 en manchatic, eta imperfeccioetatic

anima garbitceco egercicioa eciñ aca-
 ba diteque , ta ez du ere il arteraño
 acabatu bear. Ezgaitecela bada estutu
 gure faltac gaitic , cergatic oriei guer-
 ra eguitian dago gure perfeccioa , ta
 eciñ eguin diezaquegu guerra, ezagu-
 tu gabe , ez dá ere garaitu , topatu
 gabe. Ezdago gure victoria ez sen-
 titcian, ez bada ez consentitcian. Ez
 dá consentitcia ayec ematen diguten
 nequea sentitcia , conveni dá ere gu-
 re humildadia ejercitatceco, golperen
 batzuec batalla espiritual onetan art-
 cia , baña ez guera iñoiz garaituac,
 vicia , edo animoa galtceraño allegat-
 cen ez baguera. Imperfeccioac, ta pe-
 catu venialac ecin quendu dizaquegu-
 te animaco vicia , cergatic au pecatu
 mortala gatic bacarric galtcen dá. Gu-
 re cuidado guztia izan bear dú ani-
 moa ez galtcia. David Erregueac Jan-
 goicoari esaten cion , libra nazazu
 Jauna bildurti , ta animo guichicoa
 izatetic. Zori on andi au degu gure
 guerra espiritualean , peleatu nai izan
 ezquero , victoria irabaztia.

VI. CAPITULO A.

Pecatu mortaletic lembici garbitu bear degula.

Devocioco videan lembicico eguiñ bear deguna, cristau maitia, peccatutic garbitcia dá, ta au Confesioco sacramentu santua dala mediante logratcen dá. Billa zazu bada aldezun Confesoreric onena, artu zazu concienciaco examina ongui eguiten eracuñten duen libru bat, nola dan San Ignacio, Jaen, edo besteren bat; iracurri zazu cuidadoarequin, ta artu zazu aldezun guztia gogoan certan, ta cembat bider ofenditu dezun Jaungoicoa jayo ciñanetic onaraño. Ez bacerá fiatcen zure memorian, escribi zazu gogoratcen zaitzuna. Onela examina eguiñ ezquero, artu zazu zure peccatuaz aldezun damuric andiena; ta damu au artcera muguitceco, consideraitzatzu lau gauza abec; pecca-

tua zala motivo galdu cenuela Jaungoicoaren gracia, baita ere Ceruraco derechoa, eracarrí ceniozcala zure buruari Infernucó penac, ta despeitu cenuela zugandic Jaungoicoaren amorioa. Ongui ezagutcen dezu, cristau maitia, vicitza guztico confesio generalaren gañian itz eguiten derala. Eguia dá, ez dala beti precisoa onelaco confesio generala, baña provechu andicoa dá Jaunaren servicioan asi nai duenarentzat, ta ala viotz guztitic encargatcen dizut. Onetara mugitucó zaitu pensatciac, Jaungoicoaren bildur gabe vicitcen diranen confesioetan gueyenian utseguite andiac arquitzen dirala, cergatic ascotan ez dira confesatceco prestatcen, ta prestatcen badira ere, chit guchi, edo ez dute bear dan damuric izaten, ta ala ascotan guertatcen dá, pecatura atcera biurtceco vorondatia viotcian daucatela, comulgatcera juatia, cergatic ez dute ocasiotic igues eguiñ nai; ezta ere emendatceco bear dan

erremedioric artu nai. Onelaco confesioac eguin dituztenentzat bada chit bearra dá confesio generala beren animac aseguratceco. Orretzaz gañera confesio generalac deitzen gaitu gueren buruen ezagüerara, muguitcen gaitu gure vicitza pasatua gatic confesio provechugarri bat eguitera, ematen digu Jaungoicoaren misericordiaz arritceco motivoa, icusiric aimbeste demboran sufritu digula, sosegatcen, ta lasaitcen du gure viotza, muguitcen gaitu asmo santuetara, ematen dió ocasioa gure Confesoriari, guayena conveni zaizquigun avisoac guri emateco, ta iriquitcen digu viotza guero co confesioetan confianza guayagorequin esplicatceco. Pensatcen baldin badezu bada, cristau maitia, vicio guztietatic zure viotza garbitcia, ta Jaungoicoaren servicioan viotz guztitic asitcia ezagudezaquezu, arrazoi derala, zuri confesio generala consejatcia.

VII. CAPITULO A.

*Devociora allegatu nai duenac bigar-
rengo eguin bear duena pecatuco afi-
cioetatic viotza garvitcia dala.*

Israeltar guztia atera ciran gorput-
cez Igitotic, baña ez guztia viotcez,
motivo onengatic ayetatic ascoc sen-
titcen zuen eremu edo mendian Igi-
toco tipula, ta araguien falta, ala
cristau ascoc, pecatutic ateratcen ba-
dira ere, ez dute utcitcen peaturaco
aficioa; proponitcen dute peaturic
ez eguitia, baña atseguin zori gaiz-
tocoac gabe egoteco animoric ez bal-
din baluteque bezala; apartatcen dira
beren viotza paratua ceucaten lecutic,
baña ascotan arganontz itzultcen dira
Loten emazia Sodomarontz beza-
la; (*) utcitcen diote pecatu egui-

(*) Jaungoicoac Sodomotarrac beren pe-
catuac gatic erri ta guzti acabatu nay citue-

tiari, eriac meloia jatiari bezala; ut-
 citcen badiote ere eriac meloya jatia-
 tiari, cergatic Medicuac esaten dien,
 jaten badute, ilco dirala, orregatic
 ere inquietatcen dira beren barrenen,
 jan gabe egon bear dutelaco, itz egui-
 ten dute aren gañian, galdetcen dute
 jan ote litequian, usai badere eguiñ
 nai izaten diote, ta zori onecoac di-
 rala ura jan aldezaquetenac esaten
 dute; ala penitente argal abec atce-
 ratcen dira dembora pusca batian pe-
 catutic, baña gogo gaiztoarequin, nai-
 co luquete posible izatia, infernua
 merecitu gabe, pecatu eguitia, itz e-
 guiten dute alde batetic sentimentua-
 requin, ta bestetic gustora pecatua-

nian, Lot justua ere an vici zan, ta bes-
 tiaquin batian galdu ez cediñ, bere Ainguerua
 bialdu, ta emaztearequin, ta bi alabaquin
 andic atera zuen. Esan cien Aingueruac,
 ez cezatela Sodomarontz cer pasatcen zan be-
 guiratu, galdu ez citecen, ta orregatic ere
 Loten emaztiac beguiratu zuen, ta bereala
 gatz eguiñic guelditu zan.

ren gañian, ta badirudi envidiatcen dituztela eguiten dutenac. Bere proximoaz mendecatceco asmoa daucan peccatariac utcico dú bear bada vorondate gaizto ura confesioan; baña andic puntuco egongo dá bere adisquidien artian bere quejen gañian gozatcen, esaten duela, Jaungoicuari bildur izan ez bacion au, ta bestia egingo ciola; ta gaizquilleari barca-tu bearreco puntuan, gaitza dala Jaungoicoaren leguea, ta ojala onelaco mandamenturic ez balitz. ¿Ceñec icusten ezdu bada orañ, onelaco cristauvac utci badu ere peccatua, ez duela utci arganaco aficioa, ta gorputcez Igitotic atera bada ere, aficioz an dagoela, an jaten cituen tipula, ta baratzurien deseoa? Orobat guertatcen dá; utcitcen ditu emacume batec lenagoco amorio ciquiñac, ta orregatic ere gustatcen zayo cortejatu, ta billatua izatia. Ay cen peligro andian vici diran onelaco cristau moduac!

Cristau maitia , nai diozu venaz equin devocioco vicitzari? asmo ori baldin badezu bada , ez bacarric utci bear diozu pecatuari , ez bada baita ere pecaturaco aficioari ; garbitu bear dezu zure viotza pecaturaco aficio guztietatic , cergatic aficio oriecberriz pecatuan erortceco peligroan ipiñiaz gañera , galduco diote beti animoa zure espirituari ; alaco moduan cargatuaz , ce ez dezu indarric izango laster , erraz , ta maiz obra onetan egercitatceco , ceñian dago devocioaren izatia. Pecatua utcia gatic orañdic orrelaco aficioac dituzten cristauvac nescach opilatuai nere iritizian iduritcen dira. Onelaco nescachac eri ez daude , ta orregatic ere beren muguimentu guztietan eriac dirurite , gogo gabe jaten dute , descansu gabe lo eguiten dute , alegria gabe parra eguiten dute , ibilli baño gueyago arrastaca eguiten dute. Orobat dira bada esan dituran cristau moduac , añ il , argal , ta vicitasun guchirequin

empleatcen dira Jaungoicoaren ser-
vicioan, ce galtcen die beren eder-
tasun guztia eguiten dituzten obra
onai, ta abec ere guchi, ta valioan
ere chiquiac izaten dira.

VIII. CAPITULO A.

*Cer modutan eguin bear dan pecatu-
co aficioetatic viotza garbitce au.*

Pecatuco aficioetatic viotza garbit-
ceco lembicico videa dá chit ongui
ezagutcia ceñ gaitz andia datorren pe-
catutic. Ezagüera au dala mediante
jartcen guera damu guztiz on bat art-
ceco videan, ta nola pecatuen da-
muac, dan chiquiena izanagatic ere,
ta batez ere Sacramentuarequin batean
danian, garbitcen gaituen pecatutic,
ala ere andia, ta sendoa daniat gar-
bitcen gaitu pecatuen aficioetatic ere.
Gorroto chiqui bat asco dá guc abor-
recitcen ditugun personac eciñ icusi

izateco, ta ayec compañiatie alde eguitemo, baña gorroto andia baldin bada, ez bacarric ayec' gandic alde eguiten degu, ta aborrecitcen ditugu, ez bada etzaigu ere gustatcen, ta ecin sufritu ere degu ayen aideen, ta adisquideen conversacioa, ta orañdic guchiago tratatcia, edo onelaco gauzaren bat; alá aborrecitcen duenian cristauvac pecatua eguiazco damu, baña chiquiarequin, aborrecitcen dú pecatua, ta artcen ditu peccaric gueyago ez eguitemo asmoac, baña andia, ta sendoa danian aren damua, ez bacarric aborrecitcen du pecatua, ez bada baita ere peccatuco aficio, ocasio, ta ichequitcen zayozcan gauza guztiac. Procuratu bear degu bada, cristau maitia, aldegun damuric andiena artcia, damu au gueituaz juatia, orrela peccatuaren aficio dan chiquienetic ere garbitcera allegatceco. Modu onetan Santa María Madaglenac aimbeste galdu zuen, convertitu zanian peccatuaren gustoa, ta ayetan arquite-

cen zuen atseguña, ce etcitzaiozcan iñoiz ere gueyago gogoratu; ta Davidec esaten zuen, ez bacarric aborrecitcen zuela pecatua, ez bada baita ere pecatuco videac, ta vide chigor guztia ere. Onetan dago gure animaren vicitza berria, ceña Profeta Santuac berac Egaztien Erreguea esaten dioten Aguila daritzanarequin comparatcen dú.

Esan deran damu andia alcanzatececo ejercitatu bear dezu cuidado andiarequin oraiñ esango dizquitzuran meditacioetan, ceñac ongui eguiñ ezquero; quenduco dute zure viotcetic, Jaungoicoaren gracia mediante, pecatua, ta aren aficio principalac. Icusico dituzun moduan orretaraco paratu ditut. Bata bestiaren ondoren egingo dituzu ipiñiac dauden bezala, ta egunian bat, ez gueyago. Goician albadezu, meditacio au eguin bear dezu, cergaticura dá demboraric egoquiena orretaraco, ta erreparasatu bear dituzu goician eguiten dituzun conside-

racioac egunaz beñ ta gueyagotan zure bacarrian. Ta ez baldin badaquizu nola meditatcen dan, beguirazazu libru onen bigarren partian orren gañian cer esaten dan. (*)

I. MEDITACIOA.

GURE SORTCIAREN GAÑIAN.

IX. CAPITULOA.

ONGUI MEDITATCECO PRESTAERA.

1. *Pensa zazu fede vici batequin Jaungoicoaren aurrian, ta vistan zaudela.*
2. *Esca zayozu ongui meditatceco gracia.*

CONSIDERACIOAC.

Considera zazu lembícico, ez dala

(*) Bigarren capitulotic asi ta amargarreneraño,

orandic urte asco munduan ez ceun-
dela , ta zure izate guztia ecer eza
zala. O anima nerea! ; non gueunden
ecer ez guñan dembora artan? Aim-
beste urte bazan mundua zala , ta
ez zan gure berriric.

Considera zazu bigarren, atera cin-
duela Jaungoicoac ecer ezetic, cera-
na izateco , zure bearric batere ez
zuela , ez bada bere ontasuna gatic
bacarric.

Considera zazu irugarren , cer iza-
tia eman dizun Jaungoicoac , bada
dá munduan diran criatura guztietat-
tic principalena , beti vicitceco , ta
dan onguena Jaungoicoarequin bat
eguiteco capaza.

AFECTOAC, TA ASMOAC.

Humildu zaitez lembicio Jaungoi-
coaren aurrian. David Erregueac be-
zala viotcetic esaten diozula ; O Jauna
eguiazco ecerez bat naiz ni zure aur-
rian. ; Nola oroitu ciñan nitzaz , ni
eguiteco ? Ay anima nerea ! zu ecer

ez artan itoa ceunden, ta ala egongo
 ciñan orañ ere, Jangoicoac atera
 izan ez baciñu. ; Cér eguingo cenuea
 zuc ecer ez artan?

Emayozcatzu, bigarren, esquerrac
 Jaungoicoori esanaz, Ó nere Jauna,
 Criadore ona! cer obligacio andia di-
 zuran, bada juan ciñan nere billa ne-
 re ecer ezara, nai zana eguiteco
 zure misericordia gatic. ; Cer eguin
 dezatequet nic nere vicitza guztian
 zure icen santua bedeicatceco, ta zu-
 re caburic gabeco ontasunari gusto
 emateco?

Confesa zazu irugarren, lotsatur-
 ric zure esquer gaiztoa esanaz: Ba-
 ña ay nere Eguillia, zu amatu, ta
 servitu bearrian zure contra alchatu
 naiz guztia, nere aficio gaiztoac ga-
 tic, apartatu naiz, ta igues eguin det
 zugandic pecatuarequin, ta animaco
 paquearen faltarequin bat eguitia ga-
 tic, ez det honratu zure ontasuna,
 nere Criadoria izan ez baldin baciñan
 baño gueyago.

Humildu zaitez laugarren, gueyago, ta gueyago Jaungoicoaren aurrian, ta esa-zazu; Ó anima nerea, jaquin zazu, Jauna dala zure Jangoicoa; bera dá sortu cinduená, etciñan cerori eguin, etcenuen zuc zure burua eguiñ. Ó nere Jaungoicoa, zure es-cuetaco obra naiz ni.

ASMO ERAGUILLIA.

Ez det nay Jauna onezquero nere buruan gustoric artu nai, cer gatic nitzaz ecer ez naiz. ¿Certaz gloriatcen cera auts pusca bat izanta, edo obeto esateco, ecer eza? ¿Certaz arrotcen zera? Nere burua humiltceco, au, ta beste eguingo det. Sufrituco ditut onelaco, ta alaco desprecio, nere vici modu gaiztoa utci ta equin nai diot Jaungoicozco vicitzari, Jarraitu nay diot gaurtic aur-rera nere Criadoreari, ta honratu nay det nere burua eman ciran izatiaz, aren vorondate santua cumplitcen guztia empleatcen naizala, nere Aita

Espiaitualac eracutsico dizquidan mo-
duen videz, cénatic apartatuco ez naiz.

ACABERA.

Emayozcatzu, lenvicico, esquer-
rac Jaungoicoari esanaz. Bedeinca za-
zu nere anima Jaungoicoa, ta alaba-
zazute nere errai guztiac beraren icen
Santua, cergatic bere ontasuna gatic
atera ninduen ecer ecetic, ta bera-
ren misericordiac sortu ninduen.

Eguizu, bigarren: ofrecimentua esa-
naz; Nic ofrecitcen dizut nere Jaun-
goicoa, viotz guztitic eman cenidan
izatia, esquintcen, ta consagratcen
dizut zure honraraco.

Esca zayozu, irugarren: bere gra-
cia esanaz; Ó Jauna eguinazazu sen-
doa, afecto, ta asmo abetan. Ó Vir-
giña Maria, encomendatcitzu afecto,
ta asmo abec zure Semearen miseri-
cordiara, erregutceco obligacioa die-
teran personaquin batian. *Pater nos-
terra, ta Ave María.*

Artu zazu eguin dituzun conside-

racioetatic aldezuna gogoan egunaz
noician beñ artan pensatceco, ta be-
ti eguin bear dezu au meditacioaren
ondoren.

II. MEDITACIOA.

CERTARACO SORTUAC IZAN GUIÑAN.

X. CAPITULOA.

ONGUI MEDITATCECO PRESTAERA.

1. *Pensa ezazu fede vici batequin
Jaungoicoaren aurrian, ta vistan
zaudela.*
2. *Esca zayozu ongui meditatceco
gracia.*

CONSIDERACIOAC.

Considera zazu, lenvicico ez zai-
tuela, Jaungoicoac zure bear zalaco
ipii i mundu onetan; zure bearric ba-
tere ez dú, ez bada ipiñi zaitu zu-

requin bere ontasuna egercitatcia gatic, bere gracia, ta gloria emanaz; orregatic eman dizu entendimentua bera ezagutceco, vorondatia bera amatececo, memoria beráz oroitceco, imaginacioa beraren mesediac zure buruan iduritceco; beguiac, bere obra arrigarriac icusteco, mingaña bera alabatececo, ta onela beste sentiduac.

Considera zazu, bigarren, fiñ orretaraco Jaungoicoac sortu ta mundu onetan ipiñi zaituen ezqueroztenic, apartatu bear dituzula zugandic, ta igues eguin bear dezula fiñ orren contraco gauza guztietatic, ta despreciatu bear dituzu ere fiñ onetaraco servitcen ez dutenac, alferricaco, ta ecertaraco ez diran gauzac bezala.

Considera zazu, irugarren, cer gauza negargarria dan mundutarraquin pasatcen dana, bada ez dute onetan pensatcen, ez bada vici dira, sinistuco baluteque bezala, ez dirala bestetaraco eguiñac, ez bada echiac egui-

teco , arholac landatceco , ondasunac beren ganatceco , ta pestetan pensatceco.

AFECTOAC , TA ASMOAC.

Lotsa zaitez lénvicico , zure animaren miseria erreprendituaz , bada añ andia izandu dá , ce onetan ez dñ batere pensatu , edo pensatu badu ere , guztiz guchi : esazu , Ay nere miserabilia ! ¿Cer pensatcen nuen nic , nere Jaungoicoa , zugaran pensatcen ez nuenian ? ¿Certzaz oroitcen nintzan , zutzaz aztutcen nintzarian ? ¿Cer amatcen nuen nic , zu amatcen etcindu danian ? Ay nere miserabilia ! nere animac eguiarequin mantendua izan bear zuen , ta ni vanidadiarequin mantentcen nintzan , ta mundua servitcen nuen , berac ni servitu bearrian , orretaraco bacarric eguiña dan bezala.

Aborrecci zazu , bigarren , zure vitza pasatua , ta esazu despeitcen

zaituztet pensamentu gaizto, ta ecer-
taraco servitcen ez dezuten imagina-
cio guztiac, aborrecitcen zaituztet
oroipen gaizto, ta ecer servitcen ez
dezuten guztiac, despeitcen zaituztet
adisquidetasun gaiztoac, servicio gal-
du ta miserabliac, on eguite gaiz-
toac, gusto emate enfada garriac.

Jarri zaitez irugarren, Jaungoicoa-
requin itzquetan, ta esayozu; O ne-
re Jaungoico, ta Salvadorea, emen-
dic aurrera zugan empleatuco ditut
nere pensamentu guztiac, ez det iñoiz
ipiñico nere burua zuri gustatcen et-
zaizquitzun gaucetan. Nere vici guz-
tian beteco det nere memoria nere-
quin izan dezun ontasun andiaren con-
sideracioarequin. Zu izango cera ne-
re viotzaren consuelo guztia, ta nere
aficioen atseguin guztia. Orañ daño
izan dituran eraqueri, ta jostaquetac,
orañ daño egunac pasatcen nituen
provechu gabeco egercicioac, orañ
daño nere viotza esclavo eguñic ceu-
caten aficioac emendic aurrera gogoan

joco naute, ta onetaraco valiatuco na-
iz onelaco, ta alaco erremedioaz (*).

ACABERA.

Emayozcatzu lénvicio, esquerrac
Jaungoicoari, cer gatic fiñ onetaraco
eguin cinduen. Esayozu: Zue cedor-
rentzat eguiñ nazu, Jauna, zure glo-
ria andia beti gozatceco. ; Noiz me-
recituco det, Jauna? ; Ta noiz be-
deicatuco zaitut obligatua nagoen
bezala?

Eguiozu, bigarren, ofrecimentua
esanaz: Ofrecitcen dizquitzut, nere
Criadore maitia, nere anima, ta viotz
guztiarequin afecto, ta asmo santu
abec guztiac.

Erregu zayozu, irugarren, esanaz:
Erregutcen dizut Jauna, zure gusto-
coac izan ditecela nere afecto, ta as-
moac, ta emandio zazula nere ani-

(*) Aita Espiritualarequin consejaturic
cedorre daquizquitzanaz, ta Aita Espiri-
tualac ematen dizquitzanaz.

mari zure bendicioa, abec cumplit-
ceco zure Seme maitiac ni gatic gu-
rutcian isuri zuen odol precisoaren
merecimentuac gatic. *Paternoster,*
ta Ave Maria.

Artu zazu eguin diuuzun conside-
ratioetatic alde zuna gogoan, egunaz
noician beñ artan pensatceo.

III. MEDITACIOA.

JAUNGOICOAC EGUIN DIZQUIGUN
MESEDEEN GAÑIAN.

XI. CAPITULOA.

ONGUI MEDITATCECO PRESTAERA.

1. *Pensa zazu fede vici batequin,*
Jaungoicoaren aurrian, ta vistan
zaudela.
2. *Esca zayozu ongui meditatceco*
gracia.

CONSIDERACIOAC.

Consideratcitzu, lénvicico, Jaun-

goicoac eman dizquizun gorputceco doayac. Cér gorputza! Cér convenien-
ciac orrentzat! Cér osasuna! Cém-
bat consuelo modu on gorputzarent-
zat! Cér adizquideac! Cér lagut-
ceac bear dituzun gaucetan! Baña
consideratcitzu gauza abec beste as-
co personaz oroituaz, batzuec osa-
sunaren faltarequin beren gorputz guz-
tia ecerez biurturic daucatela, bes-
tiac burlaz, desprecioz, ta deshoñraz
beteric daudela, beste batzuec go-
sez consumituric, ta Jaungoicoac ez
dú nai izandu, zu aiñ desgraciatua
izatia.

Consideratzitzu, bigarren, eman
dizquitzun animaco doayac. ¿Cém-
bat persona dira munduan tontuac,
eroac, buru jauciac? ¿Ta cer gatic
etzera zu ayectaco bat? Cér gatic Jaun-
goicoac favorecitu nai izan zaituen.
¿Cémbat dira animalien guisa, ta
ignorantzi andian azi diranac? Eta
zuri Jaungoicoaren providenziac eman
cizun, crianza on, ta arrazoyazco bat
izateco, dicha.

Consideratzitzu, irugarren, eguin dizquitzun animaco mesediac. Ó cristau maitia, zu Eliz Ama Santaren semeetacoa cera. Uso arrazoezcotic eracutsi dizu Jaungoicoac nola bera ezagutu. ¿ Cémbat bider eman dizquitzu bere Sacramentu Santuac? ¿ Cembat bider pensamentu santuac, animaco arguiac, ta erreprentioac zure enmiendaraco? ¿ Cémbat bider libratu zaitu jarri ciñan galizeco oca-sioetatic? ¿ Eta zure vizitzaco urte guztia ez dira izandu, zure anima-ren onian aurreratze-co dembora, ta convenientcia? Considera zazu pis-cabat gauza abetan guztietan, ceñ at-seguiña, ta ona izan dan zuretzat Jaungoicoa.

AFECTOAC, TA ASMOAC.

Arritu zaitez, lénvizico, Jaungoicoaren ontasunaz ta esazu: Ó ceñ ona dan Jaungoicoa neretzat! Ó ceñ ona dan! Ó Jauna, ceñ erruquitsua, ta ceñ bera izan dan zure vrotza

neretzat! Ó anima nerea, esan dezagun bein, ta gueyagotan, cémbat mesede eguin dizquigun Jaungoicoac.

Arri zaitez, bigarren, zure esquer gaiztoaz, ta esazu; Baña Jauna. ; Cérnaiz ni, nitzaz zu orrela oroitzeo? Ó ceñ gaiztoa naizan! Ay! ez nuen casoric eguin eguin dizquidatzun mesedeaz. Despreciatu det zure gracia, zure ontasanaren contra, artiaz valiatuaz. Zure neurri gabeco ontasunari, neurri gabeco esquer gaiztoarequin erantzun diot.

Mugui zaitez irugarren, esquerrac ematera, ta esazu: Ea bada anima nerea, ez dezazula emendic aurrera esquer gaiztocoá, eta legue gabea izan nai onguille aín andiarentzat, ez bada leiala, ta esquer onecoá. ; Ta nola ez dezu eguingo emendic aurrera Jaungoicoaren vorondatia imbeste mesede, gracia, ta gauza-zoragarri zuri, ta zugatic berac eguinta?

Ea bada, cristau maitia, apartazazu zure gorputza cerorrec daquiz-

quitzun onelaco, ta alaco gustoeta-
 tic; sugeta zazu aibeste orren gatic
 egnin duen Jaungoicoaren serviciora;
 egercita zazu zure anima, Jaungoicoa
 ezagutceco, eta eguin diozcan mese-
 deac pagatceco, egoquiac diran eger-
 cicio santuetan. Aprovecha zaitez cui-
 dado andiarequin zure anima salvat-
 ceco, ta Jaungoicoa servitceco Elza-
 Santuan dituzun medioaz. Ala eguiñ
 go det. Maiz oracioa e uingo det eta
 maiz erre cibituco ditut Sacramen-
 tuac. Maiz juango naiz Jaungoicoaren
 itz Santua aditzera, ta cumplituco
 ditut Jaungoicuac ematen dizquiran
 pensamentu, ta consejuac.

ACABERA.

Emayozcatzu, lénvecico, esquer-
 rac Jaungoicoari orañ eman dizun zu-
 re obligacioaren ezagüera gatic, ta e-
 guiñ dizquitzun mesede guztiena gatic.

Ofreci zayozu, bigarren, zere viot-
 za, artu dituzun asmo santu guztia-
 quin.

Esca zayozu, irugarren, eman ditzazula orieci ongui cumplitceco gracia bere Seme Divinoaren eriotzaren mercedimentuac gatic. Ipiñitzatzu bitarteco Ama Virgiña, ta beste Santuac. *Pater nosterra, ta Ave Maria.*

Artu zazu eguin dituzun consideracioetatic aldezu gogoan, egunian noician bein artan pensatceco.

IV. MEDITACIOA.

PECATUEN GAÑIAN.

XII. CAPITULOA.

ONGUI MEDITATCECO PRESTAERA.

1. *Pensa zazu fede vici batequin Jaungoicoaren aurrian, ta vistan zaudela.*
2. *Esca zayozu ongui meditatceco gracia.*

CONSIDERACIOAC.

Pensa zazu, lezuecico, cembat dem-

bora dan ya pecatu eguiten asi ciñala, ta cembat gueitu diran zure viotcian asi ciñanetic onaraño; nola egunero gueitcen juan ceran Jaungoicuaaren, progimoaren, ta zure burua-
ren contra pensamentuz, itcez, obraz, ta deseo.

Consideratzitzu, bigarren, zure griña gaiztoac, ta nola seguitu dituzun; ta bi puntu abetatic ezagutuco dezu, buruco illiac, ta itsasoco ondar aleac baño gueyago dirala zure pecatuac.

Considera zazu, irugarren, esquet gabetasuneco pecatua. Au pecatu generala dá, beste guztietara zabaltcen dana, ta esan alditequien baño andiagoac eguiten ditu. Beguira zazu bada, cembat mesede eguiñ dizquitzun Jaungoicoac, ta nola guztiazaz bera ofenditzeco valiatu ceran. Batez ere cembat pensamentu, ta eguin dizquitzun viotzeco dei despreciatu dituzun! Baña beste guztiaz gaiñ. ¿Cér eguiñ dira aimbeste confesio, ta comuniotic atera dituzun frutuac? ¿Cér

eguin dirá frutu abec, cefiaquin valio andico joyaz jantzi zuen zure anima Jesus bere Esposoac? Zure maldadiac beguietatic ayenatu dituzte. ; Cér prestaerarequin Sacramentu orieci errecibitu dituzu? Pensa zazu ongui zure esquer gabe onetan, ta nola Jaungoicoa, zu salvatzeco, beti zure billa ibilli bada ere, zu beti aren iguesi ibilli ceran, orrela zure anima galtzeco.

AFECTOAC, TA ASMOAC.

Lotsa zaitez, lénvico, zure esquer gaiztoa gatic, ta esazu; Ó nere Jaungoicoa! ; nola atrevitzen naiz zure aurrian jartzera? Ay nere erucarria! Ez naiz Jauna munduco zornibat, esquer gabe, ta gaiztaqueriaco putzu andi bat baicic. ; Nola izandu naiz Jauna orreñ esquer gaiztocola? ; Nola empleatu ditut nere vicitzaco egun guztiac, nere sentidu, ta potencia guztiac zu ofenditzen? Ó nere erucarria! ; Pagu au eman bear nion

nerre Criadore, ta Erredentoriari aintz
beste in sede gatic?

Esca zayozu, bigarren, Jaungoicoa-
ri barcacioa. Etzin zaitez Jaungoicoa-
ren onetan bere aitac eman cion ha-
cienda galdu zuen semea bezala, Mag-
dalena bezala, ta adulterio genero guz-
tiac eguin dituen emacume bat bezala,
ta esazu: O Jauna, erruqui zaitez pe-
catari andi onetzaz! Ay nere miserabilia!
O misericordiaren iturri vicia! erruqui
zaitez arren miserable onetzaz.

Artu zazu, irugarten, vicitza mu-
daitceco asmoa, ta esazu: Ez raiz Jau-
na, inoiz ere gueyago zure gracia la-
gun derala peccatura itzulico. Ay nere
errucantia! ; Cér beste gauzaric eguiri
det orañ daño, ez baldin bada esan
al baño gueyago peccaua amarcia? A-
borrecitcen det, Jauna, ta utcitcen det
vlotz guztitic ta arren lecuñan zu art-
cen zaitut. O misericordiaren Aita,
zurequin vici, ta il nay det nic.

Orañ dañoco peccatuetatic garbitceco,
acusatuceo natz animo andiarequin, ale-

ric ni gantic hota gabe, ta utci gabe.
 Eguirgo der aleguiña nere pecatuen
 sustrai guztiac nere viotetic ateratce-
 co, ta batez ere araco nequeric an-
 diena ematen diratenac. Onetaraco ar-
 rucio ditut beti ematen zaizquiran con-
 sejuac, ongui ezaguturic; aleguiña e-
 guña gatic ere, ez naizala iñoiz alle-
 gatuco, edo ez dala posible izango,
 aimbeste pecatu gatic bear dan satis-
 facioa ematia.

ACABERA.

Emayozcatzu esquerrac Jaungoicoa-
 ri, cer gatic orañ daño ichoron dizun,
 ta cer gatic asmo santu abec eman diz-
 quirzun.

Ofreci zayozu zure viotza, oriec cum-
 plitceco.

Esca zayozu orretaraco bere gracia.

V. MEDITACIOA.

ERIOZAREN GAÑIAN.

XIII. CAPITULOA.

ONGUI MEDITATCECO PRESTAERA.

1. *Pensa zazu fede vici batequin,
Jaungoicoaren aurrian, ta vistar
z audela.*
2. *Esca zayozu ongui meditatceco
gracia.*

CONSIDERACIOAC.

Considera zazu ceñ ez jaquiña dán
il bear dezun eguna, ta esazu: O ne-
re anima! atera bear dezu egunen ba-
tian gorputz onetatic. Baña noiz ote?
; Neguan, edo udan izango ote dá?
; Ciudadian, edo erri chiquiren bati-
an? ; Errian, mendiyan, edo videren
batian? ; Urtan, edo legorrian? ; Gu-
chiena uste dezunian, edo contuan zau-

dela? ; Eritasunen baten medioz, edo
 accidenteren baten medioz? ; Izango
 ote dezu confesateco demboraric? Asis-
 tiruco ote dizu zure Confesoriac? Ay
 nere miserabilia! oneratic guztitic ecer
 ez daquit. Bacarric daquigu, il bear
 degula, ta-guc lste degun baño le-
 nago izargo dá.

Considera zazu, bigarren, acabatu-
 co dala orduan mundua zuretzat, ta
 goicoa becoaz giratuco dala zure aur-
 rian. Bay ala guertatuco dá, cergatic
 emengo atseguñac, vanidadiac, mun-
 ducó gustoac, honrac, ta ondasunac,
 iduripenac, ta engañuac idurituco za-
 izquigu. Ay nere miserabilia! Cér aur-
 queriac gatic, ta engañuac gatic ofen-
 ditu nuen nere Jaungoicua! Ezagutuco
 dezu orduan, utsa gatic Jaungoicoa o-
 fenditcen degula. Baña contrara; de-
 vocioa, ta obra onac estimagariac,
 ta atseguñac idurituco zaizquitzu or-
 duan. Esango dezu orduan. ; Cér ga-
 tic ez det oraiñ daño vide aiñ atse-
 guña, ta ederra seguitu? Oraiñ chi-

quiac iduritzen zaizquitzun pecatuac
 orduan mendiya arimbarecoac iduritu-
 co zaizquitzu, ta zure devocioa chiquia.

Considera zazu, irugarren, cër des-
 peida necosoa zure animac mundu o-
 netzaz eguingo duen. Despeituco dá
 ondasunetatic, vanidadetatic, adizqui-
 de eroetatic, emengo atseguin, ta pes-
 tetatic, aide, ta auzocoetatic, guraso,
 ta humeetatic, senar, ta emaztea gandic,
 itz batian, criatura guztien gandic,
 baita bere gorputza gandic ere, ceña
 oriya, izugarria, itzusia, ta usai gaiz-
 tocoa utcico dú.

Considera zazu, laugarren, ceñ di-
 ligentiac ibillico diran gorputz ori len-
 bait len beguetatic quentceco, ta lut-
 pian estaltceco, ta gueroztic ez dala
 mundua zutzaz gueyago oroituco, ez
 dala zuc lenago iltciranaz cenduen ba-
 ño oroipen gueyago zutzaz izango. Ba-
 tec, edo batec balitzaque esango duela,
 Jaungoicoac bere glorian guerra deza-
 la, ta onembesterequin acabatuco dá
 guztia. ¡ O eriotza guchi consideratua,
 baña ongui itzugarria!

Considera zazu, bostgarren, gorput-
cetic anima ateratcen danian artcen due-
la escuyera, edo ezquerrera bere vi-
dea. Ay! ; zurea nora juango ote dá?
; Cér vide izango óte dú? ; Escuye-
coa, edo ezquerrecoa? Jaquiña dago,
ez duela mundu onetan merecitu zue-
na besteric izango.

AFECTOAC, TA ASMOAC.

Erregutu zayozu, lénvicio, Jaun-
goicoari, ta beraren besoetan entregatu
zaitez esanaz: Artu nazazu arren, Jau-
na, egun izugarri artan zure amparu-
pian. Indazu ordu ura zori onecoa,
ta nere aldecoa, naiz beste guztiac tris-
tiac, ta penagarriac izan ditecela.

Desprecia zazu, bigarren, mundua
esanaz: O mundu engaña garria! cer
ordutan utci bear zaituran ez daquidan
ezqueroztenic, bereala utci nai zaitut,
ta ezdet zurequin adizquide eguinic e-
gon nay. O nere adizquide maiteac,
nere aire estimatuac, eramán zazute
arren ontzat beti iraun aldezaquien a-

dizquidetasun santuaren aficio baño gue-
lago zuei nic ez izatia. ; Cér servitu-
co dú ni orañ zuequin amorioan bat
eguitia aimbeste costaco baldin bazait
guero zuen gandic apartatcia?

Asi zaitez, irugarren, bereala bes-
te munduraco prestatcen; ta esazu: Ber-
tatic asi nai det beste munduraco pres-
tatcen, orrela logra dezadan, zori o-
necoa izatia erremedio gabe eguin bear
deran araco viagea. Paratu nai det al-
dan onguiena nere conciencia ta emen-
datu nai det onelaco, ta alaco faltetan.

ACABERA.

Emoyozcatzu esquerrac Jaungoicoa-
ri eman dizun asmo santu onen gatic.
Ofreci zayozu berari asmo santu ori.
Erregu zayozu berriz eriotz on bat e-
mateco bere Seme Divinoaren eriotza
gatic. Paratcitzu bitarteco Ama Virgi-
ña, ta beste Santuac. *Pater noster*
ta Ave Maria.

Artu zazu eguin dituzun considera-
ciotatic aldeguna gogoan, egunian noi-
cian beñ artan pensatceco,

VI. MEDITACIOA.

AZQUEN JUICIOCO EGUNAREN GAÑIAN.

XIV. CAPITULOA.

ONGUI MEDITATCECO PRESTAERA.

1. *Fede vici batequin pensa zazu, faun-
goicoaren aurrian, ta vistan zaudela.*
2. *Esca zayozu ongui meditatceco gracia,*

CONSIDERACIOAC.

Considera zazu, lembicico, nola mundu zu acabatceco señalatuac dauden egunac cumplitcen diranian señale izugarrien ondoren, ceñac gatic bildurac icara, ta ecertaraco ezdira a egongo dira pessenac, etorrico da su izugarri andi bat, ta auts izulico diru lurreco gauza guztiac bat bacarra ere utci gabe. Considera zazu bigarren nola su izugarriaren ondoren, lenago vistuac ez dauden guizon, ta emacume guztiac vistuco

diran, ta Aingueruaren deyara aguertuco diran guztiaç Jos fateco celayan. Baña ai cer diferencia andiarequin! Batzuec egongo dira gorputz gloriosoaquin, ta ederraquin, bestiaç gorputz nascagarri, ta izugarriaquin.

Considera zazu irugarren, cer anditasun izugarri - arequin aguertuco dan guztion Jueza, Aingueruz, ta Santuz ingutaua, bere gurucia Eguz quiaç baño arguiago ematen duena bere aurrian duela, justuentzat paquearen señaletzat, ta gaiztoentzat justiciaren señaletzat.

Considera zazu, laugarren, nola guztion Juezac, naita nai ez guztiaç obediuco duten modu izugarrian, aguinduco duen, aparta ditecela gaiztoac justuen gändic, ta jarri ditecela justuac escoiyan, ta gaiztoac ezquerrian. Betico berestia izango dá ura, ta ez dira gueroztic gaiztoac, ta onac alcar ganatuco.

Considera zazu bostgarren, nola onela gaiztoac justuen artetic apartatu ez-

quero, iriquico diran conciencietaco libruac, ta icusico dá claro gaiztoen gaiztaqueria, ta Jaungoicoaz eguin zuten desprecioa, ta beste alderic ber-
 riz justuen penitencia, ta eguin cituz-
 ten obra onac, ta ez dá gueldituco ecer
 ere aguertu gabe. O cer lorsa, ta des-
 dicha gaiz oena, ta cer consueloa jus-
 tuena!

Considera zazu, seigarren, gaiztoai
 emango zaien azqueneco sententia, ce-
 ña dan; zuazte madaricatuac betico su-
 ra Luciferrentzat, ta bere lagunentzat
 prestatura.

Consideratcitzu, itz izugarri abec,
 zuazte esango die; au dá betico bere
 vistatic desterraturic, bere gandic beti-
 co desamparacia. Bigarren, madarica-
 tuac esango die. O anima nerea, cer
 maldicioa dan au! gaitz guztia bere-
 gan sartcen diruen maldicioa. Iñoiz mu-
 datuco ez dana, dembora guztietan, ta
 eternidade guztian betico suarequin ba-
 rian beti iraungo duena. Considera zazu
 nere anima eternidade izugarri au. O pe-

nataco eternidadia , ceñ izugarria ceran !

Considera zazu beste aldetic justuen
sentencia : Atozte e sango die Juezac. O
cer itz zoragarri zori onecoa dan au !
ceña dala mediante Jaungoicoac bere-
ganatcen gairu , ta amorioz beteric art-
cen gairu. Bigarren esango die : Ne-
re Aitaren bedeincatuac. O zori one-
co bendicioa beste bendicio guztiac be-
regan sartcen diruena ! Azquenic e-
sango die : goza zazute munduaren a-
sieratic zuentzat prestatua dagoen Errei-
nua. ; O Jauna , cér mesedea ! cergatic a-
caberatic gabeco Erreino zoragarria izan-
go dá ori.

AFECTOAC , TA ASMOAC.

Ycara zaitez , lembicico , nere ani-
ma oroipen onequin.

O Jauna , ceñec aseguratuco nau e-
gun onetaraco , ceñian Ceruco abeac (*)
ere icara eguingo dute ?

(*) Esan nai dú Aingueru , ta Santuac
ere moduren batian icaratuco dirala , San
Juan Crisostomoc dion bezala.

Aborretcitzu, bigarren, zure pecatuac, cer gatic orieci bacarric galdu zaitzateque egun izugarri artan. Esazu, neronec nai det orañ juzgatu nere burua, egun izugarri artan juzgatu izan ez nadin. Examinatu nai det nere conciencia, gaiztotzat ezagutu nai naiz. Acusatu, ta corregitu nai naiz. Juez guztien Juezac egun artan condenatu ez nazan. Confesatuco naiz bada, ta artuco ditut gogoz ematen zaizquiran avisoac.

ACABERA.

Emayozcatzu esquerrac Jaungoicoari cer gatic eman dizquitzun egun izugarri artan aseguratceco moduac, ta cer gatic eman dizun penitencia eguiteco dembora.

Ofreci zayozu orretaraco zure viotza. Esca zayozu gracia zure pecatuac gatic satisfacioa bear bezala emateco. *Pater nosterra, ta Ave Maria.* Artuzazu consideratu dezunetic alde zuna gogoa, egunian noician beñ artan pensatceco.

VII. MEDITACIOA.

INFERNUAREN GAÑIAN.

XV. CAPITULOA.

ONGUI MEDITATCECO PRESTAERA.

1. *Pensa zazu fede vici batequin, Jaungoicoaren aurrian, ta vistan zaudela.*
2. *Humildu zaitetz, ta esca zayozu ongui meditatceco gracia.*

Eguizu contu zaudela erretcen dagoen Ciudade illun, ta azufrezco, ta piquezco usai gaiztoa banatzen duen batian, ta iñoiz andic ateraco ez diran gendez betia dagoenian.

CONSIDERACIOAC.

Considera zazu, lénvico, nola condenatuac zori gaiztoco Ciudade biten battenen bezala dauden Infernuan, ta nola eciñ esan ditezquian bezalaco, pe-

nac padecitcen dituzten beren sentidu,
 ta miembro guztietan, cer gatic nola
 guztiaac empleatu cituzten pecatuan, ala
 guztietan padecitcen dituzte mereci di-
 tuzten pecatuaren penac. Beguiac beren
 beguiratce gaizto, ta lujuriosoac gatic
 padecituco dituzte pena izugarriac De-
 monioen, ta Infernuaren vistrarequiñ.
 Belarriac, cer gatic gauza gaiztoac a-
 ditcen gozatu ciran, ez date iñoiz a-
 dituco negarra, garras'a, ta desespera-
 cioa baicic. Onela beste gañeco senti-
 du, ta miembroac.

Considera zazu, bigarren, nola tor-
 mentu abetzaz gañera izango duten con-
 denatuac esan diran guztiaac baño an-
 diagoa. Auda gloriatic, ta Jaungoicoa-
 ren arpeguia icustetic betico desterra-
 tuac egotia. O nere Jaungoicoa, bal-
 din Absalonec gueyago sentitcen ba-
 zuen bere Aita David icusi gabe ego-
 tia, erbestian desterratua egotia baño,
 cer pena izango ez dá zure arpegui-
 atseguñ, ta alegrea icusteco esperant-
 zatic gabe vici bearra!

Considera zazu, irugarren, batez ere,
 pena ayen betico irautia, ceñac bacar-
 ric eguiten dú sufri ez garría infernua.
 Baldiñ belarrian sartcen zaigun arcacu-
 su bat, edo calentura pisca bat asco ba-
 da, gau labur bat guri lucia, ta pe-
 nagarría eguiteco, ; céer izugarria izan-
 go ez dá eternidade guztico gauba aim-
 beste tormenturequin batian? Betico e-
 ternidade oneratic sortutcen dira betico
 desesperacioac, Jaungoicoaren contraco
 caburic gabeco ernegu, ta errabiac.

AFFECTOAC, TA ASMOAC.

Icara zazu zure anima Jaungoicoac
 Isaias Profetaren abotic esaten dituen
 itzaquin. O anima nerea, ; nola sufri-
 tucó dituzu zuc betico sú, ta gar izu-
 garriac? ; Nai dezu zuc zure Jaungoi-
 coa gandic betico desterratua guelditu?

Aitor zazu, ascotan au mereci izan
 dezula. Esa zazu: emendic aurrera con-
 traco videa artu nai det. ; Cérraco na-
 bil infernura jechitceco diligencietan?

Ez ; gaurtican aurrera eguingo ditut pe-
catutic alde egureco ezagutcen diuran
ta eracusten zaizquiran diligenciac.

Emayozcätzu esquerrac Jaungoicoari
eman dizquitzun alecto , ta asmo san-
tuac gatic. Ofreci zayozcätzu oriec be-
rari , ta esca zayozu oriec cumplitce-
co gracia. Paraitzatzu bitarteco Ama
Virgüña , ta beste Santuac.

Pater nosterra , ta Ave Maria Artu
zazu eguin dituzun consideracioetatic
aldezuna gogoan , egunian noician beñ
artan pensatceco.

VIII. MEDITACIOA.

CERUCO GLORIAREN GAÑIAN.

XVI. CAPITULOA.

ONGUI MEDITATCECO PRESTAERA.

1. *Pensa ezazu fede vici batequin
Jaungoicoaren aurrian ; ta vistan
zaudela.*
2. *Esca zayozu ongui meditatceco
gracia.*

CONSIDERACIOAC.

Ecarri zazu lénvici gogora gau eder bat goi arguí, ta guztia izartua dagoana, ifar aice atseguin pisca bat bañic sentitcen ez dala. Considera zazu cer g uza atseguina dan Cerua icustia aimbeste izar ederrez jantcia. Batu zazu orañ orrelaco gau baten edertasuna egunic dan ederrenarequin. Eguzquiaren arguiac izarrac, ta Illarguia icustia arratsian baño gueyago eragozten ez duela, ta esazu guero zure artian, edertasun au guztia ecer ez dá Ceruco gloriaco edertasunaren aldian. O ceñ maitagarri, ta deseagarria dan lecu ura! O ceñ zoragarria dan Ciudade ura!

Considera zazu cembat, ta ceñ zoragarriac diran zorioneco Ciudade artan vici diranac. Milloi, ta milloi Aingueru, Querubin, ta Serafin, Apostolac, Martiriac, Confesoriac, Virginiac, ta emacume Santac eciñ conta diztezquien arimbat. O ceñ zori onecoa dan

alaco compañia ! Ayetaco dan chiquiena mundu au baño ascoz ederragoa dá. ¿ Cér izango dà guztia batian icustia ? O Jauna ceñ zori onecoac diaran , bada beti amorio santuaren canta cantatcen daude , beti gozatcen dute acabatcen ez dan alegria. Alegratcen dute guztia alcar eciñ esan ditequien arimbat , ta zori oneco , ta iñoiz galduco ez dan adisquidetasuneco consueloan vici dira.

Considera zazu azquenic , cer zori ona duten Jaungoicoaz gozatcen , ceñac pagatcen dizquie eguiñ cituzten obra onac bera icuste atseguña requiñ , ceña dala medio betetcen dú ayen viotza eciñ conta ala consueloz. ¿ O cer zori on andia dan izatia emancionarequin bat eguiñic egotia ! Zori onetaco chori batzuec bezala daude an beti egatcen , (*) ta cantatcen Jan-

(*) Ez dú esan nai ; choriac bezala egatcen dutela , ez bada , entendimentuarequin ezaguteen , ta vorondatiarequin beti amatcen daudela.

goicotasuneco aide artatic, ceñac in-
guratcen ditu alde guztietatic eciñ
conta ala consuelorequin.

IX. MEDITACIOA.

BERRIZ ERE CERUCO GLORIAREN GAÑI-
AN INFERNUCO PENAQUIN COMPARATU-
TA EA CEIÑ ESCOGITCEN OTE DEZUN,

XVII. CAPITULOA.

ONGUI MEDITATCECO PRESTAERA.

1. *Pensa zazu fede vici batequin,
Jaungoicoaren aurrian, ta vistan
zaudela.*
2. *Humildu zaitex beraren aurrian
escatcen diozula bere gracia.*

CONSIDERACIOAC.

Eguizu contu lénvico, soro zabal
batian zaudela zure Aingueru guar-
dacoarequin batian Tobias gaztia Ra-
ges gana cijuanian San Rafaelequin

cegoan bezala , ta eracusten dizula
 Aingueruac an goyan iriquia Ceru-
 co gloria lenago consideratu dituzun
 aibat consuelorequin ; beste aldetic
 eracusten dizula iriquia infernua au
 consideratu guenuenian esan guenitu-
 en aibat tormenturequin. Pensa za-
 zu bada , au guztia icusten zaudela
 zure Aingueru guardacoaren aurrian
 belaunico jarriric.

Considera zazu bada , ez dagoela
 dudaric Ceruaren , ta Infernuaren ar-
 tian zaudela , ta nola Cerua , ala In-
 fernua iriquiac daudela zu errecibit-
 ceco , biétatic ceñ zuc escogitcen de-
 zun , ta emen eguiten dezun auque-
 rac jaungo duela beti beste mun-
 duan. Eta biac iriquiac badaude ere
 zu errecibitceco zure auqueraz bat ,
 ta Jaungoicoa prest zuri emateco edo
 infernua bere justicia gatic , edo Ce-
 rua bere misericordia gatic , orre ga-
 tic ere eciñ gueyagoraño deseatcen
 dú zuc Cerua escogitcia , ta zure Aia-
 gueru guardacoac laguntcen dizu or-

retaraco bere indar guztiaquiñ, escañtcen dizquitzula Jaungoicoaren par-tetic milla gracia, ta laguntze, ara igotcera animatceco.

Considera zazu, bigarren, nola Je-sus ona bere amorioarequin Cerutic zure beguira dagoen, ta nola con-vidatcen zaituen omorio andiarequin esanaz; atoz nere anima maitia, be-tico descantsura nere ontasunaren be-soetan, bada prestatu dizquitzu ne-re ontasunac amorio andiarequin iñoiz acabatuco ez diran consueloac. Be-guira zazu ere convidatcen zaituela Ama Virgiñac esanaz: animo cristau maitia, ez ditzatzula despreciatu nere semearen deseoa, ez da ere zure sal-vacioaren deseoz nic eguiten dituran suspirioac.

Beguira zazu nola Santuac animat-cen zaituzten, ta eciñ conta ala ani-ma santac amorioz convidatcen zai-tuzten, beste deseoric ez dutela, ez bada beraquin bat eguiñic, egunen ba-vian zu icustia Jaungoicoa alabatcen,

ta aseguratcen dizute ; ez dala munduac uste duen beceñ necosoa Ceruco videa. Ta viorz guztitic esaten dizute : cristau gure viorcecoa , consideratcen duenac ongui gu ibilli guñan devocioco videa , ezagutuco dún unduco consuelo guztiaç baño consuelo atseguñagoetaco videtic orañ gozatcen ditugun consueloetara allegatu guñala.

AUQUERA, EDO ELECCIOA.

Ó infernua , nic aborrecitcen zaitut orañ , ta betico : aborrecitcen ditut zure pena , ta tormentuac , aborrecitcen det zure zori gaiztoco eternidadia , ta batez ere nere Jaungoicoaren contra beti eguiten dituzun ernegu , ta maldicioac. Eta zu , Paradiso eder , betico gloria , eta iñoiz acabatuco etceran zori ona , nere viorz , ta anima guziarequin zugana biurturic , escogitcen det nere betico vicilecua , ta jarlecua zure guela eder , santu , ta zoragarrietan. Bedeincatcen

det, nere Jaungoicoa, zure misericordia, on irizten diot, ta artcen det zure misericordiac eguiten diran escaña. Ó Jesus nere Salvadora on irizten diot zure betico amorioari, ta prestatu dirazun Ceruco gloriari, ta artcen det ez aimbeste beste gatic, nola beti zu amatu, ta bedein-caticia gatic.

On iñtz zayezu Ama Virgiñac, ta beste Santuac escañtcen dizquitzuten mesedeai. Emayezu itza aien ganaco vidian ibillico cerala. Esca zayozu zure Aingueru guardacoari, orretaraco lagun dizazula. Anima zazu orretara zure anima.

X. MEDITACIOA.

CRISTAUVAC DEVOCIOCO VICITZAZ EGUITEN DUEN AUQUERAZCO MODUAN.

XVIII. CAPITULOA

ONGUI MEDITATCECO PRESTAERA.

1. *Pensa zazu fede vici batequin,*

Jaungoicoaren durrian ta vistan
zaudela.

2. Esca zayozu ongui meditatceco
gracia.

CONSIDERACIOAC.

Considera zazu lembicico, ta pensa zazu berriz mendi aparte batian zure Aingueru guardacoarequin bacarric zaudela, ta icusten dezula ezquerreco aldian infernucico demonioa, edo Lucifer jargoi, edo tronu chit altu batian beste demonio ascoz inguratua, baita ere mundutar ascoz, ceñac buruac aguirian dituztela, ezagutzen, ta servitzen dute beren nagusitzat, batzuec pecatu bategatic, bestiac bestiegatic. Beguira zazu, cer errespeto andian dauden Erregue gaiztoaren servitzari zori gaiztoco ayec. Beguiratzitzu batzuec gortotoz, envidiaz, ta coleraz betiac, bestiac bata bestia ilizen, bestiac beren colore guztiac galduric, ta i, arturic nondic mun-

duco ondasunc gñeituco dituzten pen-
satzen, bestiac munduco honra, va-
nidade, ta pestetan, bestiac lujurio-
soac, galduac, ta ustelduac beren
gusto eiquiñetan. ¿Ezdezu icusten no-
la abec guztiac descansu gabe, ta
ecertan orden onic gabe dauden? Be-
guira zazu, nola batat bestia despre-
ciatcen duten, ta eguiatco amorioric
alcarric ez dioten. Itz batian, icusi-
co dezu Demonioaren memplan Er-
republica negar garri bat, esclavo guz-
tiac baño gaizquiago tratatua, zure
viotza lastimatuco duena.

Pensa zazu beste aldetic, icusten
dezula zure escoyeco aldian Jesus
Crucificatua, escatcen diola amorio
fiñ batequin bere Aita Eternoari De-
monioaren servicioan esclavo eguiñic
vici diran miserable abec gatic, e-
man diezala bere gracia Demonioa-
ren mendetic ateratceco, ta berac e-
re bera gana deitcen diela. Beguira
zazu, nola bere Aingueruaquin ba-
tiau eciñ conta ala cristau devotoz

inguratua dagoen. Beguira zazu, devorioso Erreino au ceñ ederra dan. Ceñ gauza atseguña dan aimbeste doncella, guizon, ta emacume lino guztiac baño ederragoac icustia. Aimbeste emacume alargun humildade, ta mortificacio santuaz betiac. Beguira zazu, aimbeste persona ezconducer paque, ta amorioan vici diran, alcarri bear dan errespetua ecartcen diotela, ceña Jaungoicoaren amorio andi gabe logratuco ez luteque. Beguira zazu, nola cristau devoto abec beren echeco gaucetan bear duten atencioa gatic beren animari bear dioten atencioaz aztutcen ez diran, ta nola gauza abec biac alcarrequin juntatcen dituzten. Oro bat ezconduac alcarri izan bear dioten amorioa Jaungoicoaren amorioarequin. Beguira zazu, nola guztiac orden santu, atseguñ, ta maita garrian vici diran, Jaungoicoac cer esaten dien aditcen, al duten guztia beren viotcetan imprimitceco deseoz. Alegratcen dira,

baña alegría atseguin, amoroso, ta
 bear dan moducoarequin. Amateca
 dute alcar, baña amorio garbi, ta
 santuarequin. Nai gabeac gatic ez di-
 ra asco penatcen, ta ez dute ere pa-
 ciencia galtcen. Azquenic Jesusen be-
 guiac consolatcen ditu, ta aren gra-
 ciac guztia eguiten die.

Uzi dezu nosqui, cristau maitia,
 aditu dituzun eguien medioz Satanas
 bere compania zori gaiztoan aguer-
 tuarequin, baña etzera orregatic ere
 Jesus zure Erregue gana allegatu, ez
 ta ere aren devotoen compania santua-
 requin bat eguin, ez bada beti egon-
 du cera devotoac diranen, ta ez di-
 ranen erdian. Ama Virginiac, San Jo-
 sec, San Luiseac, Santa Monicac, ta
 munduaren erdian vicitu ciran eciñ
 conta alac convidatcen, ta animat-
 cen zaituzte. Jesus crucificatuac be-
 rac zure icenarequin deitzen dizu, ta
 esaten dizu: Atoz nere maitia, atoz
 coroatu zaitzadan.

¡O mundua! O tropa gorrotogarria; ez nazu zure banderen jarrai inoiz gueyago icusico. Utzi ditut betico zure vanidade, ta eraqueriac. O Lucifer soberviaren Erreguea, O zori gaiztoco erreguea, nic despreciatzen aut ire vanidade guztiaquin, nic aborrecitzen aut ire obra guztiaquin.

Eta zu Jesus nere viotzecoa, Erregue zori oneco, ta betico gloriacoa, zugana, zugana biurtzen naiz, ta lattan eltzen dizut nere animaco indar guztiaquin, adoratzen zaitut nere viotz guztiarequin, escogitzen zaitut orañ ta betico nere Erreguetzat; ta ematen dizuran itzaren prueba gueyagoraco, betico sujetatzen naiz zure legue, ta mandamentu Santuen obedientziara.

O Virgīna Santa, nere ama maitia, nic escogitzen zaitut Ceruco videaren eracustzalletzat, jartcen naiz zure banderapian, ta errespeto, ta erre-

verentzia especiala ofretcitzen dizut.

O nere Aingueru Santua, presenta nazazu eguiazco devotoen compañaia; ez nazazula desamparatu bereaquin Ceruco gloriara allegatu arteraño, ta Cerutar guztiaquin batian esaten det, ta esango det eguiñ deran auqueraren prueban: *Vici bedi Jesus, Vici bedi Jesus.*

XIX. CAPITULO.

CONFESIO GENERALA NOLA EGUIN BEAR DAN.

Esan dituran meditacioac bada dira, cristau maitia, guc bear degun fiñeraco chit egoquiac. Orietan egercitate ezquero zuaz bereala humidade ta animo andi batequin confesio general bat eguitera, ta contu, etzaitecela arren inquietatu gogoraizen zaizquitzun ilusioac gatic. Lupuac picatzen duenian pozoya dú, baña aren olioac beraren contraco erremedio

andia dá. Pecatu, eguiteco demboran
 lotsagarria dá, baña confesatzian, ta
 aren penitencia eguitian, gauza hon-
 roso, ta ona dá. Pecatu en danua, ta
 confesioa añ ederrac, ta usai oneco-
 ac dira, ce quentzen diote pecatuari
 bere itzusiasun, ta usai gaiztoa. Si-
 mon Leprosoac Maria Magdalenari
 peccataria deitu cion, baña ez Jesu-
 sec, ta etzuen aren uquenduen, ta
 amorio andiaren ez bada, beste gau-
 cetan itceguiñ. Eguiaz humillac bal-
 diñ bagueña, cristau maitia, etzaigu
 gustatuco peccatua, ez bada aborre-
 tucog degu, cergatic Jaungoicoa are-
 quin ofenditu degun, baña urá con-
 fesatzia, gauza gozoa ta atseguña i-
 zango dá guretzat, cergatic Jaungoi-
 coa orrequin honrratzen dá. Ez dá
 alivio chiquia eriyarentzat Medicua-
 aren gaitzaz ongui informatzia. Con-
 fessoriaren aurrian jartzen ceranian,
 pensa zazu zaudela Calvarioan Jesus
 crucificatuaren oñetan, ceñaren gor-
 putz guztitic zure gañera erortzen dá

odola, pecatu guztietatic garbitzeco, bada ez baldin bada ere odol ura berá confesatceco demboran peccatarien gañera erortcen, aren merecimentuac erortzen dira, ceñac bustitzen dituzte galanqui peccatariac confesonarioan. Iriqui zazu bada ongui zure viotza, atera ditecen andic confesioa median-te pecatu guztiac, cer gatic ayec nola ateratzen diran, ala sartuco dira Jesusen pasio santuco merecimentuac, zu bendicioz betetzeco.

Acordatzen ceran guztiaz ongui, ta zure satisfaciara acusatu ezquero; adi zazu humildade andiarequin Jaungoicoaren Ministroac consejatzen, tá aguintzen dizuna, zure viotzarequin esaten dezula: *itz eguizu Fauna, bada zure esclavoac aditcen dú.* Bay cristau maitia, Jaungoicoa dá an aditcen dezuna, bada berac esan zuen bere Ministroac gatic; zuec aditzen zaituztenac, ni aditzen nau. Artu zazu guero escuan seguitzen dan protesta, ceñac servituco dizu zure con-

fesioa ongui acabatzeco. Considera zazu lénvici ongui, iracurri zazu cuidadoz aldezan sentimenturic andiarequin.

XX. CAPITULOA.

Jaungoicoa servitceco asmoa viotcian ongui sartceco, ta confesioa ongui acabatzeco protesta, edo Jaungoicoari bere servicioan empleatceco ematen zaion itza.

Nic, consideraturic, Jaungoicoaren ontasunac nitzaz criatura ecer ez, ta miserable onetzaz, berac ecer ece-tic sortu, conservatu, mantendu, aimbeste peligrotic libratu, ta mesedez bete naven onetzaz izan duen neurri gabeco misericordia, baña batez ere consideraturic, cer ontasun andiarequin sufritu diran nere pecatuetan, aimbeste pensamentu on emanaz, emendatzera convidatuaz, pe-

catuac utcitera paciencia andiarequin
 nere vicitzaco urte onetaraño ichoro-
 naz , aren paciencia galtceco asco izan
 ez derala aimesteste pecatu , ta esquer
 gaizto , ceñaquin nere conversioa lu-
 zatuaz bere gracia añ gaizqui despre-
 ciatcen derala , ofenditu deran , consi-
 deraturic ere , nola nere batayo santu-
 co egunian beraren semea izateco Jaun-
 goicoari zori onian ofrecitu izan nint-
 zan , ta orduan nere icenian eguintzan
 entrega , ta eman zan itza aimeste bi-
 der faltatu derala , ta ura cumplitu bea-
 rrian Jaungoicoaren beraren contra ibi-
 lli naizala ; onetzaz guztiaz cargu e-
 guinic bada , ezagutcen det , ta aitort-
 cen det Erregue guztien Erreguearen
 Magestadiaren contra gaizqui eguin de-
 rala , ta Jesusen eriotzan , ta pasioan
 nere pecatuac dirala motivo culpante
 naizala , ta ala guztia gatic betico e-
 riorza mereci derala.

Baña nere pecatu guztia aborreci-
 turic , ta guztietzaz eguiaz damaturic

Jaungoico Eternoaren misericordiaren
 Tronura biurtzen naizala, deitzen diot
 alderan humildaderic andienarequin, ta
 escatzen diot nere pecatuen barcacioa
 nere Jesusen eriotza, ta pasioa gatic,
 onetan bacarric confiatuñ berritzen det
 nere icenian batayo santuan eguin zan
 escaña, ta Jaungoicoari eman citzaion
 leyala izateco itza, despeitzen derala
 orduan bezala deabrua, mundua, ta
 araguaia, ta aborrecitzen diturala oraiñ
 ta betico diabruaren tentacio, vanida-
 de, ta atseguñ gaizto guztia.

Biurtzen naiz nere Jaungoico on, ta
 misericordiosoa gana, ta deseaten det,
 proponitzen det, ta asmoa artcen det
 betico orañ, ta beti bera servitceco, ta
 amarceco, onetaraco ematen diot, ta
 consagratcen diot nere espiritua bere
 indar guztiaquin, nere anima bere po-
 tencia guztiaquin, nere gorputza be-
 re sentidu guztiaquin, ta ematen diot
 itza, nere izatiaz ecertan ere gaizqui
 ez usatceco beraren vorondate santua-
 zen contra, ceñara sujetatcen, ta ofre-

aitcen naiz beti criatura obediente,
ta leyala izateco, ta ez det au iñoiz
ere ucatu nai, ezta ere onetzaz iñoiz
damutu nai.

Ta baldin noiz bait deabruaren ten-
tacio, edo nere argaltasuna gatic guer-
tacen bazait, asmo santu aben contra-
cer bait eguitia, orañ bertan artcen det
asmoa Espiritu Santuaren gracia dala
mediante bereala jaiquitceco, ta Jaun-
goicoaten misericordia bereala billatce-
co. Au dá nere betico vorondatia, in-
tencioa, ta asmoa, ceñian consentit-
cen det, ta nere Jaungoicoaten aur-
rian, guztian confirmatcen det, baita
ere Cerutar guztien aurrian, ta nere
Eliz Ama Santarenian, ceñac, aurrian
daucadan bere Ministroaren personan
asmo, ta aitormen au aditcen dit.

Ta zuc nere Jaungoico Eternoa, guz-
tiz poderoso, ta guztiz ona, Aita,
Semea, ta Espiritu Santua, confirma-
zazu arren nere asmo santu au, ta ar-
tu zazu amorioz nere viotz guztitic e-
guiten dizuran sacrificio au; ta eman

dirazun bezala gracia, asmo santu au
 artceco, indazu ere cumplitceco. O
 nere Jaungoicoa! zu cera nere Jaun-
 goicoa, nere viotceco Jaungoicoa, ne-
 re animaco Jaungoicoa, nere espiritua-
 ren Jaungoicoa, artacotzat ezagutcen
 zaitut, ta adoratcen zaitut orañ, ta
 beti. *Vici bedi Jesus.*

XXI. CAPITULOA.

Animaren lenvicico garbitce onen acabera.

Protesta au eguinta ondoan aditzate
 zu atencio andi batequin ta viotz guz-
 tiarequin zure animaren Salvadoriac mi-
 sericordiaren jargoya, edo Tronuan
 jarriric Aingueru, ta Santu guztien au-
 rrian esango dituen absolvicioco itzac,
 emen munduan aren Ministroac absol-
 vicioa ematen dizun demboran bertan.
 Eta Cerutar guztiac zure zori onaz a-
 legraturic, cantatuco dute contentu an-
 diarequin canta espirituala, gracian, ta

santidadian jarri dan zure viotzari pa-
quezco , ta adisquidetasuneco laztanga
gogoaz ematen diotela.

i O Jauna! O nere cristau maitia ,
ceñ zoragarria dan ajuste au , bada au
dala mediante eguiten dezu Jaungoi-
coarequin tratu guztiz zoragarri bat ,
cergatic zu berari entregatciarequin , be-
ra irabazten dezu , bai ta ere cere bu-
rua Ceruco gloriaraco. Ez dá bada bes-
te gauzatic falta , ez bada pluma ar-
tu , ta zure protesta firmaticia , ta be-
reala aldarera juatia , non Jaungoicoac
ere firmatucó dú , ta sellatucó dú zu-
re absolvicioa , ta Ceruco gloriáz e-
guingo dizun promesa , jartcen da-
la bera bere Sacramentua mediante se-
llu bat bezala zure viotz berrituan.

Deritzat , cristau maitia , garbitua
guelditucó dala zure anima modu one-
tan pecatutic , ta pecatucó aficioetatic.
Baña cer gatic abec erraz berritcen di-
ran animan gure argaltasuna gatic , ta
grña gaiztoac gatic , (ceñac egon di-
tezteque mortificatuac , baña ez illac

vici gueran vitartian) orregatic eman-
 go dizquitzut aviso batzuec, ceñac on-
 gui cumplitcen badituzu, guardatuco
 zaituzte pecatu mortaletic, ia aren a-
 ficio guztietatic, pecatu mortalic iño-
 iz zu ganatu ez dedin. Baña cer ga-
 tic aviso abec berac servitcen duren
 perfeccio gueyagorequin anima garbit-
 cera allegatceco, orregatic aviso abec
 eman baño lenago esan nai dizut cer-
 bait perfeccio gueyagorequin anima
 garbitce onen gañian, ceñara deseat-
 cen det zu eramatia.

XXII. CAPITULO A.

*Garbitu bear dala anima pecatu
 venialataco oficioetatic.*

Eguna cembat eta arguiagoa dago-
 an, aibat eta claroago icusten ditu-
 gu ispilluan gure arpeguico falrac, eta
 manchac; ala ere bada cembat eta an-
 diagoa dan gure conciencia ezagutce-

co Espiritu Santuac ematen digun arguia, ambat eta claruago icusten ditugu gure pecatuac, grñac, ta egui-azco devocioa alcantzatcia eragotci dizaqueguten faltac; ta falta aben ezagüera ematen digun arguiac berac irazquitcen gaitu gure anima gueyago, ta gueyago garbitceco deseoa.

Esan dituran egercicio santuac dira la medio pecatu mortal, ta ayen aficiotic garbitu bacera ere, cristau maitia, ezagutuco dezu, dituzula orañdic zurre animan pecatu venialataraco grña, ta aficioac. Ez dizut esaten, ezagutuco dituzula pecatu venialac, ez bada ayetaraco grña, ta aficioac. Gauza chit diferentiac dira, pecatu venialac, ta aietaraco grña, ta aficioa. Eciñ egon gaitezque dembora lucian pecatu vinialetan erori gabe, baña utci dezaquegu ayen aficioa.

Gauza bat dá guchi importatcen duen guezur bat chanchetan esatia, ta beste bat dá guezurra esaten gozatcia, ta orretaraco aficioa izatia.

Diot bada garbitu bear dala anima pecatu venialetaco aficio guztietatic ; e-san nai det , ez duela cristauvac iru-qui bear asmoric pecatu venial bat bacarra ere eguiteco , cergatic Jaungoicoari amorio guchi izatia izango litzaque berari aimbeste nai gabe ematen dion gauzan , nola dan ofenditeco asmoan vicitcia. Pecatu venialac , dan chiquiena izanagatic , gu betico galtceco motivoa emateraño ez bada ere , beti ematen dio nai gabia Jaungoicoari , beti dá aren disgustocoa , ta baldin pecatu veniala ez bazayo gustateen , pecatu venialari zaion aficioa , Jaungoicoari nai gabea emateco asmoan vicitcia besteric ez dá ; ta izango dù viotza anima noble batec , ez bacarric Jaungoicoari nai gabea emateco , ez bada baita ere asmo orretan vicitceco ?

Aficio abec , nere cristau maitia , devocioaren etsayac dira , pecatu mortaleraco aficioac Jaungoicoaren amorioaren etsayac diran becela. Pecatu venialeraco aficio abec guchitcen diozca-

te espirituari indarrac, eragozten dituzte Jaungoicoac animari ematen diozcan consueloac, iriquitcen die atia tentacioai, ta ez baldin badute ere anima iltcen, ipintcen dute azqueneco eritasunian. Espiritu Santuac dio, uquendo gozoan iltcen diran ebliac, galtcen diotela uquenduari bere gozotasuna. Esan nai du, ebliac uquendutic jan ta viciric ateratcen badira, ez dutela uquendua galtcen, jan zutena besteric baña uquenduan iltcen badira, quentcen diotela bere estimacioa, ta galtcen dutela; ala bada pecatu venialac cristauva gana allegatu agatic ez baldin badira an luzaro egoten, ez diote calte andiric eguiten, baña aficioa mediante an luzaro guelditcen badira, calte andia eguiten diote, ta galtcen dute uquenduaren gozotasuna; au da, devocio santua.

Armiarmac ez dituzte erliac iltcen, baña gastatcen, ta galtcen dute eztiya, ta eukzan eguiten dituzten amamaquin bear eguitia eragozten die. Au adit-

cen da an luzaro daudenian; ala ere bada pecatu venialac ez dú anima iltcen, baña aitutcen dú devocioa, ta aibeste ocupatcen ditu animaco potencias aficio, ta griña gaiztoaquin, ce eciñ erraz eguin ditu animac Jaungoicoaren gauzac, ta erraz gauza abec eguitian dago devocioaren izatia; baña au aditcen dá aficio gaiztoen videz pecatu venialac luzaro animan guelditcen diranian. Ez dá calte añ andiric, cristau maitia, guezur chiquiren batian noizbat descuidatua gatic, conversacioan, cer eguinetan, beguiratician, erropa, pesta, jocu, danza, edo beste gauzaren batian falta chiquiren batian eroria gatic, armiarma espiritual abec gure animan sartcen diran beciñ laster ayen damua dala mediante atcera campora botatcen baditugu, erliac armiarma corporalac bezala, baña utcitcen badiegu gure animan guelditcen, ta ori asco ez dala, ayerara aficionatcen baguera, laster icusico degu gure animaco estiya, au dá

levocioa , galdua , ta gure animaco
 ultza cutsatua , ta calte andiarequin.
 Ta ala diot berriz ere. ; Nola izan-
 go dú gustoá anima noble batec bere
 Jaungnicoari nai gabia ematen ? ; No-
 a aficionatuco da aren disgustocoa iza-
 era , ta nola gustatuco zayo , Jaun-
 goicoari gustatcen ez zayola ezagutcen
 duen gauza ?

XXIII. CAPITULO.

*Garbitu bear dala viotza ecer servitcer
 ez duten ta peligrosoac diran gau-
 cen aficioetatic.*

Jocnac , danzac , pestac , apaintce an-
 diac , convire andiac , ta comediac ez
 diraz berez gauza gaiztoac. Ez dira be-
 rez ez onac , ta ez gaiztoac , cer ga-
 tic eguin ditezque ongui , edo gaiz-
 qui , orregatic ere beti peligrosoac di-
 ra , ta abetara aficionatcia , orandic
 peligrosoagoa dá. Diot bada , cristau
 maitia , jocatcia , danzaticia , apaintcia ,

comedia garbiac icustia , conviteac e-
 guitia cillegui izana gatic , orregatic
 ere gauza abetaraco aficioa devocioa-
 ren contrarioa , calte garria , ta guztiz
 peligrosoa dala. Ez da berez gauza
 gaiztoa noiz edo noiz gauza abec e-
 guitia , baña bai abetara aficionatcia.
 Espirituco calte andia dá gure viotcian
 aficio eroai lecu ematia , cer gatic a-
 ficio onac ocupatu bear lutequian le-
 cua ocupatcen dute , ta eragozten du-
 te anima gueyago , ta gueyago Jaun-
 goicoaren amorioan irazaquitcia , ta o-
 bra on gueyagoren deseoan sartcia.

Legue zarreco , Jaungoicoari consa-
 gratcen ciran personac , ez bacarric et-
 zuten ardoric eran bear , ez bada ez
 dá mats eldu gabecoen uric ere , ez
 dá ere jan matsaric ; ez , cer gatic mat-
 sac , ta mats eldu gabecoaren urac mos-
 cor cizaquian , ez bada , cer gatic pe-
 ligroa dá mats eldu gabecoaren ura pro-
 batu ezquero , matsa jateco deseoan
 sartceco , ta au probatu ezquero , mus-
 tioaz zaletcecco , ta guero ardoa era-

teco. Ez det esan nai gauza peligroso abetzaz ecin usa ditequeala, ez bada esaten derana, ta ciertotzaz daucadana dá, gauza abetan aficioa ipintcen badegu, gure devocioa gaitceco peligro andian jarrico dala.

Oréñac jánaz aseac daudenian, eza- guturic astunac daudela, ta iñorc jarraitcen badie erraz arrapatuco dituela, beren iguestoquietara juaten dira, ta anchen gordetcen dira. Guizonaren viotza ecer servitcen ez duten, ta peligrosoac diran aficio abetzaz cargatu ezquero astuna dago Jaungoicoaren servicioan agudo, laster, ta erraz empleatceco, ta onetan dago, devocioaren izatia. Aurrac ingumac, edo mariposac esaten dietenaz aficionatcia, ta ayen ondoren ibiltcia etzayo iñori gazqui iduritcen, cer gatic aurrac dira ta juicioric ez dute; ; Baña ezlitzaque gauza parragarria, edo obeto esateco gauza negar garría izango persona e- guñac onelaco eraquerietara aficionaturic, ta ayen ondoren icustia, ceñac

écertaco ez servituaz gañera pararcer
gaituzte ayec arraparacia gatic gure bu
rua choratceco , ta golpe bat artceco pe
ligroan ? Orregatic esaten dizut , cris
tau maitia , eguin bear dezula alegui
ña aficio abetatic zure viotza garbice
co , cer gatic jocatcia , edo beste one
laco gauzaren bat noiz , edo noiz e
guitia devocioaren contracoa beti ez ba
da ere , baña abetaraco aficioa devocio
aren etsaya da beti.

XXIV. CAPITULO A.


*Garbitu bear dala viotza griña
gaiztoetic.*

Baditugu ere , cristau maitia , jator
rizco griña batzuec , ceñac , cer gatic ez
dira eguin ditugun pecatuetatic sortuac ,
ez dira beréz ez pecatu mortalac , ta
ez venialac , ez bada imperfeccioac ,
ta abetatic sortcen diran utseguitiai fal
tac deitzen zaye. Comparaciona , San
ta Paulac , San Geronimoc dionez , gri
ña guztiz andia zuen triste , ta melan

coli egoteco , aïmbesteraño , ce guchi-
gatic bere seme , ta senarraren eriotza
gatic penaren penaz vicia galdu erzuen.
Au imperfeccioa zan , ta ez pecatua ,
cergatic bere vorondatiaren contra zuen.
Batzuec dira chit tratabliac , bestiac con-
trara. Beste batzuec setadunac beren
iritcietan , bestiac enfadatcen , ta cole-
ratcen errazac , bestiac amatzera incli-
ñatuac ; itz batian , apenas izango dá
imperfeccioen bat ez duen personic.
Ta jatorrizcoac badira ere imperfeccio
abec , orregatic ere erremediatu ditez-
que cuidadoaren , ta orien contraco erre-
medioaren medioz , ta allega gaitezque
ere guztiro gugandic quentcera. Ta si-
nis zadazu , cristau maitia , guztiz con-
veni dala , au aleguiña procuratcia. Al-
mendra samiñac gozoac eguiteco mo-
dua arqutu baldin bada , ayei zuloa
eguiñ ta ezaquia , edo humore sami-
ña ateratciaz besteric gabe , cer gatic
ez ditugu guc ere grña gaiztoac gu-
gandic botaco , obiac eguiteco ? Ez dá
genio añ onic costumbre gaiztoaquia

gaiztotu ecin direqueanic, ala ere ez dá
genio añ gaiztoric Jaungoicoaren gracia-
requin bacoitzac eguin ditzquian diligen-
tziaquin quendu eciñ direquianic.

Orañ eman nai dizquitzut, cristau
maitia, aviso, ta ejercicio santu barzu-
ec, ceñac dirala medio garvituco de-
zu zure anima aficio peligroso, ta im-
perfecioetatic, bai ta ere pecatu ve-
nialen aficioetatic; onela aseguratuco de-
zu gueyago ta gueyago zure anima pe-
catu mortalian erortcetic. Dizula Jaun-
goicoac ongui eguiteco bere gracia.



DEVOCIOZCO VICITZARACO

*Sarreraren bigarren partia, ceñian
ematen dira auzo batzuec oracioa, ta
Sacramentuac dirala mediante anima
Jaungoicoagana jasotceco.*

I. CAPITULO.

Ceñi bearra dan Oracioa.

Oracioac, cristau maitia, arguitzen du gure entendimentua Jaungoicozco arguiarequin, ta gure vorondatia gauza onen amorioco vidian ipintcen dú, ta ala ez dá gauzaric gure entendimientua bere ignorantcietatic, ta vorondatia aficio gaiztoetatic aibeste garbitcen duenic. Au dá bendicioco ura, ceñaren intzac berdetcen, ta loratcen ditu gure deseo santuen landariac, garbitcen ditu gure animac beren imperfeccioetatic, ta iltcen dió viotzari bere grña gaiztoen egarria.

H

Baña guztietan gueyena Oracio mentala encargatcen dizut , ta batez ere ; eta viotz guztitic gure Salvadoriaren vicitzaren , ta eriotzaren gañian eguiten dana. Beguiratzen diozula onela maiz berari consideracioa mediante , zure anima guztia aren izatez jantzico dá , icasico dezu beraren modestia , ta zure obrac aren antzera eguingo dituzu. Bera dá munduco arguia , ta orregatic beragan , ta berarequin gracia , ta arguia artu bear dezu. Bera dá deseoen arbola , ta aren guerizpian frescatu bear guera. Jacob Patriarcaren iturri vieia dá , ta gure mancha guztietatic garbitu bear guera. Guztia itz batian esateco ; aurrac beren amai adituaren pasioz , ayen itzcuntza icasten dute , ala guc ere meditacioa mediante gure Salvadorearequin tratatuaz , ta aren itzai , obrai , ta deseoi contu artuaz , icasten degu , aren gracia mediante , berac bezala itz eguiten , deseatzan , ta obrac eguiten. Ezagutu zazu bada , cristau maitia , chit conveni dala au considera-

zia ta sinis zadazu, eciñ sartu diquela
 ñor Jaungoicoa gana, ez bada gure
 Salvadorearen vicitza, ta eriotzaren
 consideracioetatic. Cer gatic, nola ez-
 litzaquien posible izango ispilluan gure
 gueren burua icustia, ez balegoque is-
 pillua atzetic estañuarequin edo beru-
 narequin estalia, ala ez litzaque posi-
 ble izango Jaungoicotasuna gure mun-
 du onetan ongui contemplazia, ezbal-
 diñ balegoque gure Salvadorearen gui-
 zatasunarequin bat eguiña, ceñaren vi-
 citza, ta eriotza dira gauzaric egoque-
 nac, atseguñiac, ta gozoenac baita ere
 provechugarrienac gure meditaciona-
 co. Ez deritza Jaun oni Cerutic jachi-
 taco oguia beste gatic, ez bada cer ga-
 tic nola oguia jaqui genero guztiaquin
 jan bear dan, ala gure Salvadoriac ere
 izan bear dú meditatua, consideratua,
 ta billatua gure oracio, ta obra guztie-
 tan. Beraren vicitza, ta eriotza bear
 bezala paratuac, ta puntu diferentie-
 tan partituac daude libru ascotan gu-
 re meditacionaco obeto acomodatzeo,

nola diran S. Buenaventurarena, Fray Luis de Grada, Aita Luis de la Puenterena, ta beste asco, eta batez ere orañ esan dituranac, asco encargatcen dizquitzut.

Iruqui zazu egunero albadezu ordu beteco oracioa eguardia baño lenago, ta aldan guztian goicetic, corgatic auda demboraric onena, bada orduan dago eroceñ disposicio obian. Ez dedilla ordu batetic igaro, zure Aita Espiritualac beste gauzaric aguintzen ez badizu. Baldin badezu modua Elizan eguiteco, errazago, ta obeto eguingodezu; ta Elizan ordu bat pasatzia ez aitac, ez amac, ez emaztiac arrazoyarequin eragotzi dizaquezu. Ta besteren méndian egonagatic, ez dezu topatuco egun guztian ordu bat libre, oracioa eguitco? Eroceñ oracio, dala mentala, dala abozcoa Jaungoicoaren presenciatic asi bear dezu, auda, oracioa asitzian Jaungoicoaren aurrian, ta berarequin izquetan zaudela pensatu bear dezu, onela beardan errespetoa-

requin egon zaitecen, ta bear bezala oracioa eguin dezazun. Advertencia onetzaz beti oroi zaitez, ta dembora guchiren buruan icusico dezu, cein provochugarria dan. Ta consejaten dizut Pater nosterra, Ave Maria, ta credoa latinez errezatzeco, baldin badaquizquitzu, ta entenditzen badezu zure itzcuntzan cer esan nai duten. Conseju au ematen dizut, Elizaco itzcuntzan oracio oriec errezatzian orien sentidu miragarrian, ta atseguinian gusto artzia logra dezazun. Ta oracio oriec zure potencia, ta sentidu guztietaco atencio andi batequin errezatu bear dituzu, ez presaca asco errezatzia gatic, ez bada espaciaz viotzetic, cer esaten dezun consideratuaz, cer gatic espaciaz viotzetic esaten dan Pater noster batec gueyago balio du, corrica devocio gabe esaten diran ascoc baño.

Errosarioa chit errezo ona da, bear bezala eguiten bada, billa zazu onetarraco errezo au ongui eguiten eracusten duen libruren bat. Da ere gauza ona

Jesusen, Ama Virginiaren, ta Santuen letaniac, ta ontzat emanac dauden beste asco oracio errezatzia; baña eman baldin badizu Jaungoicoac oracio mentaleraco doaya, orrec eramán beardu zure atencioric principalena; alaco moduan, ce zure cer eguin andien, edo beste gauzaren baten motivoz eciñ errezatu dituzunian usatzen dituzua aozco oracioac, etzaitecela estutu, egizu oracio mentala, ta lenago edo gueruago esazu Pater nosterra, Ave Maria, ta Credo.

Abozco oracioan zaudela, ezagutzen badezu, zure viotzac oracio mentalera, edo consideraciona deitzen zaituela emayozu consueloa zure viotzari consideracionan jartziarequin, ta ez dezazula ecertan artu eguiten ceunden abozco oracio ez acabatzia, cer gatic eguiten-dezun oracio mentala Jaungoicoaren gusto gueyagocoa, ta zure animarentzat provechugarriagoa dá. Au aditzen dá obligaciozcoac ez diran abozco oracioetan, cer gatic obligacioeo er-

rezoa baldin bada , ari seguitu bear zayo , bada lenago dá obligacioa , devocioa baño.

Pasatzen bazaitzu noiz bait zure ocupacio andien motivoz , edo beste motivoren baten gatic goiz guztia oracio mentala eguin gabe , ceña aldan guchienenian guertatcia procuratu bear dezuz , atera zazu goiceco falta arratsaldian , baña ez barazcalduta bereala . cer gatic jana digeritu baño lenago meditacioan asitcen bacera , loac tentatucocozaitu ; izan liteque ere calte garriazure osasuneraco . Eciñ eguin badezu egun guztian meditacioa , atera zazu ororen falta viotz guztitic eguiten diran oracio labur batzuequin , nola diran , *O Fauna , lagun zadazu , O Fauna , ceña onaceran , O Fauna , amätzen xaitut viotz guztitic* ; edo beste onelacoren batzuequin , baita ere librucho on baten lecioa mediante , izan dezun faltan aurrera emendatceco servi dezaquien penitenciaren batequin ; ta eguizu arequin bat , emendatceco , ta oracio mentalia seguitceco proposito firmia .

II. CAPITULO A.

Meditatcen icasteco erregla labur, eta erraz bat, ta lembicico Jaungoicoaren presencian gañian, ceña dá prestaeraren lembicico puntua.

Balitzaque, cristau maitia, oracio mentala nola eguiten dan zuc ez jaquia, bada au dá gauza bat dembora onetan *mal de pecado* guchic daquiena. Orregatic orañ orretaraco modu labur bat eracutsi nai dizut, ta guero libru santuen leccioa mediante, ta batez ere meditatceco ejercicioa mediante cerori jaquintsuagoa eguingo cera. Lembicico, ongui meditatzececo prestaera ipifico dizut, ta onen izatia bi puntutan dago. Lembicicoa da, Jaungoicoaren presencian jartcia, bigarrena, beraren gracia escatzia, Jaungoicoaren presencian edo aurrian jartzeco paraco dizquitut lau vide principalenac, ceñaz valia zaitezque asiera onetan.

Lembicico videa dá fede vici batequin sinistia, ta pensatcia Jaungoicoaren presencia; au dá Jaungoicoa guztian, ta guztia dagoala, ez dala munduan gauzaric ceñian presente ez dagoen, alaco modutan ce, nola choriac eroceñ lecutara egadezatela, beti aire, edo aicia topatcen duten, ala guc ere eroceñ lecutara juan gaitecela, edo egon gaitecela, Jaungoicoa presente topatuco degu beti. Eguia au eroceñec daqui, baña guchic fede viciarequin consideratcen dute. Ichuac beren aurrian baldin badaucate Principe edo personaje andiren bat, jaquin ezquero, beguiz ez icusia gatic errespetatcen dute, baña orregatic ere nola beguiz icusten ez duten, erraz aztutzen dira aurrian daucatenaz, ta onela errazago galtzen diote errespetoa, ta erreverencia. Ay cristau maitia! ez degu guc icusten aurrian daucagun Jaungoicoa, ta fedeac esaten badigu ere, nola beguiz icusten ez degun, erraz artzaz aztutzen guera, ta gugandic chit urruti

baldin balegoque bezala, vicitzen gue-
 ra. Baldin badaquigu ere gauza guztie-
 tan presente dagoela, nola ez degun
 pensatzen, ez baldin baguenequi beza-
 la dá. Orregatic oracioan asi baño le-
 nago consideratu bear degu beti ongui,
 nola presente dagoen Jaungoicoa. Au-
 dá Davidec eguiten zuena, esaten zue-
 nian; Igotcen baldin banaiz Cerura, an-
 zaude, nere Jaungoicoa, jechitcen ba-
 naiz infernura, an topatcen zaitut. Va-
 liatu bear degu ere Jacob Patriarcac
 escallera santua icusi zuenian, esan ci-
 tuen itzaz, ceñac diran; O ceñ izugar-
 garria dan lecu au! Jaungoicoa dago se-
 guru emen, ta ez nequien nic. Esan nai-
 dú, etzuela artan pensatcen, bada beste
 gañeracoan, ongui cequien lecu guztie-
 tan dagoela Jaungoicoa. Oracioan sar-
 tzian bada, esango diozu viotz guztitic
 zure viotzari; O nere viotza, Jaungoi-
 coa dago eguiatz emen.

Jaungoicoren presencian jartceco bi-
 garren videá dá pensatzia, ez bacarric
 zu zauden lecuan dagoela Jaungoicoa.

ez bada batez ere zure viotzian, ta zure
 re espirituaren barrenian dagoela, ce-
 ñac viotza viotzarequin, ta espiritua
 espirituarequin bat eguiñic bezala ego-
 naz vistutzen, ta animatzen dú zure
 viotza, bai ta ere espiritua bere Jaun-
 goicozco presenciarequin. Cergatic no-
 la anima gorputz guztian dagoen me-
 dioz gorputceco parte guztietan pre-
 sente badago ere, orregatic ere viotzi-
 an dagoen especialqui presente, ala ere
 Jaungoicoa gauza guztietan presente
 badago ere, orregatic ere gure viotzi-
 an, ta espirituan beste gaucetan ez be-
 zala dago presente; argatic deitcen ci-
 on Davidec Jaungoicoari, bere viotze-
 co Jaungoicoa; San Pablo Apostoloac
 esaten zuen Jaungoicoagan vici guera-
 la, muguitcen guerala, ta argan gue-
 rala; au ongui consideratu ezquero,
 muguituco dá zure viotza presente
 daucan Jaungoicoari erreverencia an-
 di bat izatera.

Jaungoicoaren presencian jartzeco
 irugarren vidia dá consideratzia nola

gure Salvadoreac bere guizatasunian beguiratzen dien cerutic munduco persona guztiai, ta batez ere cristauvai, ceñac diran beraren semiac, ta batez ere oracioan daudenai beguira dago, aiec cer eguiten duten contu artzen. Ez dá au imaginacioa, cristau maitia, ez bada eguia chit ciertoa, cergatic guc icusten ez badegu ere, arc Cerutic atencio andiarequin beguiratzen digu. Ala icusi zuen San Estavanec bere martirioco demboran; ta ala esan dezaquegu Esposa Santac bezala; beguira zazute nola dagoen paretaren atzetic, leyoe-tatic beguira erreja tartetic celatatzen.

Jaungoicoaren presencian jartceco laugarren videá dá imaginacioarequin, ala baldiñ balitzaque bezala pensatcia, gure aldamenian dagoela bere guizatasunian gure Salvadoria. Ascotan pensatzen degu adisquide degun personen bat gure aldamenian dagoela, batzuetan esaten ere badegu, uste det icustenderala urlia onelaco gauza eguiten; beguira nagoquiola deritzat; modu onetan bada pensatu bear degu gure alda-

menian dagola Jesus. Baña Sacramentu Santu aldarecoa presente baldin badago, orduan ez dá imaginacioa izango, ez bada eguiazco gauza presente dagoela Jesus, ta oguiaren figura, ta beste accidentiac izango dira cortiña bat bezala, ceñaren artetic presente dagoen Jesusec beguiratzen, ta contu artzen digu, guc icusten ez badegu ere. Valiatuco cera bada, cristau maitia, oracioan asitzian, esan dituran medio abetacoren batez, Jaungoicoaren presencian jartzeco. Batzuetan batez, ta bestietan beste batez valiata bear dezu, instante batian bezala, ez luzaro orretan guelditzen cerala.

III. CAPITULO A.

Ongui meditatzeo, edo meditaciotic frutua ateratceco Jaungoicoari gracia escatziaren gañian, ceña dá prestaeraco bigarren puntua.

Onela eguiten dá escario au. Jaungoicoaren aurrian zaudela ezaguturic,

etcingo cera gorputzaz preciso ez bada
 ere viotzez aldezun errespetoric andie-
 narequin beraren aurrian, ezagutzen
 dezula, ez dezula inñolaz ere mereci be-
 raren aurrian egotia. Berac mesede ori-
 eguin nai dizun ezqueroztenic, esca za-
 yozu gracia meditacio onetan bera ado-
 ratceco, ta servitzeco. Balia zaitezque
 nai baldia badezu, David Erreguia be-
 zala devocio andico oracio batzuetzaz;
 nola dan; ez nazazula Jauna bota zure
 aurretic, ta ez dezazula nigandic zure
 espiritu santua quendu; eguizu argui
 nigan, ta consideratuco ditut zure mi-
 rariac; argui zazu nere entendimentua
 zure legue santua consideratzeco, ta
 nere vicitza guztian cumplituco det;
 zure esclavoa naiz, indazu zure espi-
 tua; ta onelaco beste iztzen batzuet-
 zaz. Deizazoyzu ere Aingueru guarda-
 coari, ta consideratu nai dezun miste-
 rioan presente egondu ciran Santuai;(*)

(*) Eroceñ meditaciotan deizayozu Ama Vir-
 giniari, Aingueru guardacoari ta zure devoch-
 ceo Santuai.

ta ala Jasusen eriotzaren gañian consi-
deratu nai dezunian deitu diozaquezu
Ama Virginiari, San Juan Evangelista-
ri, Santa Maria Magdalenari, Lapur-
onari, ayec izan cituzten sentimentu
santuetan zuc ere parte izan dezazun.
Zure eriotza-ren gañeco meditacioan
deizayozu zure Aingueru guardacoari,
presente egon dedin, conveni zaizquit-
zun pensamentu santuac zuri emateco,
ta onela eguingo dezu beste meditaci-
oetan.

IV. CAPITULO.

*Consideratu bear dan puntua prestat-
siaren gañian, ceña dan prestaeraren
irugarren puntua.*

Consideratu bear dan puntua pres-
tacia ez da beste gauzaric, ez bada
consideratu nai degun gauza gogora e-
cartia, ta buruan artzia beguiz icusi-
co baldin baguenque bezala. Compa-

raciora ; nai baldin badezu considera-
tu , cér penac padecitu cituen Jesusec
gurutcian ; pensa zazu Calvarioco men-
dian zaudela , ta icusten , ta aditcen
dezula , an guertatu zán guztia , edo
naiago badezu , (bada guztia dá bat)
pensatuco dezu , zu zauden lecuan a-
ridirala Jesus crucificatzen , ta an da-
goela penatcen , Evangelista Santuac
esaten duten bezala. Orobat esaten di-
zut eriotzaren , infernuaren , ta icusi,
ta senti ditezquian beste eroceñ miste-
rioren gañian consideratu nay dezuni-
an. Eciñ icusi , ta senti ditezquien gau-
cetan , nola dan Jaungoicoaren ontasu-
na, virtutien edertasuna, certaraco jaio-
ac guerán , ta bête onelaco gaucetan ,
ez dá orrelaco imaginacio , edo pensa-
tzeco moduz baliatu bear. Eguia da,
valia diteque iduri , edo comparacio-
ren batez errazago consideracioa egui-
teco. Ez dá orregatic ere erraz zuri
au aditzera ematen , ta etzaitecela ere
asco empeñatu onelaco comparacioac
billatcen.

Esan deran pensátceco modua medi-

ante bada ichitcen degu gure espiritua
 consideratu nay degun gauzan, andic,
 ra emendic ibilli ez dedin choria cayolan
 batetic bestera bezala, edo Gavirabaren
 antceco, Eiztariac erabiltcen duten cho-
 ria, escutic igues eguin ez dezan, ariare-
 quin lotcen dan bezala. Orregatic ere
 esango dizute ascoc, onelaco pensatceco
 moduetan ibiltcia baño obe dala fede ut-
 saz valiatcia, edo Misterio abec uts utsic
 burura ecartcia, ta meditatcia, edo pen-
 satcia gauza abec guztia zure spirituan
 eguiten dirala.

Baña modu onetan consideracioa egui-
 tia, gauza gaitza dá oracioco escolan o-
 rañdic principiantiac diranentzat, ta ala
 consejatcen dizut segui dezazula eracut-
 si dizuran modua, Jaungoicoac oracioan
 gorago jaso zairzan arteraño.

V. CAPITULO A.

*Consideracioaren gañian, ceña dá Me-
 ditacioco bigarren puntua.*

Meditatu bear dan gauza gogora eca-

tri ezquero , seguitcen dá consideracioa;
 ta au beste gauzaric ez dá , ez bada con-
 sideracioren bat , edo gueyago eguitia
 gure viorzac Jaungoicozco gaucetara mu-
 guitceco ; ta onetan diferenciatcen dá me-
 ditacioa estudiatic , ta beste pensamen-
 tu , ta consideracioetic , ceñac ez dira
 eguiten virtutia , edo Jaungoicoaren a-
 morioa alcanzatic , ez bada beste
 fiñ , ta intencioac gatic ; nola dan jaquit-
 suagoa eguitia gatic , escribitcen , edo dis-
 putarcen gueyago jaquitia gatic. Esan
 dizuran moduan bada consideratu nai
 dezun gauzan zure espiritua ichi ez-
 quero , asico cera pensatu nai dezun gau-
 zaren gañian consideracioac eguiten , ta
 onetaraco valia zaitezque lénvico par-
 tian (*) ipiñi dizquitzurán meditacioaz.
 Ta baldin zure spirituac sentitcen badu
 gustoa , arguia , ta provechua considera-
 ciores batian , segui zazu beste conside-
 racioetara pasatu gabe , artan pensatcen ;

(*) Bederatcigarren capitulotic asi , eta
 emeretcigarreñero.

bada erliac ere ez dute utcitcen gustatcen
 zayen lorea, duan ezti guztia chupatu ar-
 teraño, albadute. Baña ez badezu topat-
 cen deseatcen dezun fruturic considera-
 cio batian, pasa zaitez bestera; baña so-
 seguz, ta presacarie gabe eguin bear de-
 zu Meditacioa.

VI. CAPITULOA.

*Afectoen, ta Asmoen gañian, ceñac diran
 Meditacioaren irugarren puntua.*

Meditaciotic animan sortcen dira mu-
 guimentu santuac, nola diran Jaungoi-
 coaren; ta progimoaren amorioa, Ceru-
 co gloriaren deseoa, animen salyacioare-
 na, Jesusen vicitzaren imitacioa, beste-
 ren penaz erruquitcia, gauzaren batez a-
 rritcia, consueloa, Jaungoicoaren desgra-
 cian erortceco bildurra, baira ere Jaungoi-
 coaren justiciarena, infernuc penena, pe-
 catuaren gorrotoa, Jaungoicoaren ontza-
 sun, ta misericordian confianza, gure vi-
 citza gaizto igaroaz damua, ta oneiacq a-

fectoetan zure consideracioari gogotic lecu
 eman bear diozu. Baña cuidadoric princi-
 palena ipiñi bear dezu zuri gueyena con-
 veni zaizquitzun afectoetan zure viotza
 irazaquitceco, ta gueyena conveni zaiz-
 quitzun asmoac orietatic ateratceco. Com-
 paraciora; Jesus maitagarriac gurucian o-
 san zuen lénvico itzac muguituco zaitu
 duda gabe artan imitatcera; au dá, zure
 gaizquilleai barcatcera, ta on eguitera. E-
 saten dizut bada, chit guchi dala, ez badio-
 zu orri juntatcen asmo especial bat modu
 onetan; artcen det orañ asmoa nere eche-
 coac, edo auzocoac, nigatic esaten dituz-
 ten itzac gatic ez enfadatceco, ez dá ere
 onelaco, edo alaco personac eguiten diz-
 quidan desprecioac gatic, ez bada onela-
 co edo alaco gauza esango det ayec nere-
 quin adisquidetceco, ta onela beste gau-
 za guztian. Vide onetatic emendatuco di-
 tuzu dembora guchian zure faltac, ceña
 berandu, ta nequez logratuco dezu afec-
 to utsac gatic.

VII. CAPITULO A.

*Acaberaren, ta consideratcen dana go-
goan artciaren gatian.*

Meditacioa acabatceco iru gauza e-
guin bear dituzu aldezun humildaderic
andienarequin. Lembicicoa, Jaungoico-
ari esquerrac ematia eman dizquitzun a-
fecto, ta asmo santuac gatic, ta medita-
tu dezun misterioan ezagutu dezun bera-
ren ontasun, ta misericordia andia gatic.
Bigarrena, ofrecitcia Jaungoicoari bere
ontasun, ta misericordia, Jesusen erio-
tza, ta odol preciosoa bere virtutiaquin
batian, ta abequin bat gure aficio, ta
asmo santuac. Irugarrena dá, Jaungoi-
coari escatcia, eman dizazquigula bere
Seme Divinoaren gracia, ta virtutiac,
ta bedeince ditzala gure afecto, ta asmo
ac leyalqui cumplitu ditzagun. Azqueni-
an eseatcen diogu Jaungoicoari Eliz A-
ma Santa gatic, gure aguintariac gatic,
aide, adisquide, ta beste guztuac gatic,

paratcen ditugula onetaraco bitarteco A.
ma Virgiana, Aingueru, ta Santuac az-
quenian Pater nosterra, ta Ave Maria e-
sanaz, ceñac diran guztien oracioac, ta
cristau guztientzat bearrenac.

Orain beste gauzacho bat esan bear
dizut. Jardin eder batian paseatcen ibi-
lli diranac, ezdira albadute ateratcen lo-
re bat, edo gueyago guero usai eguite-
co artu gabe. Ala bada gure espiritua e-
re, misterioeren batian consideratcen ibi-
lli ezquero, escogitu bear degu gueye-
na gustatcen zaigun, ta gure animaren
provechuraco egoquiena dan puntu bat
egun artan gogoan erabiltceco, ta consi-
deratceco. Au eguiten dá consideracioa
acabatcen dan instantian.

VIII. CAPITULO A.

*Aviso guztiz provechugarriac
meditaciordeco.*

Guztietan gueyena conveni dan gau-
za dá, nere cristau maitia, meditaciotic

ateratcian onguí gogoan Iruquitcia an ar-
 tu diruzun asmo santuac, egun arran cui-
 dado andiarequin cumplitceco. Au dá
 meditacioaren frutu andia, ceñagabe me-
 ditacioac ascotan ez bacarric ecer servit-
 cen ez dú, ez bada dá ere caltegarria; cer-
 gatic virtute mediatuac, baña ez cum-
 plituac ascotan aicez, ta vanidadez betet-
 cen dute anima, ta espiritua, izateco as-
 moa artu degun bezalacoac gueralaco us-
 tiarequin, ceña eguiaz ala izango litza-
 que, asmo viciac artuco baguenituque;
 baña cumplitcen ez badira, ez dira ala-
 coac, ez bada peligrosoac, ta provechu-
 gabeac. Eguin bear dá cumplitceco ale-
 guña, ta onetaraco ocasio andi, edo chi-
 quiac billatu. Comparaciona: artu badet
 nic asmoa ofenditu nautenen amorioa ni-
 ganatceco, ayec nere amorioa ecartceco,
 procuratuco det aiequin nombait egun o-
 netan arquitcia, Salva, edo agur eguiteco
 amorio andiaquin; ez badet aiequin nere
 burua topatceco moduric, ongui itz e-
 guingo det aiec gatic, ta encomenda-
 tucó ditut.

Oraciotic ateratcian izan bear dezu
 cuidadoa beste gaucetara zure viorza be-
 reala zabalteen ez utcitceco, cergatic au-
 izango litzaque oracioco balsamo espiri-
 ruala, edo afecto santuac isurtcia bezala.
 Esan nai dizurana dá, procuratu bear de-
 zula silencioan, edo isillic pişca batian
 egotia; ta munduco eguitecoetan sosegu
 andiarequin sartu bear dezu, meditacio-
 an izan dituzun afecto, ta sentimentu
 santuac aldezun guztia gogoan iruquit-
 ciaz aztu gabe. Artcen badú guizon ba-
 tec bere echera eramateco valio andico
 licore bat baso batian, poliqui, poliqui
 juango dá vasoari beti beguira, erori da-
 quion bildurrez; orobat eguin bear dezu
 zuc meditacioric ateratcian; ez dezu dis-
 traitu, edo zabaidu bear bereala, ta bat
 ere cuidadoric gabe munduco gaucetara,
 ez bada soseguz ibilli bear dezu mundu
 onetaco gaucetan, preciso itz eguin bear
 diozun persona bat videan topatuco bal-
 diñ bacenuque bezala, ta oracioco balsa-
 mo espiritual, edo afecto santuetatic al-
 dan guztia beguiac quentcen ez dituzula
 galdu ez ditecen.

Acostumbratu bear dezu ere icastera nola igaro bear dezun oraciotic zure oficio, ta estaduco eguitecoetara, afecto santuaquin aidetasunic ez dutenac izana gatic ere. Esan nai derana dá; jaquin bear duela Letraduac nola igaro oraciotic bere oficioco lanac eguitera, Mercatariac bere artu emanecoac, Emacume ezconduac bere Matrimonioco, ta familia-co obligacioetara. Au guztia sosegu andian eguin bear dá, orrengatic espiritua turbatu gabe. Nola oracioa, ala gauza orieci Jaungoicoaren vorondatiaz bat dira, ta ala humildade, ta devocio andiarequin igaro bear dá oraciotic gauza orietara.

Guertatuco zaitzu noiz, edo noiz meditatceco prestaera eguin beceñ laster zure viotza Jaungoicoagan muguitua sentitcia; utci zayozu orduan viotzari bere afecto santua seguitcen, ta orrelaco demboretan ez dezu cer ibilliric esan dizquitzurán diligentcietan, edo consideracioetan zure viotza Jaungoicoagan muguitceco, cergatic consideracioac viotza

Jaungoicoagan, ta gauza santuetara mu-
 guicea gatic eguiten dira, ta nola orrela-
 co demboran muguitua dagoen, ez dá
 consideracioaren bearric. Ta eroceñ dem-
 boretan senti ditzatzula afecto santu ori-
 ec, dala consideracioa eguiñ baño lena-
 go, dala eguiñ ezquero, beti errecibitu
 bear dituzu, ta zure viotza ayetan iraza-
 qui bear dezu. Ta nic afecto oriec consi-
 deracioaren urrena ipiñi badizquitut e-
 re, ori oracioaren parteac obeto berestea
 gatic, ta ezagutcea gatic eguin det, bes-
 te gañeracoan, datocen orduan datocela,
 emayezu lecu zure viotcian, ta gueitcia
 procura zazu. Ta ez diot au beste afecto
 santuac gatic bacarric, ez bada baita ere
 Jaungoicoari esquerrac ematia gatic, a-
 fecto, ta asmo santuac ofrecitcia gatic, ta
 oriec cumplitceco gracia escatcia gatic,
 ceñac consideracioac mediante eguin di-
 tezque, ta viotza ayetara muguitua sen-
 titu ezquero, eman bear zayo lecu bes-
 te afectoetan bezala, ta cumpli dezala
 bere deseoa; eguia dá meditacioa aca-
 batcian, berritu bear dira. Acabera ba-

ño lenago , afectoen ondoren , asmo santuac eguin bear dira , cer gatic nola asmoac gauza particularren gañian eguin bear diran , afectoen erdian eguingo baguenituque , beste gaucetara gure burua zabaltceco peligroan ipiñico guiñuzteque Gauza ona dá afectoen , ta asmoen erdian Jaungoicoarequin , Aingueru Santuaquin , consideratcen degun misterioan errepresentatcen diran personequin , Santuaquin , gueren buruaquin , viorzarequin , peccatariaquin , baita , Davidec , ta beste Santuac eguiten zuten bezala , sentiduric ez duten criaturaquin ere itz eguitia.

IX CAPITULO.

Oracioan izaten diran legortasunen gañian

Guertatcen bazaitzu , cristau maitia , gustoric , ta devocioric Meditacioan ez sentitcia , erregutcen dizut , etzaitecela orregatic penatu , ez bada aslzaitez cer-

bait errezatcen , zure buruaz Jaungoicoari quejatuz , aitorzayozu zure ecer eza , ta merecimentuaren falta , escayozu lagun dizazula , eguiozu muñ aren imañari zurequin edo aldian badaucazu , ta Jacob Patriarcac bezala esayozu; Ezdizut utcico , Jauna , zure bendicioa eman arteraño ; edo Canángo emacumeac bezala , Eguia dá , Jauna , ni chacur bat maizala , baña chacurac ere jaten dituzte nagusiaren mayatic erortcen diran ogui apurrac.

Beste batzuetan libru bat artu zazu , ta atencioarequin iracurri zazu , zure espiritua esnatu , ta beregan biurtu dedin arteraño. Jarri zaitez devocioa muguitceco modu devotoren batian , nola dan auspez lurrian jarri , escuac gurutciaren moduan pechuaren gañian ipiñi , Santo Cristoari laztan eman , edo onelaco beste gauzaren bat ; baña au , bacarric zaudenian , aditcen dá. Modu abetzaz baliatuta ere , ez baldin bada zure viotza oracioan muguitcen , etzaitecela orregatic ere estutu , ez bada zaude soseguz modu devotoren

batian Jaungoicoaren aurrian. ; Cembat
 Cortesano dira urtian eun bider Erregue-
 ren salara joaten diranac arequin itz egui-
 teco esperantzaz gabe, bacar bacarric
 erreguec icusi ditzan, ta jaquin dezan cum-
 pliteen dutela beren obligacioarequin?
 Ala guc ere, cristau maitia, juan bear
 degu Oraciora, bacarric gure obligacio-
 arequin cumplitecia gatic, ta gure leyalta-
 dia Jaungoicoari aditcera ematia gatic; ta
 eguiten badigu mesede Jaungoicoaren
 Magestadiac, pensamentu on, ta anima-
 co consueloen videz itz eguitiaz, duda
 gabe honra andia, ta gauza chit atseguir-
 ña izango dá guretzat. Baña ez baldin
 badigu itcic eguiñ nai, icusico ez ba-
 guñduque, ta aren aurrian gaudela ez
 balequi bezala casoric eguin gabe utcit-
 cen gaituela, ez degu orregatic andic ju-
 an bear, ez bada beraten aurrian egoa
 bear degu arpegui devoto, ta alayare-
 quin, ta ala gustatuco zayo duda gabe
 gure paciencia, ta gogoan artuco dú gu-
 re beraren aurrian egoteco iraupena, ta
 urrengo beraren aurrera juaten guerania

favorecituco gaitu , ta divertituco dá gu-
 requin emango dizquigun consueloen vi-
 dez , ta eracutsico digu , ceñ gauza ona,
 ta atseguña dan oracioa. Baña onelaco
 mesederic bat ere eguiten ez badigu ,
 consola gaitecen pensatuaz , honreric as-
 co dala guretzat Jaungoicoaren aldian
 aren vistan egotia.

X. CAPITULO.

Goiceraco egercicioa.

Esan degun oracio mentala , ta erre-
 zatcera obligatua zauden abozco ora-
 cioaz gañera , badira beste bost oracio
 modu laburragoac , ceñac diran oracio
 andiaren apanidu gayac bezala. Ayeta-
 tic bat goicetic eguiten da egun guztico
 obren prestaera bat bezala, Modu one-
 ran bada eguingo dituzu.

Lenvici, emayozcatzu esquerrac Jaun-
 goicoari , ta adora zazu aldan errespeto-
 ric andienarequin, arats artan viciric con-
 servatciaz eguin dizun mesedeagatic , ta

baldin arrats artan faltaren bat egun da-
dezu, barcacioa esca zayozu.

Bigarrena, pensa zazu egun ura, artan
zori oneco eternidadeco eguna erabazte-
co eman zaitzula, ta ala artuco dezu as-
mo firme bat egun ura fiñ orretaraco on-
gui empleatceco.

Irugarrena, pensa zazu cer negocio,
cer tratu, cer ocasio izan dezaquzun egun
onetan Jaungoicoa servitceco, ta cer ten-
tacio izan ditzaquezun bera ofenditceco,
edo colera gatic, edo vanidadia gatic,
edo beste eroceñ gauza gatic, ta pres-
ta zaitz asmo santu batequin izaten di-
tuzun medioz valiateco, Jaungoicoa ser-
vitceco, ta devocioan aurreratceco; pres-
ta zaitz ere alde eguiteco, ta garaitceco
Jaungoicoaren leguiaren, ta zure salva-
cioaren contra ofrecitu dizaiquizun guz-
tiac, ta etzaitzecela contentatu asmo au-
artce utsarequin, ez bada prestatcitzu
ere oriec cumplitceco medioac, edo con-
veni diran gauzac. Comparaciona; erraz
coleratcen dan personaren batequin ne-
gocioren bat tratatu bear badezu ez ba-

carric artu bear dezu asmoa zure parte-
 tic coleratceco videric ari ez emateco,
 ez bada juan bear dezu ere, coleratcen
 bada, ura sosegatceco itz biguñen ba-
 zuec gogoan artuta, edo ura coleratu
 gabe egotia logratuco duen personaren
 bat zurequin dezula. Eriren bat visitat-
 cia pensatcen badezu, señalatuco dezu
 orretaraco ordua, baita ere eguin bear
 diozcatzun alivio, ta consueloac, ta one-
 la beste gauza guztietan.

Laugarrena. Au eguin ezquero, hu-
 mildu zaitez Jaungoicoaren aurrian, eza-
 guturic, etcenuqueala cerez artu dituzun
 asmoetatic bat bacarric ere cumplituco,
 ez pecatutic igues eguiteco, ta ez obra
 onac eguiteco, ta ofreci zayozu zure vi-
 otza Jaungoicoari zure escuetan baldin
 balegoque bezala, bere proposito on
 guztiaquin, escatcen diozula, artu de-
 zala bere amparupian, ta eman diozala
 indarra, bere servicio santuan empleat-
 cece, ta aprovechatceco. Esan ditzaque-
 zu onetaraco onelaco itcen batzuec: O
 Jauna, ona non dagoen viotz pobre, ta

miserable au zure ontasuna mediante a-
fecto on asco artu dituena; baña ay!
ecer eza, ta indar guichicoa dá dese-
atcen duen ona eguiteco, zuc zure ben-
dicio santua ematen ez badiozu, ceña
orretaraco escatcen dizut, aita piodosoa,
zure seme divinoaren pasioaren mereci-
mentuac gatic, ta aren honraraco ofreci-
tten det egun au, bai ta nere vicitzaco
guztiac ere. Paraitztzu bitarteco, ta dei-
zayezu, cristau maitia, Ama Virgñari,
zure Aingueru guardacoari, ta Santuai,
zure proposito santuac cumplitcen lagun
dizazuten.

Bost oracio modu abec dembora gu-
chian, ta fede viciarequin eguin bear di-
ra, ta albaldin bada lo eguiten dan apo-
sentu, edo guelatic atera baño lenago,
orrela egunian eguiten dezun guztia, e-
gercicioa dala mediante Jaungoicoagan-
dic bedeincatua izan dedin. Ez dezazula
arren, cristau maitia, au eguin gabe
inoiz utci.

XI. CAPITULO A.

*Arratseco egercicioa , ta concien-
ciaco examina.*

Nola gorputseco janaria baño lena-
go animacoa artu bear dezun medita-
cioa mediante, goician, ala arratsian, gor-
putseco afaria baño lenago, eguin bear
dezu animaco afari chiqui bat, edo co-
lacio espiritual bat. Artu zazu bada a-
faritara baño lenago dembora pisca bat,
ta Jaunaren aurrian auspesturic zure es-
piritua Jesus Crucificatuagan bilduric
ceña ecarri bear dezu gogora consi-
deracioa mediante, berritzatzu goiceco
meditacioan izan cenituen gogo santu-
ac Jaungoicoaren aurrian humillatuaz,
ta itz amoriosoren batzuec zure Salvado-
rari esanaz; considera zazu onetaraco
goiceco meditacioan gustoric gueyena
eman dizun punturen bat, edo valia zai-
tez onetaraco egoquiena deritzatzun bes-
te motivo santuren batez.

Lotara baño lenago eguin bear dan

concienciaco examiña badaqui bacoitzac
nola eguiten dan.

Lénvici, eman bear zayozca Jaun-
goicoari esquerrac cer gatic egun artan
guardatu gaituen.

Bigarrena, examiñatu bear dù egu-
neco ordu bacoitcian cer eguin duen.
Au errazago eguiteco, beguira beza
non, norequin, ta certan empleatu dan
egun artan.

Irugarrena, ezagutcen badù, obra o-
nen bat eguin duela, eman biozca es-
querrac Jaungoicoari, ta eguin baldin
badu gauza gaiztoren bat pensamentuz,
itcez, edo obraz, escabioza barcacioa Ja-
ungoicoari, lénvicio era izaten due-
nian confesatceco asmoarequin ta emen-
datceco cuidado andiarequin.

Onen urrena encomendatu bear za-
yozca Jaungoicoari gorputza, anima, Eli-
za, aidiac, ta adisquidiac. (*) Erre-
zatu bear diegu Ama Virginiari, Ain-
gueru guardacoari, ta Santuai, guar-

(*) Anima gaisoaz ez aztu.

da gaitzaten arrats artan, ta Jaungoicoaren bendicioarequin jua bear degu beac guretzat premiacoa izatia nay izan duen descansua artcera. (*)

Arratseco egercicio santu au goicecoa beceñ cuidado andiarequin eguin bear dá, cer gatic goiceco egercicioa mediante gure salvacioco arguari iriquitcen diozcagu animaco leyoac, ta arratsecoa mediante infernuco illuntasunai ichitcen diezquegu.

XII CAPITULO.

Bacartasun espiritualaren gañian.

Iñoiz baldin bada ta oranchen icusinaiz zaitut, cristau maitia, nere consejuac artcera zaletua, cergatic orañ esango dizurana zure aurrerapen espiritualeraco videric seguruenetatic bat dá.

(*) Ur bedeincatua artu ta ciñatu. Oiztu zaitetz ere oyaren gañian gurutcia eguitera ur bedeincatua botatuaz.

Para zazu egunian aldezun maicena zure
 re espiritua Jaungoicoaren presencian le-
 nago esan dizquituran lau moduetatic ba-
 ten videz. (*) Considera zazu cer eguiten
 duen Jaungoicoac , ta cer eguiten dezun
 zuc , ta icusico dezu nola Jaungoicoaren
 beguiac zugana giratuac, ta neurri gabe-
 co amorioarequin beti zuri beguira dau-
 den ; esango diozu , O Jauna ; ; cergatic
 ez dizut nic , zuc niri bezala , beti zuri
 beguiratzen ? ; Cergatic zuc nigan aiñ
 maiz pensatcen dezula , nic zukan pen-
 satcen ez det ? Anima nerea , non gaude ?
 Gure eguiazco vici lecuac Jaungoicoa da ?
 ; non gaude bada ?

Choriac beren gabiac , bear duteneco
 erretiruan eguiñic iruquitceco , arbo-
 la gañetan eguiten dituzten bezala , ta o-
 reñac igues lecuac , ta gorde lecuac iza-
 ten dituzten bezala ayetara erretiratceco,
 ayetan gordetceco , ta udan guereizpian
 frescuran egoteco , ala gure viotzac
 ere cristau maitia , artu , ta autu bear dú

(*) Parte onetaco bigarren capituloan.

erretirorén bat, edo Calvarioco mendi-
an, edo Jesusen laguetan, edo aren al-
deco beste lecuren batian, erocein dem-
boran ara erretiratceco, an consolatceco,
ta gozatceco, bere eguitecoen artian, ta
tentacioetatic defenditceco gaztelu bati-
an bezala an egoteco. (*) Zori onecoa
Jaungoicoari eguiatz esan diozaquen ani-
ma: Zu cera Jauna nere igues lecu-
a, nere muralla segurua, ebiaren contra-
co nere tellatua, ta beroaren contraco
nere guerizpia.

Oroi zaitez bada, cristau maitia, zure
viotceco bacartasunera onela maiz erre-
tiratciaz conversacioetan, ta munduco
eguitecoetan zauden demboran, bada o-
nela zure viotcera erretiratcia eciñ era-
gotci dizaquezu zure inguruan dabillen
gendiac, cer gatic oriee ez daude zu-
re viotzaren inguruan, ez bada zure gor-
putzarenian, ta ala zure viotz guztia e-
gon diteque bacarric Jaungoicoaren aur-

(*) Erretiro au eguitia, gauza orietan
consideracioa ipintcia da.

rian. Au zan David Erregueac bere ocupacioen artian eguiten zuen egercicioa berac bere Salmo, edo Jaungoicoaco cantetan esaten duen bezala. Modu onetan esaten dú: O Jauna, ni beti zurequin nago. Nic beti icusten det Jaungoicoa nere aurrian. Ceruan vici ceran Jauna, zugana jaso ditut nic nere beguiac. Nere beguiac beti Jaungoicoagantontz daude.

Ez dira eguitecoac ere aín andiac, ta estúac, noician beín vlotza bere bacartasunera ez erretiratceco. Quendu ciotenian Santa Catalina Senacoari bere gurasoac errezatceco, ta meditatceco lecuia, ta dembora, eman cion adicera Jaungoicoac, eguin cezala bere viorcian Oratorio espiritual bat, ceñian, consideracioa mediante erretiratuaz, egercitatcen zuen bere eguitecoetan cebillela bacartasun espiritual au, ta guero munduac perseguitcen zuenian, etzuen bat ere penaric artcen, cergatic, berac esan oi zuen bezala, ichitcen zan bere guela, edo aposento espiritualian, ta an con-

solatcen zan bere Jesusequin. Ala, or-
du ezquero, aren consejuaquin guber-
natcen ciranaí consejatcen cien, eguin
cezatela guela, edo aposento espiritual
bar, ta anchen vici citecela.

Erretira zazu bada, cristau maitea,
zure espiritua noician bein zure viot-
zaren barrenera, non criaturetatic apar-
taturic, trata dezazun viotcez Jaungoi-
coarequin, Davidec bezala esaten de-
zula: Egatu det, ta Pelicanoa esaten dio-
ren mendico choria bezala eguinaz, bai ta
ere eche erorian dogoen Onza bezala,
ta Solitario esaten dioten choria tella-
ruan bezala.

Itz abec, nola David Ceruco gauzac
consideratcera erretiratcen zan, aditce-
ra emanaz gañera, ematen dizquigute
ere aditcera beren sentidu misteriosoan
iru erretiratceco modu chit onac, iru
hermitaren modura, ceñatan egercita-
dezaquegu gure animaco erretiroa gure
Salvadoriaren antcera, ceña Calvarioan
mendico Pelicanoa bezala izandu zan, cer-
gatic nola chori onec bere odolarequin

bere humeai vicia ematen dien, ala Jesu-
 sec bere odolarequin eman cigun gu-
 ri animaco vicia. Bere jayotcian Belen-
 go portalian eche erorian, negarrez e-
 goten dan Onza bezala izandu zan gu-
 re uts eguite, ta pecatuac gatic negar
 eguiten. Ta tellatura igotcen dan So-
 litario choria bezala izandu zan Ceru-
 ra igo zanian, bada Cerua munduaren
 tellatu bat bezala da. Munduco egui-
 tecoetan iru lecu abetatic erocenetara er-
 retira gaitezque gure viotzatequin. S.
 Elceario bere erritic campoan vici zan
 dembora batian escribitu cion bere emaze
 teac carta bat aren berriac jaquin naiez,
 ta erantzun cion modu onetan: Ongui-
 nago, nere Esposa maitia, icusi nai ba-
 nazu, billa nazazu, Jesusen sayerseco-
 azurian, an topatuco nazu, bada an vi-
 ci naiz, alferrie billatuco nazu beste to-
 quitan, O cein errespuesta ederra! Ura-
 sen bai zala cristau zalduna.

XIII. CAPITULO.

*Viotz guztitic eguiten diran oracio labur-
ren ta pensamentu onen gañian.*

Jaungoicoagana erretiratcen dá, viotz a-
morosoarequin itzquetan argana viurtcen
dana, ta argana erretiratceco modu on-
tan argana viurtcen dá, alaco moduan,
ce gauza abec biac alcarri laguntcen dio-
te, ta biac pensamentu onetatic sortcen
dirá. Itz eguiozu bada maiz, cristau maiz-
tia, Jaungoicoari viotz amorosoarequin,
arrizaitz aren edertasunaz, escayozu be-
re laguntcia, etcin zaitz zure viotzare-
quin gurutciaren oñian; adora zazu aren
ontasuna, trata zazu maiz berarequin zu-
re salbacioaren gañian, entrega zayozu
egunian ascotan zure anima; paratcirzu
zure viotceco beguiac beraren ontasuni-
an; luza zayozu hume chiqui batec be-
zala escúa; orretatic artuta eramán zait-
zan; para zazu lore pilla bat bezala zure
pechuaren gañian, para zazu zure ani-
man estandarte bat bezala, ta procurat-

aitzu aldituzun moguimentu santu guztia
 ac zure viotzian, orrela Jaungoicoaren
 amorioa alcantza dezazun, ta beraren
 amorioan enamora zaitecen.

Onela eguiten dira Jaungoicoagana
 biurtce espiritualac, Proba ceritzan an-
 dre devotari San Agutiñec aimbeste en-
 cargatcen diozcanac. Cristau maitia, gu-
 re espiritua Jaungoicoarequin maiz trata-
 tzerá eguiten bada, Jaungoicoaren per-
 feccioen usaya banatuco dú; ta erraz e-
 guin dezaquegun egercicioa dá au, cer-
 gatic gure eguiteco guztien artian onela
 maiz Jaungoicoagana biurtu gaitezque,
 batere orregatic gure eguitecoai calteric
 etortcen etzáiela, bada dala bacartce es-
 pirituala, dala Jaungoicoagana biurtce
 espiritual abec beguiac ichi, ta iriqui e-
 guite batian eguiten dira, ta ala ez bacar-
 ric ez digute eragozten gure eguitecoac
 eguitia, ez bada contrara, obeto egui-
 ten laguntcen digute. Videz dijoanac,
 viotza alegratceco, ta aboa frescatceco
 ardo pisca bat eraten pisca batian gueldi-
 tuagatic, ez du orregatic viagea galtcen,

ez bada kontrara dijoan lecura errazago, ta lasterrago allegatceco indarrac artcen ditu.

Ascoc señalatcen dituzte onela Jaungoicoagana biurtceco oracio labur modu asco, baña nere consejua artu nañ badezu, etzaitecèla guelditu onelaco, ta alaco oracio moduetan, ez bada esan cizquitzu aboarequin, edo viotzarequin zure espirituac instante artan gogoratcen dizquitzunac, bada berac emango dizquitzu zuri gueyena gustatcen zaizquitzunac. Eguia dá, badira itz modubatzuec orrelaco demboran viotza contentatceco indar especiala dutenac, ta aberatic asco daude Daviden Salmo edo Jaungoicozco cantetan; bai ta ere Cantetaco libru santuan; ara batzuec; Atoz, Jauna, niri laguntcera, O Jauna, ceñandia dan zure misericordia! prest nago Jauna zure mandamentu santuac guardatceco; bedeinea zazu, nere anima Jaungoicoa, ta etzaizquitzula aztu eguiñ dizquitzun mesedeac. Jesusen icen santua deitcia ere dá onetaraco gauza chit

egoquia, bai ta tanta espiritualac ere,
atencioarequin cantatcen badira.

Azquenian, nola munduco personem
amorian ichutuac daudenac beren pensa-
mentu guztiac ayengan ipiñiac daucaz-
quiten, beren viotz guztia ayen ganaco-
aficioz betia, beren aboa ayen alaban-
zaz, ta nola ayengandic aparte daude-
nian ez duten galtcen cartaz beren a-
morioa aditcera emateco ocasioic ta e-
sateco moduan arbola guztien azalera
ere amatcen dutenaren icena escribit-
cen duten, ala Jaungoicoaz enamoratua
daudenac eciñ egon dira argan pensatu
gabe, itz amoriosoquin berari itz e-
guin gabe, bera gatic itz eguin gabe,
eta nay luteque albaldiñ balitz persona
guztien pechuan Jesusen icen santua
marcatu.

Mundu guztiac convidatcen ditu one-
tara, ta ez dá criatura bat bacarric ere
bere Criadoria alabatcera convidatcen ez
dituenic. San Agustinec, ta San Anto-
nec dioten bezala munduan dan guztiac
itz eguiten die itz eguite mutu batequin,

baña berac ongui entenditeen dutenare-
 quin, Jaungoicoaren amiora muguit-
 ceco. Guztia muguitcen ditu pensamen-
 tu santuetara, ta orretatic sortcen zaiz-
 cate Jaunari esaten diozcaten beraren a-
 morioz betericaco itzac. Ara ejemplo
 barzuec, San Gregorio, Nacianzoco O-
 bispoac, berac bere contura ceucazquie-
 nai contatcen cien bezala, itsasoaren baz-
 terrian cebillela, icusiric nola bagac, es-
 quiñara etortcen citanian, utcitcen cituz-
 ten atcera biurtcian, chirlac, mascor-
 chuac, mascullachuac, belarren sustra-
 yac, ostra chiquiac, ta itsasoac botat-
 cen dituen beste onelaco gauzac, ta be-
 rriz bagac etortcian, nola lerago bo-
 ta cituzten gaucetatic asco atcera era-
 maten cituzten; baña arroccac, itsasoac
 joa gatic, beti sendo, ta muguitu gabe
 ceuden, gauza aben gañian bada pen-
 samentu au Santuac eguiten zuan: vir-
 tutian argalac, ta animo guchicoac di-
 ranac mascullachuac, chirlac, ta belar-
 chuac bezala, utcitcen dirala eramaten,
 dala penara, dala consuelora, ocasioac

eer ematen dien artara daudela, baña
 animo andicoac arrocac bezala beti sen-
 do egoten dira, ta ez dira muguitcen
 mundu onetaco trabajuac gatic. Onela
 pensatcen zuen Santuac, ta guero pen-
 samentu onetatic ateratcen cituen Davi-
 den afecto devoto abec: Lagundu za-
 dazu, Jauna, cer gatic urac animara-
 ño sartu zaizquit: Libra nazazu, Jau-
 na, uraren ondoric; itzasoaren beere-
 nera eraman naute Jauna, ta ecaitzac
 urpian sartu nau. Ceñ aflagitua cegoen
 aditcera eman naian itz eguiten zuen mo-
 du onetan Davidec Jaungoicoarequin,
 ta ala ere itz eguin zuen Santuac, cer
 gatic estu cegoen Maximo zeritzan batec
 aren Obispadua modu gaiztoan berega-
 natu nai zuelaco. San Fulgencio Rus-
 peco Obispoac, Erromatarren junta ba-
 tian cegoela aimbeste personage andi;
 bacoitza tocatcen citzaion toquian orden
 aña onian icusita, esan zuen: O nere
 Jaungoicoa, ceñ ederra izango ez dá
 Ceruco Jerusalem, mundu onetan gauza
 aña ederra, nola dan. Erroma, icusten

danian ! Eta baldin munduan aimbeste
 edertasun ematen bazaye vanidadiaren
 amantiai , cer gloria egongo ez da Ceru-
 an eguiaren amantientzat ? San Anselmo
 Cantuariaco Arzobispoa gatic esaten da,
 pensamentu santuetaco egercicio onetan
 chit miragarria zala. Beñ batian zaldiz
 cijoala , sartu citzaion zaldiaren tripa-
 pian chacurrac perseguitcen zuten erbi
 bat , bere burua eriotzatic libratceco am-
 parupian bezala. Chacurrac zaldiaren in-
 guruan zangaca cebiltzan , baña etciran
 atrebitcen erbia cegoen lecura sartcera.
 Icusgarri zoragarria zan orregatic ere , ta
 ala S. Anselmo ez beste guztia , parraz
 ceuden. San Anselmoc negar eguiten
 zuen , ta bestiac parraz icusi ta esan cien.
 Ay , zuec parra eguiten dezute , baña
 erbi gaiso orrec ez du parraric eguiten ;
 animaren etsayac , alde ascotara anima
 tentaturic , eriotzaren beguira daude,
 tragatceco , ta ura sustoz beteric , ta
 icaraturic amparu billa ibiltcen da al-
 de guztietaric , ta topatcen ez badú , et-
 sayac artzaz parra , ta burla eguiten dú :

itz abec ésan ta suspirioz ta negarrez
 aurrera joan zán. Constantino Empe-
 radoriac errespeto andi batequin escri-
 bitu cion San Anton Abadi; arritu ci-
 ran onetzaz arequin vici ciran religio-
 soac, ta ésan cien Santuac; ¿cergatic
 orrembeste arritcen cerate Erregue
 batec guizon bati escribitciaz? gueya-
 go arritu bear dezute Jaungoicoac bere
 leguia guizonai escribitziaz, edo obe-
 to esateco, bere seme divinoa median-
 te autic aura guizonai itz eguitiaz. Ai-
 ta San Franciscuac, ardi bat auntzen
 artian icusi ta, bere lagunari ésan cion;
 icusten dezu nola daramaten ardi ga-
 iso ori auntz orien artian, ala cijoan
 gure Jesus manso, ta humil Fariseoea
 artian. Beste batian cherri bat arcu-
 me bat jaten icusita negarrez ésan zu-
 en; ay arcume gaisoa, ceñ ongui idu-
 ritcen dezun nere Salvadoriaren eriot-
 za. San Francisco Borjac, Gandiaco
 Duque zala, eicera juaten zanian, con-
 sideracio santu asco eguiten cituen.
 Religioan sartu ezquero guero contat-

zen zuen esanaz; Arritzen nintzan no-
 la Mirotzac (*) escura atzera etortzen
 ciran, beguiac estaltcen, ta oñac lot-
 zen utzitzen ciran, ta guizonac Jaun-
 goicoaren deyari erantzuteco aiñ go-
 gorrac izatia. San Basilioc dió, arro-
 sac arantzen artian guizonai, esatera
 nuana, aditzera ematen diela; dió ba-
 da Santuac; guizonac: munduan dan
 gauzaric atseguñena nai gabez nastua
 dago; ez dago gusto soillic mundu
 onetan, consueloaren ondoren beti pe-
 na dator, boden ondoren alarguntza,
 ugaritasunaren ondoren cuidadoa, ala-
 bantzen ondoren desprecioa, honraren
 ondoren gastua, erregaloen ondoren
 nai gabea, eta osasunaren ondoren eri-
 tasuna. Arroza lore ederra dá, dió San-
 tuac, baña nere pecatuac gogoratu ta
 tristura ematen dit, cergatic pecatua
 gatic datorquo lurrari arantzac sort-
 zia. Anima devota batec arrats eder ba-

(*) Gavirabaren antceco chori bat dá au-
 beste-choriac achitceco eiztariac lecu ascotan
 usatcen dutena.

tian urtan Cerua izartua icusi ta esan
 zuen, O nere Jaungoico maitia, izar
 abec berac nere oiñpian egongo dira,
 zuc zure glorian errecibitzen nazuni-
 an, ta nola izarrac urtan iduricatcen
 diran, ala personac Ceruan Jaungoi-
 coagan iduricatcen dira. Beste batec
 erreca agortzen besteric icusi ta esan
 zuen, ez dú Jaungoicoagan ondoric
 izango; argan dú bere jaiotza. Santa
 Francisca, erreca baten basterrian o-
 racioan ceguala, errecaco ura icusi
 ta, bere potencia, ta sentidu guztia-
 quin Jaungoicoagan jarriric esan ci-
 tuen ascotan itz abec; Nere Jaungoi-
 coaren gracia erreca onetaco ura be-
 ceñ atseguin jechitzen dá. Beste batec
 arbolac loratuac icusi, ta viotz guzti-
 tic esan zuen: ¿Cérgatic ni bacarric
 lore gabe nago cristauven artian? Bes-
 te batec colcaren egapian chita bat-
 zuec icusi, ta esan zuen, O Jauna, gor-
 de gaitzatzu zure egoen azpian. Beste
 batec Girasola esaten dioten lore bat
 icusi ta esan zuen: O Jauna, ¿Noiz

seguituco diot nic zure ontasunari, lore onec eguzquiari bezala ? Beste batec Violeta loreac beguien vistaraco ederrac, baña usai gabeac icusi ta esan zuen: Ay! orrelacoac dira nere pensamentuac, esateco ederrac, baña frutu gabeac.

Icusten dezu, cristau maitia, nola ateratzen diran pensamentu onac, ta Jaungoicoagana biurtze espirualac mundu onetaco gaucetatic; Zori gaiztoacoac dira criaturac beren Criadoria gandic apartatzen dituztenac, ayezaz pecaturaco valiatzeco, ta zori onecoac beren Criadoriari biurtzen diozcatenac, ayetzaz bera amatzen ta servitzen valiatuaz. San Gregorio Nacianzoacoac esaten zuen: gauza guztiaz nere animaren provechuraco usatzia nic costumbratzen det. Iracurri zazu San Geronimoc Santa Paularen honran escribitu zuena, an icusico dezu, cembat Jaungoicoagana biurtze espiritual, ta pensamentu on eguiten cituen Santa arc eroceñ ocasiotan.

Bacartasun espiritualetaco, ta Jaungoicoagana oracio laburren batzuec mediante biurceco egercicio au dá devocioraco gauzaric principalena; onec beste oracio guztien falta erremedia dezaque, baña onen falta beste videz eciñ erremedia diteque. Au gabe contemplacioco vicitza santua eciñ eguin diteque, ta progimoen artian, ta mundo eguitecoetan ibilli bear duenac egercicio au gabe ez dú devocioa ongui conservatuco. Descantsua alperqueria dá, ta nequea embarazoa; orregatic aconsejaten zaitut artu dezazula viotz guztiarequin egercicio au, ta ez dezazula iñoiz utci.

XIV. CAPITULOA.

Meza santuaren gañian, ta cer modutan entzun bear dán.

Ez dizut orañdic itz eguiñ, cristau maitia, egercicio espiritualetaco Eguz-

quiaren gañian , ceña dan Meza santua , gauzaric santuena , ta andiena, Cristandadeco Religioaren erdiya, edo centrua , devocioaren viotza , obra santuen vicia , esan al ditequien baño andiagoco Misterioa , Jaungoicoaren amorioaren joya beregan artcen duena, ta ceña mediante Jaungoicoac , bera guri emanaz , gracia , ta mesede asco eguiten dizquigu. (*)

Meza santuarequin bat eguiñic , eguiten dan oracioac , cristau maitia, ecin esan ditequien aimbateco indarra dú , aimbesteraño ce ura dala mediante betetzen dá anima Ceruco mesedez , ayequin mantentzen dú bere amante Jesusec , ta alaco moduan betetzen dú usai, ta atseguintasun espiritualaz , ce incensu , ta beste usai ona banatcen duten qué bolada andi bat

(*) Beste asco Aita Santuc eman dituzten indulgencia ascoz gañera , Aita santu Inocencio VI. oguei ta amar milla urtecoac eman cituen meza entzuten dán bacoitza gatic.

dirudi Cantataco libru santuan esaten dan bezala. (*)

Eguizu bada aleguñ guztia egunero mezatara joateco, Sacerdotiarequin batian zure Erredentoria Aita Eternoari ofrecitzeco, ez bacarric zu gatic, ez bada baita ere cristau fiel guztia gatic. (*) San Juan Crisostomocion bezala Aingueru asco daude an presente Misterio santu au honratzen, ta egoten baguera gu an ayequin batian ayen intencioarequin berarequin, ez dá posible alaco compañiarequin mesede asco errecibitu gabe guelditzia. Meza santuco sacrificio onetan batutzen' dira Jesusequin Eliza Triunfante, (*) ta Militanteco Coroac Jesuse-

(*) Gueyago erabazten dá meza entzuten dán bacoitcean urte guztian ur ta ogui barau eguiteaz, ta beste penitencia andiac eguitearequin baño. ¿Norc galduco dú bada artaraco ocasioa?

(*) Ez guchia purgatorioco anima gaisoac gatic.

(*) Eliza triumfante gatic Ceruan Jaun-

quin, Jesusegan, eta Jesusgatic Aita Eternuari viozta erabazteco, ta aren misericordia guztia gurea eguiteco. ¿Cér dicha gueyago izan diteque anima batentzat bere afecto guztiac gauza aiñ santuan devocioarequin empleatu alizatia baño?

Precisoco ocupacioaren baten motivoz mezatara eciñ juañ ceranian, zurre viotzaz an egoteco aleguiña eguizu. Eciñ juañ bacera bada gorputzez Elizara, zuaz goiceco eroceiñ ordutan zurre espiritua mediante; beste cristau guztien intencioarequin zurea bat eguizu, ta meza santua entzuteco Eleizan eguiten dituzun devocioac, zauden lecuñ eguizquitzu.

Meza ongui enzuteco, nola presente zaudenian, ala echian zaudenian, ta orobat beste eroceiñ toquitian zaudenian, eguiñ bear dezuna dá: Lembici; Sacerdotia meza esateco jazten asitcen

goicoz gozatcen daudenac, aditcen dira; ta Militantia gatic orandic viciric dauden cristau, fiel guztiac.

danetic aldarera allegatu arteraño e-
guizu meza entzuteco prestaera , ta au-
dá Jaungoicoaren presencian , edo au-
rrian jartzia , zure miseria ezagutu , ta
zure pecatuac gatic barcacioa escatcia.

Bigarrena: Sacerdotia aldarera alle-
gatcen danetic Evangelioraño conside-
ra zazu guztia batian bezala zure Je-
susen munduraco etorrera , ta emen
eguin zuen vici modu santua.

Irugarrena : Lénvico Evangelioa
esan ezqueroztic Pater nosterreraño
considera zazu Jesusen eriotza ta pa-
sioa , ceña eguiaz errepresentatzen dá
meza santuco sacrificioan , ta ofreci
zayozu au Sacerdotiarequin , ta enzu-
ten dauden bestiaquin batian Aita
Eternoari beraren honraraco , ta zu-
re provechuraco.

Laugarrena: Pater nosterra esan ez-
queroztic Sacerdotiac Jesusen odola ,
ta gorputza errecibitzeraño emplea zai-
tez deseoac irazaquitzen amorioa me-
diante zure Salvadoriaquin bat egui-
ñic beti egoteco.

Bostgarrena : Sacerdotia conulgatu ezqueroztic meza acabatu ar-teraño emayozcatzu esquerrac Jesusi bere guizon eguite, vicitza, eriotza, pasio, ta Meza santuan aguertu digun amorioa gatic. Esca zayozu, lagun dizazula sacrificio orregatic zuri, zure gurasoai, aidiai, adisquidiai, ta cristau fiel guztiai, (*) ta viotz guztitic humilduric errecibi zazu Jaungoicoac Sacerdotia mediante ematen dizun bendicioa.

Baña egun artaraco señalatua daucazun meditacioa meza entzuteco demboran eguiñ nai badezu, ez dezu ceribilliric esan dituran gaucetan, asco dezu meza asitcian meza ura entzuteco intencioa artzia, ta esatia zure vorondatia dala eguitera zuacen meditacioa mediante, Sacrificio santu ura adoratzeco, ta ofrecitzeco, bada meditacio guztietan daude moduren bati-

(*) Ta erruqui dedilla purgatorioco animaz. Ta zuc señalatu nai badezu ayeta-coren bat, señalatu.

an meza entzuteco esan dituran eger-
cicio santuac.

XV. CAPITULO A.

Beste egercicio santuen gañian.

Esan deranaz gañera, izan bear de-
zu ere cuidadoa igandetan, ta beste ja-
yetan vezpera, ta Elizaco beste fun-
cioetara aldezun guztian asistitzeco,
cergatic egun abec Jaungoicoari con-
sagratuac dira, ta ala beraren honra-
raco beste egunetan baño gueyago e-
guiñ bear dá. Animaco consuelo andi-
ac vide onetatic sentituco dituzu San
Agustiñec bezala, ceñac esaten dú, Ja-
ungoicoagana convertitu berrian Eli-
zaco funcioac aditcen cituenian, viot-
za consueloz, ta beguiac negar gozoz
betetzen cizayozcala. Onetzaz gañera
gueyenian bere devocio particularre-
tan baño gracia, ta consuelo gueyago
errecibitcen dú animac Elizaco funci-
oetan, cergatic gueyago gustatzen za-

yo Jaungoicoari persona ascoc alcar arturic eguiten duten obra ona , batec edo particularrac eguiten dutena baño. Sartu zaitez gogo onez vici ceran errian diran Hermandade , edo Cofradietan , ta batez ere eguiten diran egercicio santuac frutu , ta egemplo gueyago ematen dutenetan , bada onetan Jaungoicoari asco gustatzen zayon obediencia genero bat aditzera emango dezu. Hermandadeac , obligaciozcoac ez badira ere , Eliz Ama Santac asco encargatzen ditu , ta cristauvac ayetan sartzia , cembat gustatzen zayon aditzera emateco indulgencia , ta privilegio asco sartzen diranentzat ematen ditu. Orretzaz gañera , caridade andico gauza dá ascorequin batutzia , ta beren proposito santuetan orrela laguntzia. Ta Hermandadian eguiten diran egercicio guztiac batec bere bacarran eguiña gatic , orregatic ere honra gueyago ematen zayo Jaungoicoari ala Hermandadian bestiaquin batian eguiñaz. Oro bat diot publicoan eguiten

diran beste egercicio santu guztiac gatic, ceñaquin eman bear degu aleguin guztia egemplo ona progimoaren provechuraco; ematen degu ere orrela aditzera cembat gustatzen zaigun Jaungoicoa servitua izatia.

XVI. CAPITULO A.

Honratu, ta deitu bear diegula Santuai.

Bialtzen dizquigun ezqueroztenic Jaungoicoac bere Aingueru Santuac mediante pensamentu on asco, arrazoi dá guc ere maiz bialtzia berari gure atsguite santuac, au dá Aingueruaquin batian Jaungoicoa gozatzen Ceruandauden anima santuac; eta Jesusec di on bezala, Aingueruaquin berdiñac, ta ayen antzecoac diran bezala, eguiten dute Aingueruen officioa bera, guri pensamentu onac ematen, ta gu gatic Jaungoicoari erregutzen.

Batu gaitecen, cristau maitia, gu-

re viotzarequin Aingueru, ta Santueta-
 ta, cergatic nola Ruiseñor edo Erre-
 chiñoleta esaten dioten choriac chiquia
 danian, andiaquin batu ta cantatcen i-
 casten duen, ala guc ere Ainguru, ta
 Santuaquin batutcen baguera, obeto
 jaquingo degu Jaungoicoaren alabant-
 zac errezatzen, ta cantatzen: Aingue-
 ruen aurrian Salmo, edo canta nic can-
 tatuco det, esaten zuen Davidec.

Honratu, erreverenciatu, ta erres-
 peta zazu amorio espiritualarequin Ja-
 ungoicoaren Ama Maria Santissima,
 bada gure Aita Soberanoaren ama dan
 ezqueroz, gure amona izango dá. Ju-
 an gaitecen bada beragana, beraren
 semechoac bezala etzin gaitecen confi-
 anza andi batequin beraren magalian.
 Deitu diozagun ama gozo oni eroceñ
 ordutan, ta eroceñ ocasiotan amari be-
 zala, ta imita ditzagun aren virtutiac.
 Eman diozagun beti aditzera, ama be-
 zala estimatcen degula, ta billa deza-
 gun ere ama bezala.

Izan zaitetz Aingueru Santuen chit

adisquidia ; beguira zayezu maiz zure
 aurrian , baldin baleudeque bezala ; a-
 matu , ta erreverenciazazu batez ere
 zure Obispaducoa ; ceñari zu encomen-
 datua zauden , zurequin vici diran per-
 sonenac ere bai , ta batez ere zurea.
 Alabatzitzu , ta erregu zayezu asco-
 tan , ta billatzitzu lagun eguiteco nola
 animaco , ala gorputceco , edo mundu-
 co eguiteco guztietan.

Pedro Fabro veneragarria , ceña Je-
 susen compañiaco lenvicico Sermolaria
 Thelogiaco lembico Maisua , ta S. Ig-
 nacio Loyolacoaren lembicico laguna
 izan zan , Jaungoicoaren honran asco
 trabajatu ta Alemaniatic cetorrela , e-
 gun batian Obispadu onetatic (*) pa-
 satzen zala , contatzen zuen , herejeen
 asco erritatic pasatcian asco consuelo
 izan cituela , cergatic allegatzen zan e-
 rri bacoitzeco Parroquiaco Aingueru
 guardacoari agur eguiten , ta erregut-
 zen ciola , ta ezagutzen zuela chit as-
 co lagundu ciotela , ez bacarric he-

(*) Ginebracotic.

regeac gaudic bere burua libratcen,
 ez bada bai ta ere anima asco conver-
 titzen. Ta alaco devocio, ta consuelo-
 arequin au contatu zuen ce, aditu zion
 Señora batec, orduan damachua za-
 nac, ez lau urtez gueroztic bacarric,
 ez bada iruroguei urtez gueroztic ere
 devocio andiarequin contatzen zuen.
 Ez nuen neronec ere consuelo chiquia
 izan joan dan urtian guizon santu au
 jayozan Villaret zaritzan erri chiqui
 batian, ta jayo zan toquian bertan al-
 dare bat consagratzen.

Escogitzazu Santuren batzuec, ayen
 vicitzaz obeto gustatu ta imitatzeco
 zuretzat egoquienac diranac, ta aien
 oracioetan confianza particularra edo
 beresia izango dezu. Batayotic dauca-
 zu señalatua zure icenecoa.

XVII. CAPITULO.

*Faungoicoaren itza nola entzun, ta
 iracurri bear dan.*

IZAN zazu gogoa, cristau matia, Ja-

ungoicoaren itzac entzuteco, dala lagun artian, dala sermoian, ta beti atencio, ta erreverencia andi batequin entzuten egon bear dezu; aprovecha zaitez ongu artzaz, ta ez dezazula galtcen utci, ez bada errecibi zazu valio andico balsamo bat bezala zure viotcian. Au eguiten zuen Ama Virgiñac, bada gordetzen cituen cuidado andiarequin bere viotcian bere seme Jesusen alabantzan esaten ciran itz guztia. Oroi zaitez ere Jaungoicoac sermoyetan esaten dizquigun itzac guc errecibitzen ditugun bezala, arc ere guc oracioetan esaten diozcagunac errecibitcen dituela.

Iruqui zazu beti zurequin libru devotoren bat; nola diran San Buenaventura, Dionisio Cartujano, Fr. Luis de Granada, San Ignacio, Combate espirituala, San Agustiñen confesioac, San Geronimoren cartac, ta beste onelacoren bat edo gueyago, ta iracurritzatzu devocio andiarequin, Ceruco videa icasteco, ta araco videan animatceco Santuac Cerutic bialdu dizquitzen cartac baldiñ balira.

que bezala. Iracurritzatzu ere Santuen vicitzac ceñatan ispillu batian bezala icusico dezu christauvac eguin bear duen vici modua; consideratcitzu ayen obra onac, ta icusi zazu zure estaduarequiri egoquiena ceñ datocen, ayetan imitatceco, cergatic eguia bada ere, munduan vici danac, ecin imita ditzaquela guciro santuen obrac, orregatic ere seguiditzaque aldetic, edo urrutichotic. San Pablo lembicico hermitañoaren erretiroa imita dezaquezu zure bacartasun espiritualetanta espirituz, ta gorputzez ere noician beñ munduco negocioetatic apartatuaz. San Franciscuaren pobreza andia imita dezaquezu guero esango degun moduan pobreza egercitatuaz, ta onela beste gañeraco guztian gauza ciertoa da ere, Santuen batzuen vicitzac bestienac baño arguigueyago ematen digutela gure vici modua Ceruco videan governatceco, nola dan Santa Teresarena, ceña miragarria dá onetaraco. Lembicico Jesuiten vicitzac, San Carlos Borromeo Milango Arzobispoarena, San Luis, ta San Bernadarena,

San Franciscoco Santuen vicitzaco libru-
 ac, ta beste onelacoac. Badira beste bat
 zuec imitatceco baño arritceco gueyago
 servitcen durenac, nola diran Sta. Maria
 Igitocoarena, San Simon abegañian urte
 ascotan vicitu zanarena, bi Santa Catalina
 bata Senacoa, ta bestia Genobacoarena,
 ceñac orre gatic ere ematen digute Jaun-
 goicoaren amorioaren gusto andi bat.

XVIII. CAPITULO.

*Jaungoicoac ematen dituen viotz mugui-
 dac, edo inspiracioac nola errecibitu
 bear diran.*

Deitcen zaye viotz muguida, edo ins-
 piracioac Jaungoicoac gure viotcian egui-
 ten dituen beragana deitce mugumentu,
 barrengo erreprentio, concienciaren acu-
 sacio, arguitasun, ta ezagüerai, ceñaquin
 digun amorio andiagatic bedeincatcen dü
 gure viotza, orrela esnatu, muguitu, ta al-
 dera gaitecen virtute santuetara, Ceruco
 gaucen amoriora, asmo santuetara, ta ita

barian esateco , Cerua erabazten In gunt-
 cen diguten eroceñ gaucetara. Oni deit-
 cen dio Canteraco libru Santuan Esposo
 Santuac ate jotcia , Esposa Santari viot-
 cera deitcia , lotan dagoenian esnatcia ,
 aparte dagoenian deitcia , bere eztira , ta-
 sagarrac biltcera convidatcia , bai ta era
 loreac bere jardiñian , ta aren voz atse-
 guña aditu deseoz cantatcera. Ara iduri
 edo exemplo bat au aditceco. Emacume
 batequin ezcontza eguñic guelditceco ,
 iru gauza guerratcen dira, lenvici, ematen
 zayo aditcera ezcontza , bigarren , ontzat
 artcen du , ta iru garrena artan etortcen
 da , edo consentitcen du ; ala ere bada Ja-
 ungoicoac gugan , gugatic , ta gurequin
 obra onen bat eguin nai duenian , ematen
 digu lembici aditcera viotz muguida me-
 diante ; bigarrena , ontzat artcen degu ; ta
 irugarrena , consentitcen degu ; cergatic
 nola peccatura jasteco iru escallera malla
 diran , au dá tentacioa , gustoa ta consen-
 timentua , ala dira iru escallera malla vir-
 tutura allegatceco , bata viotz mugui-
 da , ceña dan tentacioaren contrarioa ,

bestia atseguin tasun espirituala viotz muguidan , ceña dan tentacioan izaten dan atseguinaren contrarioa, ta irugarrena viotz muguidan consentimentua, ceña dan tentacioan izaten dan consentimentuaren contrarioa.

Viotz muguidac gure vicitza guztian irauna gatic ere ez guera orregatic Jaungoicoaren gustocoac izango , ez baldin baguera artan gozatcen , ez bada contrara , Jaungoicoari nai gabea emango diogu , nola ematen cioten Israeltar , edo Juduac , Jaungoicoac berac dion bezala , ayec convertitu nayan berroquei urtian ayen aldian egondu zanian , ta orregatic ere etzuten au ezagutu nai izan- du , ta ala motivo onen gatic bere aserrian juramentu eguin zuen , etcirala a- ren descantsuan sartuco. Ala doncella bat urte ascotan servitu duen Caballeroa , ar- razoyarequin gueldituco lirzaque chit sentitua , ez balioque casoric eguingo , berarequin ezcontcia deseaten duela , aditcen emanta.

Viotz muguida mediante animac arte

cen duen gustoac asco laguntcen dú Jaungoicoaren honraraco artatic Jaungoicoari gusto ematen asiaz, cergatic atseguin, edo gusto ura, consentimentu osoa oraindic ez izanagatic, artaraco prestaera dá. Ta baldin señalet ona, eta gauza provechugarria bada Jaungoicoaren itza, ceña dan viorz muguida aguri bat bezala, gustoz entzutia, izango dá ere provechugarria, ta Jaungoicoaren gustoco gauza. beguiz icusten edo belarriz entzuten ez dan viorz muguida gustoz errecibitcia. Esposa Santac gusto, edo atseguin onen gañian esanten dú, arguizagua bezala pozaz urtu dá nere anima bere Esposo maitia topatu duenian; ala lenago esan deran Caballeroari gustatcen zayo servitcen duen doncella, ta dicha anditzac iruquitcen dú bere servicioac doncellari gustatcen zayozcala icustia.

Baña orregatic ere consentimentua dá guztia cumplitua eguiten duena, cergatic, baldin viorz muguida etorri, ura gustatu, ta orregatic ere Jaungoicoari consentitcen ez badiogu, esquer gaizto-

roac guera ecin gueyagoraño, ta chit as-
 co ofenditcen degu Jaungoicoa, cerga-
 tic desprecio andia eguiten diogu one-
 tan. Au guertatu citzayon Esposa San-
 tari, cergatic bere Esposo maitiac aren
 viotza bere itz gozoatequin icutu bazu-
 en ere, etcion orregatic ere ateric iriqui,
 ez bada arrazoi gabeco aitzaquiaquin es-
 cusatu zan, ta Esposoa, arrazoyarequin
 aserraturic, joan zan andic, ta utci zuen.
 Ala Caballero noble arc ere urte ascoan
 dama servitu ezquero, ta aren servicio-
 ac gustatcen citzayozcala damac aditcera
 eman ezquero, guero bota ta despeituco
 baluque, arraizoi gueyago izango luque
 quejatceco, aren servicioac cergatic da-
 maren gustocoac etciran, despeitua izan
 ta izango luqueen baño. Artu zazu ba-
 da asmo sendoa, cristau maitia, Jaun-
 goicoac bialtcen dizquitzun viotz mu-
 guida guztiac viotz guztitic errecebit-
 ceco. Errecibitzatzu Ceruco Erregueren
 embajada, edo avisoa bezala, ceñac zu-
 requin ezcontza espirituala tratatu nai-
 dú; adi zazu gustoz cer esaten dizun, be-

guita zazu cer amorioarequin viotz muguidatcen dizun , ta nola maitatcen zaituen viotz muguida errecibitceco ; consenti zazu , baña consentimentu amorioso , ta irauncorrarequin , orrela zuc eciñ pagadezaquezun Jaungoicoa chit pagatua gueldituco dá zure afecto santua gatic. Baña orregatic ere viotz muguida ez usatu , ta importanciacoetan consulta zazu , consentitu baño lenago zure Aita espiritualarequin , engañatu etzaitecen , examiña dezan arc eguiazcoa , edo guezurrezcoa dan viotz muguida , cergatic etsayac , anima viotz muguidetan consentitceco prest icusi ta , ascotan ipintcendiozca engañatceco viotz muguida falsoac , baña ez dú iñoiz engañatcia lo-gratuco . baldiñ christauvac bere Aita espiritualarequin consultatu , ta humildadiarequin obeditecen badio , esaten di-on guztian.

Viotz muguidari consentimentua eman ezquero procuratu bear dá cuidado ardiarequin cumplitcia , ta au dá eguiazco virtutiaren goya , edo perfeccioa , cer

gatic consentimentua cumplitu gabe vicia-
 tcian iruquitcia, matsa ipiñi, ta fruturic
 ez nai ematia bezala izango litzaque.
 Onetaraco guztiraco asco servitcen dú le-
 nago esan degun goiceco egercicio san-
 tua, ta bacartasun espirituala ongui egui-
 tiac, cergatic abec mediante prestatcen
 guera obra onac ongui eguitera, ta ez
 obra on guztietaraco prestaera bacar ba-
 tequin alere, ez bada baita ere obra ba-
 coitzac escatcen duen prestaera bereisia-
 requiñ, edo particularrarequin.

XIX. CAPITULO A.

Confesioco Sacramentuaren gañlar.

Utcí cigun Elizan gure Salvadoriac
 Confesioco Sacramentu Santua pecatuz
 manchatuac gueunden guztian ayetatic
 garbitceco. Erremedio aín erraza escuan
 dezun ezqueroztenic bada, cristau maitia,
 ez dezazula iruqui zure anima pecatuz
 manchatua. Leoi navarrarequin araguiz

batutcen dan Leoi emea corrica joaten dá bere burua garbitcera arequin ibiltce-
 tic etorri zayon usai gaiztoa quentzeco,
 Leoyac etorcian besterequin ibilli dala
 ezagutu ez dezan, ta aserratu ez dedin.
 Pecatu eguin duen animac lotsatu, ta
 nazcatu bear dú bere buruaz, ta lembait
 len garbitu bear dù berari beguiratcen
 dion Jaungoicoari izan bear dion erres-
 petoa gatic. ; Cérgetic egongo guera ani-
 man illac, edo pecatuan, orretatic li-
 bratceco alaco erremedioa degula ? Con-
 fesa zaitez humildade, ta devocioare-
 quin zortcitic zortcira, ta comulgatu be-
 ar dezun guztian ere bai albadezu, pe-
 catu mortalic zure conciencian ez ezagu-
 tua gatic, cergatic confesioa mediante
 ez bacarric confesatcen dituzun pecatu
 venial guztien barcacioa alcantzatuco de-
 zu, ez bada logratuco dezu ere indar
 andi bat aurrera ayetan ez erortceco, ar-
 gui andi bat ayec ezagutceco, ta gracia
 andi bat eguin dizuten caltia erremediat-
 ceco. Egercitatuco dezu confesatciaz hu-
 mildadia, obedientcia, toles gabetasune.

co virtutia , Jaungoicoaren amorioa , ta
itz batian esateco , beste eroceñ obra o-
netan baño virtute gueyago egercitatuco
dituzu confesatciaz besteric gabe.

Iruqui zazu beti confesatcen dituzun
pecatuen gorroto andi bat , dan chiquie-
nac izana gatic ere , emendatceco asmo
firmiarequin. Ascoc costumbrez , ta apa-
intcez bezala emendatceco asmorric gabe
pecatu venialac confesatcen dituzte , ta
guelditcen dira beren vicitza guztian a-
yetzaz cargatuac , onela animaco prove-
chu asco galtcen dituztela. Confesatcen
baldin badezu bada naiz iñoren caltecoa
ez dan guezur bat esan dezula , edo on-
gui ez dirurien itcen bat esan dezula,
edo beste eroceñ pecatu venial , aren da-
múa artu zazu emendatceco asmo firmia-
requin ; bada aguerian dago Confesioaz
gaizqui usatcia dala , pecatua edo dala
mortala edo dala veniala artatic garbit-
ceco deseo gabe confesatcia , cergatic
Confesioa ez dá bestetaco , ez bada pe-
catuetatic garbitceco.

Etzaitecela confesatu ecer servitcen ez

duen ascoc usatcen duen moduan ; nola dan ; acusatcen naiz ez derala bear bezala Jaungoicoa amatu , ez derala bear dan devocioarequin errezatu , ez derala bear nuen aimbat nere progimoa amatu , ez diturala bear dan erreverenciarequin Sacramentuac errecibitu , ta onelaco beste moduetan. Etzaitecela bada iñoiz orrela acusatu, cergaric orrela confesatciarequin ez diozu Confesoriari pecatu jaquiñic, edo particularric esaten , ta Ceruan diran Santu guztiaç, ta munduco persona guztiaç ere itz eguin lezateque modu orretan , confesatuco baliraque. Beguira zazu bada cer falta particular , edo beresiya gatic orrela acusatcen ceran , ta falta jaquiñic topatcen badezu confesa zazu ura modu oriec utci ta. Eguin dezagun contu acusatcen cerala ez dezula progimoa bear bezala amatu ; au eguia izan diteque , comparaciora , cergatic pobre bat premia andian icusi ta socorri cenezazuna , etcenuen socorritu. Acusa zaittez bada gauza particular , edo beresinetzaz esanaz , pobre bat premian icusi

na socorri nezaquena ez det socorritu,
edo nere descuidoa gatic, edo gogortasuna
gatic, edo desprecioa gatic; falta
onen motivoa cer izan dan, cedorrec
ezagutcen dezun bezala.

Orobat, etzaitecela acusatu, ez dezula
bear dan devocioarequin errezatu, ez
bada egon bacera errezarceco demboran
beste gauzaren batian zure vorondatez
pentsatcen, edo utci badezu zure descui-
doz errezarceco bear dan dembora, le-
cua, edo egoteco modua artu gabe, con-
fesa zazu ori faltatu dezula cedorrec eza-
gutcen dezun bezala, generalian acusar-
ceco beste modu ura utci ta, ceñac ez oz-
tutcen dú, ta ez berotcen du confesioan.
Etzaitecela ere contentatu peccatu venia-
lac eguin dituzun bezala esan utsarequin,
ez bada esazu ere, cer motivo gatic e-
guin cenituen. Etzaitecela contentatu
comparaciora, iñoren caltecoa ez dan
guezur chiqui bat esan dezula confesatce
utsaz, ez bada esazu ere edo vanidadia
gatic, edo zure burua alabarcia gatic, edo
zure burua escusatcia gatic edo seta, edo

jostatcia gatic bacarric esan dezun ; one-
 la beste gañeraco gauceran. Esazu ere
 pecatu eguiten luzaro egon bacera , cer-
 gatic dembora luciac andiagooa eguiten
 dú gueyenian pecatua , bada diferentcia
 andia dago ordu laurden bat , edo gu-
 chiagoan irauten duen vanidadian , ta-
 liru , edo lau egun irauten duenaren ar-
 tian. Esan bear degu bada cer motivo
 gatic eguin guenduen pecatua , ta cem-
 bat demboran iraun zuen , cergatic ez
 badago ere gueyenian , orrelaco cuida-
 doarequin pecatuac confesatcera inor o-
 bligatua , orregatic ere devociora allega-
 tceco prestaerarie aldan andiyenian be-
 ren animac ipiñi nai dituztenac , cuidado
 andia izan bear dute beren animaco gait-
 zac dan chiquienac izana gatic ere beren
 Medicu espiritualari aditcera emateco ,
 bada arc sendatcia deseaten dute. Ez de-
 zazula esan gabe utci eguin dezun peca-
 tuaren calidadia ezagutceco bear dana ,
 nola dan cer motivo gatic coleratu ce-
 ran , edo cer motivo izan dezun peca-
 tuan besteri sufritceco. Ipiñi dezagun au

entenditceco comparacio bat. Niri gustatcen etzaitadan guizon batec esango dir bear bada chanchetan, edo parra eraguiteco itcen bat, ta nic gaiztotzat artuco det, ta aserratuco naiz, ta baldiñ nere gustoco batec gauza gaiztoago bat esan baciran, ontzat artuco nuen; orrelaco ocasioan bada modu onetan confesatuco naiz; onelaco modutan aserre itz eguin diot persona bati, esan cirañ onelaco gauza gaitcera artuta, ta ez dá au persona gatic bera gatic izan, ez bada cergatic nere gogocoa etzan; ta baldiñ ezagutcen bada, pecatua ongui aguertceco, conueni dala bestiac esan ciruen itzac esatia, deritzat, ongui izango dala esatia; cergatic onela garbiro acusatciarequin ez bacarric aguertcen dira eguin diran pecatuac, ez bada baita ere oitura, ta grina gaiztoac, ta pecatuaren beste sustrayac, onela Confesoriac obeto ezagutcen dú confesatcen danaren viotza, ta eman bear diozcan erremedioac, baña orregatic ere ez dezu albadezu aguertu bear zurequin pecatu eguin zuen perso-

na, edo pecatu eguiten lagundu cizuna nor dan. Beguira zazu ongui sentitzen ez dan moduan zure conciencian vici dan pecatu pilla andi bat, ezagutu ta confesaditzatzun, ta orrela ayetatic garbitu zaitecen. Onetaraco iracurritzatzu atencioarequin libru onen irugarren parteco seigarren, oguei ta zazpi, ta zortcigarren, oguei ta amabostgarren, ta amaseigarren capituloac, ta laugarren parteco zortcigarrena.

Ez dezazula erraz aldatu confesoreric, ez bada bat escogitu ezquero, segi zazu arequin zure concienciaco contua orretaraco señalatuac daucazquitzun egunetan ematen, esaten diozcatzula garbiero eguin dituzun pecatuac, ta noiztic nora, illeric, illera, edo bitic bira esayozu zure griña gaiztoetan nola zauden, ayec gatic peccaturic eguiñ ez badezuzere, nola dan tristura, edo ansiaren batequin penatua bazaude, alegria provechu gabeetara erraz utciten bacera, ondasunen deseoac izaten badituzu, ta beste onelaco griñac,

XX. CAPITULO.

Maiz comulgatciaren gañian.

Mitridates Pontoco Erreguea gatic
 contatcen dute, berac topatu zuen ira-
 senda, edo pozoyaren contraco bate-
 quin, ceñari aren icenetic Mitridatico
 ditcen zayo, alaco moduan indartu zuela
 bere gorputza, ce guero aleguñia eguin
 bazuen ere pozoitceco, vicia galdu ta or-
 rela Erromatarren crueldadetic libratceco,
 etzuela inolaz ere pozoitcia logratu. Al-
 dareco Sacramentu Santua, ceñian gure
 Solvadoriaren gorputza, ta odola daude,
 eguin zuen berac ura errecibitcen zuena
 beri vicitceco; orregatic devocioarequin
 maiz errecibitcen duenac alaco moduan
 bere animaco osasuna, ta vicia indartcen
 du, ce esan dezaquegu alde aldian, eciañ
 inolazco aficioz gaitoz pozoitu ditequeala.
 Vicitza ematen duen aragui onequin man-
 tentcen guerata eciañ vici guintezque aficio
 erioisoaquin, edo ilteccoquin, ta nola
 baldin Jaungoicoac mundu onetan Ada-
 ni paratu cion Paradisoan guizonac vici-

tu izan vicieran gorputzaren partetic il gabe ango frutarequin vici citezquian, ala ere vici ditezque animaren partetic il gabe sacramentu santu onequin. Ta baldin fruturic delicaduenac, ta usteltcen erraccenac nola diran guereciac, albericoquiac, marrubiac, ta beste onelacoac, erraz conservatcen badira urte guztian galdu gabe azucre, edo ezti conservan, ez dá arritcecoa izango gure viotzac argalac, ta indar guchicoac izanic ere, pecatu gabe conservatcia iñoiz usteldu ez diran Jaungoicoaren semearen gorputz ta odolarequin batutcen badira. O cristau maitia, condenatcen diran cristauvac, cererantzunic ez dutela gueldituco dira Jaungoicoaren tribunalian Juez justuac beguien aurrian ipiñtzen dienian beren culpaz galdu cirala, bada aiñ erraz conserva citezquian animan viciric, edo Jaungoicoaren gracion, fiñ onetaraco utci cien bere gorputza errecibituaz. A miserabliac, esango die, ; cergatic iltzen utci ciñaten vicitzaren fruta, ta janariya zuen escuan iruqui ta ?

Ez det ez ontzat, ta ez gaiztotzat ama-

ten egunero comulgatcia, baña igandero
 comulgatcia eroceni consejatcen dior, ta
 exortatcen ere badet orretara, bere anima
 pecatuco aficioric bar ere gabe baldin ba-
 dauca, San Agustinen irzac dira abec, ta
 berac bezala nic ere ez ontzat, ta ez gaiz-
 totzat daucat egunero comulgatcia, ez ba-
 da puntu au erabaqui nai duen Aita espi-
 ritualaren prudentciara utcitcen der, cer-
 gatic orren maiz comulgatceco bear datu
 animaco prestaera, edo garbitasuna chit
 andia izan baño lenago, ez dá ongui ge-
 neralian, edo personetan diferentciaric e-
 guin gabe consejatcia; ez dá ere genera-
 lian gaiztotzat ematia, cergatic animaco
 prestaera andi au asco cristau onec izande-
 zateque, ta ala utci lizayoquien edo ez
 cristauvari egunero comulgatcen esateco,
 bacoitzaren animari beguiratu bear zayo,
 cembatecoa dan aren prestaera, edo gar-
 bitasuna. Imprudentcia izango litzaque
 guztiai difetentciaric gabe onen maiz co-
 mulgatcia consejatcia, ta imprudentcia
 izango litzaque ere eguiten duena gatic
 gaizqui esatia, ta batez ere Directore
 prudente batequin consejatu ta usatcen ba,

du orrela egunero comulgatcia. Sra. Catalina Senacoac errespuesta ederra eman cion, egunero cergatic comulgatcen zan contu artu cion bati; esan cion bada persona arcs; cergatic egunero comulgatcen cera, bada San Agustiñec ez dú ez ontzat, ta ez gaiztotzat artcen ori eguitia? Santac arrazoyarequin erantzun cion; ez baldin badu San Agustiñec gaiztotzat artcen, escatcen dizut ez dirazazula arren zuc ere gaiztotzat artu, ta orrembesterequin contentatuco naiz.

Baña badaquizu, cristau maitia, asco consejatcen duela San Agustiñec igandero comulgatcia, ta ala aldezun guztian eguizu, bada esan deran bezala ez dezula uste det pecatu mortalen baten afioric, ta venialen bateraco griñaric, ta ala orreñ maiz comulgatceco San Agustiñec escatcen duen prestaerarequin zaude; ta orañdic San Agustiñec escatcen duen baño andiyagoarequin, cergatic ez bacarric ez dezuz pecaturaco afioric, (*) ez bada ez

(*) Pecatu señalatu edo jaquiñen bateraco, edo gueyagoraco.

dá ere inclinacioric , ta ala zure Aita espiri-
ritualari ongui baderitza , Igandetic Igan-
dera baño maizago comulga zaitezque.

Izanditzaquezu ; orregatic , zure parte-
tic ez bada ere , zurequin vici diranen al-
detic motivo justuren batzuec , ceñac ga-
tic esango dizu bear bada Confesore pru-
dente batec , esan degun beceñ maiz ez
comulgatceco. Comparaciora ; besteren
mendean vici bacera ta zuc obediencia,
edo errespetoa zor diezunac aiñ guchi da-
quitenic , edo aiñ genio gaiztocoac dira,
ce inquietatcen , ta alborotatcen dira zu
aiñ maiz comulgatcen icusita ; Onelaco
ocasioan ongui consideraturic , obeto izan-
go dá bear bada ayen argaltasunari begui-
ratuta , edo aserratcezo motivoric artu ez
dezaten , amabostetic amabostera baicic ez
comulgaticia , au aditcen dá ayec ez in-
quietaticia eciñ bestela logratu danian , mo-
tivo onengatic eciñ generalian esan dite-
que noiz utci ditequien , esan deran mo-
tivoa gatic zortetic zortecira , edo maiza-
go comulgaticia ; bere Confesoriarequin
consultatu bear dù bacoitrac , ta arc esa-
ten diona eguin. Eguia dá , nic segurua

esan dezaquet, eguiaz devotoa izan nai duen cristauvaren comulgatciac illabete batera gueyena luzatu bear duela.

Prudentcia izan ezquero, ez dá izango ez aitaric ez amaric, ez emazteric, ez senarric maiz comulgatcia eragotci dizaque-zunic; cergatic comulgatcen ceran egunian ez dezu orregatic utcico zure estadi, ta obligacioac escatcen duten cuidadoa, beste egunetan baño ere alegriago, ta afabliago ayequin tratatcen dezula, ta escatcen dizuten gauza justuric ucatcen ez diezula, ta ala ez dá izango ichuratic maiz comulgatcetic zu aiec apartatu nai izateco, cergatic etzaye etorrico eragozqueta, edo incomodidaderic zure maiz comulgatcetic, non ta genio gaiztocoren barzuec, edo arazoyaz guchi usatcen dutenen barzuec ez diran. onelaco demboran bear bada zure Aita espiritualac esango dizu, orreñ maiz ez comulgatceco.

Ezconduai itz bat esan biar diet, bada conveni dala uste det. Etcitzayon gustatcen Jaungoicoari legue zarrían artceco dunac zor dunai beren artcecoac jai egunian escatcia, baña etcitzayon gaizqui iduri-

iten zor duñac beren zorrac jai egunian
 pagatcia ; pecatu andia ez bada ere , gaiz-
 qui dirurien gauza dá , comunioco egunian
 Matrimoio Santuco zorrac escatcia , baña
 ez dá gaizqui dirurien gauza , ez bada o-
 bra santua orrelaco egunian pagatcia , or-
 regatic beragatic etzayo comulgatcia iñori
 eragotci bear , cergatic Matrimonioco zo-
 rra pagatu duen. Eguiaz ; cristandadeco
 lembicico urtietan guztiac comulgatcen
 ciran egunero , ezcoduac izanagatic , ta a-
 ur ascorequin Jaungoicoagandic bedeín-
 catuac izanagatic ere. Au lenago esan de-
 rana gatic dá maiz comulgatciac ez diola
 ecartcen incomodidaderic ez gurasuai , ez
 emazteai , ez senarrai , comulgatcen dan
 cristauva prudentia izan ezquero. Ez dá
 gorputceco eritasunetan bat ere , comul-
 gatcia eragozten duenic , ez baldin ba-
 da goracara , edo vomitatcera maiz mu-
 guitcen duena.

Zortcitic zortcira comulgatceco bear
 dana dá pecatu mortalic ez iruquitcia , ez
 dá ere venialen aficioric , ta Jesus Sacra-
 mentatua errecibitceco deseo andi bat ,
 baña egunero comulgatceco , garaituac

iruqui bear ditu cristauvac bere griña ga-
iztoctatic gueyenac ta ofretzaz gañera ez
dú bere Aita espiritualaren conseju gabe
orreñ maiz comulgatu bear.

XXI. CAPITULOA.

Nola comulgatu bear dan.

Comulgatu bear dezun vezpera arrat-
setic asi zaitez urrengo egunian comulgat-
ceco prestatcen Jaungoicoaren amoriozco
oracio laburraquin. Zuaz bestietan baño
pisca bat goizago oñera goician goizago
jaiquiteco, ta esnatcen bacera arratsian,
bete zazu zure aboa, ta viotza Jaungoi-
coaren amoriozco itcen batzuequin ayen
usai onez zure anima bete dedin Ceruco
bere Esposoa errecibitceco, ceña zu lotan
zauden bitartian velan dago, ta prestat-
cen arida zuri milla gracia, ta mesede e-
guiteco, errecibitceco prestatua topatcen
bazaitu. Jaiqui zaitez goician espera de-
zun zori on andia gatic consueloz beteric.
Confesatu ezquero, zuaz confianza andia-
requin, baña aldezun humildaderic an-
dienarequin betico vicitzaraco mantene-

cen zaituen Ceruco Jaungoicoa errecibit-
 cera. Eta Jauna ez naiz ni zu errecibitceco
 diña esan ezquero, ez dezazula mugitu
 bururic, ez dá ere ezpañic naiz dala er-
 rezatceco, edo suspirioac eguiteco, ez
 bada poliqui, ta gueyegui gabe aboa iri-
 quiric, (*) ta Sacerdotiac cer eguiten
 duen icusi dezan conveni dana burua al-
 chaturic, errecibi zazu sinismen, edo fe-
 dez, esperantzaz, ta amorioz beteric zuc
 esperatcen, ta amatcen dezun Jesus, ce-
 ña gatic, ta ceñentzat cera zu. O cristau
 mailia, pensa zazu, ce nola erliac lurra-
 ren sustantciaric onena, ta Ceruco intza
 lorien gañera bilduric, ta ezü eguiñic
 eultzara eramaten duten, ala ere Sacerdo-
 tiac munduaren Salvadora, Jaungoicoa-
 ren semea intza bezala Cerutic jachi za-
 na, ta Virgñaren Seme eguijazcoa, gure
 guizatasuneco lurretic sortu zana aldare
 gañetic artu, atseguintasuneco janaria be-
 zala zure aboan, ta gorputcian ipintcen
 dizu; errecibitu ezquero bada mugui za-
 zu zure viorza viciuzaren Erreguea beat

(*) Ta mingaña poliqui pisca bat aterarico

bezala adoratcera. Tratat̄ zazu berarequin zure Salvacioco gañian. Beguira zayozu fede vici batequin zure barrenian non, zu zori onecoa eguitia gatic, sartu nai izan dú, eguiyozu arceraric aldezun onena, ta zure obra guztietan emazu aditcera Jaungoicoa zurequin dagoela. Bera bere personan comunioan errecibitceco eraric ez badezu, errecibi zazu viotcez, ta espirituarequin deseoa irazaqui bat dala mediante.

Comulgatcian zure intencioric principalena izan bear dú aurreratcia, indartcia, ta consolatcia Jaungoicoaren amorioan, ceratc gatic amorioa gatic errecibitu bear dezuz amorioa gatic bacarric ematen zaizuna. Beste obra guztietan baño amorosoagoa, ta cariñosoagoa ematen zaigu aditcera gure Salvadoria obra onetan, ceñatan, gure esateco moduan, ecer eztatcen dá, ta janari biartcen dá gure barrenian sartcia gatic, ta gure gorputz, ta viotzarequin bat eguitia gatic.

Galdetcen badizute mundutarrac, ceratc gatic orreñ maiz comulgatcen ceran? erantzun zayezu, Jaungoicoa amaten icastia

gatic, zure imperfeccioetatic garbictia gatic,
 tic, zure animaco miserietatic libratcia
 gatic, zure penetan consolatic gatic, e-
 ra zure argaltasunetan indartcia gatic or-
 reñ maiz comulgatcen cerala. Esayezu,
 bi persona moduc maiz comulgatu be-
 ar dutela, lénvici, virtutian perfectoac,
 cergatic maiz comulgatceco ongui presta-
 tuac daudelaric, gaizqui eguingo luteque,
 ez baldin baliraque maiz allegatuco per-
 feccioaren jayotceco iturrira; bigarrena,
 virtutian orañdic perfectoac ez diranac,
 perfecciora allegatceco; indarsuac; flaca-
 tu, edo argaldu ez ditecen, ta flacoac, in-
 dartu ditecen; eriyac, sendatu ditecen, ta
 osasunarequin daudenac, eritu ez ditecen
 maiz comulgatu bear dutela, ta nola ce-
 ran zu faltatsua flacoa, ta eriya, premia-
 dezula zure perfeccio, indar, ta Medi-
 cuarequin, ceña dan Jesus, maiz comu-
 nicatceco. Esayezu munduco negocio gu-
 chi dituztenac maiz comulgatu bear dute-
 la, cergatic badute era orretaraco, ta mun-
 duco negocio asco dituztenac ere bai, cer-
 gatic premia dute, eta asco trabajatcen du-
 tenac, ta penaz cargatuac daudenac janari

sendoac, ta maiz alere jan bear dituzte. Esayezu, ongui comulgatcen icastia gatic maiz comulgatcen cerala, cergatic imposible dá alde aldian, gauza bat ongui eguitia, lenago ascotan eguin gabe.

Comulga zaitez maiz, cristau maitia, ta aldezun maicena ala ere zure Aita espiritualaren consejuarequin, ta sinis zadazu ce nola erbiac neguban gure Alpeetaco mendietan colore zurira biurtcen diran, cergatic ez dute elurra beste gauzatic ez icusten, ta ez jaten, ala zu ere Sacramentu onetan edertasuna bera, ontasuna bera, ta garbitasuna bera adoratu, ta janaren poderioz guztia ederra, guztia ona, ta guztia garbia eguingo cera.

Devociozco vicitzaraco sarreraren irugarren partia, ceñian ematen dira virtutias egercitatceco bearrac diran asco aviso.

I. CAPITULO A.

Virtutien egercicioaz eguin bear dan auqueraren gañian.

Erlie Erreguea ez dá campora aterate

een , ez bada beste erle guztien compañi-
 an , ta guztiaç inguratcen dutela , ez dá
 ere Jaungoicoaren amorioaren virtutia gu-
 re animan iñoiz sartcen , beste virtute guz-
 tiac egercitatuz , ta Capitan batec bere
 Soldaduac bezala bacoitza tocatcen zayon
 toquian paratuaz , berequin artu bague ,
 cergatic guztiaç batian egercitatcen ez di-
 tu , ez da ere dembora , ta lecu guztietan
 berdiñ. Justua uraren bazterrian landa-
 tua dagoen , bere demboran frutua ema-
 ten duen arbola bezala dá , cergatic Jaun-
 goicoaren amorioaren virtutiarequin ani-
 ma erregatu ezquero , virtutezco obren
 frutuac bacoitza bere demboran ematen
 ditu. Esana dagoen bezala , Musica berez
 gustoco gauza bada ere , enfada garria dá
 progucio echietan. Asco personac izaten
 dute falta au ; virtuteren batera aficionat-
 cen badira , ta artan egercitatcen badira ,
 eroceñ toquitan , dembora , ta ocasiotan
 virtute artzaz bat beren gauza guztiaç e-
 guñ nai izaten dituzte , ta anciñaco Filo-
 sofoac bezala edo bei negarrez , edo bei
 parraz egon nai izaten dute , ta orañdic
 gaiztoago dana ; virtute aiec berac bezala

beti egercitateen ez dituztenac despreciat-
cen dituzte, ta ayec gatic gaizqui esaten
dute. Conveni dá alegratcia alegre daude-
naquin ta negarrez daudenaquin negar e-
guitia San Pablo Apostoloac esaten zuen
bezala; eta Jaungoicoaren amorioaren vir-
tutia sufricen daquiena, onguiroa, prestua,
prudentia, ta guztiaquin eguiten dana dá.

Badira orregatic ere virtute batzuec,
reñac ez bacarric eguin bear dira beresian,
ez bada baita ere beste virtutiaquin batian.
Ez dá beti izaten ocasioric, indartia, edo
fortalezaco virtutia egercitatceco, animo
andicoa, ta chit prestua dala aditcera e-
mateco, baña mansotasuna, templantza,
castidadia, ta humildadia gure obra guz-
rietan aguertu bear duten virtutiac dira.
Abec baño virtute obiac badira, baña a-
bec gueyagotan usatu bear dira. Azucria
gatza baño obia dá, baña gatza gueyago-
tan usatu bear dá, orregatic egon bear de-
gu batez ere esan dituran virtutiaz onguí
betiac, bada aín maiz guera ayen bear.

Virtutietan, gure estadoo obligacioa-
quin ceñ onguiena datorren, ura gueye-
na egercitatatu bear degu; ta ez gure gus-

toric andieneco. Santa Paulari gustatzen
 citzayon gorputceco penitencia andietan
 egercitacia, baña orregatic ere bere A-
 guintariari obeditceco obligacio gueyago
 zuen, orregatic San Geronimoc etzuen
 ontzat eramaten Santac alaco penitenciac
 eguitia, cergatic bere Obispoaren voron-
 datiaren contra eguiten cituen. Contrara,
 Apostoloac Evangelioa predicatcera, ta
 Ceruco oguia animai paritcera Jaungoi-
 coac bialduac, chit ongui pensatu zuten,
 etzutela empleo ura utci ta, pobrien cui-
 dadoan, ori berez añ ona izanic ere, em-
 pleatu bear. Virtute jaquiñen batian em-
 pleatu bear du bacoitzac. Batzuec dirala
 bestiac baño Aguintariari obeto dagoz-
 quiozcan virtutiac; bestiac Erregueri gue-
 yago dagozquianac; bestiac Soldaduari,
 bestiac emacume ezconduari, bestiac ema-
 cume alargunari, ta ala, guztiac izan bear
 badituzte ere virtute guztiac, ez dute aye-
 tan berdiñ egercitatatu bear, ez bada ceñ
 virtute diran ayen estaduari gueyago da-
 gozquionac, ayetan gueyena egercitatatu
 bear dú bacoitzac.

Gure obligacio particularrecoac ez di-

tan virtutien artian onenac escogitu bear dirugu, munduari andiac iduritzen za-yozcanac utcíta. Izarqueac, edo Cometac Izarrac baño andiagoac dirurite, baña ez dá ala, izarrac andiagoac, ta obiagoac dira. Izarqueac andiagoac iduritecia dá, cergatic izarrac baño gure alderago dauden, ta cergatic bastoagoac diran; ala ere bada, virtute batzuec, cergatic gure sentiduen alderago dauden, bestiac baño andiagoac iduritzen zaizquigu, ta orregatic beste virtutiac baño gueyago estimatcen ditugu. Gueyago alabatcen dú munduac limosna eguitea, conseju on bat ematia baño, cilicioa jaztia, barautcia, pobre jaztia, disciplinatcia, ta gorpuceco beste mortificacioac eguitia; vide gabequeriac sufritecia, cariñosoa, ta modestoa izatia, ta beste onelaco víotzaren mortificacioetan empleatcia baño. Escogitzatzu bada, cristau mai-ria, virtuteric onenac, estimatuenac utcíta, eguiaz valio gueyagocoac, ez baccaric ala dirurienac; obeagoac, ez guapoagoac.

Eroceñentzat dá obeago virtute jaquin, edo particularren batian egercitatcia, ez

orregatic bestiac utcitceco, ez bada bere
 re espiritua obeto ocupatua, ta orden
 obian iruquitceco. San Juan Alejandria-
 co Obispoari (*) aguertu citzayon don-
 tzella chit eder bat, Erreguiña bezala
 jantcia olivazco coroa buruan zuela, ta
 eguzquiac baño disdis gueyago eguiten
 zuela, ta esan cion; Erregueren alaba-
 ric zarrena naiz ni, ta nerequin ezcon-
 du nai baldin badezu, eramango zaitut.
 Erregueren aurrera. Ezagutu zuen San-
 tuac, Dama ura pobrien erruquia zala,
 ta Jaungoicoac ura encargatcen ciola.
 Dama ura ala aguertutciarequin, ta e-
 san ciozcan itzaquin; ta aimeste eguin
 zan gueroztic pobriac socorritcera, ce S.
 Juan Limosnaguillia eman cioten icena.

Elogio Alejandriacori, Jaungoicoa o-
 beto servitceco, deseo andiac eguincit-
 zayozcan. Etzuen senti bere burua he-
 remu, edo mendiyan vicitzeco indarra-
 quin, ez dá ere Religioan. ¿Cér eguin
 zuen bada? Artu zuen bere echera le-

(*) Amabost urteco mutilchoa zala.

guenarráz, edo lepraz betia cegoen pobre bat, arequin caridadia, ta mortificacioa egercitatceco, ta merecimentu gueyagorequin au eguiteco, pobre ura bere nagusia bezala honratceco, tratatzeco, ta servitzeco promesa eguin zuen. Pensatu zuten guero Eulogioc, ta pobriac bata bestia gandic apartatcia, baña au eguin baño lenago joan ciran San Anton gana consejatcera, ta Santuac esan cien, ez dezazutela nere semeac orrelaco gauzaric eguin, cergatic mundu onetatic joateco aldian zaudezte, ta ez bazaituzte etsayac alcarrequin topatzen, Ceruco coroa galtzeco peligro andian egongo cerate.

San Luis Erregueac visitatzen cituen hospitaliac, ta artaraco pagatua egongo baldiñ bazan bezala bere escu propioaquin servitcen cien eriyai. S. Franciscuac aimbeste nai cion beartasuneco virtutiari, ce bere echecho andria deitzen cion. Santo Domingoc berriz preditcatziari cion aficio especiala, ta orretatic deitcen zayo aren Ordenari Predicadorien Ordena, edo Religioa. Eli-

zaco Aita Santu San Gregorio Andia es-
 saten diotenac bere gusto guztia zuen
 Abran Patriarca Santuac bezala vidai-
 sariac, edo peregrinoac bere Palacioan, ta
 mayan errecibitzen; ta izan zuen Abra-
 nec bezala zori ona Ainguerua, ta Ain-
 gueruen Jabea bera peregrinoen ichuran
 maian icusteco. Tobias Santuac illac en-
 terratzeco obra misericordiazcoan bes-
 te guztiaz gañ egercitatatu zan. Santa Isa-
 bel Ungriaco Erreguñac, andia bazan
 ere, guztia ecer ezatzat, ta desprecia-
 garriztat iruquitzia gueyena deseaten
 zuen, baita ere ala tratatua izatia. San-
 ta Catalina Genovacoa alargundu zan
 beceñ laster hospital bat servitzen jarri
 zan. Casianoc contatzen dú, paciencia-
 co virtutian egercitatatu nai zan doncella
 batec escatu ciola, San Atanasiori ema-
 cume alargun pobre humore gaiztoco,
 enfadagarri, ta eciñ sufrigarri bat bere
 contura emateco, ta ala emacume aren
 betico errietaquin galanqui egercitatatu
 zuen bere paciencia, ta sufimentua.
 Onela Jaungoicoaren adisquidiac bat-
 zuec eriyai servitzera ematen dira, bes-

tiac pobriac socorritcera , bestiac aur-
 rai dontrina eracustera , bestiac peca-
 tariai Ceruco videa eracustera , bestiac
 Elizac , ta aldariac jaztera , ta apaintce-
 ra , bestiac paquean , ta amorioan pro-
 gimoac vicitzeco aleguiña eguitera , ta
 onetan bordatzalliai iduritzen dira , ba-
 da bordatzalliac ulondo diferentietan
 ipintcen dituzte modu ederrian seda , ur-
 rria , ta cillarra eroceñ lore genero bor-
 datzeco ; ala ere virtute particularren
 batian egercitatzeten diran cristau devo-
 toac valiatzen dira artzaz ulondoaz be-
 zala beren bordadura espiritualetaraco,
 ta aren gañian egercitatzeten dituzte bes-
 te virtute guztia , ta onela iruquitzen
 dituzte beren obra , ta afecto guztia
 obeto bat eguiñac , ta gobernatuac cer-
 gatic virtute principaleco egercicioare-
 quin erara datocen , ta ala esan diteque
 moduren batian orien espiritua gatic ere
 jantzi eder eder bat besteri icusita ba-
 tec esan zuena ; *orren jantzi urrez gaiñ
 loratuan jostorratzac lore genero as-
 co erein ditu.*

Pecaturaco tentacioren bat deguni-

an , peçatua ren contraco virtutia alde-
 gun guztian egercitu bear degu , bes-
 tien egercicioa artara encaminatcen de-
 gula , onela gure etsaya garaituco degu,
 ta virtute guztietan aurreratuco guera.
 Icusten baldin banaiz soberbiaz edo co-
 leraz tentatua , eguin bear det aleguiña
 gauza guztietan humildadera , ta man-
 sotasunera arrimatzeco , ta allegatceco;
 ta oracio , Sacramentu , prudentcia , for-
 taleza , ta beste virtuteetaco egercicio
 santu guztia orretara encaminatu bear
 ditut, cergatic nola basaurdiac telaguiñac
 zorrotu nai dituztenian beste ortzaquin
 gogotic igortzitzen dituzten ta onela ort-
 zac telaguiñaquin zorrotzen zaizcaten ;
 ala cristauvac peçatutic libratzeco fal-
 taric gueiena eguiten dion virtutia on-
 gui bereganatu nai badu , limatu , ta zo-
 rrotu beardu virtute ura beste virtuti-
 en egercicioarequin , ta onela bestiac e-
 re fiñagoac ta ederragoac gueldituco di-
 ra. Ala guertatu citzayon Job Santuari,
 bada izan cituen aibeste tentaciotan
 gueyena paciencian egercituaz , vir-
 tute guztietan eguin zan Santu cabala,

edo perfectoa. Emendic jayotcen da S. Gregorio Nacianzocoac dion becela, virtute bat perfeccioarequin egercituaz, allegatcia cristauva beste virtuetan ere perfectoa eguitera; ongui aditzera ematen duan Raab zeritzan emacumearequin guertatu zanac, bada peregrinoai ostatua emateco obra misericordiacoa ongui cumplituaz, dicha guztiz andia izan zuen. Esan deguna aditzen da, chit ongui, devocio, ta Jaungoicoaren amorio guztiz andiarequin virtuteren bat cumplitcen danian.

II. CAPITULO A.

Seguitcen da itz eguiten virtutien egercicioaz eguin bear dan auqueraren gañian.

Ongui esaten du San Agustinec, devotoac izaten asitcen diranac izaten dituztela lembicico ayetan perfeccioco erreglai beguiratu ezquero, erreprensioa mereci duten uts eguiteren batzuec, baña alabatcecoac dira orrega-

tic ere bese aldetic cergatic guero izango dituzten perfeccioaren aviso batzuec bezala dira, ta artaraco prestaeratzat servitzen dute. Pecatua utzita Jaungoicoa servitzen asitzen diran principiantietan escrupulo gueyeguiac sortcen dituen bildurra berez añ imperfectoa baldin bada ere, virtute chit importantia da asiera artan, ta guero izango dan conciencia garbiaren señalet segurua; baña orregatic ere bildur au berau desprecia garria izango da virtutian aurreratuac daudenetan, cergatic Jaungoicoaren amorioac erreinatu bear du ayen viotzetan servitzariac, edo esclavoac beren nagusiai dioten becelaco escrupuloac sortzen dituzten bildur gueyeguiac utzita.

San Bernardo religioan surtu zaneco lembicico urtietan chit estua, ta gogorra zan aren religioa profesatu nai zutenentzat, ta lembicico esaten ciena zan, aren ordena profesatu nai zuenac gorputza munduan utzita anima utsarequin joan bear zuela ara. Confesatzen cituenian, chit gogor artzen cituen faltaric dan chiquiena gatic ere, ta onela pro-

curatcen zuen bere discipuloac perfectiora muguitzia ; baña gogortasun gueyegui ura zala motivo , animoa , ta esperantza galdu , eta asco itzulcen ciran atzera mundura ; icusiric añ laster estutcen cituela mendi añ zuzen , ta añ altuaren gallurrera , au dá perfecciora , igotzera. Ongui ezagutzen dezu , cristau maitia , perfeccioaren deseo chit andi batec muguitzen zuela San Bernardo añ estu bere discipuloac tratatzera ; ez dago dudaric virtute andia zala deseo ura , baña orregatic ere erreprensioa mereci zuen , ta ala Jaungoicoac berac aguerpen santu batian aguertu , eta erreprenditu cion , eta bete cion anima espiritu biguñ , atseguin , amorioso , ta cariñosoz , ta onequin beste bat eguiñic pena andiarequin acusatcen zan añ estua ta gogorra cergatic izan' zan. Ta guero añ tratabilia , ta atseguña eguin zan , ce allegatu zan izatera guztia guztientzat , guztiaac Jaungoycoarentzat erabaztia gatic.

San Geronimoc bere espirituco alaba Santa Paula gatic esan ezquero , ez ba-

carric zala gueyeguicoa, ez bada baita
 ere setatia gorputzeco mortificacioetan,
 aimesteraño, ce bere Obispo San Epi-
 fanioc alaco penitenciaric ez eguiteco
 esana gatic ere, artan seguitzen zuen,
 ta aimeste berriz utcitzen zuela bere
 senarraren, ta humeen eriotza gatic be-
 re burua penatzen, ce au zala motivo
 iltzeco peligroan egon zala, acabatzen
 dú modu onetan esanaz; esango dirate,
 alabantzac escribitu bearrian, deshon-
 rac, ta gaizquiac Santa onen gatic es-
 cribitcen diturala; baña arc servitu zu-
 en ta nic servitu deseio deran Jesus ipin-
 tzen det testigu, ez derala bat ere gue-
 zurric esaten, ez bada cristauvac beza-
 la cristauva gatic daquidana garbi gar-
 bi contatzen derala; esan nai det, his-
 toria escribitu derala, ta ez alabantzen
 librua; ta aren vicioac bestien virtutiac
 dirala. Esan nai dú Santuac, Santa Pau-
 la gatic contatzen dituen uts eguitiac
 conta citezqueala virtutetzat Santa be-
 ceñ aurreratuac virtutietan etzeuden
 cristauetan; ta ala badira eguiaz obra
 asco virtutietan perfectoac diran cris-

tauvac eguiten dituztenian faltosoac, e-
 do imperfectoac diranac, baña modu
 artan bertan perfeccioan atzera dagoe-
 nac eguiña gatic, obra ayec, gauza an-
 ditzat iruquico dira. Eri dagoenari ber-
 niac anditzen asitzia seña lé ona dá, cer-
 gatic orrec aditzera ematen dú gorput-
 zac, indarrac arturic, botatzen dituela
 humore gaiztoac beragandic; baña osa-
 sunarequin dagoenari berniac anditzia
 seña le gaiztoa dá, cergatic aditzera e-
 maten dú, ez duela gorputzac bear dan
 indarric humoriac ecereztutzeco. Asco
 conveni dá cristau maitia, obra onac im-
 perfeccioarequin izana gatic ere, egui-
 ten dituzten cristauvac estimacio onian
 iruquitzia, cergatic Santuac berac ere
 ala eguin zuten ascotan. Zuc procura-
 tu bear dezu obra onetan ez bacarric
 leyalqui, ez bada baita ere prudentcia-
 requin egercitatzia, ta onetaraco cum-
 pli zazu cuidadoarequin Espiritu San-
 tuaren consejua, au dá, zure pruden-
 tzian, edo jaquindurian ez fiatzeco, ez
 bada Jaungoicoac, Ceruco videa era-
 custeco, eman dizunarenian.

Badira gauza batzuec ascoc virtutiac di-
 rala uste dutenac, ala ez izanic. Aben ga-
 ñian cerbait esan bear det. Gauza abec di-
 ra bada, Jaungoicoaren gaucen conside-
 racioan corderic gabe guelditzia; orretan
 bertan dagoela golperen bat artuagatic,
 edo bestec emanagatic miñicez sentitzia
 illa balegoque baño gueyago, súarequin
 erriagatic, edo miñ emateco beste erocēñ
 gauza eguiñagatic miñic ez artzia, con-
 templacioa mediante anima Jaungoico-
 agana modu miragarrian jasotzia Jaun-
 goicoarequin amorioz bat eguiñic guel-
 ditzia, Jangoicoaren amorioaren pode-
 rioz moduren batian Jaungoicotasunera
 biurtzia, ta beste onelaco gauza mira-
 garriac; ta aben gañian escribitzen du-
 te entendimentu utseco contemplacioa
 espiritu, ta vicitzaren guchitan izaten
 dan perfeccioan animac ipiñico dituzte-
 la prometitcen dutenac. Esan dituran
 gauzac ez dira virtutiac, cristau maitia,
 ez bada Jaungoicoac virtutia gatic ema-
 ten dituen, edo obeto esataco Ceruco
 zori onen muestra batzuec, ceñac Jaun-
 goicoac ascotan Ceruco zori onen dese.

oan sartcia gatic ematen ditu , baña ez
 dira orregatic gauza oriec pretenditu
 bear , cergatic ez dira Jaungoicoa ongui
 amatceco , ta servitceco precisoac , ta au
 bacarric guc pretenditu bear degu ; or-
 regatic gueyenian eciñ alcanza ditezque
 gauza oriec gure nequien , ta aleguñen
 videz , cergatic obeto merici dute bestec
 emanicaco gaucen icena , bacoitzac be-
 raceguñarena baño , ta onelaco gauzac e-
 rrecibitzeco diña baldin baguera ere , ez
 guera eguiteco diña. Beste gauza bat ere
 esan nai det , ta au dá , guc artu degun
 asmoa ez dala besteric , ez bada onac ,
 devotoac , guizon , ta emacume piado-
 soac , edo Jaungoicoaren bildur andi-
 coac izatia ; onetan ongui trabajatu bear
 degu ; beste gañeracoan Jaungoicoac ja-
 so nai baldin bagaitu esan dituran Ain-
 gueruzco perfeccio orietara , izango gue-
 ra ere Aingueru ònac , bitartian eger-
 cita gaitecen toles gabe , humildade , ta
 devocioarequin virtute chiquietan , ba-
 da abec gure ganatcea encargatu di-
 gu Jaungoicoac ; ta abec dira paciencia ,
 vide gabequeric gatic ez aserratcia ,

viotzaren mortificacioa, obediencia, po-
 breza, progimoa ganaco beratasuna, a-
 ren imperfeccioen sufrimentua, obra one-
 tan empleatzeco cuidada, ta devocio
 santua. Utcí ditzagun gogo onez gauza
 andi aiec Jaungoicoaren servicioan al-
 tuagoan vici diran animentzat, ez degu
 guc mereci vide añ altua Jaungoicoaren
 servicioan. Dicharic asco izango dá gu-
 retzat, aren sucaldeco servitzariac iza-
 tia, edo aren oquiñac bere oguiteguian,
 edo aren lacayoac, edo jan truc berac
 aguiñtcen diguna eguiteco, edo aren sala
 aurreco criaduac, edo morroyac; bera-
 ri tocatcen zayo guero baldin baderitza
 bere salacoac, ta bere Palacioco Con-
 sejeruac eguitia. Bai, cristau maitia bai;
 cergatic Erregue onec ez ditu bere ser-
 vitzariac pagatzen, duten empleoaren
 anditasunaz bat, ez bada dituzten em-
 pleoac cer amorio, ta humildadiarequin
 cumplitzen dituzten, orretzaz bat. Saú-
 lec bere Aitaren astoen billa cebillela
 Israelgo Erregue eguiñic guelditceco di-
 cha izan zuen; Rebeca Abranen Game-
 luai eraten ematearequin aren semearen

emazte eguiñ zan; Rut emacumea Booz
zeitzan guizonaren itarien ondoren ga-
ri buruac biltzen cebillela, ta aren oñe-
tan etzitiarequin, aren aldamenera ja-
soa, ta aren emaztea eguiña izan zan.

Beste gauza bat esan nai dizut, cristau
maitia, ta au da, gauza andi oriec pre-
tendicia, chit peligrosoa dala, cerga-
tic ascotan ilusio, engañu, ta guezur as-
co guertatcen dira gauza oriec dirala
motivo; ta Aingueruac dirala uste diran-
nac ere ascotan persona onac ere ez di-
ra, ta sentimentuetan, ta obretan baño,
itcetan anditasun gueyago izaten dute;
baña ez dá orregatic ere motivo. ic ga-
be inorgatic gaizqui esan bear, ta ecer
despreciatu bear, ez bada besteren an-
ditasuna gatic Jaungoicoari graciac e-
manta, humildadiarequin guelditu be-
ar degu guc gure vide bajuagoan, ba-
ña orregatic ere seguruagoan, ta bes-
tia beceñ estimacio andicoa ez bada ere,
gure ecer ezarentzat, ta chiquitasuna-
rentzat egoquiagoan, ta onetan humil,
ta fielqui irauten badegu, jasoco gaitu
Jaungoicoac gauza andiangoetara.

III. CAPITULO A.

Pacienciaren gañian.

Bearra dezute paciencia, Jaungoicoaren vorondatia cumplitu ta Ceruco gloria erab zteco, dió San Pablo Aposto- loac. Bai, cergatic gure Salvadoriac e- san zuen bezala, zuen pacencian zuen animac gozatuco dituzute. Neurri ga- beco dicha dá guretzat, cristau maitia, gure anima gozatia, edo aren jabe e- guñic vicitzia, ta cembat eta perfec- toagoa dan paciencia, aibat eta obe- to gozaten ditugu gure animac. Acor- da zaitetz maiz, padecituaz, ta sufritu- az gure Salvadoriac salvatu guinduela, ta guc ere gure Salvacioa sufrimentu- en, ta penen videtic procuratu bear degula, injuriac, persecucioac, ta gaiz- quiac aldegun humildaderic andienare- quin sufrituaz.

Ez bacarric egon bear dezu prest au- edo beste injuria, ta pena pacienciare- quin eramateco, ez bada baita ere Ja-

ungoicoac blaltzen dizquitzun , ta zuri etortzia permititzen dituen guztiac ere. Batzuec pena honrosoac baicic sufritu nai izaten ez dituzte , nola dan guer ran zaurituac , edo prisionero izatia , fedea ren honra gatic gaizqui tratatua izatia , desafioan garaitu dutelaco pobre guel ditzia. Ez dute onelacoac pena amatcen , ez bada beren honra. Eguiaz sufritzen daquien Jaungoicoaren servitzariac ber diñ edo igual sufritzen ditu deshonnare quin nasturic datocen atsecabeac , no la honrarequin nasturic datocenac. Des preciatua , erreprenditua , ta acusatua gaiztoen gandic izatia gauza erraza dá sufritzen persona animosoarentzat , ba ña onac gandic , adisquidiac gandic , ta aidiac gandic erreprenditua , acusatua , ta gaizqui tratatua izatia , ta orregatic ere sufritzia , onetanche ezagutzen dá Ja ungoicoaren servitzari eguiazcoa. Gue yagotzat daucat nic S. Carlos Borromeo ren paciencia religio estu bateco Ser molari batec publicoan , ta bere aur rian ascotan esaten cituen erreprensio ac sufrircian , beste guztiac eguiten ci

ozcaten injuria guztia sufrician baño ;
 cergatic erliaren ichumurrac ebliarenac ba-
 ño miñ gueyago ematen duten bezala,
 ala persona onac eguiten dituzten injuriac
 gaitzagoac dira sufricen , gaiztoac egui-
 ten dituztenac baño ; guertatcen dá ere
 ascotan , persona onac intencio onarequin
 alcar perseguitcia beren iritcietan alcarre-
 quin ongui ez datocelaco. Icasí zazu su-
 fricen ez bacarric guertatcen zaizquitzun
 itsecabeetan , ez bada baita ere ayei dar-
 razquiten gaucetan. Esaten dute ascoc , ez
 litzadaque niri ecer trabajuac gatic , ez
 baldin balirateque onetaraco , edo artara-
 raco embarazatuco. Batec esaten dù , ez
 det pobre guelditu naizalaco penaric art-
 cen , ez bada cergatic ori dala motivo ne-
 re adisquidiac servitceco , nere humeac
 ongui utcitceco , ra deseaten deran hon-
 rarequin pasatceco , modua galdu deran.
 Beste batec esango dú , ez liraque po-
 bre guelditciac penaric emango , ez ba-
 luque gendiac pensatuco , nere culpaz ala
 guelditu naizala. Beste batec bere contra-
 co murmuracio bat sufrituco dú , aren con-
 tra murmuratu duenari , iñorc sinisten ez

baldin badio. Beste batzuec badira beren trabajuetan berai deritzaten bat padeckitu nai dutenac, baña ez guztia. Ez naiz enfadatcen eri nagoelaco, esaten dute, ez bada cergatic ez deran diruric nere gaitzeraco, edo cergatic necatcen dituran servitcen, ta acompañaatcen naute. nac. Esaten det bada, cristau maitia, paciencia izan bear degula, ez bacarric eri egoteco, ez bada baita ere Jaungoicoac gusto duen eroceñ eritasunarequin, berac gusto duen lecuan, berac gusto duen personen compañian, ta berac gusto duen eragozqueta, edo incomodidade guztiaquin, ta onela beste pena guztietan. Eri jartcen ceranian valia zaitez sendatecco al dituzun erremedioaz, cergatic au ez eguitia jaungoicoa tentatcia izango litzaque. Al dezun erremedioaz valiatu ezquero, zaude Jaungoicoaren vorondatian conformaturic, berac gusto duenaren beguita; nai izaten badu erremedioac gaitza garaitcia, emango diozcatzu esquerrac, baña ez baldiñ badu nai izaten, bedeinca zazu bera pacienciarequin.

Eguin dezun faltaren bategatic zu gatic gaizqui esaten badute, San Gregorio-ren consejua artu zazu; humildu zaitez aldezun guztia, ta aitor zazu, ura baño gueyago mereci dezula. Zu gatic esan dutena guezurra baldin bada, escusa zaitez humildadiarequin esanaz; ez dala eguia zugatic esan dutena. Tocatcen zaitzu au eguitia eguia gatic, ta progimoa escandalizatua ez guelditcia gatic; baña onela zure burua escusatu ezquero, seguitcen badute orregatic ere zu gatic gaizqui esaten, etzaitecela inolaz ere asaldatu, edo alborotatu, etzaitecela ere necatu, zure burua berriz escusatcen, cergatic eguiari zordiozun errespetoarequin cumplitu ezquero, cumplitu bear dezu ere humildadiarequin, ta onela cumplituco dezu zure credituaz bear dezun precisoco cuidadoarequin, paquiaren amorioarequin, mansotasun, ta humildadiarequin.

Al dezun guchia quejatu bear dezu eguiten dizquitzen vide gabequeriac gatic cergatic duda gabeco gauza dá, quejatcen danac gueyenian eguiten duela pecatu quejatcian, cergatic gueren buruaren amo-

rioac , diran baño andiangoac iduritcen
 dizquigu eguiten dizquiguten videgabe-
 queric ; ta batez ere encargatcen dizut,
 etzaitecela zure quejac contatcera joan a-
 serratcen , ta beste gatic gaizqui pensat-
 cen errazac diran personetara ; ta baldiñ
 preciso badezu zure queja contatcia , edo
 eguin dizuten vide gabequeria erreme-
 diatceco , edo zure espiritua sosegatceco ,
 persona paquetsuetara , ta Jaungoicoaren
 amantietara orretara joan bear dezu , cer-
 gatic bestela zure viotza sosegatu bearrian
 gaizquiyago ipiñico dute , ta arantza oñe-
 tic atera bearrian , gueiago sartuco dizute.

Eri ascoc , penatuac daudenian beren
 barrenen , edo bestec ofenditcen ditue-
 nian , ez diote iñori quejaric contatcen ,
 ez da ere sentimenturic aditcera ematen ;
 cergatic uste izaten dute (ta ez dira enga-
 ñatcen) au izango litzaquela animo gu-
 chicoac , ta ecer ezac dirala aditcera ema-
 tia , baña eciñ gueyagoraño deseatcen du-
 te , ta milla modutara procuratcen dute a-
 yetzaz bestiac erruquitcia , ta pensatcia , ez
 bacarric sufrituac , ez bada baita ere ani-
 mo andicoac dirala ; ez dago dudaric pa-

ciencia dala au , baña falsoa. Ez dá bes-
te gauzaric , ez bada andi nai , ta vani-
dade fiñ fiña. Abec honra badute , baña
ez Jaungoicoaganaco , dió San Pablo A-
postoloac.

Eguiaz sufrítua danac , ez dú bere gait-
za gatic negarric eguiten , ez dú ere de-
seatcen aren gaitza gatic bestiac erruquit-
cia , edo negar eguitia. Aren gañian ecer
quendu , ta gueitu gabe dana dan bezala
itz eguiten du , argatic sentimenturic adi-
tcera eman gabe , argatic quejatu gabe , ta
ponderatu gabe , ta bestiac artzaz erruqui-
turic penantcen badira , ori pacienciare-
quin eramaten dú , non ta ez diran pe-
natcen arc ez duen penaren bat duelaco
ustian , cergatic orduan eman bear die a-
ditcera , ez duela ayec uste duten gaitcic ,
ta onela gueldituco dá sosegatua eguia-
ren , ta pacienciaren bitartian , bere ga-
itza aitorcen duela , ta argatic quejat-
cen ez dala.

Ceruco videan izaten dituzun persecu-
cioetan , (bada etzaizquitzu faltatuco) o-
roi zaitetz zure Salvadoriaren esanaz , au-
dá , Emacumeac aur eguiteco demboran

estutasun, ta miñ andiac izaten ditu, baña semea eguiñ ezquero, alegratzen dá, cergatic jayo dá guizona mundura. Zuc sortu dezu zure animan munduco guizonic onena, ceña dan Jesus, ongui eguiña dagoenian munduaren beguierara areraceco, ez dá bada posible nequeric ez sentitcia, baña animo andia iruqui zazu, cergatic miñ oriec igaro ezquero, betico consueloa gueldituco zaitzu, orrelaco guizona cergatic mundura jayo dezun. Ura zuretzat guztiro jayoco dá, aren vicitza imitatuaz zure viotcian, ta obretan guztia moldatcen, dezun instantian.

Eri zaudenian, escañi zayozcatzu Jesusi zure miñ, pena, ta neque guztia beraren servicioraco, ta esca zayozu, zugatic padecitu cituen penaquin bat eguiditzala. Obedi zayozu Medicuari, artu itzatzu boticacoac, janaria, ta beste erremedioac, Jaungoicoaren amorioa gatic, gure amorez berac artu zuen erari saminaz oroitcen cerala.

Desea zazu sendatcia bera servitciagatic, ez dezazula gaizqui eramán eritcia, berari obeditciagatic, ta zaude ere iltce-

co prest, berac ala gusto badu, bera go-
 zatceco, ta alabatceco. Oroi zaitez, er-
 liac eztiya eguiten ari diranian janari chit
 samñarequin mantentcen dirala, ta ala
 guç ere eciñ iñoiz eguin dezaquegula
 mansotasuneco, ta pacienciaco obra an-
 diagoric, ez dá valio andico virtutien ez-
 tiric obeto eguiñ, penetan, ta congoje-
 tan, vici gueranian baño. Era nola tomi-
 lloa esaten dioten belar chiqui, ta sami-
 ñarequin eguiten dan eztiya guztietan o-
 nena dan, ala ere nai gaberíc desprecia-
 garrí, bajuen, ta humillenetan egercitat-
 cen dan birtutia dá guztietan onena. Be-
 guira zayozu maiz zure viotceco beguia-
 quin Jesusi, nola izan zan zure amorioa-
 gatic crucificatua, lotsa gorrian erantcia,
 ernegatua, falso testimonioz betia, des-
 amparatua, itz batian esateco, persecucio
 genero guztiaz, tristuraz, ta nequez car-
 gatua; considera zazu zure pena guztia
 ez beren anditasunian, ez cembaitian, e-
 do numeroan arenaquin compara ditez-
 queala, ta ez dezula zuc iñoiz arequin
 berdincatu ditequien penaric sufrituco.
 Consideratcizu Martiriac sufritu cituz,

ten penac, ta beste asco, comparacio gabe, zuc baño andiagoac sufricen dituztenac, esango dezu; O nola nere trabajuac cosueloac, ta nere penac arrosac diran ez socorruric, ez norc asistituric, ta inondic ere alibioric ez dutela, nere penac baño milla bider andiagoac padecitcen dituztenen aldian!

IV. CAPITULOA.

Campotic aguertcen dan humildea diaren gañian.

Escaitzatzu asco vaso uts, prestatuac, ta bota zazu ayetan olioa, esan cion Eliseo Profeta Santuac emacume pobre alargun bati; Jaungoicoaren gracia gure animetan errecibitceco libre egon bear degu gueren buruen estimacioaren deseotic. Gavirabaren antceco, baña chiquiagoa dan chori batec bere jatorrizco virtutez oju eguin ta besteric gabe izutcen ditu Gavirabac, ta beste onelaco chori arrapatzalliac, orregatic Usuac beste chori guztia baño

gueyago nai diote, cergatic ura beraquin dutela ez dute, Gabiraben, ta beste orrelaco chori arrapatzallien bildurric; orobat bada humildadiac igues eraguiten dió Satanasi, ta conservatcen ditu gugan Espiritu Santuaren gracia, ta doyac, ta orregatic Santu guztiac, ta batez ere Santu guztien Erregue gure Jesusec, ta beraren Ama Maria Santisimac honratu, ta amatu zuten beti beste virtute moral guztiac baño gueyago virtute estimagarri au.

Deitcen diogu vanoa gueren buruari dagoquetcen diogun gloriari, vanagloriari, esan nai det; edo cergatic gugan ez dagoen, edo gugan egona gatic guria ez dan, edo gugan egon ta guria bada ere, ez dú mereci gu argatic gloriatcia. Odol garbicoac, edo nobliac izatia, gende andien gandic favorecituia izatia, mundua gandic alabatuac, abec guztiac gugan ez dauden gauzac dira, ez bada edo gure aurrecoetan, edo besteren buruan, edo estimacioan. Batzuec anditzac beren burua iruquitcen dute, ta chit presumituac egoten dira, cergatic zaldi galant baten gañian dauden, edo cergatic lumazco gailur an-

di bat chapelian daucaten, edo cergatic
 ederqui jantciac dauden; ; baña ceñec ez
 dú ezagutcen, au eraqueri andi bat dala?
 eroceñec; cergatic onetan gloriatceco, edo
 arrotceco motivoric baldiñ bada, izango
 dá edo zaldia gatic, luma edo ayec quen-
 du citzaozcan choria gatic, edo arropa ai-
 ec eguin cituena gatic. Emendic ezagutcen
 dá ceñ gauza lotsagarria, ta parragarria
 dan batec bere estimacioa zaldi batetic, lu-
 ma batetic, erropa batetic ateratcia. Bes-
 te batzuec gloriarcen dira, ta beñ ta gue-
 yagotan beguiratcen dira ongui alchatuac
 daucazquitela uste duten bigotiac gatic,
 bizar ongui eguiña gatic, ille cuscurtua
 gatic, escu zuriac gatic, dantzán, joco-
 an, ta cantetan duten habilidadia gatic;
 ; baña norc ez dú ezagutcen ceñ butu
 guchi duten onelacoac, bada alaco aur-
 querietan, ta ecer écetan ipintcen dute be-
 ren andi izatia, ta beren estimacioa gueit-
 cia? Beste batzuec jaquinduria pisca bat
 cergatic baduten, mundua gandic hon-
 ratuac, ta errespetatuac izatia nai dute,
 guztiac ayen gandic icasten ibilli bear bal-
 din baluteque bezala, ta guztiac Maisut-

at iruqui bear balituzteque bezala , orre-
 gatic deitzen dioe onelacoai Zaitzalleac.
 Beste batzuec berriz beren edertasuna ga-
 ic gloriatcen dira , ta uste izaten dute
 nundu guztiac atencioac berac daramaz-
 quitela. Au guztia disparate guztiz vano
 a arrazoi gabecoa dá , ta onelaco gauzac
 gatic artcen dan gloriari , edo arrotasuna-
 ti , vanoa , parragarria , ta funs gabea
 deitzen zayo.

Eguiazco ona , balsamo eguiazcoa be-
 zala ezagutcen dá. Balsamoa ona dan eza-
 gutceco, eguiten dana dá, aren tantoa urta-
 ra botarcia , ondora joan , ta an guelditcen
 bada chit fiña , ta ederra dá ; ala ere ba-
 da ezagutceco persona eguiaz jaquintsua,
 aditua , prestua , ta noblia dan , beguiratu
 bear da , ere arc dituen on oriec humil-
 dade modestia , ta sugecioarequin jantciac
 dauden ; ala baldin badaude , on eguiaz-
 coac izango dira , baña gañetic baldiñ ba-
 dabilta , ta bestec icustia deseo bada ,
 cembat eta gueyago aguertcen diran , am-
 bat eta guchiago eguiazcoac izango dira.
 Aiceran , ta turmoyen soñuan eguiten di-
 ran perlac , ez dute perlen azalac baicic ,

barren utsa izaten dute , ala ere personen virtute ta calidade on , soberbia , arrota- sun , ta vanidadiarequin sortcen , ta vicit- cen diranac , ez dute onen ichura baicic , ez dute sustanciaric , mamiric , ta indarric. Honrac , oficio , ta empleo andiac , azafra- na bezala dira. Azafrana oñaquin zampatu ta obetu , ta gueitu eguiten da. Ez da hon- ra , ederra izatia , artzaz gloriatcen dani- an ; edertasunac gracia izateco , edo esti- magarria izateco , despreciatu eguin bear- dá. Jaquinduriac honratu bearrian , des- honratu eguiten gaitu , artzaz gloriatcen gueranian , ta berrichutzat iruquiquitcen gaitu gendiac.

Cuidado andicoac baldiñ baguera , ja- rri lecuetan , cortesietan , tocatcen zaigun tratamentuan bestiac guri errespetoa ecar- tcia nai izaten ; guri alaco honratic to- catcen zaigun examinatceco , ta orri con- tra eguiteco motivoa emanaz gañera , despreciagarriac eguingo guera. Cergatic honra bestec ematen dutenian , ederra baldin bada ere , billatcen , ta escatcen danian , despreciagarria dá. Pavo errealac , bere burua icusteco biribiltcen danian ,

Bere luma ederrac alchatcen ditu, ta one-
 la aguercen dù ceñ itzusia duen bere gor-
 putza. Baratzaco lore ederrac laster galt-
 cen dute beren ederatsuna, escuetan era-
 billi ezquero. Urriloa esaten dioten belar-
 bati urrutitic, ta dembora guchian usai
 eguiten diotenac chit usai gozoa sentitcen
 diote, baña aldetic ta espacioz usai egui-
 ren egoten diranai, loa ematen die, ta e-
 ritu eguiten dira; ala honrac, consuelo
 andia ematen die urrutitic, ta pasaizoz
 bezala usai eguiten dietenai ayetan goza-
 tcen, ta divertitcen egon gabe, baña aye-
 tan divertitcen ta gozatcen egoten dan
 arentzat erreprensioa, ta desprecioa me-
 reci duten gauzac dira.

Virtutien ondoren ibiltciac, ta ayen
 amorioac virtuosoac izaten asitcen gaitu,
 baña contrara, honren ondoren ibiltciac,
 ta ayen amorioac erreprenditcecoac egui-
 ten gaitu. Ez dute casoric eguiten animo
 noblecoac, edo andicoac, tocatcen zayen
 egonlecuaz, eguin bear zayen cortesiaz,
 eman biar zayen tratamentuaz, ta beste
 onelaco aurqueriaz, gauza andiangoac z-
 tencioa eramaten die; oriec persona pres-

tu ecen gauzac dira. Perlac bilduditza-
 quenac masculucho, ta concha ehiquiaz
 casoric eguiten ez du; ala ere virtutiaren bi-
 lla dabillenac, honraz caso guchi eguiten
 dú. Eguia dá, erocēñec contu eguin dioza-
 que, edo tocatcen zayon lecuia humilda-
 dian faltatu gabe iruqui dezaque, bear-
 dan modestiarequin, bullaric gabe au egui-
 ren bada. Peruco Erreinutic etortcen dira-
 nac cillarraz, ta urriaz gañera chimuac,
 ta loroac ecartcen dituzten bezala cerga-
 ric etzaizcate asco costatcen, ta ontziari e-
 re carga guchi ematen dioten, ala virtuti-
 an dabilizanac ere artu ditzateque tocat-
 cen zaizcaten jarlecu, ta honrac, atencio,
 ta cuidado gueyago orregatic paratcen ez
 badute, ta sosegua galticia, disputaric,
 edo bullaric orregatic izaten ez badute.
 Ez da esan derana aditcen dignidade edo
 empleo publicoa dutenac gatic, ez da ere
 importantci andico ocasio beressietan,
 cergatic orduan conveni da, bacoitzac to-
 catcen zayon errespetoa guardarcia bear-
 dan prudentcia, caridadea, ta cortesiare-
 quin orregatic ere.

V. CAPITULO A.

Barrengo humildadiaren gañian

Baña naico dezu orandic, cristau mañtia, humildadia cer dan nic zuri obeto aditcera ematia, cergatic onen gañian orañdaño esan deranac, jaquinduria obeto diruri, humildadia baño. Entzun zadazu bada. Ez dute nai ascoc, ta ez dira ere atrevitcen, Jaungoicoac eguin dizten graciac, ta mesede particularrac, vana gloriatuco diralaco bildurrez, pensatcera, ta consideratcera, baña chit engañatuac vici dira; Cergatic Santo Tomas Elizaco Maisu andiac dion bezala, Jaungoicoaren amoriora allegatceco modua eguin dizquigun mesedeen consideracioa dá, bada cembat eta gueyago ezagutcen dirugun, ambat eta gueyago amaruco degu, ta nola bacoitzac errecibitu dituen mesede particularrac, guztiai eguiñac baño gueyago muguitcen duten, ala ere atencio gueyagorequin consideratu bear dira. Ez dago dudatic, ez gaituela ecerc ere Jaun-

goicoaren misericordiaren aurrian gueyago humildu bear, eguin dizquigun mesede andiac consideratciac baño; ez dá ere beraren justiciaren aurrian gure pecatuac baño ecerc gueyago icaratu. Considera dezagun cer eguin duen Jaungoicoac gugatic, ta cer eguin degun guc aren contra, ta gure pecatu chiquí, ta andi guztiac consideratcen ditugun bezala, considera ditzagun ere eguin dizquigun mesede chiqui, ta andi guztiac. Ta ez degu cer bildurric izan, eguin dizquigun mesedeac ezagutciac, soberviaz beteco gaituela, consideratcen badegu gugan topatcen dan ona, ez dala guria. Esan zadazu, manduac ez dira ciquiñac, ta usai gaizto-co animaliac arropa ederrez jantciac, ta Erregue usayez betiac egona gatic ere?

¿Cér on degu guc errecibitu ez degunic, edo bestec emana ez danic? Ta baldiñ bestec, au dá Jaungoicoac emana baldin bada guc degun on guztia, cergatic gloriatcen edo arrotcen guera, gueren ez baldiñ baguenuque bezala. Cér motivo izango degu vanagloriatceco? Ez degu ez cer bildurturic, au consideratu ezque-

ro, soberviaz beteco guerala, ez bada con-
trara, Jaungoicoac eguin dizquigun me-
sedeac ongui consideratciac, humillac e-
guiten gaitu, cergatic ezagüerac sujecioa
sortcen dú. Ta baldin Jaungoicoac eguin
dizquigun mesedeac ezaguturic, sortcen
bazaigu vanidadeco tentaciooren bat, or-
ren contraco erremedio segurua gure es-
quer gaiztoac, gure imperfeccioac, ta gu-
re miseriac consideratcia dá. Considerat-
cen baldin badegu cer eguiten guenuen Ja-
ungoicoa gurequin etcegüenian, erraz e-
zagutuco degu, gurequin dagoenian egüi-
ten deguna, ez dala gure frutua. Alegratu-
co, ta consolatuco guera duda gabe, cer-
gatic gauza onen bat degun, baña orren
gloria, au gugan eguin duena bera dan be-
zala, Jaungoicoari bacarric emango diogu.
Onela Maria Santísimac aitortu zuen Jan-
goicoac argan gauza andiac eguin cituela,
baña au humiltcia gatic ta Jaungoicoa ala-
batcia gatic esan zan, orregatic esan zuen,
nere animac alabatcen dú Jaungoicoa, cer-
gatic gauza andiac eguin ditu nigan.

Ascotan esaten degu, ecer ez guerala,
miseria bera, ta munduaren desprecioa

guerala , baña ezquenuque , guchi senti-
 tucó , ori bera beste batec esango bali-
 gu , ta besteren aurrian gu gatic orrela
 itz eguingo baluque. Contrara , beste as-
 cotan bestiac gure ondoren , ta gure billa
 ibiltcia gatic ezcutatcen , ta igues eguiten
 degulaco papera eguiten degu ; beste as-
 cotan , azquenecoac izan nai degula , ta
 mayaren oñetan edo azquenian jarri nai
 degula , mai buruan jartceco aguindu diza-
 guten. Eguiazco humildadiac ez du dalaz-
 co agueriric eguiten , ta itz humill guchi
 gastatcen diru , cergatic ez bacarric pro-
 curatcen dú beste virtutiac ezcutatcia , ez
 bada baita ere bere burua , ta orañdic bes-
 tiac baño cuidado gueyagorequin , alaco
 moduan , ce guezurra esatia , progimoa
 engañatcia , ta escandalizatcia cillegui ba-
 litzayoque , guapo , ta arrotiaren antzan
 aguertuco litzaque , orrela bere burua es-
 taltceco , ta iñorc aren berriric ez daquie-
 la vicitcia gatic. Au dá nere iritcia , cris-
 tau maitia , edo ez dezagun esan humilda-
 deco itcic , edo esango badegu , esaten de-
 gun bezala gure viotcian , ta gueren bu-
 ruaz pensatcen degula , esan bear degu.

Ez dezagun inoiz beguiric jachi, ayequin batian viotza jasotcen ez badegu. Ez dezagun eman aditcera, azquenecoac izan nai degula, eguiatz ala izan nai ez badegu. Erregla au añ generaltzat daucat, ce ez det onetatic apartatcen ez gauza, ta ez ocasio particularric. Guztian onela humildadezco itzac, ta obrac viotzarequin bat ibilli bear dute. Gauza bat bacarra onetan esan nai det, ta au dá, criantza onac escatcen duela ascotan jarlecuric honrosoenac escañcia, artuco ez dituztela daquigunai ere, ta ez dá au tolestura, edo humildade falsoa, cergatic escañcia bera honraren asiera dá, ta honra osoa eman ecin danian, ez dá gaizqui aren asiera badere ematia. Orobat diot, usatcen diran itz honroso, errespetoco ascogatic, ceñac eguiatzcoac ez baldin badirurite ere, ala dira bear aibat, esaten dituenac, intencio eguiatzcoa baldin badu, nori esaten diozcan itz honroso orieci, ura oriequin honratceco, ta errespetatceco; cergatic itzac gauza dan baño gueyago aditcera ematen badute ere, ez dù orregatic gaizqui eguiten itz a yetzaz usatciaz, ala itz eguitia usatcen da-

nian. Nai nuque orregatic ere gure itzac
afectoquin ongui etortcia, guztian, ta
guztiro sencilloac, ta tolesgabeac izateco.

Eguiaz humilla dan cristauvac nayago-
co dú berac bere buruagatic baño, bestec
argatic esatia miserable bat, ecer ez bat
dala, ecer valio ez duela; edo ez dá be-
ñepen esaten dutela jaquiña gatic, orren
contra ateratcen, ez bada gogoz sufricen
dù; cergatic nola berac orrelacotzat dau-
can bere burua, alegratcen dá bestiac gau-
za orretan aren iritcicoac izatiaz. Ascoc e-
saten dute Oracio mentala cristau perfectio-
entzat, edo virtutian cabalac diranentzat
dala, berac ez dutela mereci iruquitcia.
Bestiac esaten dute, ez dirala maiz co-
mulgarcera atrevitcen, bada ez dutela or-
retaraco bear dan animaco garbitasunic.
Beste batzuec beren miseria, ta argaltasuna
motivo devocioa deshonoratuco duten bil-
dur dira, artan asitcen badira. Beste bat-
zuec ez dute beren habilidadia Jaungoi-
coaren ta progimoaren servicioan emplea-
tu nai; onetaraco arrazoya ematen dute
esanaz, ezagutcen dutela beren argalta-
suna, ta soberviaz beteco liraquela, gau-

za onen bateco servituco baluteque, ta bestiai Ceruco videan argul eguin, ta berac galdu ditecen bildur dirala. Au guztia engañua, ta humildade falsoa, ta mada-ricatua dá, ceña dala medio., ezagutuco ez baliz bezala, Jaungoicoaren gauzac despreciatu nai dituzte, edo guchiena humil-dadiaren, aitzakiarequin estali nai dute beren iritci, genio, ta naguitasunaren amorio propioa.

Esca zayozu Jaungoicoari señale bat goyan Ceruan, edo beian ichasoaren on-darrian, esan cion Isaias Profeta Santuac Acaz zoti gaiztocoari, ta eranzun cioa, ez det escatu nai; ta Jaungoicoric tentatu nai. O maldade izugarria! Jaungoicoari errespeto andia diolaco papera eguiten dú, ta humildadiaren aitzakiarequin atcerat-cen dá, Jaungoicoac escañtcen dion gra-cia errecibitcetic. Ez dú ezagutcen, Jan-goicoac ongui eguin nai dionian, sober-via dala ez errecibitcia; errecibitcera obli-gatcen gaituztela Jaungoicoaren mesede-ac, ta humildadia dala errecibitcia, ta al-degun lenena aren deseoa cumplitcia. Jaungoicoaren deseoa dá gu perfectoac iza,

tia , aldegun guztia bera imitatuaz , bera-
 requin bat eguitero. Bere buruan fiacten
 danac ocasio andia dú , ecer eguitera
 ez atreviteco ; baña humillac cembat eta
 artaraco ecer ezagoa bere burua ezagut-
 cen duen , ambat eta animosoagoa dá ,
 ta cembat eta gueyago bere miseria eza-
 gutcen duen , ambat eta atrevituagoa e-
 guiten dá , cergatic bere confiantza Jaun-
 goicoagan dú , ceñac bere guzti ala , edo
 omnipotencia gure argaltasunian aguertu
 ñai izaten dú , ta bere misericordia gu-
 re miseriaren gañian ipiñi nai izaten dú.
 Equin bear diogu bada humildade , ta de-
 vocioarequin gure animac gobernatcen
 dituztenac , gure salvacioraco conveni da-
 la , esaten diguten guztiari.

Ez daquigun gauza badaquigula pen-
 satcia , eraqueria clara dá jaquinsuzat gue-
 ren burua eguin nai izatia ez daquigula
 claro ezagutcen degun gauzan , ecin su-
 fri ditequien vanidadia dá. Nic beñepen
 ez nuque nai aguertu jaquintsutzat nere
 burua aditcen zaitadan gauzan ere , ez dá
 ere ez nuque nai , ez jaquintsutzat eguin.
 Caridadiac ala escatcen duenian , trata-

tu bear dá progimoarequin libertade, ta
 cariñoarequin, ez bacarric jaquin bear
 duena eracusteco, ez bada baita ere bere
 consueloraco bear duen gauzan, cergatic
 estaltcen baditu ere humildadiac virtutiac,
 conservatciagatic, aguertcen ditu carida-
 diac escatcen duenian, orrela gueitu, ta aci
 ditecen, lenago ciran baño perfectoagoac
 eguiteco. Onetan humildadia Tilos darit-
 zan uribitarreco, edo Islaco arbol bati
 iduritcen da; arbol arc arratsa allegatu
 ezquero ichi, ta estutu eguiten ditu bere
 lore gorri ederrac, ta ez ditu idiquitcen
 urrengo egunian eguzquia atera arteraño,
 ta orregatic esaten dute lore argatic angó
 gendiac, lo eguiten duela; humildadia
 bada lore oni iduritcen zayo, cergatic ala
 estaltcen ta gordetcen ditu, gure virtute
 guztia, ta ditugun perfeccioac, ta ez di-
 tu ñoiz eracusten caridadia gatic ez bada
 beste gatic, ceña nola dan virtute bat, ez
 mundutarra ez bada Cerutarra, ez, aca-
 batcen diran gauzai beguiratcen diena, ez
 bada acabatcen ez diranai; itz batian, no-
 la Jangoicozcoa dan, beste virtute guztien
 eguiazco eguzquia, ayen echecho andria,

edo nagusia izan bear dú, ta ala caridiaren contra diran humildadiac, falsoac dira dudatic gabe.

Ez nuque nic nai nere burua ez erotzat, ta ez jaquintsutzat eguin, cergatic nere burua jaquintsutzat eguitia humildadiac eragozten diran bezala, ala ere eguiac, ta toles gabeac eragozten dirate erotzat eguitia; ta vanidadia humildadiaren contrarioa dan bezala, artificioac, ala izan ez, ta ala iduritciac, ta engañuac eguiaren, ta toles gabearen contra dira. Ta baldin Jaungoicoaren adisquide andiren batzuec beren buruac ero eguin badituzte, munduac gueyago desprecia citzan, arritu eguin bear degu orrelaco gauzac eguin cituztelaco, baña ez ditugu imitatu bear, cergatic ayec au eguiteco motivo andi, ta ez usatuac izan cituzten, ta ala ez degu aiec cergatic eguin cituzten, guc ere eguin ditzaquegula, pensatu bear. David, aren personari tocatcen citzayon baño cerbait gueyago Testamentuco cucha santuaren aurrian dantzatu bazan, etzuen ori bere burua ero eguitia gatic eguin, ez bada engañio gabe, dantzatcen zan ala, bere viotcian

sentitzen zuen consueloa saltoca eman na-
 yan, gorputceco muguimentuac, bere vi-
 otcian sentitzen zuen poz arequin bat ci-
 ran. Ta Micol bere emaztiac erobat beza-
 la despreciatu bazuen ere, etzuen orregatic
 sentimenturic aditcera eman, ez bada e-
 guiaz alegre cegoela, aditcera ematen zu-
 en dantza artan seguituaz, eman zuen adi-
 tcera, alegratcen zala Jaungoicoa gatic
 despreciatua izatiaz. Zure gobiernoraco
 gauzacho bat atera bear dezu onetatic, ta
 au da, eguiazco devocioco obrac gatic
 despreciagarritzat, billau, ta erotzat iru-
 quitcen bazaituzte, humildadiaz valiatu
 bear dezula, ta orrela alegratuco cera zori
 oneco desprecio arequin, cergatic ez de-
 zu zuc eman desprecio artaraco motivo-
 ric, ez bada zu despreciatu zaituztenae
 berac artu dute.

VI. CAPITULO A.

*Humildadiac amaeracitcen digula gueren
 desprecio propioa.*

Pasatcen naiz bada aurrerago, cristau

maitia , ta esaten dizut , guztian , ta guztiro zure desprecio propioa ama dezazula. Baña esango dirazu ; Cer esan nai dú nere desprecio propioa amaciac ? ; Cer da nere desprecio propio au ? Desprecio propioa , ta humildadia biac bat dira. Desprecio propioa humildadia dá , ta humildadia desprecio propioa ; ta ala Ama Virgiñac Jaungoicoa alabatceco esan zuen cantan esaten duenian , guztia zori onecoa deitu diotela , cergatic Jaungoicoac aren humildadiari beguiratu cion ; esan nai duena da , gogo onez beguiratu ciola Jaungoicoac aren desprecio propioari , aren miseria , ta ecer ezari , graziaz , ta mesedez beretceco.

Baña bada orregatic ere diferencia humildadian , ta gure desprecio propioan , cergatic au , guc ezagutcen ez degula , gugan dagoen chiquitasun , villauqueri , ta berapen bat da ; ta humildadia berriz gure ecer ez , ta despreciagarriac izate onen ezagüera dá. Humildade onen punturic principalena ez da bacarric , ceñ despreciagarriac gueran ezagutcia , ez bada bai ta ere orren despreciagarriac izatia es-

timatcia; ta orregatic alegratcia, ta ez au a-
 morioaren falta gatic, ez bada Jaungoico-
 aren anditasuna gueyago honratciagatic,
 ta progimoa gueren buruac baño gueya-
 go estimatcia gatic. Onetara exortatcen
 zaitut bada, cristau maitia, ta obeto adi-
 dezazun jaquin bear dezu, guc sufrितcen
 ditugun gaitceran, batzuec honratcen gai-
 tuztenac dirala, ta bestiac deshonoratcen
 gaituztenac; honratcen gaituztenac guey-
 enac padecitu nay izaten dituzte, baña
 deshonoratcen gaituztenac batec ere doido-
 ya. Icusten badute hermitaño devoto bat
 zarpa darion habitu batequin otzac, guz-
 tiac honratcen dute aren habitu pobria,
 argatic lastimatuaz, baña icusten badute
 oficial, edo bere bearran bere vicia ate-
 ratcen duen bat, edo Cavallero bat edo
 Señora gaisso bat ura bezala padecitcen,
 burla ta desprecioa eguiten diote. Orra
 nola aben pobreza deshonoratua dan. Su-
 fritcen badú Religioso batec humildadia-
 requin bere Preladu, edo Aguintariac e-
 maten dion erreprensio gogor bat, edo
 seme batec bere aitac ematen diona, su-
 frimentu orri guztia deituco diote mor-

tificacioa, obediencia, ta prudencia, ta Cavallero batec, edo Señora batec beste orrembeste sufrituagatic, Jangoicoaren amorioagatic eguiñagatic ere; bildurtzat, ta animo chiquico gauzatzat ori eguitia iruquico dute. Ona emen beste gaitz despreciatu bat. Batec besoan dú andichu bat, bestiac arpeguian, besoan duenac gaitza baicican ez dú, baña arpeguian duenac, gaitzaz gañera lotsa, ta desprecioa dú, Diot bada orañ ez bacarric amatu bear degula gaitza, ta pacienciaco virtutia dala medio eguiten da au, ez bada bai ta ere desprecioa, ta au humildadeco virtutiaren medioz eguiten dá.

Onetzaz gañera badira ere virtute deshonragarriac, ta honrosoac; paciencia, videdabequeriac sufricia, toles gabetasuna, ta humildadia mundutarrac villautzat, ta deshonragarriztat daucazquiten vittutiac dira; contrara berriz, asco estimatcen dute prudencia, animosoa ta prestua izatia, gauza anditzat daucazquite abec.

Badira ere virtute bateco obrac, batzuec despreciatuac, ta virtute artaco beste batzuec honratuac, limosna egui-

ria, ta vide gabequeriac barcatcia biac
 dira caridadeco virtutiaren obrac, ta or
 regatic ere limosna eguitia honratua da,
 ta vide gabequeriac barcatcia deshon-
 ratua munduaren beguietan. Ez bada Ca-
 ballero gazte bat, edo dama bat bear
 ez dan conversacio, joco, dantza, jan,
 eran, ta galetan dabiltzanen compañia-
 ra joaten murraturac, ta gaizqui esa-
 nac izango dira bestiac gaudiac, ta ayen
 modestiari deituco diote ipocresia, ta
 gendia engañatu naya. Au amarcia, ba-
 tec bere desprecioa amarcia dá. Beste e-
 gemplo bat ipiñico dizut; eguin dezagun
 contu eriac visitacera guacela; bialcen
 banaute erietan dan pobreenegana, des-
 precioa izango da au munduac gauzac juz-
 gatcen dituen moduan; orregatic amataco
 det desprecio ura; bialcen banaute principa-
 lenegana, au ere desprecioa izango da es-
 pirituac gauzac juzgatcen dituan moduan,
 cergatic ez da onetan bestian aibat vir-
 tute, ta merecimentu; amatuco det ere
 desprecio au. Badira ere desprecioa bes-
 te gaitic ez duen falta batzuec. Humilda-
 diac ez dú licenciariac ematen, onelaco

gauzatic berariaz eguiteco, baña aguint-
 cen dú, eguiten baditugu, ayec gatic ez
 inquietatceco. Onelaco faltac dira burlac,
 cortesiaren faltac, ez oartciac, ceñac ez
 eguiteco cuidadoa izan bear dan becela,
 criantza ona, ta prudentciarequin cum-
 plitciagatic, ala ere orietan noizbait des-
 cuidatcen baguera, orretatic datorquigun
 desprecioa pacienciarequin eraman bear
 degu, ta gogo onarequin errecibitu bear
 degu, humildadia orrela egercitatceco. O-
 raindic gueyago esango dizut; nere có-
 lera, ta pacienciarenen falta dala motivo,
 descuidatcen baldin banaiz Jaungoicoa,
 ta progimoa ofenditceco itcen bat esaten,
 damutuco naiz viotz guztitic, ta sentituco
 det eciñ gueyagoraño eguin deran peca-
 tua, ta procuratuco det aren erremedioa,
 ta aren penitencia eguitia alderan guztia,
 baña ez det orregatic orretatic datorqui-
 dan desprecioa gogoz artu gabe utcico, ta
 baldiñ pecatua, ta desprecio bata bes-
 tia gandic apartatu albalitezque, despe-
 tucó nuque nigandic viotz guztitic pe-
 catua, ta iruquico nuque humildadiare-
 quin desprecioa.

Baña gaitcetic datorquigun desprecioa a-
 matua gatic ezda orregatic eguin duen cal-
 tia erremediatu gabe utci bear orretaraco
 ezagutcen diran bear diran moduac medi-
 ante, ta batez ere gaitz artatic etorri dan
 caltia, edo gaitza cerbait andia danian.
 Nerau bestiac despreciatceco motivoa e-
 maten duen gaitcen bat nere arpeguian
 baldin bada, procuratuco det artatic sen-
 datcia, baña amatuco det orretatic etorri
 zaitadan desprecioa. Eguiten badet doa
 gabequeriren bat, baña iñoren caltecoa
 ez dana, ez naiz artzaz escusatuco, cer-
 gatic ura falta izana gatic, iñoren caltecoa
 ez dan ezqueroz, argatic escusatcia, ez
 litzaque beste gauzaric izango, ez bada
 artatic datorquidan despreciotic libratu na-
 ya, ta au ez dú permititcen humildadiac.
 Baña baldiñ descuido, edo nere colera
 dala motivo iñor escandalizatu baldiñ ba-
 det, erremediatuco det eguin deran vide-
 gabequeria eguiazco escusaren bat medi-
 ante, cergatic nola badiraben gaitzac, ca-
 ridadiac obligatcen nau quencera. Escat-
 cen dú ere ascotan caridadiac guc gure des-
 precioa erremediatcia, edo gure honraren:

alde ateratcia , cergatic gure progimoa aren bear dan ta ala procuratu bear degu bear dan prudentciarequin , baña au eguiñ ezquero , gure viotcian gorde bear degu amorioarequin desprecio ura.

Jaquin naico dezu nosqui , cristau maitia , desprecioric onenac ceñ diran ; esaten dizut bada batere dudaric gabe , animarentzat provechugarrienac , ta Jaungoicoaren gustoric andienecoac , Jaungoicoac berac ematen dizquigunac dirala , dala gure progimoac mediante , dala gaitcen baten , desgraciaren baten , beartasunen baten videz , edo beste eroceñ moduz , cergatic ez ditugu guc escogitcen , ez bada errecibitu eguiten ditugu Jaungoicoac bialtcen dizquigunac , ta aren auquera guria baño obia dá beti ; ta baldin guc escogitu bear baguenuque , andienac dira onenac , tá gure griñai gueyena contra eguiten dienac , dira onenac , gure estarduarequin ongui etorri ezquero. Cergatic (itz batian esateco) gure auquerac gastatcen ta guchitcen ditu virtuteric gueyenac , edo guztia alde aldian. Ceñec emango digu guri David Erreguiac be-

zala esatia, Nayago det Jaungoicoaren
 echian despreciatua egon, peccatarieq
 echian vici baño? Inore ez, cristau mai-
 tia, ez bada gu honratcia gatic alaco
 moduan despreciatua vici, ta iltzanac
 ce personen deshona, ta erriaren des-
 precioa izandu zan. Asco gauza esan
 dizquitzut, ceñac consideratceco dem-
 boran gogorrac idurico zaizquitzu, ba-
 ña sinis zadazu, azucria, ta ezta baño
 gozoagoac eguingo zaizquitzula cum-
 plitcen dituzunian.

VII. CAPITULO.

*Nola conservatu bear dan creditu ona
 humildadia egercitatuaz.*

Alabantza, honra, ta gloria etzaiz-
 te personai erocēñ moduzco virtutia ga-
 tic ematen, ez bada virtute excelente,
 edo andia gatic, cergatic alabantza da-
 la mediante, ceñ estimagarria dan bes-
 tec duen anditasunen bat, aditcera e-
 man nai degu; honra dala mediante.

gueroe estimatzen degula, eman nai de-
 gu aditcera, ta gloria (emen aditu be-
 ar dan moduan) ez dá nere ustian bes-
 te gauzaric, ez bada eguzquiaren guisa
 disdis eguiten duen honraren edertasu-
 na, ceña jayotzen dan alabantza, ta hon-
 ra ascoren pilla batetic bezala, alaco
 moduan, ce alabantzac, ta honrac arri
 precioso batzuec bezala dira, ceñátatic
 pilla batetic bezala sortzen dá gloria,
 urrezco lore bat bezala. Eciñ sufritu
 duelaric bada humildadiac, bestiac ba-
 ño estimatuagoac izan bear degula pen-
 satcia, eciñ eman dezaque ere licencia-
 ric, honra, alabantza, ta gloria guc bi-
 llateco, cergatic abec estimacio andi-
 co gauzari zorrayozca; baña Espiritu
 Santuac esaten duen bezala, ematen dú
 humildadiac licencia, bacoitzac bere
 credituari beguiratceco; cergatic au ez
 dá gugan arquitzen dan gauza especial
 andiren baten estimacioa, ez bada guz-
 tiai dagoquien ontasun regular batena,
 ta au guregan ezagutcia, ez dú eragoz-
 ten humildadiac, ta beragatic ez dá ere
 guc creditu ona estimatcia. Eguia dá;

despreciatuco luque humildadiac credi-
 tua, aren bear ez baliz caridadeco vir-
 tutia, baña caridadia bata bestiarequin
 vicitceco cimendua nola dán, ta ura
 gabe ez bacarric ecertaco ezac, ez ba-
 la baita ere caltegarriac izango guiña-
 quien gendearentzat, artuco luquien es-
 candaloa gatic, orregatic caridadiac es-
 catcen dú, ta humildadiac ongui era-
 naten dú, gure creditua deseatcia, ta
 conservatcia. Orretzaz gañera nola ar-
 bolaren orriyac berez guchi valio dute-
 nac izana gatic, orregatic ere arbolai
 asco servitcen dien, ez bacarric edert-
 ceco, ez bada baita ere frutac jayo be-
 rrian conservatceco, orobat bada cre-
 ditu ona berez asco deseatcecoa ez ba-
 la ere, guztiz provechugarria dá, ez
 bacarric gure vicitzaren edertasunera-
 co, ez bada baita ere gure virtutiac
 conservatceco, ta batez ere gure ani-
 netan jayo berriac, ta orañdic indar
 guchi dutenac. Gure creditu ona con-
 servatu bearrac, ta gugandic uste dute
 bezalacoac izan bearrac, animo prestu-
 to persona indar poderoso, ta gozo ba-

tequin muguitcen dú ona, ta orañdic
dán baño ere obia izatia procuratcera.
Conserva ditzagun cristau maitia, gure
virtutiac, cergatic gure obra guztien a-
tencioac eramán bear dituen gure Jaun-
goicoaren gustocoac dira. Baña nola fru-
tac conservatu nai dituztenac, ez baca-
rric azucriarequin batutzen dituzten, ez
bada paratzen dituzten ere conservat-
zeco vaso egoquietan, ala ere gure vir-
tutien conservatzalleric principalena,
Jaungoicoaren amorioa baldin bada ere,
valia gaitezque orregatic ere orretara-
co creditu onaz, artaraco gauza chit e-
goquia dan bezala. Baña ez degu orre-
gatic ere creditu ona conservatzen em-
peño guztizcoric paratu bear, ta ez de-
gu chit puntu andicoac izan bear, cer-
gatic orreñ contuzcoac, delicaduac, ta
sentituac beren creditua gatic diranac,
eroceñ simpleza gatic bereala erreme-
dioac artzen dituztenai iduritzen dira,
ta onelacoac osasuna conservatu ustian,
galdu eguiten dute. Orobat bada, be-
ren creditu ona gatic añ contuzcoac di-
ranac; aimbeste cuidadorequin beren

creditua conservatu naiyan galdu eguiren dute; cergatic orrembeste delicadeza gatic enfadagarriac, ta inorc eciñ sufritu dituztenac eguiten dira, ta berac gatic gaizqui esateco motivoa ematen dute. Eguin diguten vide gabequeria, ta gugatic esan duten gaitza disimulatzia erremedio obia dá gueyenian, sentimientua, porfia, ta vengantza baño. Casoric ez eguitiac ayenatcen ditu injuriac, baño aserratcen baldin bada bat ayec gatic, estimatcen dirala diruri. Cocodrilloa esaten dioten animaliac ez dió aren bildurdanari besteri gaitzic eguiten, ala ere murmuracioac ez dió argatic enfadatzen danari besteri gaitzic eguiten.

Creditu ona galtzeco bildur gueyeguiac ematen dú motivoa pensatzeco, ez dagoela cristau argan creditu onaren cimenduric; ceña dan vicitza virtuosoa. Ibai andietan oiezco zubiác dituzten erriac eroceñ urboladetan ere eramanditzan bildurrac vicitzen dira; baño arrizco zubiác dituztenac ez dute bildurric izaten ez bada ugalde chit an-

dietan. Ala virtute andico cristauvac ez
dute casoric eguiten mingañ gaiztoen ur-
boladac gatic , baña argalac , ta virtute
guchicoac eroceñ simpleza gatic inquie-
taizen dira. Esaten dizut eguia , cristau
maitia , guztiaquin creditu ona iruqui
nai duenac , ascorequin geltzen duela ,
ta beren vicioac dirala motivo villau-
bac , ta deshonrratuac diranaquin bere
creditua conservatu nai duenac , galt-
cia mereci dú. Creditu ona , virtutia non
vici dan eracusten duen señale bat be-
zala dá , ta bera gatic guztiaac baño gue-
yago estimatua izan bear dú. Orrega-
tic , esaten badu nor baitec , cergatic
obra onetan empleatzen ceran ipocrita
cerala , ta cergatic gaizquilliari barca-
tu diozun , bildurtia cerala , orretzaz
guztiaz burla zaitez , cergatic orrelaco
murmuracio moduac censuric gabeco
personenac izanaz gañera , ez dá virtu-
tia utci bear , ta artaraco videtic apar-
tatu bear ; cergatic orriya baño gueya-
go estimatu bear dá arbolaren fruta ; au-
dá , barrengo ta animaco ona campo-
co on guztia baño. Izan dezagun bai

modu onian gure creditu onaren deseoa, baña ez dezagun Jaungoicoa bezala adoratu, ta nola ez dan virtuosoen beguia ofenditu bear egemplo gaiztoarequin, ala ere ez dá gaiztoena contentatcia deseatu bear.

Bizarra guizonaren arpeguian, ta illia emacumearen buruan, biac apaintzeco dira, baña nola bizarra, ala illia sustrayetic ateratzen badira, ez dira erraz acico berriz, baña ebaqui baicic eguiten ez badira, andic puntuco gueyago, ta sendoago ateraco dira. Orobat bada, ebaquia izana gatic creditu ona mingaiñ gaiztoacgatic, céñac David Erregue Santuac dion bezala labaña zorrotz bat bezala dira, ez degu orregatic inquietatu bear, cergatic laster berriz acico zaigu, ez bacarric lenago becin ederra, ez bada baita ere sendoagoa. Baña baldiñ gure vicioac, gure naguitasunac, gure vici modu gaiztoac quentzen badigute gure creditua bildur izateco dá, ez degula iñoiz berriz guganatuco, cergatic sustraya ateria guelditzen dá; ta creditu onaren sustrai au on.

tasuna dá, gu onac izatia ; au gurequin dan bitartian sortu dezaque berriz creditua, cergatic zortzayo au ontasunari. Uteci bear dira ecer servitcen ez duten conversacio, usario, ta adisquidetasunac, baita ere costumbre parragarriac credituari calte eguiten badiote ; baña Jaungoicoaren servicioan, gabiltzala murmuratzen badute, burla eguiten badute, edo gaizqui esaten badute, nteci artzanorai ; edo mastin chacur oriei illarguiaren contra zanga eguiten, cergatic gure contra opinio gaiztoren bat sortu ta, orrela gure credituaren bizarrac ebaqui albaditzateque ere, laster berriz jayoco dira, ta murmuracioco labañac servituco dio gure credituari mats podatzeco labañac matsari bezala, ceñac frutu gueyago ecarri eracitzen diozca matsari.

Iruqui ditzagun beti gure beguiac Jesus crucificatuagan, gabiltzan beraren servicioan confianzarequin, ta toles gabe baña prudentzia, ta discrecioarequin ; ta berac eguingo dio contu gure credituari, ta defendituco dú, ta galtzia per-

mititzen badú, beste obeago bat emateco izango dá, edo humildade santuan aprobechatzeco, ta onetatic ontzabatec gueyago valio dú, milla libra credituc baño. Arrazoi gabe injuriatzen bagaituzte, excusa gaitecen humildadirequin esanaz, ez guerala gauza artan culpante, ta ez baldin badu gure esanac valio, conserva gaitecen humildadían; para dezagun gure creditua gure animarequin batian Jaungoicoaren escuetan, ta orrela ondoena aseguraturagongo dá. Servidezagun Jaungoicoa creditu on, ta gaiztoa gatic S. Pablo Apostoloac bezala, orrela Davidec bezala esateco, zu gatic sufritu det, Jauna, deshonra, ta nere arpeguia lotsac estali dú.

Orregatic ere ez dizut sartzen erregla general onetan pecatu aín andi, ta infamiac, ce eciñ iñor ayen contra aterra gabe guelditu diteque, bear bezala ori eguin ditequenian; ta arrazoi gueyagorequin besteri egemplo ona emateco obligacio especiala duenaren contra falso testimonio oriec diranian, cergatic onelaco ocasion, Teologoac diotenez

obligatua dago, bere credituaren alde
bear dan prudentziarequin ateratzera.

VIII. CAPITULOA.

*Nola progimoaganaco mansoac izan be-
ar degun, ta iraren contraco erreme-
dioaren gañian.*

Eliza Ama Santac, Apostoloac era-
cutsiric, Confirmacioraco, ta Bendicioe-
taraco usatcen duen Chisma santua oli-
oa, ta balsamoarequin eguiten dá, ta abec
beste asco gauzaren artian gure Jesus
maitagarriagan arquitzen diran bi vir-
tute eder ta chit maitiac aditcera ema-
ten dituzte; ceñac guztietan gueyena
encargatu cizquigun, ayec dirala medi-
ante egon bear baluque bezala gure vi-
otzac aren serviciora especialqui consa-
gratua, ta bera imitacoeco cuidado an-
dian. Icasizazute nigandic, dio, mansuac,
ta viotz humillecoac izaten. Humidadi-
ac eguiten gaitu perfectoac Jaungoicoa-
requico, mansotasunac progimoarequi-
co. Balsamoac, ceña lenago esan de-

ran becela , erari guztietan ondora joa-
 ten dá , humildadia aditcera ematen du ;
 olioac berriz beti gañian dabilena , go-
 zotasuna , ta mansotasuna aditcera e-
 maten dú ; ceña gauza guztien gañetic
 dabil , ta beste virtute guztien gañetic
 aguertcen da , Jaungoicoaren amorioa-
 ren lorea dan becela , ta San Bernardoc
 dionez , Jaungoicoaren amorioa bere
 perfecioan dago , danian ez bacarric su-
 fritua , ez bada bai ta ere mansoa , ta
 gozagarría. Baña cuidado cristau mai-
 tia , mansotasun , ta humildadiarequin
 eguiten dan Chrisma misterioso onec vi-
 otzian egon bear dú , cergatic etsaya-
 ren engañuetatic andiena bat au da ; as-
 co bi virtute aben antceco itz , ta obra-
 quin chit pagatuac vicitcia , ta beren
 viotzac ongui examinatcen ez dituela-
 co , humillac , ta mansoac diralaco us-
 tian vici dira , ala ez izanic. Au eza-
 gutcen dá , cergatic itzac , ta obrac man-
 soen antcecoac baldin badituzte ere , e-
 roceñ simplezagatic , eroceñ videgabe-
 queri gatic saltatcen dira sufritu eciñ li-
 sequian soberviarequin. San Pabloren

gracia esaten dióten legánda, edo puzoi contracoagatic esaten dute, círabac jana gatic anditzen ez dirala, fiñetacoa baldin bada beñepen puzoi contraco ura; orobat bada humildadia, ta mansotasunac, eguiazcoac diranian guardatzen gaituzte injúriac gure víotcian muguitzen dituzten andichu, ta berotasunetatic, ta baldiñ gure gaizquilliac picatzen gaituztenian, inquietatzen, anditzen, ta aserraten baguera, señale clarao dá, gure humildadia, ta mansotasuna ez dirala eguiazcoac, ta fiñac, ez bada guezurrezcoac, ta ichura baicic ez dutenac.

José Patriarca Santuac bere anaiyai, aitaren echera bialdu cituenian, etcitez-tela videan aserratu, esan cien. Orobat esaten dizut nic ere zuri, cristau maitia, vicitza miserable au betico vicitzaraco videan beste gauzaric ez dá, ta ala vide onetan ez gaitecela alcarrequin aserratu; gure anai; ta lagunaquin alegre, adisquide, ta gozotara joan gaitecen. Esaten dizut bada, etzaitecela albadezu iñoiz ere, ta iñolazco motivo gatic aserratu, ta ez diozazula iñolazco mo-

tivori, ira, edo aserriari atia idiquitze-
 co, zure viotzian lecuric eman; cerga-
 tic Santiago Apostoloac itz guchitan e-
 saten dú personaren irac ez duela gau-
 za onic iñoiz eguiten. Ez degu permiti-
 tu bear, eguia dá, gauza gaiztoric; ta
 corregitu bear ditugu gure cargura dau-
 denen faltac gure aleguiñ guztian, ba-
 ña orregatic ere beti amorioz, ta goza-
 tasunarequiñ. Elefantia aserre dagoeni-
 an arcume bat icustiac baño gueyago
 ecerc mansotzen ez dú, ta ez dio ca-
 ñoico balari lanac baño gueyago ecerc
 indarra quentzen. Pasioz eguiten dan
 erreprensioa arrazoyarequin eguiñaga-
 tic ere, ez dá aibeste estimatzen, no-
 la arrazoyaz bacarric eguiten dana, cer-
 gatic gure anima bere arrazoyari suje-
 to badago ere, ez dago sujeto pasioari,
 ez bada bere gogoaren contra, ta orre-
 gatic arrazoya pasioarequin batian da-
 goenian gorrota garria eguiten dá, be-
 réz noblia bada ere, pasioa dala motivo
 villau eguiten dalaco. Erregueac asco
 honratzen, ta consolatzen dituzte erri-
 ac paquezco muestraquin datocenian,

baña soldaduz cargatuac etortzen dira-
 nian, erriaren onagatic izana gatic ere,
 ez dira errientzat gustocoac izaten ayen
 etorrerac, ta gustocoac ez izanaz gañe-
 ra, caltegarriac izaten dira, cergatic be-
 ar ez danic Soldaduaac eguin ez dezaten,
 aleguiña eguiñagatic, ez dá iñoiz lograt-
 zen persona ónen agrabioco gauzaren
 bat ez izatia; ala ere arrazoyac errei-
 natzen, duenian, ta amorioarequin, ta
 gozotoro eguiten diranian castiguac,
 corregitziac, ta erreprenditziac, naiz
 dala ecer barcatu gabe, guztiac amat-
 cen dute, ta ontzat ematen dute; baña
 ira, aserria, ta colerac, céñiac San A-
 gustiñec dion bezala, arrazoyaren Sol-
 daduaac dira, erreprensioetan, ta beste
 gaucetan arrazoyac berarequin dacart-
 zienian, orduan amagarria baña izuga-
 rria gueyago dá, ta orrequin errepre-
 sioa eguiten duenaren viotza ere estu-
 tua, ta gaizqui tratatua guelditzen dá.
 San Agustiñec berac escribitzen cion
 Profuturo ceritzan bati gauza onen ga-
 ñian, ta esaten cion, obeda irari, dan
 chiquiena, ta arrazoyezcoa izana gatic

ere, lecuric ez ematia, cergatic beifi
 lecu eman ezquero, chit gaitz dá atze-
 ra botatzen, cergatic landare gazte bat
 bezala sartzen dá, ta instante batian ar-
 bol andia eguiten dá, ta guc ura quen-
 du baño lenago, eguzquia sartzen bada,
 ceña San Pabloc eragozten digu; au dá
 luzaro gurequin irac irauten badu, go-
 rrotoa izatera allegatuco dá, ta quent-
 zeco moduric izango ez dá, cergatic mi-
 lla arrazoi falso, artan irauteco topat-
 zen dira, ta gorrotoan dagoen personae
 ez dá iñoiz uste izaten, arrazoi gabecoá
 dala aren gorrotoa. Obeda colerarie ga-
 be vicitzen icasi, artzaz prudenciare-
 quin usatu nai izatia baño; ta gure im-
 perfeccio, edo argaltasuna gatic argan-
 dic mugituac gueranian, obe dá gu-
 gandic lembait len botatzia, arequin
 tratua ajustatzen egon baño; cergatic
 dan lecuric guchiaena eman ezquero, pla-
 zaren jabe eguiten dá, ta sartzen dan
 lecu guztietan suguea bezala biltzen dá.
 Baña nola eguingo diot contra irari,
 esango dirazu, cristau maitia? Argan-
 dic tentatua sentitzen ceran becein las-

ter batu bear dituzu zure indar guztia-
 ac, viotz guztitic ari contra eguiteco;
 baña soseguz zure viotza alborotatu ga-
 be, cergatic Audiencia andietaco salé-
 tan icusten dan bezala, gendia isiltzeco
 Porteroac eguiten duen ojuaquin, isil-
 du nai duen gendiac baño bulla gueya-
 go sortzen dú; orobat bada guertatzen
 dá ascotan viotzeco vicitasun, ta albo-
 rotoarequin, ira edo colera guelditu na-
 yian, irac berac sortu cezaquien baño
 bulla gueyago sortzen degu gure viot-
 zian, ta onela viotza alborotatu ezque-
 ro, ez dá bere jabe izaten.

Onela soseguz irari arpegui eguin ez-
 quero, cumplitu bear dezu San Agusti-
 ñec ya edadian aurrera cegoela Auxilio
 ceritzan Obispo gazte bati eman cion
 consejua; esaten cion bada; guizonac
 eguiñ bear duena eguizu ta baldiñ guer-
 taten bazaitzu, Davidec, oguei ta a-
 margarren Salmo, edo Jaungoicozco
 cantan esaten duena; au dá nere beguia
 colera andiaz turbatua dago; billa zazu
 Jaungoicoa, ta viotzetic esayozu, erru-
 qui zaitez, Jauna, nitzaz, orrela bere

graciarequin zure colera, edo ira quendu
 dezan. Esaten dizut bada, cristau maitia,
 irac tentatcen gaituenian, Jaungoicoari
 bereala deitu bear diogula, Apostoloac
 irsasoan estu cebiltzarian deitcen cioten
 bezala; berac aguinduco die gure mugui-
 mentu gaiztoai, gueldi ditrecela, ta so-
 segu andia etorrigo zaigu. Baña beti en-
 cargatcen dizut ira quentceco eguin bear
 dan oracioa soseguz eguin bear dala, ta au
 beti contuan iruqui bear dezu iraren con-
 tra usatcen dituzun erremedio guztietan.

Ezagutcen badezu orregatic ere, iran,
 edo coleran faltatu dezula, erremedia za-
 zu falta ori, ceñ personen contra coleraz
 faltatu dezun ari berari paquea, ta amo-
 rioa aditcera emanaz. Cergatic nola gue-
 zurraren contra erremedio chit ona dán
 guezurra esan dala ezagutcen dan beceiñ
 aster bereala desesatia, ala ere iraren con-
 tra erremedio chit ona dá, artan faltatu
 dala ezagutcen dan beceiñ laster, aren
 contraco attoac eguitia; cergatic esana da-
 goen bezala, zauri berriac errazagoac di-
 ra sendatcen.

Onetzaz gañera, iraric gabe zaudenian;

eguizu mansotasunaren , tā gozatasunaren
 provisio andi bat , zure itz , ta obra guz-
 tiac moduric aldan atseguñian equitia pro-
 curatcen dezula , acordaturic , Esposa San-
 tuac canta gozoetan ez daucala eztiā ezpa-
 ñetan , ta miñgañaren puntan bacarric , ez
 bada baita ere miñgañaren azpian ; pechua-
 ren barrenen esan nai dú , ta ez bacarric ez-
 tiya dú , ez bada baita ere esnia , cergatic
 ez bacarric izan bear ditugu progimoa-
 rentzat , itz gozoac , ez bada baita ere pe-
 chua ; au da , gure animaco barren guztia .
 Ta ez bacarric izan bear degu eztiyaren
 gozotasuna , ceña usai onecoa dá ; esan nai
 det ; ez degula campoço gendiarequin ba-
 carric gozotasuna izan bear , ez bada bai-
 ta ere izan bear degu esniaren gozotasuna ,
 ta au dá , ehecoaquin , ta auzocoaquin
 ere atseguñiac izatia . Ta onetan asco ut-
 seguiten dute , calian Aingueruac , ta e-
 chean demonioac diruritenac .

IX. CAPITULO A.

*Nola gueren buruaquin mansoac izan
 bear degun.*

Mansotasunaren obretan bat chit oná ;

gueren personetan eguin dezaquegu, gueren buruen, ta imperfeccioen contra inoiz aserratcen ez guerala. Cergatic faltaren bat eguiten degunian artzaz damutcia, ta argatic triste egotia arrazoyac escatcen badu ere, ez diogu orregatic gure viotcian lecuric eman bear, gorrotoa, enfadua, ta colera aditcera ematen duen sentimentuari: falta andia izaten dute onetan coleratu diralaco, coleratcen diranac, tristatu, edo muscindu diralaco, muscintcen diranac, enfadatu diralaco, enfadatcen diranac, cergatic onela viotza coleran sartua iruquitcen dute, ta baldin badiruri ere bigarren colerac lembicicoa quentcen duela, ez dago dudatic, atia iriquia utcitcen duela lembicico ocasion berriz coleratceco. Orretzaz gañera beren buruen contra artcen dituzten arpegui illuneco colera oriet, ta samintasunac soberbiaraco videac dira, ta ez dute beste motivoric ez bada amorio propioa, ceña alborotatcen, ta inquietatcen dá gure imperfeccioac icustiarequin. Gure faltac gatic izan bear degun sentimentuac modestoa, sosegatua, ta paquetsua izan bear dú; cergatic nola Juez ba

tec obeto castigatcen dituen gaizquilliac
 pasiyo gabe , ta viotz sosegatuarequin
 dagoenian ayen contra sententia ematen
 duenian , alborotatua dagoela , ta pasyoz
 ematen duenian baño ; cergatic pasioare-
 quin sententia ematen duenian , ez ditu
 faltac berengan diran bezala castigatcen ,
 ez bada bera dan bezala ; orobat bada guc
 ere obeto castigatcen ditugu gure faltac
 damutasun paquetsu , ta sendoarequin ,
 sentimentu gorrotodun , estu , ta colerat-
 ciarequin baño , cergatic onelaco senti-
 mentuac ez dira gure falten anditasunac es-
 catcen duen bezala eguiñac izaten , ez ba-
 da gure griñac escatcen duen bezala. Con-
 paraciora ; castidadiaren amantiac eciñ gue-
 yagoraño sentituco dú aren contraco fal-
 tatic dan chiquienian ere erortcia , ta mur-
 muracioco falta andi batian eroria gatic
 parra eguingo dú. Contrara berriz mur-
 muracioa aborrecitcen duenac asco senti-
 tuco du orren contraco faltatic dan chi-
 quienian ere erortcia , ta ez dú penaric ar-
 tuc castidadiaren contra pecatu andi bat
 eguiña gatic , ta onela beste gaucetan , ta
 au guztia ez dá beste gatic guertatcen ,

ez bada cergatic orrelacoac pasiyoz go-
bernatcen diran , ta ez arrazoyaz.

Sinis zadazu , cristau mairia ; nola ai-
ta batec bere humeari , amorio , ta goza-
tasunarequin eguiten diozcan erreprentio-
ac , colera , ta aserrearequin eguiten dira-
nac baño indar gueyago duten ura emen-
datceco ; ala gure viotzac ere faltaren bat
eguiten duenian gozatasun , ta sosegua-
rein erreprentitcen badegu , aserre ba-
ño erruqui gueyago aren contra degula ,
ta emiendara animatcen degula , aurrera-
go pasatuco dá bere pecatuaz artcen du-
en damua , ta obeto sartuco zayo damu
aserre , ta alborotatua sartuco citzayon
baño. Nic beñepen , baldin banioque ,
comparaciara , vanidadiari gorroto andia,
ta orregatic ere artan erorico banintzaque,
naiz dala asco , ez nuque naico nere viot-
za modu onetan erreprentitu : nere viotz
miserabilia , ta gorroto garria atcera zu ez
erortceco aimbeste propositoren ondoren
vanidadian erori cerana ! lotsaren lotsaz
il zaitez , ez dezazula beguic gueyago
Cerura jaso , imprudente , ichu , villau ,
ta zure Jaungoicoaganaco legueric gabea;

ta beste onelaco moduetan ; ez bada con-
trara arrazoiyaren , ta erruquiaren vide-
tic naico nuque erreprenditu modu one-
tan ; orra nere viotz gaissoa , icusten de-
zu , nola iñoiz gueyago ez erortceco as-
moac artu guenituen zulora erori gueran.
Ay gure miserabliac ! jaiqui gaitecen ar-
ren , ta utci dezagun betico ; Jaungoicoa-
ren misericordiarí dei diozagun , ta con-
fia dezagun emendic aurrera irauncorra-
goac izaten lagunduco digula , humilda-
diaren videtic sartu gaitecen ; anima gai-
tecen , ta contuan vici gaitecen , lagun-
duco digu Jaungoicoac , ta orrela aprove-
chatuco degu. Nai nuque ere , cristau
maitia , erreprensio onetzaz gañera ber-
riz falta artan ez erorceco asmo firme ,
ta sendo bar artu , onetaraco bear diran
medioaz nere Aita espiritualaren conse-
juarequin valiatcen naizala.

Onelaco erreprensio biguñaz valiatuta,
ezagutcen bada , ez dala muguitcen orre-
gatic ere viotza bere faltaren damura , va-
lia diteque conveni dan damura muguit-
ceco erreprensio gogor , ta sendoaz , baña
erreprensio gogor aren ondoren procura-

tu bear dñ viotza sosegatcia , ta bere pena , ta aserrea Jaungoicoaganaco confianza gozo batequin Davidec bezala acabatcia ; bada Davidec bere anima afligitua icusten , edo senti zuenian modu onetan consolatcen zuen : Cergatic zaude triste : nere anima , ta cergatic inquietatcen nazu ? Espera zazu Jaungoicoagan , cergatic bedeincatuco det orandic nic bera , nere arpeguico osasuna , ta nere Jaungoicoa dan bezala.

Erorteen darian bada zure viotza , jaso zazu amorioz , ta gozatoro zure miseriaren ezagüerarequin Jaungoicoaren aurrian asco humiltcen cerala , zure erortciaz inñolaz ere icaratu gabe , cergatic ez dá arritcecoa , argaltasuna argala izatia , eritasuna eriya , ta miseria , miserabilia. Onetzaz gañera aborreci zazu viotz gutitic zugandic Jaungoicoac artu duen ofensa , ta animo andiarequin , ta Jaungoicoaren misericordian confianza andi batequin utci cenuen virtuteco videra biur zaitez.

X. CAPITULO.

Cuidadoarequin tratatu bear baditugu ere munduco negocioac, estutasun gueyegul, ta inquietacioric gabe cuidado onec izan bear duela.

Gure cer eguiñetan ipiñi bear degun cuidadoa, ta diligencia gauza chit diferentiac dira inquietacio, ansia, ta estutasun gueyeguitic. Aingueruac gure Salvacioaren cuidadoa badute, ta diligencia-requin procuratcen dute, baña ez dute inquietacioric, ansia, ta estutasun gueyeguiric, cergatic cuidadoa, ta diligencia ongui compontcen dira Jaungoicoaren amorioarequin, baña viotceco inquietacioa, ansia, ta congoja, edo estutasun gueyeguia aren caltegarri dira, cergatic cuidadoa, ta diligencia espirituco paque, ta sosegua-requin egon ditezque, baña ez inquietacioa, ta ansia, ta are guchiago congoja.

Izan zaitez bada, cristau maitia, con-tuzcoa, ta diligentia zure cargura daucaz-

quitzun negocio guztietan, cergatic Jaungoicoac orien contua eman dizun ezquerotenic, nai dú oriequin cuidado andia izan dezazun, baña ez diozazula al bait inquietacio, ta ansiari orietan lecuric eman; esan nai dizurana da; soseguz artu ditzatzula, ta ez viotceco inquietacio, ta estutasun gueyeguirequin, ta etzaitecela ansiatu oriec eguiten, cergatic eroceñ estutasun gueyeguic turbatcen dú gare arrazoya, ta ezagüera, ta eragozten digu deseateen degun gauzaren aciertoa.

Gure Jesusec Santa Marta erreprenditu zuenian esan cion: Marta, Marta, guztiz cuidadosa zaude, ta asco gauza gatic turbatcen cera. Cuidadoarequin bacarric egon bazan, etzan turbatuco, baña nola gueyeguico cuidadoarequin, ta inqueitata cegoen, orregatic estutu, ta turbaruzan, ta motivo orregatic Jesusec erreprenditu zuen. Lecu celayetatic poliqui jechitzen diran ibaiac eramaten diruzte chalupac, chanelac, ta ontci andiac ere, ta orietan andasun andiac, ta poliqui sorora erortcen dan ebiac belarra, garia, artoa, ta beste frutuac emateco on asco eguiten

dio Iurrari; baña corrientiac, ta ibai aserri-
 ac ondatcen dute topatcen duten guztia, ta
 eciñ eguin diteque ayetatic comericoric;
 nola batbateco ecaitz, ta turmoyetaco ebi-
 ac ere galtcen dituzte soroac, ta belardiac.
 Corrica, ta estutasun andiarequin ez dá
 iñoiz gauzaric ongui eguiten; esana da-
 goen bezala, espacioz ibilli bear da pre-
 saca. Salomonec esaten dú; corrica asit-
 cen dana biatz topatu, ta erortceco peli-
 groan jartcen dala. Laster asco eguiten da,
 ongui eguiten dan gauza. Listorrac erli-
 ac baño soñu gueyago eguiten dute, ta
 ayec baño ocupatuagoac ibiltcen dira, ba-
 ña ez dute eztiric eguiten, ez bada argui-
 zaguia; ala ere cuidado gueyeguirequin,
 ta inquietacio bullosoarequin estutcen di-
 ranac, ez dute iñoiz asco, ta ez gauz
 onic eguiten.

Ez gaituzte ebliac beren indarragatic
 enfadatcen, ez bada beren asco izatiaga-
 tic; ala ere importancia andico cer egui-
 ñac ez gaituzte aimbeste inquietatcen, no-
 la chiquiac asco diranian. Soseguz artuitza-
 zu bada etortcen zaizquitzun negocio-
 ac, ta procura zazu orden onarequin e-

guitia , au da , bata bestiaren ondoren ,
 cergatic guztia batian , ta ordenaric ba-
 gue eguin nai badituzu , alferricaco ne-
 quea izango da , ta zure espiritua estut-
 cia , ta flacatcia ; ta ciertoena izango da ,
 necaturic , ta errendituric ecer eguin gabe
 guelditcia.

Zure negocio guztietan Jaungoicoaren
 providentcian guztia confiatu bear dezu ,
 ceñagatic bacarric zure deseoac cumplitu
 bear dira. Zuc zure partetic paraitzazu so-
 seguz bear diran diligentciac , ta ori e-
 guin ezquero , sinist zazu , Jaungoicoagan
 ongui confiatua bazaude , zure preten-
 sioan guertatcen zaitzun eroceiñ gauza
 zuretzat provechu garriena izango dala
 zuri eroceiñ gauza , dala gaiztoa , edo o-
 na iduritua gatic.

Eguizu aurrac bezala , ceñac escu ba-
 tequin amari eusten diotela , bestiarequin
 jechitcen dira lurrera , marrubiac , ta ma-
 sustac biltcera ; zuc ere mundu onetaco
 gauzac escu batequin biltcen , ta gober-
 natcen dituzula , bestiarequin Ceruco Ai-
 tari eutsiric egon bear dezu , zure hacien-
 da , ta ocupacioac aren gustocoac diran

icusteco noician beñ argana biurtcen cerala. Ta contu , aren escua , ta amparoa, gueyago batuco dezulaco ustian , utci , cergatic bere escutic utcitcen badizu , lurrrian erori gabe pausoric eguingo ez dedezu. Esaten dizut ere , cristau maitia , atencio andiric escatcen ez duten zure eguneroco eguitecoetan ari ceranian , eguitecoai baño gueyago Jaungoicoari beguirra diozazula. Ta atencio andia escatcen duten eguitecoetan ari ceranian ere , beguirra zayozu noician beñ Jaungoicoari , ichasoan dijoacenac bezala , cénac deseo duten errira allegatceco gueyago beguiratcen dute Cerura ichasora baño. Orrela trabajatuco dú Jaungoicoac zurequin , zugan , ta zugatic , ta zure nequea consueloz betia izango dá.

XI. CAPITULO A.

Obedienciaren gañian.

Jaungoicoaren amorioac bacarric perfectoac eguiten gaitu , baña au alcantzatceco , iru medio andiac obedientcia , castidadia ,

ta probreza dira. Obedienciac sujetatcen
 ta consagratcen dio Jaungoicoaren amo-
 rio, ta servicioari gure viotza, castidadiac
 gure gorputza, ta pobrezac gure ondasu-
 nac. Abec dira gurutce espiritualaren iru
 adarrac, ta irurac humildadiaren gañian
 moldatcen dira beren cimenduan bezala.
 Ez det ecer esango virtute aben gañian
 Jaungoicoari religioan prometituac dira-
 nen aldetic, cergatic Religiosoai tocatcen
 zaizte abec; ez da ere batec bere parti-
 cularrian, edo Religiotic campora prome-
 tituac diranen aldetic, cergatic beti ema-
 ten badie ere promesac gracia, ta mereci-
 mentu asco virtutiai, orregatic ere gu per-
 fectoac eguiteco, ez dá preciso promesaz
 cumplitcia, ez bada cumplitcia, edo gu-
 ardatcia. Ta prometituac diranian, ta ba-
 tez ere Religioan perfeccioco estaduan i-
 pintcen badute ere persona, orregatic ere
 duda gabeco gauza dá, perfeccioan per-
 sona paratceco, cumplitcia asco dala, cer-
 gatic diferentcia andia dago perfeccioco
 estaduan, ta perfeccioaren artian. Obis-
 po, ta Religioso guztia perfeccioco es-
 taduan daude, baña ez daude orregatic

ere guztiac perfeccioan nai baño gueyago, icusten dan bezala. Procuratu dezagun bada, cristau maitia, bacoitzac bere estaduaz bat virtute abec ongui egercitatcia, cergatic perfeccioco estaduan paratuco ez bagaituzte ere, perfeccioa bera emango digute. Orregatic gaude guztio berdiñ ez bada ere, virtute abec egercitatcera obligatuac.

Bi obedientcia modu dira, bata precisocoa, ta bestia borondatezcoa. Preciso-co obedientcia gatic obeditu bear diezu humildadiarequin Elizaco Aguintariai; nola diran Aita Santu, Obispo, ta Parrocoac, ta ayen lecuan daudenac. Obeditu bear diezu Elizacoaz gañera, munduan dituzun Aguintariai, nola diran Erregue, Alcate, ta Justiciaco beste Jaunac. Obeditu bear diezu ere zure eheco aguintariai; nola diran aita, ama, nagusi, ta eheco andriac. Precisocoa deitzen zayo obedientci oni, cergatic orrelaco aguintariai obeditcera guztiac dauden obligatuac, bada eman zaye guri aguintceco, ta gu gobernatceco facultadea bacoitzari bere empleoan guregan tocatcen zayon gau-

zan. Eguin bear dezu bada ayec aguint-
 cen dizutena, cergatic ori precisoa dá;
 baña perfectoa izateco cumplitzatzu ayen
 consejuac, deseoa, ta gustoa, carida-
 dia ta prudentciac permititcen dizula. O-
 bedi zayezu gustoco gaucetan, nola dan
 jatia, pisca bat divertitcia, ta beste one-
 laco gauzaren bat aguintcen dizutenian,
 cergatic onelaco gaucetan obeditcia virtu-
 te andia ez badiruri, vicio andia izango
 litzaque orregatic ere, ez obeditcia. Obe-
 di zayezu gauza indiferentietan, au da be-
 rez ez onac, ta ez gaiztoac diran gauc-
 tan, nola dan au edo beste jantci jartzia,
 vide onetatic edo bestetic joatia, cantat-
 cia, edo isillie egotia, ta alabantza an-
 dico obediencia izango dá au. Obedi za-
 yezu gauza gaitz, ta gogorretan, ta obe-
 diencia perfectoa izango dá au. Itz ba-
 tian, obedi zazu gogo onez, errepliatie
 gabe, agudo, luzatu gabe, alegriyare-
 quin, enfadu gabe, ta batez ere obedi
 zazu amorioarequin, ta pocic, gurutciari
 iltceraño gugatic obediente eguin zanaren
 amorez, ceñac, au dá Jesusec, San Ber-
 nardoc dion bezala, nayago izango zu-

en obediencia galdu baño, vicia galdu.

Zure Aguintariai erraz obeditcen icasteco, eguizu pocic zure antceco, edo igualen vorondatia, gauza gaiztoa ez danian, ayen pensatceco modura sugetateen ceralá, zuriarequin atera naya, ta leyatua izan gabe. Eguin zaitez aleguiñ guztia zurre mendecoen deseoetara, arrazoyac permititcen dituen gaucetan, onac diranian ayequin aguintciaz baliatu gabe. Engañua da pensatcia, Religiosoac, edo monjac baguiñaque, erraz obedituco guenuquela, Jaungoicoac aguintcen dizquiga gaucetan obeditcia, oraiñ aimbeste costatcen zaigula.

Vorondatezco obediencia gu gueren vorondatez obligatcen gueranari deitcen diogu, iñoc bestec orretara obligatu gabe. Ez dira gueyenian escogitcen Erreguea, Obispoa, gurasoac, ez da ere ascotan senarra; baña bacoitzac berac escogitcen dú Confesore au edo bestia. Eguin dezagun bada contu, escogitu ezquero Confesoria, eguiten duela batec ari obeditceco votoa edo promesa (nola contatcen dan Santa Teresa gatic, bere Religioco aguin-

tariai obediteco votoaz gañera eguin zu-
 ela Aita Graciano bere Confesoriari obe-
 ditceco) edo eguin dezagun contu , pro-
 mesaric gabe aren obedienciara entregat-
 cen dala , obediencia au beti izango da
 vorondatezcoa , cergatic gure vorondatez
 ta auqueraz eguiña da.

Aguintari guztiai obeditu bear diegu ,
 baña bacoitzari guri aguintceco escua , e-
 do facultadea duen gauzan ; nola dan mun-
 duco gaucetan obeditu bear diegu Erre-
 gueai , Elizaco , ta animaco gaucetan Eli-
 zaco Aguintariai , echecho gaucetan gura-
 soai , nagusiai , ta senarrari , ta gure ani-
 men gobernoan gure Aita Espiritual , ta
 Confesoriari.

Procura zazu eguiten dituzun obra o-
 nac zure Aita Espirituala gandic señalat-
 tuac izatia , orrela obiac izango dira , ta
 gracia , ta merecimentu doblatua izango
 dute ; bata , berez cergatic onac diran , ta
 bestia , cergatic obedientciac ipiñiac di-
 ran , ta zren virtutez eguiten diran. Zori
 onecoac obedientciac , cergatic ez dú iñoiz
 permitituco Jaungoicoac , ayec vide zu-
 cenic apartatcia.

XII. CAPITULOAN

Ceñ bearra dan Castidadia.

Castidadia virtutiē lirioa dá , ta personac Aingueruaquin alde aldian berdiñac eguiten ditu. Garbitasuna gabe gauza ederric ez dá , ta personen garbitasuna castidadia dá. Honestidadia deritza castidadiari ; ta honra ura profesatciari. Deritza , ere osotasuna , ta onen contrarioari usteltasuna. Itz batian , castidadiac bere gloria beressia dú , cergatic animaco , ta gorputceco virtute eder zuriya dá.

Etzaigu iñoiz , ta iñolaz cillegui gure gorputceco gusto ciquiñic artcia , Matrimonio santua ez bada , ceñaren santutasunac erremediatcen dú gustotic datorren caltia. Matrimonioan ere intencio garbia izan bear dá , ongui ez dirurien gauzaric gauzan bertan baldin bada ere , ura eguiten duenaren vorondatian garbitasuna baicic izan ez dedin.

Viotz castoa , edo garbia perlaren concha bezala da , ceñac egin errecibitu dú u-

raren tantoric ez bada Cerutic datorren ebiarena, ala bada viotz castoac ere eciñ artu du gustoric ez bada Marrimoniocoa, ceña Cerutic ordenatua da. Etzayo cillegui ere vorondatezco pensamentuarequin artan pensatcen egotia.

Virtute onen lembicico graduaren aldetic contu, cristau maitia, ez diozazula iñolaz lecuric eman zure viotcian eroceñ moduzco gusto gaiztoari, nola diran Matrimonioz campora artcen diran guztiac, edo Matrimonioan izanagatic, onec escatzen dituen legueen contra diranac.

Bigarrengo graduaren aldetic, igues e- guizu aldezun guztia ecer servitcen ez duten gustoetatic, cillegui diranac izanagatic ere.

Irugarrengo graduaren aldetic, ez dezazula iñoiz zure aficioa lotu ordenatuac, ta aguinduac dauden gusto, ta atseguñetan, cergatic Matrimonio santuaren fiña logratceco bear diran gustoac procuratu bear badira ere, ez da orregatic, ez viotza, ta ez espiritua ayetan iñoiz lotu bear.

Orañ aurrerago pasatcen naizala esaten dizut; guztiac dirala virtute onen be-

ar , ta alere guchi. Castidade animoso batizan bear dute alargunac , orrequin despreciatceco ez bacarric oraingo , ta guero gustoac , ez bada baita ere Matrimonioan izan cituzten gusto garbiac buruan sortcen dituzten imaginacio ciquiñac , bada persona alargunac imaginacio abec dirala motivo bear ez diran pensamentuetaraco errazagoac dira. Motivo onengatic arritcen dá San Agustin Alipio bere adisquidiaren garbitasunaz , cergatic artu , ta despreciatu cituen araguiaren gustoac , bein baño gueyagotan gazte demboran lecu eman bacien ere. Ta eguiaz , frutac , ustelic gabe daudenian , erraz conserva ditezque batzuec lastotan , bestiac ondarran , ta bestiac beren orrietan , baña usteltcen asi ezquero , ez dá erraz conservatcia , ez bada eztiz , ta azucrez nastuta. Ala ere orañdic galdu ez dan castidadia modu ascotara conseva diteque , baña galtcen asi ezquero , eciñ ecere conserva dezaque ez bada devocio andi batec , ceña , ascotan esan deran bezala , espirituen eguiazco ezti ; ta azucria dá.

Doncellac , ta guizaseme ezcondu ga

beac castidade chit sencilloa , edo curiosi-
 dadetan sartcen ez dana , ta delicadua izan
 beardute eroceñ generoco pensamentu cu-
 rioso guztiac beren viotcetatic botatceco ,
 ta atseguñ ciquiñ genero guztiac despre-
 ciatceco ; cergatic ez dute eguiaz mereci
 orrelaco ciquinqueriac personen gandic
 deseatuac izatia , bada ayentzat , baño ani-
 malientzat obiac dira. Sinis bezate bada
 dudaric gabe beti , anima garbi oriec , cas-
 tidadia , arequin ongui ez datocen gauzac
 baño , milla bider obeagoa dala. Ongui
 sinistu bear dute au , cergatic , San Gero-
 nimoc dion bezala , orandic castidadia
 galdu ez duten personac gogotic tentatcen
 ditu etsayac gorputceco gusto ciquiñac
 probatu nai izatera ; diran baño milla bi-
 der gustosoagoac , ta atseguñagoac bu-
 ruan idurituarequin , ta tentacio onec as-
 co estutcen ditu ascotan berac ezdaquiten
 gusto gaiztoa atseguñagotzat daucaten
 bitartian , dio Santuac. Ta nola inguma ,
 edo mariposa chiquiac arguiaren garra i-
 custen dutenian ederra becciñ atseguña
 dan probatu naiyan aren inguruan ibilt-
 cen diran , ta imaginacio onequiñ estutu-

ric instante batian ez diran guelditcen,
 guchiena uste dutenian erre arteraño, ala
 gueyenian gende gaztiac utcitcen dira ten-
 tatcen lujuriaco gar ciquiñaz eguiten du-
 ten estimacio falso, ta eroaz, ta galt-
 cen dira lujurian beren pensamentu curio-
 soac motivo; ta onetan ingumac baño cen-
 su guchiago dute, cergatic ingumac badu-
 te motivoren bat suba gozoa dala pensat-
 ceco, bada aiñ ederra dá, baña gende
 gaztiac jaquiñic, lujuriaco gustoa eciñ
 gueyagoraño ciquiña dala, orregatic ere
 atseguñ ura escogitcen dute.

Ezconduac ere, munduac ala uste ez
 badu ere, castidadiaren chit bear dira,
 cergatic ayetan virtute onen izatia aragua-
 ren gustoric ez izatian ez dago, ez bada
 gusto ayetan garbiac izatian. Nola nere
 ustez onaco mandamentu au, enfadatu
 zaitezte, baña ez dezazutela peccaturic e-
 guin nai etzaitezte enfadatu, baño cum-
 plitcen gaitzagoa dan, cergatic errazago
 dá coleratu gabe guelditcia coleratu ta ar-
 tan peccaturic ez eguiteco bear bezala go-
 vernatcia baño; ala ere errazago dá, ara-
 guiaren gustoric bat ere attu gabe egotia,

iyec artu , ta peaturic eguiñ gabe guel-
 ditceco bear bezala gobernancia baño. E-
 guia dá , Matrimonioco licencia santuac
 indar particularra duela lujuriaco suba it-
 zaltceco , baña artzaz usatcen dutenen ar-
 galtasuna gatic erraz igarotcen dá , cille-
 gui dan gauzatic , cillegui ez danera , ta
 usatcetic , gaizqui usatcera. Ta nola icus-
 ten dan aberats ascoc , ez necesidadia ga-
 tic , ez bada guticia gatic ostutcen dutela,
 ala ere persona ezcondu asco Matrimo-
 nioan baldiñ badaude ere , ceñarequin
 contentatu bear luquee , ta contenta li-
 tezque , icusten dira beren templantzaren
 falta gatic , ta argaltasunagatic lujuriaco
 pecatuan dabilzanac , ayen lujuriaco su-
 bac emendic ara dabillen subac bezala ,
 topatcen duen guztia erretcen duela , i-
 ñon ere asientoric eguiñ gabe. Erreme-
 dio borchariac , edo eciñ benericacoac
 artcia gauza peligrosoa dá beri , cergatic
 bear baño gueyago artcen bada , edo be-
 ar bezala cguña ez badago , calte andia
 eguiten dú ; Matrimonioac dituen fiñeta-
 tic bat lujuriaco suba erremediatcia dá , ta
 ez dago dudatic chit erremedio ona dala,

baña orregatic ere eciñ bestericacoa bezala dá , ta bera gatic chit peligrosoa , ez bada discrecioarequin usatcen.

Ta onetzaz gañera nic esaten det , eritasun luciaz gañera vici bearrac , munduco negocio ascoc obligatcen dituela ascotan ezconduac bata bestia gandic aparte egotera , ta bera gatic bi castidade modu bear dituztela ezconduac , bata , bata bestia gandic aparte daudenian gorputceco gustoaz iñolaz ere ez usatceco , bestia , aicarrequin daudenian Matrimonio santuan bear dan discrecioa izateco. Santa Catalina Senacoac tormentu andietan icusi cituen ezconduasco infernuan , cergatic Matrimonio santuaz gaizqui usatu zuten ; ta tormentu aiñ andiac ayec izatiazan (dió Santac) ez aimbeste pecatua ren anditasuna gatic , bada guizon iltcia , ta arneguac andiangoac dira ; ez bada cergatic pecatu oriec eguiten dituztenac , ez dute oriec gatic casoric eguiten , ta ala dembora lucian orietan seguitcen dute.

Icusten dezu bada , cristau maitia , estadu guztietaco personentzat castidadia chit bearra dala , Izan zazute guztiaquin pa-

quea, ta santidadia, ceña gabe ez dú iñore
 Jaungoicoa icusico, esaten dú S. Pabloc,
 ta santidadiaren icenarequin castidadia a-
 ditcera ematen dú, San Geronimoc, ta San
 Juan Crisostomoc diotenez. Ez cristau
 maitia, ez du iñore castidaderic gabe Ja-
 ungoicoaren arpeguiric icusico; viotz gar-
 bicoa ez danic, ez dá aren glorian vici-
 co. Ta gure Salvadoriac berac dion bezala,
 chacurrac, ta ciquiñac desterratuac izan-
 go dira; ta zori onecoac viotz garbico-
 ac cergatic berac icusico dute Jaungoicoa.

XIII. CAPITULO.

Castidadia conservatceco consejua.

Egon bear dezu, cristau maitia, cui-
 dado andiarequin lujuriaco vide, ta ce-
 bo, edo basca guztietatic igues eguitco,
 cergatic sentitu gabe acitcen dá gaitz au-
 asiera chiquietatic aurrerapen andiac e-
 guiten ditu accidente andietara; errazago
 dá argandic beti igues eguitia, sendatcia
 baño. Gure gorputzac vidrioai iduritzen

dira, ceñac ecin ecarri ditezque austeco pe-
 ligro gabe alcar jotcen dutela; bai ta ere
 arbolen frutari, ceñac sanoac, ta elduac
 egonagatic, bata bestia jotcetic caltia e-
 tortcen zaye; ura ere dan frescuena vaso-
 an egonagati, lurreco animaliren batec i-
 cuitcen badu, ez dá frescua luzaro egon-
 go. Ez dezazula permititu iñoiz, cristau
 maitia, fiñ onagatic ez bada, zu iñorc i-
 cuitcia, ez chanchetan, ta ez jostaque-
 tan, ez mesedez ere, cergatic conservatu
 baditeque ere castidadia malicia baño jos-
 taqueta gueiago duten icuitce oriec gatic,
 orregatic ere castidadiaren frescura, ta lo-
 reac beti izaten du guchi edo gueyago
 caltia. Ta orrelaco icuitceric permititu be-
 ar ez badezu; cembat guchiago icuitce
 deshonestoac? Abei lecu ematia castida-
 dia guztiro galtcia dá. Ez dago dudaric
 viotcetic jayotcen dala castidadia, ta con-
 servatcen dala, baña orregatic ere gor-
 putza gabe eciñ izan diteque, ta motivo
 onegatic galtcen dá gorputceco bost sen-
 tiduetarie eroceñ dala medio, ta pensa-
 mentu, ta viotceco deseoac dirala medio.
 Deshonesqueria dá gauza ciquiñai begui-

ratcia , aditcia , esatia , usai eguitia , eta
 icuitcia viotza ayetan guelditcen danian,
 ta gusto artcen duenian. San Pabloc chie
 itz guchitan esanten dú ; Deshonestidia,
 aitatu ere bear ez dezute. Erliac ez ba-
 carric ez dute gorputz ustelic icutu nai
 izaten , ez bada aborrecitcen dute ere e-
 ciñ gueyagoraño ayec banatcen duten u-
 sai gaiztoa. Esposa Santac Canteraco libru-
 an esaten dú , escuetatic mirra (*) dario-
 la bere ezpañac Casticea esaten dioten ar-
 ri precioso gorria bezala dirala ; itcetaco
 garbitasun , edo lotsaren señaia ; usuaren
 beguiac dituela ; bere garbitasuna gatic ;
 urrezco belarritacoac belarrietan ; garbi-
 tasunaren insignia , edo señaia ; sudur-
 ra Livanoco mendico Cedroen artian dau-
 cala , ceña ustelcen ez dan arbola dá. (*)
 Onelacoa izan bear dú anima devotac cas-

(*) Licore bat dá , ta onequin ere eguin,
 edo untatu zuten enterratceco gure Jesusén
 gorputza.

(*) Itz eguite modu abec misteriosoac dira,
 ta ala ez dira berac esaten duten bezala aza-
 letic aditu bear.

toa , garbia , ta honestoa , escuetan , eza-
pañetan , belarrietan , beguietan , ta gor-
putz guztian.

Ongui dator emen Casiano Monge ve-
neragarriac contatcen duena , ta ala conta-
tu nai dizut. Dio bada egun batian San Ba-
silioc bere burua gatic modu onetan esan
zuela : emacumeac cer diran ere ez daquit
nic , ta orregatic ere garbia ez naiz. Au
esan zuen Santuac bere burua gatic ; egui-
az galdu diteque castidadia aimbeste mo-
dura , cembat deshonestidadeco modu di-
ran ; ceñac andiac , edo chiquiac , nola di-
ran , batzuec flacatu , bestiac zauritu , ta
bestiac guztiro iltcen dute. Badira adisqui-
detasun , ta pasio edo oficio batzuec ez
bacarric indiscretoac ez bada baita ere vi-
ciosoac , ez bacarric eroac , ez bada des-
honestoac , ta abec dirala motivo castida-
dia chit ofenditua , ta dañatua dá beñe-
pen. Esan det beñepen , cergatic guztiro
iltcen dá eraqueriac , ta ciquinqueriac gus-
to ciquiñaren azqueneco efectoa gorpu-
tzari ematen diotenian ; cergatic ordu-
an milla bider gaizquiago galtcen dá cas-
tidadia , guizon , ta emacumezco eroceñ

obrazco peccaturequin baño , naiz libriae
 izan ditecela obrazco peccatua eguiten du-
 ten personac , naiz ezconduac , naiz aidi-
 ac , naiz persona consagratuac , cergatic
 abec peccatuac dira bacarric ; baña gorput-
 zari modu artan gusto ciquiñac ematia,
 maldade , ta peccatuaren bidutsi , edo mos-
 troac , (*) dira , garbitasunaren gañian
 escribitu zuen libruan Tertulianoc esaten
 duen bezala. Ez dú sinisten Casianoc , ez
 ta nic ere , maldade aben gañian itz egui-
 ten zuela San Basilioc , etzala garbia be-
 re burua gatic esanten zuenian. Uste dee
 sentitcen cituen pensamentu ciquiñac ga-
 tic au esaten zuela , bada pensamentu ci-
 quin ayec aren gorputza manchatcen ez
 bazuten ere quiratz golpe gaiztoac ematen
 ciozcaten aren viotzari , ceñaren garbita-
 sunari eciñ gueyagoraño contu eguiten
 diote virtute andico animac.

Ez dezazula iñolaz ere persona deshones-
 toaquin tratatu , batez ere imprudentiac,
 edo mingañ ciquiñecoac baldin badira,
 nola gueyenian ala izaten diran , cergatic

(*) Gauza icaragarriac.

nola aquerrac almendra gozoac mingaña-
requin icuitcen badituzte, samñac egui-
ten dituzten, ala persona usai gaiztoco,
ta ciquiñ oriec ere oriequin tratatcen du-
en eroceñ gueyenian guchi, edo gueyago
honestidadetic apartatcen dute. Asnasian,
ta beguietan dute abec puzoya ersuguiac,
edo Basiliscoac bezala.

Persona garbi, ta virtuosoquin bada
tratazazu. Gauza santuac maiz pensatu,
ta iracurritzatzu, cergatic Jaungoicoaren
itza garbia da, ta artan gozatcen diranac
garbiac eguiten ditu, ta ala Davidec com-
paratcen du bertoria, edo topacioa darit-
zan arri preciosoari, ceñac bere jatorriz du
lujuriaco suari indarra quentcia.

Considera zaza maiz Jesusen pasioan,
ta comulga zaitez maiz, cergatic nola Ag-
no casto, edo zalitzuquia daritzan bela-
rraren gañian ló eguiten dutenac, castoac,
ta garbiac eguiten diran, ala zure viotzac
Jesusegan descansatcen duela, ceña egui-
azco bildots casto, ta garbia becela dá,
icusico dezu laster zure anima, ta viotza
mancharie, ta ciquinqueriarie batere gabe
gueldituco dirala.

XIV. CAPITULO A.

*Espirituco pobreza ondasunen artian nola
guardatu bear dan.*

Zori onecoac espirituz pobre diranac ,
cergatic ayena dá Ceruco erreinoa. Zori ga-
iztocoac dira bada espirituz aberatsac dira-
nac , cergatic ayena dá infernuco miseria.
Espirituz aberatsa dá , ondasunac bere es-
pirituaren barrenen dituena , au dá , deseoz ;
Espirituz pobria dá batere ondasunic bere
espirituaren barrenen , edo viotcian ez dau-
cana , ez dá ere bere espiritua ondasunetan.
Mirotza esaten dioten Gabirabaren antce-
co chori arrapatzalliac , arra bat aimbate-
co cabiac eguiten ditu , ta ez dio zulo
chiqui bat baicic gañetic utcitcen ; icha-
soaren bazterrian eguiten ditu , baña aín
sendoac , ta gogorrac , ce bagac joa gatic
etzaye iñoiz uric sartcen , ta ichasora ero-
ria gatic ere , oso osoric egoten dirá ; oro-
bat bada , cristau maitia , zure viotzac
ere Cerurontz bacarric idiquia egon be-
ar dú , ta mundu onetaco ondasunen , ta

gaucen deseoric sartuco etzayon becein gogorra. Ondasun asco baldin badituzu iruqui zazu zure viotza libre ayen aficioetatic alaco moduan, ce zure viotza ayen gañetic, ta ayen artian ondasunic ez baldin baluque bezala ibilli dedilla, ta ayen nagusi eguñic egon dedilla. Ez dezazula ondasun lurtarrecoetan espiritu cerutarra paratu, ez bada ayen gañian erabilli zazu, ta ez ayec orren gañian.

Diferencia andia dago pozoiya iruquitcian, ta pozoitua izatian, Boticario guenyenac iruquitcen dute puzoya berac daquizquiten erremedioetaraco baña ez daude orregatic pozoituac, cergatic ez daucate pozoya gorputcian ez bada botican; alazuc ere iruqui ditzaquezu ondasunac, a yetzaz pozoitua egon gabe; ta au guertatuco dá, baldin ez zure viotcian, ez bada bolsan, edo echian badaucazquitzu. Ondasunaz aberatsa, ta aficioz pobria izatia cristavaren zori on andia dá, cergatic onela alde batetic baditu anditasunac ematen dituzten convenientciac, ta bestetic pobrezaren merecimentuac ere bai. Ez du, cristau maitia, guticiosoa dala inore aitor;

tu naí izaten , guztia aborrecitcen dute viotzaren chiquitasun , ta villauqueri au ; escusatcen dira semeen carguaren obligacioarequin ; vicitza pasatceco bear diran gaucetan ongui jartcia , jaquintsua , edo prudentia izatia dala , ez dala gueyeguiric iñoiz , ta beti iruqui bear dala cerbait aurreratua guerta litezquien premietaraco. Modu onetan berian guticiosoric andienac ere , ez baccárric ez dute aitortcen guticiosoac dirala , ez bada ez dute berac ere ala dirala uste izaten. Ez dute ezagutcen ez , cergatic calentura aiñ izugarria dá guticia , ce cembat eta andiagoa dan , ambat eta senti ez garriagoa eguiten dá.

Moisec icusi zuen subac erretcen zuen larra , baña orregatic ere consumitu gabe oso osoric utcitcen zuen ; baña guticiaco subac acabatzen , ta consumitcen ditu guticiosoac , ta orregatic ere ez ditu iñolaz erretcen , ez dute sentitcen ; beñepen guticiaco suric andienian , edo berotasunic andienian daudenian ere , alaco gaitcic ez baldiñ baluteque bezala alegre egoten dira , ta eciñ ondasunez

ase ura gose inocente , ta atseguin bat dala uste izaten dute.

Ez dituzun ondasunac luzaro , gogotic , ta ansia andiarequin deseaten badituzu , bear ez dan videtic zugaratu nai ez dituzula esana gatic , guticiosoa izango cera. Luzaro , gogotic , ta ansia andiarequin eratia deseaten duenac ura besteric nai ez izana gatic ere , calentura duela ematen du aditzera.

O cristau maitia ! ez daquit deseo ona dan , naiz vide onetic dala , bestec arrazoyaz gozaten duen gauza guretzat izatia ; cergatic badiruri deseo au dala medio besteric gaizqui guelditziarequin guc ongui jarri nai degula. ¿ Arrazoi justuarequin gauza bat gozaten duenac , ez du arrazoi gueyago gauza ura arrazoyaz iruquitze , guc cillegui dan videtic alcantzatzia deseatzeco baño ? Aguerian dago. ¿ Cergatic deseaten degu bada aren gauza , orrelacuaren convenientziarequin guelditu , ta ura bere convenientzia gabe utzitze ? Vide gabecoa ez baldin bada ere deseo au , ez dator beñepen caridadiarequin ongui ,

cergatic ez guenuque guc ere naico gure gauza, guerontzat nai deguna, bestec berac iruquitzia deseatzia, naiz cillegui dan videtic dala. Au izan zan Acab Erregueren pecatua; bear zan videtic nai zuen beretzat Naboten mastiya, ceñac arrazoi justoagoarequin nai zuen berac gozatu. Acabec dembora lucian, ta ansia andiarequin deseatu zuen mastiaren jabe eguitia, ta orregatic ofenditu zuen Jaungoicoa.

Progimoaren ondasunac deseatu nai baldin badituzu, cristau maitia, berac utci nai dituenian deseatzitzu cer gatic orduan aren deseoa, zurea ez bacarric justua, ez bada baita ere caritativoa, edo progimoaren amorioarequin ongui datorrena eguingo du. Bai; cristau maitia, niri gustatzen zait zure ondasunac gueitzia, ori ez bacarric cillegui dan videtic, ez bada baita ere caridadiari beguiratzen diozula, eguiten badezu, ta ansiaric gabe alere.

Asco amatzen badituzu dituzun ondasunac; orretan chit ocupatua baldin bazabiltza, zure viotza orietan ipintzen

dezula, pensamentua beti orietan daucazula, ta oriec galtzeco bildur andi batequin, sinis zadazu, calenturaren batequin zaudela, (*) cergatic calentura dutenac osasuna dutenac ez bezalaco atencio, ta pozarequin eraten dute. Ez dá posible gauza bat asco gustatzia, ta ari afioric ez izatia, ta asco alere. Guertatzen bazaitzu ondasunac galtzia, ta zure viotza orregatic asco penatzen, ta estutcen bada, sinis zadazu, aficio andia ceniola ondasunari; cergatic ez du ecerc obeto aditcera ematen gauzaren bati zayon aficioa, nola ura galdu duelaco penac. Ez ditzatzula bada deseio osoarequin ez dituzun ondasunac deseatu; ez diozazula zure viotzari dituzunetan sustrayac botatzen utci; etzaitecela galtzen zaizquitzunac gatic penatu, ta onela izango dezu arrazoien bat sinisteco, ondasunez aberatsa baldiñ bacera ere, etzerala aficioz, edo viotzez ala, ez bada espirituz pobria, ta bera gatic zori onecoa, cergatic zurea dá Ceruco Erreinoa.

(*) Guticiarenarequin.

XV. CAPITULO A.

*Nola, aberatsac izatia utci gabe po-
breac izan bear degun.*

Parracio pintoriac Atenasco erria in-
genio andiarequin pintatu zuen, aditze-
ra ematen zuela, ango gendia zala alda-
corra, colericoa, videgabea, eziñ egona,
cortesa, viotz berá, erruquitsua, andi us-
teduna, arroa, panparroya, humilla, chit
aserrea, odolguiroa; ta aú guztia pintu-
ra batian para zuen; ta nic ere nai nitu-
que cristau maitea, aberastasuna, ta be-
artasuna, edo pobreza batian zure viot-
zean paratu. Munduco gaucen cuidadu
andi bat, ta ayen desprecio andi bat.

Izan zazu, cristau maitea, mundu ta-
rrac duten baño cuidado gueyago zure
ondasunac provechu garriac izateco.
Esan zadazu, Erregue, ta onelaco per-
sona andien jardiñariac ez dute beren
jardiñean ipiñico lutequen baño cuida-
du gueyago ipintzen, orrelaco personen
jardiñac ipintzen, eta ongui iruquitzen?
Bai nosqui. ¿Ta cergati eguiten dute au?

Cergatic consideratzen dute personage andienac dirala jardin ayec, ta cergatic servicio ayec dirala motivo ayequin ongui iruquitzea deseo duten. Cristau maittea, ez dira gureac ditugun ondasunac; Jaungoicoac eman dizquigu frutu eman erazitzeo, eta provechugarriac eguiteco, ta orregatic ayetzaz cuidadua izatian servitzen degu Jaungoycoa, eta gusto ematen diogu.

Baña cuidadu onec mundutarrac beren ondasunetan duten baño cuidado andiagooa, ta sendoagooa izan bear dú, cergatic mundutarrac beren buruaren amorioagatic trabajatzen dute, baño guc Jaungoicoaren amorioagatic trabajatu bear degu; ta nola amorio propioa inquietoa, gozo gabea, alborotatua, ta ansiaz betea dán, orregatic ortic sortzen dán cuidadua ere inquietoa, gozo gabea, ta ansiaz betia dá; ta nola Jaungoicoaren amorioaa tseguña, gozagarria, eta sosegatua, edo paquetsua dán, ala ere orretatic sortzen dán cuidadua, munduco gazena izanagatic ere atseguña, gozoa, ta paquetsua dá. Izan dezagun bada onela-

co cuidado atseguña munduco ondasu-
nac gueitzen, vide onetic ori eguiteco mo-
dua izaten degunean, ta gure estaduac
ala escatzen duenian, cergatic Jaungoico-
ac nai dñ ala eguitea bere amorioagatic.

Baña cuidadoarequin zabilta zure a-
morio propioac engañatu etzaitzan, cer-
gatic añ diestroa dá amorio propioa, edo
gueren buruarena, ce Jaunaren amorioa-
ren aitzakiarequin bera gure gauzetan
sartzen dá Jangoicoaren amorioa baldin
balitzaque bezela, edo eguiten deguna
Jaungoicoaren amorioagatic eguingo
baldin baguenuque bezela. Onelaco gau-
zaric guertatu ez daquizun bada, ta mun-
duco ondasunaz dezun cuidadua guticia
biurtu ezdedin, lenagoco capituloan e-
san degunaz edo espirituco pobrezaz ga-
ñera, egercítatu bear dezu pobreza Jan-
goicoac eman dizquitzun ondasunen ar-
tian ere. Aú cumplitzeco bada, utciza-
zu zure ondasunetatic beti cer bait, po-
breai amorioz ematen diezula, bada due-
netic ematia ematen dán aibat pobret-
zia dá, ta cembat eta gueyago ematen
dezun, aibat eta gueyago pobretuco

cera. Eguia dá atcera biurtuco dizula Jaungoicoac ez bacarric beste munduan, ezpada bai ta ere mundu onetan, cergatic ez dá limosnac aibat averasten duen gauzaric, eta Jaungoicoac biurtuco dizula espera dezun vitartean artzaz pobre izango cera beti. O ceñ santu, eta averatsa dán limosna eguitetic sortzen dán beartasuna.

Amaitzatzu pobreac, ta pobreza, ta eguiac pobria eguingo zaitu amorio onec, cergatic Escritura santac dion bezala, amaten ditugun gauzac bezelacoac eguiten guera. Amorioac amantiac berdianac eguiten ditu. ¿Ceñ dago eri; ni arequin batian eri ez nagoela? Esaten zuen S. Pabloc. Esan cezaquean, ¿Ceñ dago pobre, ni arequin batian pobre ez nagoela? ta aú guztia dá, cergatic amorioac eraguiten cion amaten cituenac bezalacoa izatia. Amaten baldin badituzu bada pobriac, ayen pobrezan parte izango dezu, eta izango cera ere berac bezala pobria.

Amaten badituzu pobriac, ayequin maiz trata zazu, alegre zaitetz zure e-

chian maiz icustiaz, visitaitzatzu bene-
tan, itz e uin zazu pocic ayequin, ale-
gra zaitez calian, Elzian, edo beste le-
curen batian zu gana allegatcen badira,
izan zaitez itzez pobria ayequin, lagu-
nai becela itz eguiten diezula, baña es-
cuz aberatsa izan zaitez, ayec baño gue-
yago dezunac bezala zure ondasunetatic
ematen diezula.

Nai dezu orañdic gueyago aurreratu,
cristau maitia? Etzaitezela bada con-
tentatu ayec bezala pobria izatiarequin,
ez bada procura zazu ayec baño pobria-
goa izatia. ; Baña nola izango da au?
Servitzaria nagusia baño pobriago dá ;
eguin zaitez bada pobrien servitzari; e-
ri daudenian zuaz beren oyetan visitat-
zera, ta servitzera; ta au zure escu pro-
pioarequin eguizu; izan zaitez zure cos-
tura ayen cocinaria; izan zaitez ayen
eulia, ta gobadatzallia, edo arropa gar-
vitzallia. O cristau maitia, cer virtute
andia dan au! Erreino guztiac baño gue-
yago valio dú. Ez naiz arritzez can-
satzen, cer devocio andiarequin cumpli-
tu zuen eguzquiac icusi dituen Erregue-

ric andienetatic batec , au da San Luisec ; ta Erregueric andiena anditasun guztietan alere. Servitzen cituan maiz maian , berac mantencen cituen pobriac , egunero gueyenian iru eramaten cituen bere mayera , ta ayei sobratzen citzayen salda ascotan berac eraten zuen amorio andi batequin. Hospitalian visitzen cituenian (ta au chit maiz eguiten zuen) gaitzic izugarriena zutenay servitcen cien gueyenian , nola diran leguen artsuac , edo leprosoac , zauri ustelduac cituztenac , ta beste onelacoac ; ta burua agueriric zuela alere , ta belauico jarriric servitzen cituen , ayen personan munduaren Salvadoria errespetatzen zuela , ta ama batec bere humeac tratatcen dituen ainbateco amorio , ta cariñoarequin maitatcen cituela. Santa Isabel Ungriaco Erregueren alabac pobriaquin tratatzen zuen gueyenian , ta diversioz ta gustoagatic emacume pobre bat beceñ pobre jazten zan ascotan , ala jantziric cegoala bere servitzariai esaten cien , ni pobria baldin banintz , onelasse jantzico nintzaque.

Ai cristau maitia, nola Erregue au, ta Erregueren alaba au beren ondasunen bertian pobriac ciran, ta aberatsac beren pobrezan. Zori onecoac dira onela sobre diranac, cergatic ayena da Ceuco Erreynoa. Gose nintzan, ta zuec nantendu ninduzuten, egarri nintzan, a eraten eman cinidaten; otzac nengon, ta zuec berotu ninduzuten erropaz antziarequin, goza zazute munduaren asieratic zuentzat prestatua dagoen Erreinoan, esango du juicioo egunian pobrien, ta Erregue guztien Erreguiac.

Ez da inor ere izaten ocasioren batian cerbaiten premian arquitzen ez danic. Ascotan guertatzen dá, guc agasajatu nai degun, ta bear degun campocoren bat etortzia, ta orretaraco medioric, edo moduric arquitzen ez dá. Batec bere erroparic onenac erri batian ditu, ta deseo duen bezala aguertzecco, beste batian ayen premian arquitzen dá. Guertatzen dá beste ascotan upelateguan daucazquigun ardo on guztiac galtzia, edo vinagre viurtcia, ta gaiztoenac baicic ez guelditzia. Bes-

te ascotan berriz arquitzen dá bat os-
tatu batian , ceñian ere ez dá arquit-
zen , ez oiric , ez guela , edo cuartoric,
ez mayaric , ta ez mayaraco beardan
gauzaric. Itz batian esateco , erraz dá
aberatsa izanagatic , ascotan cerbaiten
premian persona arquitzia. Au, falta zai-
gun gauza artan, pobre izatia dá. Ez de-
zu bada , cristau maitia , onelaco oca-
sioetan penaric artu bear , ez bada ar-
tutzitzu gogoz , ta sufritzitzu alegria-
requin.

Izaten dituzunian zure ondasunetan
guchi edo gueyago calteren bat izate-
co desgraciac , nola diran ecaitzac , su-
bac , ebi gueyeguiac , legortiac , lapur-
rac , auciyac , orduan dá demboraric
egoquiena , pobreza egercitatzeco , des-
gracia abec alegriarequin artuaz , ta pa-
ciencia andiarequin pobreza au erama-
naz. Escu gañian jayotcen citzayon
illiarequin escuac estaliric aguertu zán
bere aitagana Esaú , Jacob ere illiaquin
escuac estaliric aguertu zán , baña nola
etcegoan ille urá aren escuai itchachia
berrea etzuena becela , ez bada aren gu-

anteai, miñic eman gabe erraz quendu
 citzayoquean, baña nola Esaúren illea
 aren escuai itsachia cegoen, quendu nai-
 co cionac miñ andia emango cion, bera
 quejatuco zán, ta defenditu naico cituen
 bere escuac. Gure ondasunac gure viot-
 zai ichatsiac daudenean, ecaitzac, lapu-
 rrac, aucilariac ayetatic cer bait quent-
 cen badigute, cér sentimentuac, cér pe-
 nac, ta cér impacienziac ez ditugu? Ba-
 ña ez daudenian gure viotzai ichachiac,
 ez bada Jaungoicoac ayetzaz iruquitcia
 nai duen cuidaduari, quentcen badiz-
 quigute ere, ez degu orregatic censua, ta
 gure barrengo paquea galduco. Diferen-
 cia aú dago animalien, ta personen jant-
 cian; animaliac beren gorputzari ichat-
 chiac dituzte, ta personac gorputzari ar-
 rimatuac bacarric, nai dutenean ipiñi,
 eta quendu ditzatequien moduan.

XVI. CAPITULO.

*Nola egercitatu bear dan espirituco a-
 berastasuna pobrezaren artian.*

Persona bearra, edo pobris baldin

bacera , cristau maitia , izan zaitez ere
 espirituz pobria ; eguizu necesidadetic
 virtutia , ta logra zazu orrela pobreza-
 ren asco valio duen arri precioso au ;
 ta orren edertasuna , munduac ezagut-
 zen ez badu ere , eciñ gueyagoraño e-
 derra , ta aberatsa dá.

Paciencia izan zazu , bada compa-
 ñia ona dezu. Gure Jesus maitia , be-
 re Ama Maria Santisima , Apostoloac,
 ta beste asco Santu , ta Santa pobriac
 izan ciran ; ta aberatsac izan citezquela,
 etzuten nai izandu , despreciatu zuten
 aberatsa izatia. ; Cembat munduco per-
 son andi joan ez dira Conventuetara,
 ta Hospitaletara beren ondasunac utci-
 ric pobre eguitera , ta ascoc ori lograt-
 zeco asco gauza , ta asco persecucio pa-
 decitu bearra izán bazutén ere dala ai-
 dietatic , ta dalá bestétatic ? Eguia onen
 testigu dira S. Alexo , Santa Paula , S.
 Paulino , Sta. Angela , ta beste asco. Esan
 dezaquegu , cristau maitea , zuri amorio
 gueyago dizula pobrezac , bada zu or-
 ren billa ibilli gabe bera etorri zaitzu.
 Errecibi zazu bada Jesusen adisquide

chit maitea dán becela , ceña pobreza-
requin jayo , vici , iltzán , ta pobrezac
eman cion vicia bere vicitza guztian ,
au gabe etzán arentzat vicitzeric.

Zure pobrezac , cristau maitia , bi pri-
vilegio andi ditu , ta orien medioz me-
recimentu asco eman dizaquezu.

Lembicicoa dá , etzaitzula zure au-
queraz etorri , ez bada Jaungoicoaren
vorondatetic bacarric , ceñac pobre e-
guin nai izan zaitu zure vorondate pro-
pioac orretan parteric izan gabe ; ta
badaquizu Jaungoicoaren vorondate ut-
setic datorrena errecibitciaz chit gusto
andia ematen diogula berari , gogo ona-
requin , ta aren vorondate santua egui-
tiagatic errecibitzen badegu. Jaungoi-
coaren vorondatian conformatze utsac
eciñ gueyagoraño garbia eguiten dú su-
frimentua. Bigarren privilegioa dá , o-
nelaco pobreza , eguiatz pobria izatia.
Alabatua , estimatua , socorritua , ta a-
sistitua dán pobreza aberatsa dá , edo
beñepen guztiro pobria ez dá ; baña
despreciatua , iñorc izan nai ez duena,
asco sufritu bearra , ta gaizqui tratatua

dan pobreza, au dá au eguiazco pobreza. Onelacoa dá gueyenian munduan vici diranen pobreza, cergatic nola ez diran pobriac beren auqueraz, ez bada necesidadez, caso guchi eguiten dá ayetzaz, ta orregatic ayen pobreza Religiosoena baño pobriagoa dá. Eguia dá Religiosoen pobreza beste aldetic excelencia guztiz andicoa, ta alabantza andiagocoa dala, prometitua danaren aldetic, ta ura escogitcen dan intencioa dala motivo.

Etzaitecela bada, cristau maitia, zurre pobrezaz quejatu, cergatic ez dá inñor quejatzan gustatzen etzayon gauzagatic ez bada bestegatic, ta pobreza gustatzen ez bazaitzu, etzera espirituz pobria izango, ez bada aberatsa aficioz. Etzaitecela penatu, premia dezun bezala socorritua ez bacera, cergatic orretan dago pobrezaren excelencia, edo anditasuna. Pobria izan nai, ta orregatic ere eceren faltatic batere pade-citu nai ez izatia, andi nai andia da, cergatic pobrezaren onrarequin, ta aberastasunaren convenienciaquin vici nai dá.

Etzaitecela pobria izatiaz lotsatu, ez ta ere limosna escatciaz. Artu zazu humildadearequin ematen dizutena, ta sufri zazu humildade, ta pacienciarequin ucatcen dizutenian. Oroi zaitez maiz Ama Virgiñac Jesusequin Igitora eguiñ zuen viagiaz; cembat despicio, cembat premia, ta miseria sufrituco cituen! Zuc ere ala sufricen badezu, guztiz aberat-sa izango cera zure pobrezan.

XVII. CAPITULO A.

Adisquidetasunaren gañian, ta lembicigaitzoaren, ta ecertaco seruitcen ez duenaren gañian.

A morioac dú lembicico lecuá anima-ren pasio, edo muguimentuetan. Viotceco muguimentu guztien Erreguea dá beste guztia beragana ecartcen ditu, ta amatcen ditugun gauzac bezalacoac eguiten gaitu. Cuidado andia izan zazu, cristau maitia, amorio gaitoric zure viotcian ez consenticeco, cergatic bestela berea-

la izango cere gaiztoa. Adisquidetasuna dá amorio guztietan gaiztoena, cergatic beste amorioac comunicacioric gabe izan ditezque, baña nola adisquidetasunac comunicacian duen bere asiera, ta izate guztia, ez dá posible persona batequin adisquide izatia aren calidadiaz participatu gabe.

Adi zadazu, persona biren artian adisquidetasuna badala esateco cer bear dan. Lembicico, ez dá erocciñ amorio adisquidetasuna, cergatic ama dezaque batec persona bat, bestia gandiac amatua izan gabe, ta orduan bada amorioa, baña ez adisquidetasunic, cergatic onetaraco alcar amacia bear dá. Bigarren; Ez dá oraindic adisquidetasuneraco alcar amacia asco, ez bada bear dá ere alcar amaten duten personac, alcarri dioten aficio, edo amorioa jaquitia, cergatic au ez baldin badaquite, amorioa izango dute, baña adisquidetasunic ez. Irugarren; Orretzaz gañera preciso dá adisquitasuneraco alcar amaten duten personac alcarrequin gauzaren batian comunicacia, edo participacia, bada onetatic jayotcen da, ta

au dala motivo irauten dú alcarganaco a-
morio, edo adisquidetasun arc.

Nolacoa dan comunicacioa, alacoa dá
adisquidetasuna. Gauza gaiztoetan comu-
nicatcen edo participatcen badute, edo
vanoetan, ayen adisquidetasuna gaiztoa,
edo vanoa izango dá. Gauza onetan par-
ticipatcen badute adisquidetasuna ere ona
izango dá, ta cembat eta gauza obeac
diran, ambat eta obeagoa izango dá a-
yen adisquidetasuna, cergatic nola esti-
ya cembat eta lore obeagoetan bildua dan,
ambat eta obeagoa dan, ala adisquidetasu-
na cembat eta gauza obeagoetatic sortcen
dan, ambat eta obeagoa dá; ta nola Hera-
clea deritzan Pontoco Ciudade batian ezti
pozoí duna badan, ta jaten dutenac erort-
cen dituená, cergatic irabedarretic bildua
izaten dá, ala gauza gaiztoetatic sortcen
dán adisquidetasuna gaiztoa dá.

Seigarren mandamentuaren contraco
ciquinquerietan participante izatia, alcar-
ganaco inclinacio ciquiñ, ta animali bat
baicic ez dá, ta ez dú personen artian
animalien artian baño gueyago, adisqui-
detasunaren icenic mereci, cergatic alcarren

antcecoac dira. Ta baldiñ matrimonioan araguiaren gustoetan participacia besteric ez balitzaque, ez litzaque ezconduen artian ere eguiazco adisquidetasunic izango; baña cergatic orretzaz gañera vicitzan, vici moduan, ondasunetan, aficioan, ta eciñ utci litequien leyaltdian participatcen duten, orregatic matrimonioaco adisquidetasuna eguiazcoa, ta santua dá.

Gusto sensualetatic sortcen dan adisquidetasunac ez dú mereci iñolaz ere adisquidetasunaren icenic. Orobat ichuraz bai; baña eguiaz virtutiac ez diranetic sortcen dán adisquidetasunac. Gusto sensualaren icenarequin gorputceco bost sentiduaquin artcen dan gustoa aditcera eman nai det; nola dan arrosa, edo beste gauza eder bat icustiaz artcen dan gustoa; canta gozoren bat aditcen, gauza atseguñen bat icusten, ta onela inocentiac deitcen diegun gustoac. Virtute ez diranen, edo vanoen icenarequin eman nai det aditcera, personac dituen calidade, ta habilidadiac, ceñai censu guchico gen-diac virtutiac, ta perfeccioac deitcen die. Contuan egoten bacera, icusico dezu as-

cotan , emacume , ta gende asco ez dala
 loisacen esatia ; urlia virtuosoa dá , per-
 feccio asco ditu , dantzan ederqui daqui,
 ederqui jocatcen dú eroceñ jocotan , eder-
 qui jazten dá , ederqui cantatcen dú , ale-
 gria dá , arpegui ederra dú , ta beste one-
 laco gauzac ta berrichu abec , beste gatic
 burla eguiteco habilidaderic gueyena du-
 renac , guztiaac baño virtuosoagotzat dau-
 cazquite. Gauza abetatic datorren amo-
 rioa sentiduetatic datorrena dá , ta argatic
 onetatic sortcen dan adisquitasuna sen-
 suala , vanoa , ta ecertaco servitcen ez
 duena dá , ta onelaco adisquidetasunac
 obero mereci dute eraquerien icena , a-
 disquidetasunarena baño. Abec dira gue-
 yenian gende guztiaren adisquidetasunac.
 Beren asiera izaten dute bigotian , illian ,
 jantcian , gravedadiarequin , edo cerbait
 baldin baliz bezala ibiltcian , beguiratcie-
 tan , berrichuquerietan , ta beste onelaco
 gaucetan. Onelaco eraqueriaz pagatcen di-
 ra gende zoro oriec , eta oriec gatic al-
 car estimatcen dute.

Obiac dira adisquidetasun oriec Almen-

dren edaderaco, (*) ichura beste virtuterie ez dutenac, ez dá ere juiciorie mortian ez bada bestetan. Ta ala ez duté adisquidetasun orieci bateré iraupenic, ta ececeera biurtcen dira elurra eguzquiaren berroarequin bezala.

XVIII. CAPITULO A.

Amorantien gañian.

Adisquidetasun zoro abec, guizon, ta emacumeen artian ta ezcontceco asmo, edo pretensiorie gabe diranian amorantiac deitzen zaye, cergatic nola adisquidetasunaren iduripen batzuec baicic ez diran, eciñ izan dezateque ez adisquidetasunaren, ta amorioaren icenic beren eciñ gueyagorañoco vanidade, ta imperfecioagatic. Abec dirala motivo guelditcen dira bada guizon, ta emacumeen viorzac bara bestiarequin añicio vano, ta eroetan lotuac, lenago esan dituran burugabeco co-

(*) Aur demboraraco.

municacio, ta agradu, edo ondo iriste
 zoroetan beren asiera, edo motivoa du-
 tela. Ta amorio eroen acabera gueyeni-
 an lujuria izaten bada ere, edo onetara
 etortcen badira ere, orregatic ere ez dá
 ori amorio ero orietan empleatcen dira-
 nac lembician izaten duten pretensioa,
 cergatic orduan ez liraque amorantiac i-
 zango, ez bada deshonestidadiac, ta gaz-
 te limuri, edo amancebamentuac. Ta as-
 cotan guertatcen dá onelaco amore ero-
 etan dabilzanac zuten castidadiaren con-
 tra dan gauzaric eguiñ gabe urtiac ere i-
 garotcia, beste gaucetara pasatu gabe, ez
 bada ahsia, deseo, suspirio, cariño, ta
 beste onlaco eraquerietan beren viotzac
 descansatcera, ta au pretensio genero as-
 cogatic.

Batzuec ez dute beste pretensio, edo
 fiñic ez bada amatu, ta amatuac izatiare-
 quin beren viotzac asetcia, onetan beren
 jatorrizco griña, edo inclinacioa jarrait-
 cen dutela; inclinacio amorioa esan nai
 det. Abec beren amorioaren auqueran ez
 dute beste gauzaric beguiratcen, ez ba-
 da beren gustoa, ta inclinacioa; bada be-

rai gustatcen zayen persona bat icusi ez-
 quero ; nor dan , ta cer calidadiac dituen
 beguiratu gabe , asitcen dira arequin a-
 morio zoro artan , onela sartcen dirala
 sare miserable onetan , ceñatatic ateratce-
 co etzaye guero neque guchi costaco.

Beste batzuec vanidadez ibiltcen dirá
 amore ero abetan , cergatic uste izaten
 dute ez dala dicha chiquia viotzac amo-
 rez lotutcia ; ta nola abec onetan vanaglo-
 ria billatcen duten , argatic ez dira ero-
 ceñ ocasio , ta persona modurequin con-
 tentatcen , ez bada nondic honra , ta es-
 timacio gueyago beren ustian etorrigo za-
 yen , alaco ocasio , ta personaquin beren
 amore eroac procuratcen dituzte.

Beste batzuec berriz , beren inclina-
 cio amorioso , ta vanidadiac , biac alcar-
 requin eraqueria orietara muguitcen di-
 tuzte , ta abec viotza amoriora inclinatua
 badaucate ere , ez dute eraqneri orietan
 empleatu nai izaten , orretatic cerbait glo-
 ria , edo alabantza ateraco dutela asegu-
 ru gabe. Adisquidetasun abec guztia g-
 iztoac , eroac , ta vanoac dira : gaiztoac
 dira , cergatic azquenian beren fiña , edo

acabera lujuriaco pecatuan izaten dute, ta
 cergatic ostutcen dute Jaungoicoaren, se-
 narraren, ta emaztearena izan bezar duen
 amorio, ta viotza. Eroac dira, cergatic
 ez duten ez motivoric, ta ez arrazoiric.
 Vanoac dira, cergatic ez dá orietatic ez
 provechuric, ez honraric, ta ez conten-
 turic ateratcen; ez bada contrara; dem-
 bora, ta honra galerazi baicic eguiten ez
 dute: ez berac ematen dutela, ez beste-
 gandic espera dutela, cer nai duten, ta
 pretenditcen duten ere ez daquitela, cer-
 gatic beti iruritcen zaye buru guchico
 gende oriei, badala gauza deseagarriren
 bat amorioaren muestrac ematen dizten
 persona ayetan, ta nola ura cer dan ez da-
 quiten, emendic sortcen dá ayen deseoa
 ñoiz ez acabatcia, ez bada beti gueituaz
 joatia, milla desconfiantza, inquietacio, ta
 celo beren viotcetan padecitcen dituzteia.

San Gregorio Nacianzocoac emacume
 vanidade zalien contra escribitu zuenian,
 gauza egoquiac esan cituen tratatcen gau-
 den punturaco. Ara guchi bat emacu-
 meenzat esan zuena, baña ez dator gui-
 zonentzat ere aín gaizqui. Esaten die ba-

da emacumeai, Zuc cerez dezun edertasuna zure senarrarentzat asco dá, zure edertasun ori guizon guztientzat baldiñ bada, chori tropa batentzat ipiñia dagoen sare bat bezala dá. ; Cér guertatuco dá orregatic ? Icusico dezu gustatuco zaitzunen bat, ceñari ere zure edertasuna gustatuco zayo. Orduan beguiratce bat beste batequin pagatuco dezu, icuste bat beste batequin, orren ondoren etorrico dira beguiratce, ta itz amoriosoac, lembician ayetzaz precio andiric eguingo ez dá, baña satisfaccio pisca bat artu ezquero, laster allegatuco dá modu lotsagarrietara. Etzaitecela descuidatu nere mingaiñ eciñ issillic egona, guero cer guertatuco dán esaten; baña ez naiz orregatic eguia au esan gabe gueldituco. Mutil, ta emacumeac alcarrequico junta, edo batutce, ta gusto zoro orietan esan, ta eguiten dituzten gaucetan ez dá bat bacarric ere amu andietatic libre dagoenic. Enamoratu aben ipoi, ta eraqueria guztiae alcarri lotcen zaizca, ta jarraitcen diote batec bestiari arri Imanac icuitcen duen burniac beste asco gauza beregana tiratcen dituen bezala.

O ceñ ongui esaten duen Obispo andi,
 ta Santu onec ! ; Cér eguitia pensatcen de-
 zu, edo certan zabilitza ? Amatu nai dezu ?
 Ez, bada beguirozu, ez dú iñorc ematen,
 nai, ta nai ez errecibitu gabe. Preso art-
 cen duena, bera ere preso artua dá joco
 onetan. Aproxis esaten dioten belar ba-
 rec icusi beceiñ laster artcen, ta sartcen
 du sua, orobat, bada gure animac, ayen
 amorez iñor enamoratua icusi ezquero,
 bereala berac ere enamoratcen dira amat-
 cen dituen persona artzaz. Esango dú
 norbaitec nic amatu nai det, baña guchi.
 Ay nola engañatcen ceran ! zuc uste de-
 zun baño viciagoa, ta eguilliagoa dá su
 ori. Chingar bat artcen dezula idurituco
 zaitzu zuri, ta arrituco cera icusiric, zu-
 re viotz guziaren jabe instante batian e-
 guin dala, zure asmo guztia ac auts biurt-
 cen dituela, ta zure honra berriz quentce-
 ra, Espiritu Santuac oju eguiten dú esa-
 naz, ; Ceñ erruquituco dá sugueac jan
 duen echicero, edo sorguintzalliaz ? Nic
 ere aren ondoren oju eguiten det : O gen-
 de ero, ta buru gabeac uste dezute echi-
 zatuco dezutela amorioa zuen gustora ura

governatceco ? ; Arequin burlatu nai de-
zute ? arc picatuco zaituzte , ta erruqui
gabe osca eguingo dizute ; Badaquizute
guero cer izango dan ? Burlatuco dira
zuetzaz guztiac , ta parra eguingo dizu-
te , amorioa echizatu , edo zoreztatu nai
izan dezutelaco , ta seguridade falsoan su-
gue aĩn peligrosoa zuen anima , ta hon-
ra chupatu dituen pechuan sartu de-
zutelaco.

¡ O Jauna cer ichutasuna dan au ! gu-
re animaco gauzaric principalena prenda
aĩn eroen gañian fiatuan jocatcia ! Bai cris-
tau maitia , cergatic ez gaitu nai Jangoico-
zc animagatic ez bada , ez ta anima ere vo-
rondatiagatic ez bada , ta ez ta vorondatia
ere amorioagatic ez bada. Ai, ez degu bear-
guenuquien aimbat amorio; esan nai det, e-
ciñ esan ala falta zaigula Jangoicoac mere-
ci duen amoriotic , ta orregatic guc misera-
bleoc degun pisca ere galtcen degu, ta gas-
tatcen degu gauza zoro , vano , ta ecer ser-
vitcen ez duteneran, gueyegui baldin ba-
guenuque bezala. Ai cristau maitia , Ja-
un onec , ceñac beretzat bacarric gorde
zuen gure animaren amorioa , sortciaz ,

conservatciaz , ta erredimitciaz eguin ci-
 on mesedearen ezagüeran , contu estua
 artuco digu amore zoro abec motivo quen
 tzen diogun amorioaz. Ta baldin alfer-
 ric esaten diran itzen gañian añ contu es-
 tua artuco badu, ;cer contua artuco ez du
 adisquidetasun zoro , alfer , ta censu ga-
 beco , ta caltegarri orien gañian ?

Calte andia eguiten die inchaurreac ura
 aldatu ta dagoen toquico masti , ta soroai,
 cergatic nola añ andia dan , lurraren sus-
 tancia guztia beregana tiratzen du , ta ez
 die beste landariai bear duten lurraren
 sustanciaric utcitzen ; aren orriac ere , no-
 la asco , ta lodiac diran gueriza andia , ta i-
 chiya eguiten dute , ta ez die onec bes-
 te landariai onic eguiten , ta videz dabil-
 tzanac ere fruta artciagatic soroetan sart-
 zen dira , ta galtzen dituzte mastiac , ta
 inguruan dagoen guztia. Esan diran a-
 morantiac calte obec berac eguiten dioz-
 cate animari , cergatic alaco moduan ocu-
 patzen dute , ta aren pasio , edo mo-
 guimentuen indar guztia berengana ti-
 ratzen dute , ce obra onic eguiteco caba-
 lic , edo indarric bague utcitzen dute. O

riyac, au dá jostaquetac, diversioac, ta
 visitac aimeste izaten dira, ce dembora
 guztia ocupatcen diote. Itz batian aim-
 beste tentacio, distraccio, sospecha, eta
 beste gauza eracartcen dituzte, ce zau-
 ritua, ta caltetua guelditcen dá viotz guz-
 tia. Amoranti abec ayenatcen dute viot-
 cetie, ez bacarric Jaungoicoaren amorioa,
 ez bada bai ta ere Jaungoicoaren bildu-
 rra, flacatcen dituzte espirituia, ta hon-
 ra, ta guztia itz batian esateco, errieta-
 co itz jostaerac dira, baño obeto orain-
 dic viotcen izugarriac.

XIX. CAPITULO.

Adisquidetasun eguiazcoen gañian.

Amatcitzu guztia, cristau maitia, a-
 morio andi, ta Jaungoicozco batequis,
 baña ez dezazula adisquidetasunic izan,
 ez bada zurequiñ gauza virtuosetan par-
 ticipatu dezatenquin, ta cembat eta obiac
 diran participatcen dituzun virtutiac, am-
 bat eta obeagoa izango da zure adisqui-

detasuna. Jaquinduria participatcen bade-
 zu alabatcecoa izango dá zure adisquide-
 rasuna, ta orañdic gueyago prudencia,
 discrecio, fortaleza, ta justiciaco virtutian
 participatcen badezu. Baña baldiñ Jaun-
 goicoaren amorio, devocio ta cristautasu-
 neco perfeccioan participatcen badezu, **ó**
 Jauna, ceññ zoragarria izango dán, cris-
 tau maitia, zure adisquidetasuna. Guztiz
 andia, ta zoragarria izango dá, cergatic
 Jaungoicoa gandic datorrena dá, zoraga-
 rria izango dá, cergatic Jaungoicoa ga-
 nontz dijoa, zora garria izango dá, cer-
 gatic Jaungoicoa dá aren lotugarria, edo
 lazoa, ta zoragarria izango dá, cergatic
 beti iraungo dú Jaungoicoagan. O ceññ
 gauza ona dan Ceruan amatu bear degun
 bezala, munduan amatcia, ta Ceruan be-
 ti naico degun bezala, munduan nai iza-
 ten icastia! Ez det emen itz eguiten alca-
 rri izan bear diogun amorio utsaren ga-
 ñian, ez bada adisquiderasun espirituala-
 ren gañian, ceññaren medioz bi, iru, edo
 gueyago cristauvec beren devocio, ta a-
 fecto espiritualac alcarri participatcen di-
 ozcate, ta espiritu bat beren artian egui-

ten dira. O ceñ arrazoñ andiarequin anima zori oneco abec canta dezatequien; O ceñ gauza ona, ta atseguña dan anayac alcarrequin vicitcia! Bai eguiaz, cergatic devocioaren balsamo atseguña betico comunicacioaren videz viorz batetic bestera allegatu ezquero, esan diteque bota duela Jaungoicoac adisquidetasun onen gañian bendicioa ta vicitza betico. Beste adisquidetasun guztiac onen aldian adisquidetasunaren ichura baicic ez dira, ta ayen lazoac vidriozco, edo arbelchazco catiac dita devocioaren lazo andi onen aldian, ceña guztia urrezcoa dá.

Ez dezazula bada, cristau maitia, beste adisquidetasun icñorequin artu. Eguia dá, ez dituzula utci bear, ta desprecia- tu bear zure izatez, ta obligacioz dituzun adisquidetasunac, nola diran, aidienac, alcarrequico convenioren baten videzco adisquidetasunac, onguillienac, auzo- coenac, ta onela obligacio particularren bat diezunenac. Iruqui bear dituzu onela- co adisquidetasunac, baña zure voronda- tez artcendituzun adisquidetasunetan, ez iñcoiz oraiñ esan derau adisquidetasunari besteri lecuric eman.

Balitzaque nor baitec esango dizula, ez dala conveni adisquidetasun, ta aficio particularic inorequin iruquitcia, cergatic abec viotza ocuparcen dutela, espiritua distraiccen, edo beste gaucetara zabalcen dutela, ta envidiac soriccen dituztela, baña engañatcen dita conseju ori ematen. Cergatic Santu, ta Escritore ascotan iraturri duten adisquidetasun, ta aficio particularrac calte andia eguiten diela Religiosoai, munduco persona guztien gañian ere orobat esan bear dala uste izaten dute. Baña diferentcia guztiz andia dá; cergatic comunidade ongui arreglatuan gucien asmoa devocioa bada ere, ta ala ez dira conveni adisquidetasun particular abec guztiena dána particularrian billatciarequin particularidadietatic parcialidadietara, edo aldedaridetara pasatcia guertatu ez dediñ. Baña munduan virtuteco videan dabilztanai chit conveni zaye adisquidetasun santu baten medioz alcarrequin bat eguitia, cergatic onela alcar animatcen dute, alcarri laguntcen diote, ta alcar gauza onera eramaten dute. Ta nola lecu celayian dabilztanac bata bestiari es-

cu eman bearric ez duten , baña bai erortceco peligroco lecuetan dabiltzanac , ala ere Religioan daudenac adisquidetasun particularric bear ez dute , baña munduan vici diran guztiac bear dute aseguratceco , ta alcarri lagun eguiteco mundu onetaco pauso peligrosoetan. Munduan ez dute guztiac fiñ , edo pretensio bat , ez ta ere espiritu bat . ta ala conveni dá batzuegandic apartatcia , ta guc bear degun fiñeraco egoquiac dirala ezagutcen ditugunen batzuequin adisquide eguitia. Eguia dá , particularidade onec parcialidadia eguiten duela , baña particularidade edo bando santua , onaren , ta gaiztoaren beressia baicic eguiten ez duena , ardiya auncetatic , erlia listorretatic ; precisoco beresstia.

Eciñ iñorc ere ucatu dezaque , adisquidetasun gozo , ta especialagoarequin amatu cituela gure Jesusec San Juan , Lazaro , Marta , ta Magdalena , bada ala dió Escritura Sagraduac berac. Gauza jaquiña dá ere amorio especiela ciela San Pedroc San Marcosi , ta Santa Petronillari , orobat San Pabloc San Timoteori , ta Santa Teclari. San Gregorio Naçianzo-

coac consuelo andiarequin ascotan contat-
 cen dú San Basiliorequin zuen adisquide-
 tasun andia , ta modu onetan aditcera e-
 maten dú ; Zure ta nere gorputcian ani-
 ma bat baicic ez dala diruri , ta ez baldiñ
 bazaye ere sinistu bear , gauza guztia
 guztietan daudela esaten dutenai , ez de-
 gu orregatic ere sinistu gabe utci bear zu,
 ta ni bietacoren batian , ta bata bestian
 gaudela. Bioc pretensio bat degu , ta au-
 dá virtuosoac izatia, ta gure vicitzaco pau-
 soac Ceruco gloriara encaminatcia , onela,
 ill baño lenago , mundutic ateratcen gue-
 rala. San Agustinec esaten dú , amorio
 espirituala izan ciola San Ambrosioc San-
 ta Monicari bere virtute andiac gatic , ta
 Santa Monicac ere San Ambrosio bera ,
 Jaungoicoaren Aingueru bat bezala ama-
 tcen zuela.

Baña certaco pasatuco degu alferric
 dembora gauza aiñ claroan ? San Geroni-
 moc , San Agustinec , San Gregorioc, San
 Bernardoc , ta Jaungoicoaren adisquide-
 ric andien guztia izan dituzte adisquide-
 tasun particularrac , orregatic virtuteco
 perfeccioari calteric eguin gabe. San Pá-

bloc erreprenditzen ditu Gentillac esanaz;
 aficio gabeco gendiac izan dirala, au dá,
 etzurela adisquidetasun particularric; ta
 Santo Tomasec, filosofo on guztiac be-
 zala esaten dú, adisquidetasuna virtutia
 dala; adisquide particularraren gañian e-
 saten du au, cergatic berac dion bezala,
 ez dá posible eguiazco adisquidetasuna
 persona ascotara zabaltcia. Ez dago bada
 perfeccioa adisquidetasunic ez izatian, ez
 bada ona, santua, ta Jaungoicozcoa bai-
 cic ez izatian.

XX. CAPITULO.

*Adisquidetasun eguiazco, ta vanoaren
 arteco diferentcia,*

Adi zadazu, cristau maitia, advertent-
 cia andi bat. Heracleaco ezti pozoiduna
 onaren antcecoa dá, ta ala peligro andia
 dá, bata, bestia dalaco ustian, artcian, bai-
 ta ere nastuta artcian, cergatic bataren
 ontasunac ez dù libratuco bestiaren ga-
 iztotasunetic. Cuidadoarequin vici bear

lezu adisquidetasun abetan engañatu eta
 aitecen, batez ere guizon, ta emacu-
 neen artian diranian eroceñ motivo ga-
 ic izan ditecela, cergatic ascotan oquer-
 cen die Satanasec amantia beren amo-
 ioa. Virtutezco amoriotic asiera ematen
 lute, baña contu audiarequin ibiltcen ez
 baldiñ bada, laster sartcen dá amorio e-
 oa, guero sensuala, ta azquenian ara-
 guizcoa. Orobat dá peligro andia amorio
 espiritualian, cuidado andiarequin ibiltcen
 ez bada. Ez dá orregatic ere aín erraz au-
 deste amoriotara aldatcia; cergatic onen-
 zuritasunac, ta garbitasunac errazago a-
 guertcen ditu au manchacía procuratcen
 duenaren manchac; orregatic au lograt-
 cia pretenditcen duenian, disimulo gue-
 yagorequin procuratcen dú, sentitcen ez
 dan moduan bezala, deshonestoqueriac
 sartcen prueba eguiñaz.

Adisquidetasun gaiztoa, ta ona ezagu-
 tucó dituzu Heracleaco eztiya, ta bestia
 ezagutcen, ta distinguitcen diran bezala.
 Heracleaco eztiya, bestia baño gazoagoa
 dá, cergatic idar bedarratequin eguiten
 dá, ta onec gozotasun gueyago ematen

dió ; munduco adisquidetasunac , edo gaiztoac itz az cretuen pilla andi bat , ta itz parragarri amoriozcoen berrichuqueria gueyenian sortcen dú ; baita ere edertasunetic , donaire , ta calidade sensualetatic sortcen diran alabantcena , baña eguiazco adisquidetasunac itz eguite eguiazcoa , ta satisfacciocoa du , ta ez daqui , bere izatiaren motivoa au dan bezala , virtutia , ta langoicoaren gracia besteric alabatcen .

Heracleaco eztiyac jan orduco bereala burua choratcen dú , ala ere adisquidetasun gaiztoac chorabilla sortcen dú espirituan , ta castidadia , ta devocioa galtceco videan ipintcen dú persona , beguiratce amorioso , cariñoso , ta bear ez liraquienac , ta maitatce sensualac eraguiñaz ; baita ere bear ez liraquien suspiroac , amatuac ez diralaco quejac , chiquiac badira ere cuidado andiarequin pensaturicaco ceremonia balacagarriac , visitac , ta cortejatciac , ta ortic sortcen diran llanezac , ta errespectoric gabeco moduac ; castidadia galtceco puntuan dagoelaco señaliac guztiac . Baña adisquidetasun santuac ez dú beguí toles gabe , ta lotsatiac bai-

tic , ez dñ maitatceric ez bada garbiac,
 ta santuac , ez dú suspirioric ez bada Ce-
 rua gatic , ez ta llanezaric , ez bada espi-
 ritua gatic , ez ta quejaric , ez bada Jaun-
 goicoa amatcen ez Janian , honestidade,
 edo castidadiaren señale eciñ uts eguiñ de-
 zatequienac guztia. Heracleaco eztiyac
 vista turbatcen dú; ala adisquidetasun gaiz-
 to abec alaco moduan juicioa turbatcen du-
 te , ce orietan dabilzanac gaizqui egui-
 ten dutenian , ongui eguiten dutela uste
 izaten dute , ta ayen aitzaquiac , pretes-
 toac , ta itzac eguiazco arrazoiyac dira-
 la uste izaten dute , arguiaren bildur iza-
 ten dira , ta illuna gustatcen zaye. Baña
 adisquidetasun santuac begui arguiac di-
 tu , ta ez dá gordetcen , ez bada gustora
 aguertcen dá onaquin. Heracleaco eztiyac
 samintasun andia azquenian aboan utcit-
 cen dú ; ala adisquidetasun gaiztoac , edo
 falsoac itz ta obra lujuriosoetan azque-
 nian guelditcen dira , edo abec logratcen
 ez badira , injuria , falso testimonio ; em-
 busteria , tristura , ta celoetan , ceñata-
 tic laster sortcen dira animalien eguiteco-
 ac. Baña eguiazco adisquidetasuna beti

berdiñ dá , honesta , edo garbiã , cortesa ,
gendiaquicoa , ta guero ta garbitasun , ta
perfeccio gueyagorequin espirituarequin
bat eguiten dá ; Cerutarrac duten adis-
quidetasunaren imagiã vicia.

San Gregorio Nacianzocoac esaten dú,
egazterrena , edo pavoac lumac arrotuta
cur cur eguiten duenian , onembestere-
quin besteric bague pavo emeac gogotic
lujuriara muguitcen dirala , ala , icusten da-
nian guizon bat cortejatcen , bere burua
compontcen , chocarrerietan , itz diverti-
tuac , ta cariñosoac emacume , edo nesca-
cha baren belarrietara , matrimonioaren
pretensio justu gabe esaten , esan dezaque-
gu , ura guztia lujuriara moguitu nayan
dala. Orduan emacume , edo nescachac ,
bere honra gustatcen bazayo , ichico ditu
belarriac pavoaren ojuric , edo eraqueri a-
yequin engañatu nai duen echicero gaiz-
to aren voza ez aditceco ; baña ez badú
au eguiten , ó ceñ segurua dan arren viot-
za galdu bearra dala !

Señuac , visagiac , ta balacatciac egui-
ten dituzten gende gaztiac , edo gurasoac ,
confesoriac , senarrac , edo emazteac adit-

cia naico ez lutequien itzac esaten dituz-
 tenac, honraren, ta concienciaren con-
 traco dán gauzaren bat tratatcen dutela a-
 cittera ematen dute. Ama Virgiña turba-
 tu eguin zan Aingueru bat guizonaren
 ichuran icustearequin, cergatic bacarric
 cegoen, ta alabantza andiac esaten cioz-
 can, cerucoac baciran ere alabantza ayec.
 † O Jesus! garbitasuna bera danac Ain-
 gueruari bildur dio, cergatic guizonaren
 figuran icusten duen; ; cergatic bada ci-
 quinqueria bera danac guizonari bildur
 izango ez dio, Aingueruaren figuran a-
 guertuco balitz ere, alabantza sensual, ta
 amorio gaiztoarequin itz eguiten badio

XXI. CAPITULO A.

*Adisquidetasun gaiztoaren contraco
 aviso, ta erremedioac.*

Baña cer erremedio izango dá amoran-
 tia, eraqueria, ta de honessidade aben-
 contra? Gauza orietaraco lembicico mu-
 guimentua sentitcen dezun becein laster,

contraco aldera gira zaitez, ta vanidade
 orren contraco gorroto andi batequin jar-
 ri zaitez bereala Jesusen pasioa conside-
 ratcen, ta ingura zazu aren penen, ta a-
 rantcen consideracioarequin zure viotza,
 asseri chiqui abec, edo caltegarri oriec
 an sartu ez ditecen. Contu, ez dezazula
 ñolazco ajuste edo tratu moduric etsai o-
 nequiñ eguiñ; adisquidetasun gaiztoare-
 quin esan nai det. Ez dezazula esan, adi-
 tucio diot cer esaten diran, baña ez det
 arc esaten diranic eguingo. Belarria pa-
 ratucio diot, baña ez viotza. Esaten di-
 zurana dá, ez dezazula arren zure bu-
 ruan confiatu, ta ez diozazula orrelaco
 gaucetaraco ocasio ez chiquiri ta ez andi-
 ri lecuric eman. Aldezun gogorrena, ta
 estuena izan bear dezu puntu onetan zure
 buruarentzat. Viotza, ta belarriac alcar-
 ri ichachiac daude, ta ala belarrira
 allegatcen dana laster allegatcen dá vi-
 otcera, ta nola ez dan erraz aldapabera
 datorren corrientia guelditcia, ala ere ez
 dá erraz belarrietan sartu dan amorioa vi-
 otcera bereala ez erortcia. Alomeonec di-
 onez, auntzac belarrietatic asnasia artcen

dute, ta ez sudurretatic; eguia dá, Aristó-
 teles ez dá iritzi oneracoa. Gauza onetan
 nic eciñ ecer esan dezaquet, baña on-
 gui daquit gure viotzac belarritic asnasia
 artcen ez duela, ta nola bere pensamen-
 tuac campora mingañetic aguertcen di-
 tuen, ala asnasia belarritic artcen dú, ce-
 ña mediante bestien pensamentuac artcen
 ditu. Guarda ditzagun bada gure belarri-
 ac itz eroen aicetic, cergatic bereala izan-
 go dá bestela izurritua, edo apestatua.
 Ez diozazula adisquidetasun gaiztoco tra-
 tu onetan iñolazco escañi moduri lecuric
 eman, eroceiñ motivo gatic izan dedilla.
 Ez dá importa onelaco ocasioetan descor-
 tesa, ta criantzatic gabea bezala portatcia.
 Oroi zaitez, zure viotza Jaungoicoari
 ofrecitua, ta zure amorioa berari ofrenda-
 tua, edo sacrificatua daucazula. Sacrile-
 gioa izango litzaque bada orretatic dan-
 guchiena ere berari quentcia. Eguizu ba-
 da contrara, sacrificia zayozu berriro mi-
 lla asmo, ta propositoren medioz, ta Ore-
 ña bere igues lecuan bezala ayen artian
 seguraturic, dei zayozu zure Jaungoicoa-
 ri, ta lagunduco dizu, ta berac guarda-

tuco dú zure amorioa bere amorioa gatic,
 bera gatic bacarric vici dedin. Baña amo-
 rio ero orien sarean oraño preso baldiñ
 bazaude; ó ceñ gaitz izango dan zu li-
 bratcia! Orregatic ere jarri zaitez aldezun
 humildaderic andienarequin Jaungoicoa-
 ren aurrian: ezagu zazu aren aurrian zu-
 re miseria, argaltasuna, ta vanidadiaren
 anditasuna. Onen ondoren, aborrecitzat-
 zu, ta despeituitzatzu zu gandic al dan go-
 gotiquena zure viotcian lecu ematen asi-
 ceran amore zoro oriec, ta eguintcitzu
 asmo firmiac iñoiz gueyago ez sartceco a-
 more zoroen jostaquetan. Aldezun guztia
 alde eguizu orietaraco ocasioa ematen di-
 zutenetatic, cergatic nóla sugastarrac, e-
 do serpientiac jan dituenac ecíñ sendatu
 diran serpientiac ayec bezala jan dituzte-
 nen vistan, edo aurrian, ala amorio ga-
 iztoac viotza icutu dion persona, ez dá
 erraz sendatuco ura bezala amorio gaizto-
 ac joa dagoenaren aurrian dagoen bitar-
 rian. Lecu aldatciac asco laguntcen dú be-
 rotasun ta inquietacioac, dala miñarenac,
 dala amoaiarenac sosegatceco. San Am-
 brosioc penitenciaco bigarren libruan con-

ratcen duen mutilla, emacume batequin
 cituen amore zoroetatic, viage bat eguin
 zuen medioz, libratu zan, ta ala lenago
 amatcen zuen emacumeac videan topatu
 ta, lotsaric gabe esan bacion ere, ; Ez
 nazu ni ezagutcen? onelaco naiz, lenago-
 coa bera; erantzun cion: baña ni ez naiz
 lenagocoa bera; ta onembesterequin des-
 peitu zuen. Amatcen zuen persona gan-
 dic aparte egotiac ecarri cion zori oneco
 aldatce au. San Agustinec ere bere burua
 gatic esaten dú adisquide baten eriotzatic
 etorri citcitzayon penatic consolaticia ga-
 tic, Tagaste esaten dioten Ciudadetic Car-
 tagora joan zala.

Baña eciñ urrutira joan danac cer eguin-
 go dú? Alde eguin bear dú arequin ba-
 carric itz eguitetic, bacarreco jostaque-
 tatic, beguiratce cariñosoetatic, parra e-
 guitetic, itz batian, amorio ciquin ta que-
 tsu oni su eman dioztaquien trata vide,
 ta ocasio guztietatic, ta amatcen duena-
 requin itz eguitia preciso baldiñ bada,
 ez dedilla bestetaco izan, ez bada itz ta
 arpegui gogor, ta atrebituaquin aditcera
 emateco, ez duela iñoiz arequin cer i-

cusiric izan nai. Amorianfiaco lazo abe-
tan eroriac dauden guztiai oju egui-
ten diet, ebaqui, autsi, ta pusca ditza-
tela. Ez dá conveni adisquidetasun abec-
ascatcen guelditcia; ez bada puscatu e-
guin bear dira; ez dá corapilloac escatcen
egon bear, ez bada ebaqui, edo autsi
eguin bear dute. Nola orien locarriac, ta
socac ecer valio ez duten, ez dá cumpli-
mentuetan ibilli bear Jaungoicoaren amo-
rioaren aín contrarioac diran amorioaquin.

Baña esango dezu, cristau maitia; amo-
rio villau onen catiac autsi ezquero ere,
etzait orañdic guztiro aztuco, ta guel-
dituco zait orren señaleren bat nere afi-
cioetan. Etzaitzu orrelaco gauzaric guer-
ratuco zure gaitzaz berac mereci duen a-
rimbateco gorrotoa artcen badezu. Au lo-
gratcen badezu, ez dú zure viotzac bes-
te muguimenturic, ta aficioric izango,
ez bada amorio villau ori, ta orri daroz-
quion guztia eciñ gueyagorañoco eciñ i-
cusia, ta onela libratuco cera amatcen
cenuen personaren aficio guztitic, ta Ja-
ungoicoaren amorioaren aficio chit gar-
bia zure viotcian sartuco dá. Baña cerga-

tic zure damua aĩñ andia ez dãn , guel-
 ditcen bazaitzu orañdic inclinacio gaizto-
 ren bat , procura zazu , lenago eracutsi
 dizuran moduan , (*) zure anima espiri-
 tucõ bacartasunian ipintcia. Erretira zai-
 tez zure bacarrera aldezun guztia , ta zu-
 re amore zoro orien damua maiz artuaz ,
 despeitzatzu betico inclinacio gaizto guz-
 tiac ; zure indar guztiaquin contra eguie-
 zu ; bestietan baño ere gueyago libru de-
 votoetan iracurri zazu , bestietan baño
 maizago confesatu , ta comulgatu zaitez ;
 emayozcatzu humildadiarequin , ta toles
 gabe onetan dituzun tentacioac aditcera
 zure Aita Espiritualari albadezu , ta bes-
 tela zure satisfacioco cristau on prudente
 bati. Seguitcen badezu conseju abec cum-
 plitcen , confia dezaquezu , libratuco zai-
 tuztela zure inclinacio gaizto guztietatic.

Ai , esango dirazu ; Ez da ezagüera ,
 ta legue gabecoa izatia añ bat batian adis-
 quiderasunai utcitcia ? Baña nic orretara
 esaten det ; ; Oen zori onecoa dan Jaun-

(*) Libru onen bigarren parteco amabi-
 garren capituloan.

goicoaren gustocnac eguiten galtuen es-
 quer gabetasuna ! Ez da au Jaungoicoa-
 ren beguetan esquer gabetasuna izango ,
 cristau maitia , ez bada amaten ciñuen
 personari eguiten diozun mesede andia.
 Zuc amorio gaiztoa autsiarequin , autsico
 dituzu aren amorio gaiztoco catiac ere ,
 bada abec bienac ciran ; ta bere zori ona
 orduan ezagutcen ez badu ere , laster e-
 zagutuco dú , ta Jaungoicoari esquerrac
 zurequin batian emateco , cantatuco dú :
 Zuc autsi dituzu Jauna nere catiac , ofre-
 cituco dizut alabantcen ofrenda ta zure
 icen santuari deituco diot.

XXII. CAPITULO A.

*Beste aviso batzuec adisquidetasu-
 naren gañian.*

Adisquidetasunac comunicacio , edo
 tratatce andia escatcen dú adisquidien ar-
 tian , bestela ez dá posible ez sortcia ,
 ta ez irautia adisquidetasunac. Ascotan
 guertatcen dá , luzaroco comunicacioaren

motivoz, adisquideac alcarri, nola ez
 daquitela, beren oficioac, ta inclinacio-
 ac, genio, ta condicioac icha-tia. Ba-
 ña au batez ere guertatcen dá, asco
 nai diogunian amatcen degun persona-
 ri, cergatic orduan alaco moduan iri-
 quitcen diogu aren adisquidetasunari gu-
 re viotza, ce arequin batian guztiz e-
 rraz sartzen zaizquigu aren inclinacio,
 genio, ta condicio guztia, nola onac
 ala gaiztoac. Heracleaco eztiya eguiten
 duten erliac ez dute irada bedarrian
 beren ustez eztiya baicic billatcen, ba-
 ña arequin batian chupatcen dituzte,
 nola ez daquitela, bedar aren pozoyez-
 co calidadiac. Cumplitu bear ditugu ba-
 da, cristau maitia, gauza onetan, ant-
 ciñaco Autoriac esaten digutenez, gu-
 re Salvadoriac esaten cituen itzac; au-
 da: izan zaitezte cambiatzalle, ta diru-
 guille onac; esan nai dú, ez dezazute-
 la artu diru falsoa, edo gaiztoa onaren
 lecuan, ez dá ere urre bastoa, fiñaren
 lecuan; ona gaiztotic beressi zazute.
 Bai, cergatic ez dá iñor imperfeccio-
 ren bat ez duenic. Ta cergatic artu

bear ditugu adisquidearen imperfeccio-
 ac aren adisquidetasunarequin batian?
 Arrazoi dá adisquidia amatcia imper-
 fectoa izana gatic ere, baña ez dá ar-
 razoi aren imperfeccioac amatcia, ta
 errecibitcia, cergatic adisquidetasunac
 onian participante izatia escatzen dú,
 baña ez gaitcian. Tajoco ibaitic onda-
 rra ateratcen dutenac, arc duen urria
 eramateco beressita, gañeraco ondar-
 ra ibai bazterrian utcitzen dute, ala
 bada adisquidetasun ona dutenac, be-
 ressi bear dute imperfeccioen ondar-
 ra, ta ez diote beren viotcian sartzen
 utci bear.

San Gregorio Nañanzocoac esaten
 dú, ascoc San Basiliori cioten amorio
 andia gatic, ta aren virtutiaz ceucaten
 opinio andia gatic, campotic aguert-
 zen diran bere imperfeccioetan ere imi-
 tatu zutela, nola dan gueldi gueldi, ta
 beste gaucetan pensatzen baldiñ balego-
 que bezala itz eguitian, bizarra ecar-
 tzeco, ta ibiltzeco moduan. Icusten de-
 gu ere senarrac, emazteac, semeac,
 ta adisquideac, cergatic asco nai die-

ten beren adisquidiai , gurasoai , senar-
 raj , ta emazteai , artzen dituztela ayen
 gantic edo gusto ematia gatic , edo imi-
 tacia gatic , ayequin tratatziaren vi-
 dez , chiquiac baldiñ badira ere , milla
 genio char. Ez dá iñolaz onelaco gau-
 zarie eguin bear ; bacoitzac berac so-
 bra imperfeccio ditu besterenaz gueya-
 go cargatu gabe , ta adisquidetasunac
 ez bacarric ez dú escatzen besteren con-
 dicio gaiztoac artzia , ez bada contra-
 ra , condicio gaizto guztiac utzitzeco
 alcarri laguntzera obligatzen gaitu. Su-
 fritu bear ditugu pacienciarequin gure
 adisquidearen imperfeccioac , baña ez
 diegu gueitzeco suric eman bear , ta gu-
 chiago alere guretzat artu.

Imperfeccioen gañian bacarric itz e-
 guiten det , ta ez pecatuen gañian ; cer-
 gatic pecatuac ez sufritu gure adisqui-
 diagan , ta ez guganatu bear ditugu. A-
 disquidetasun ecer eza , ta gaiztoa dá,
 adisquidia iltcen icusi ta ez , socorrit-
 cia ; apostema , edo zornande bat dalá
 motivo iltcen dagoela icusi ta , sendat-
 ceco correccioco labañarequin ez atre-

bitzia. Esan nai det, ez dala, adisquidea pecatuan icusita, ez penatziagatic, artatic ateratzeco, bear dan consejua eman gabe utci bear. Eguiazco adisquidetasunac pecatuen artian iraun eciñ dezaque. Salamandra esaten dioten arrobio mota bate gatic contatzen dute, etziten dan lecuan dagoen sua itzaltzen duela. Costumbrezcoa ez bada adisquidiaren pecatua, igues eraguingo dió adisquidiaren correccioac, baña costumbrecoa baldiñ bada, bereala acabatucodá adisquidetasuna, cergatic eciñ egon diteque eguiazco virtuteric ez dan lecuan. Aguerian dago onetatic ez dala iñolaz ere cillegui, adisquidiari gusto ematia gatic, pecatu eguitia. Etsaya dá adisquidea, pecatura tentatzen gaituenian, ta adisquidetasuna galtzia mereci dú, adisquidea galdu, ta condenatunai duenac. Adisquidetasun falsoaren señaleric ciertoenetan bat, persona viciosoarequin adisquide izatia dá. Guc amorioa diogun persona, viciosa baldiñ bada, arequiñ degun adisquidetasuna, dudaric gabe viciosa dá; cergatic no-

la ez duen adisquide arc eguiazco virtuteric, eciñ sortu, ta iraun dezaque gure adisquidetasunac virtutetic, ta ala preciso dá, perfeccio ero edo calidade sensualen batetic, arequin degun adisquidetasunac bere asiera izatia, ta ura mediante irautia. Erabaciaren amorez mercatarien artian eguiten dan compañia eguiazco adisquidetasunaren iduri bat baicic ez dá, cergatic ez dá personen amoriotic jayotzen, ez bada erabaci nayaren deseotic. Esaten dizut azquenian, cristauvac izan bear duen vicimodus aseguratzece bi abe andiac dirala, Jaungoicozco sententzia abec, bata Jaquintsuac esan zuena, ta au dá, Jaungoicoari bildur dionac eguiazco adisquidetasuna izango dú; bestia Santiago Apostoloac, ta au dá: adisquidetasun mundutarra Jaungoicoaren etsaya dá.

XXIII. CAPITULO A.

Gorputceco mortificacioen gañian.

Arbolen frutu, ta lurrac ematen di-

tuen beste frutuen gañian escribitzen dutenac esaten dute, ce almendraren mami osoan letra bat escribituta, ber-
 riz bere azalian ongui ongui ichiric erei-
 ten bada, guero jayotzen diran almen-
 dra ale guztiac letra arequin jayotzen
 dirala. Etzait iñoiz ere gustatu, cris-
 tau maitia, cristauvac pecatuco videa
 utzi ezquero, Ceruco vici moduan jar-
 tzecco campoco gaucetatic asitzia, ar-
 peguitic, jantzitic, ta illetic; barren-
 dic asi bear dala deritzat niri. Biur zai-
 tezte nigana zuen viotz guztitic esaten
 dú Jaungoicoac; indazu zure viotza,
 nere semea, esaten dú. Cergatic, nola
 gure obra guztien asiera viotza dan,
 nolacoa dan gure viotza, alacoac dira
 gure obrac. Esposo Santuac animari e-
 saten dió; ipiñi nazazu sellu bat beza-
 la zure viotcian ta zure besoaren gañi-
 an. Eguiaz, cristau maitia, Jesus viot-
 zian daucanac bere obra guztietan ere
 laster izango dú. Orregatic deseatzan
 det, cristau maitia, guztietan lenena
 itz Jaungoicozco, ta santu abec zure vi-
 otzian imprimitzia, au dá, *Vici bedi*

Jesus. Zure viotzian Jesus vici baldiñ bada, confia dezaquezu itz santu oriei dagozquienac izango dirala zure obra guztiac, onac, ta santuac guztiac. Ta nola zure viotzian Jesus vicico dan, ala ere zure obretan vicico dá, ta aguertuco dá zure beguetan, aboan, escuetan, baita illietan ere orañdic, ta orduan S. Pabloc bezala esan dezaquezu vici naiz ni, baña ya ni ez, ez bada Jesu Cristo nigan vici dá. Itz batian, guizonaren viotza erabaci ezquero, guizon guztia erabacia dago. Baña orregatic ere viotz onec, ceñatic Jangicoaren vicitzan asi bear degun, izan bear dú eracutsia campotic aguertzen diran obra onetan, nola gobernatu bear dan, onela argan ez bacarric devocio santua, ez bada baita ere prudentzia, ta discrecioa icusi dediñ. Eman nai dizquitzut bada instante batian onetaraco aviso batzuec. Barautu albadezaquezu, ongui eguingo dezu barautzia Elizac aguintzen dituen baraubaz gañera, beste egunen batzuetan; cergatic baraubada dala medio Jaungoicoagana espiritua alchatzen danaz

gañera, araguaia sujetatu, virtutia eger-
 citatu, ta Ceruco merecimentuac guei-
 tuaz gañera, dator ere beste on andi-
 bat, ta au dá, gula sujetatzia jateco
 apetitua, ta gorputza espirituaren le-
 guera sujeto inuquitzia. Ta barau as-
 co ez eguiña gatic, orregatic ere bate-
 re barauric ateraco ez baguenuque ba-
 ño, bildur gneyago izaten digu etsa-
 yac, barautzen badaquigula ezaguturic.
 Aste azquenian, ostiralian, ta larumba-
 tian costumbratzen zuten gueyena ba-
 rautzia lembicico cristauvac cristauta-
 suneco lembicico urtietan. Eguizu zuc
 ere beste aimbeste, zure devocioac, ta
 Confesoriaren discrecioac consejatzen
 bazaitue. Pocic esango nuque nic ere
 San Geronimoc Leta Santari esaten cio-
 na, au dá, etzaizquit barau asco, ta
 gorgorrac gustatzen, batez ere perso-
 na guztietan. Esperienziac eracutsi dit,
 asto chiquichoac videan cargarequiñ
 necatuta eciñ eraman duenian lurrera
 bota nai izaten duela; esan nai det, gaz-
 teac barau gueyeguirequiñ eritu, ta, er-
 raz biurtzen dirala maña, ta erregaloe-

tara. Oréñac bi demboratan guchi cor-
 ritzen dute, au dá, guiceneguiac dau-
 denian, ta flacoac daudenian, ala gu e-
 re bi demboretan gaude tentacioetara-
 co peligro andian, gure gorputza chit
 guicena dagoenian, ta chit flaco dagoe-
 nian, cergatic guicentasunac ongui jan,
 ta alperquerian dagoen zaldia bezala so-
 berbioa eguiten dú gure gorputza lujú-
 riaraco, ta flacoegua dagoenian ber-
 riz, nequea eciñ sufitua izaten dú, ta
 nola chit guicena dagoenian eciñ era-
 man degun, ala chit flacoa dagoenian
 berac eciñ eramango gaitu. Barauetan,
 disciplina, cilicio, ta gorputzaren bes-
 te mortificacioetan bear dan prudent-
 ziaren faltac quentzen die ascori beren
 progimoen onean empleatzeco edade-
 ric onena, ala guertatu citzayon San
 Bernordori, ongui damu bazuen ere gue-
 ro bere gorputza aiñ gogor tratatua. Ta
 cembat eta gogorrigo tratatzen duten
 onelacoac beren gorputza, ambat eta
 gueyago erregalatzeco premian guero
 arkitzen dira. ¿Étzitzayen obeto egon-
 go beren estaduco, ta empleoco obli-

gacio , ta nequeai cegoquien aimbateco
tratamentua bere gorputzai ematia?

Baraubac, ta nequeac humiltzen dute
gorputza , Obligaciocoa , edo Jaungoi-
coaren honraraco provechugarria bal-
diñ bada zure nequea , nayago det ne-
que orretan dezun pena zuc sufritzia ,
barau eguitia baño. Iritzi onetacoa dá
Eliz Ama Santa ere , bada Jaungoicoa-
ren honraraco , ta progimoaren prochu-
raco diran nequeetan empleatzen dira-
nac , obligaciozco baruaetatic ere libra-
tzen ditu. (*) Batzuei barautzia asco
costatzen zaye , bestiai eriyac , ta pre-
soac visitatzia , confesioac aditzia , pre-
dicatzia , affligituac consolatzia , erre-
zatzia , ta beste onelaco egercicio mo-
duac , ta gauza abetan sentitzen dán ne-
queac , barautzen sentitzen danac baño
gueyago valio dú , cergatic biac igual
penatzen dutenaz gañera , baraubac ba-
ño frutu obiac dituzte beste egercicio
santu orieo. Orregatic bada obeago dá

(*) Gauza orieo , ta baraubac eciñ batian
eguin diranian.

bear bearreco indarrac baño gueyago
 ruquitzia precisocoac galtzia baño, cer-
 gatic nai danian guchitu ditezque, ba-
 ña ez beti nai danian atzera artu. Ca-
 ño andia eguin bear degu nere ustian gu-
 ye Jesus onac bere discipuloai esan
 zienaz, au dá, aurrian paratcen dizu-
 tena jan zazute. Au nere ustian, au dá,
 zure auquera gabe ematen dizutena, ta
 ematen dizuten bezala jatia virtute an-
 diagoa dá zure gustoz beti gaiztoena es-
 cogitzia baño, cergatic gaiztoena esco-
 gitzia penitencia andiagoa dala baldin
 badiruri ere, orregatic ere besteren gus-
 toa eguitian gueyago ucatzen dá vo-
 rondate propioa, besterena eguitia ga-
 tic, cergatic orrela ez bacarric bere gus-
 toa utzizen dú, ez bada baita ere bere
 auquera, ta ez dá mortificacio chiquia
 bere gustoa escu guztietan, guztiai, ta
 ocasio guztietara sujetatzia. Orretzaz
 gañera mortificacio au ez dute guztia
 ezagutzen, ez dio iñori calteric eguiten,
 ta bestiaquin tratatzeco bera bacarric
 dá egoquia. Janari bat, beste bat ar-
 tzia gatic, utzitzia, guztia probatzia,

ongui guisaturic, ta bere gustocoric batre ez iruritzia, ez ta ere garbiric, bocaduric bocadura, misterioac eguitia, abec guztiac viotz goloso, ta plater, ta catilluetara entregatua aditzera ematen dú. Gueyago estimatzen det nic San Bernardoc olioa ura, edo ardoa zalacostian eratia, ascencioen ura berariaz eran izan bazuen baño, cergatic ala olioa eratia eraten zuen gauzan pensatzen etzuen señalia zan. Cer jan edo eran bear dán cuidadoric ez izatian dago Jesussec esan cituen itzen cumplimentu osoa. Ez det esan nai orregatic, preciso jan bear dituela personac gaitz eguiten dioten, edo ongui artzen ez duten janariac ere, nola guertatzen zayon ascori janari bero, edo sustantzia andicoaquin, ta aicetsoaquin. Conveni dá ere ascotan gorputzarequin comtemplatcia, edo aliviores bat ematia, Jaungoicoaren honoraco gaucetan empleatzeco indarrac artu ditzan. Obe dá janian, ta eranian beti templatua izatia, barau asco ta gogorac noician bein ateratzia baño.

Disciplina, bear dan prudentziare-

quin artzen dala gauza chit ona dá Jaungoicoaren servicioan empleatzeco go-goa vistutzeco.

Cilicioac asco flacatzen dú gorputza, baña ez dá maiz usatzeco egoquia ez ezconduentzat, ez persona delicaduenzat, ez ta ere neque andietan empleatzen diran personentzat, eguia dá egunen baten jantzi ditequela Confesoriaren consejuarequin.

Eman bear dio bacoitzac bere gorputzari bere complexioaz edo gorputzaren izatiaz bat conveni zayon loa egunez ongui, ta provechuarequin velatzeco. Ta cergatic Escritura Sagraduac, Santuen egemploac, ta arrazoyac berac goizac asco alabatcen, ta encargatzen dizquiguten eguneco orduric onenac bezala, ta gure Jesusi ere jaiotzen dán Eguzquia deitzen zayo, ta Ama Virginiari jaiquitzen dán egun sentia, orregatic deritzat gauza chit ona dala, arratsian goizcho oyeratcia, goician goizcho jaiquitceco; ta eguiatz goiza da demboraric atseguinena, ta guztietan libreena. Choriac berac ere convidatzen gaituzte,

ordu artan loa botata , Jaungoicoa alabatzerá jaiquitzera , ta goiz jaiquitzia osasuneraco , ta virtuteraco , bietaraco dá gauza ona.

Balaan asto eme baten gañian cijoan Balaac Erre uea gana , baña nola intencio onic etceraman , Aingueru bat videaren erdian jarri citzayon il nai zuelaco moduan ezpata batequin. Astoa , Aingurua ala icusita , iru bider gueldituzan aurrera pausoric eguin nai etzeula , ta atzera eguiten zuela. Jotcen zuen maquillarequin , baña alferric zan. Irugarrenian atzeratu zanian lurrera erorizan. Balaan orañdic gañian cegoen , ta joca ari citzayon astoari ; orduan astoac modu onetan itz eguin cion : ¿ Cergaitz eguin dizut nic irugarrenaldian onela maquillatzeco ? Arguitu ciran orduan Balaanen beguiac , ta icusi zuen nola cegoan aurrian Ainguerua , ta esan cion aingueruac ¿ Cergatic maquillatu dezuzure astoa ? orrec nere aurretic quendu ez bacinñú , zu il , ta ori viciric utzico nuen ; orduan Balaanec Aingueruari esan cion ; Janna , ñic gaizqui

eguin det, cergatic ez nequien zu nere
 contra videan ceundela. Icusten dezu,
 cristau maitia, nola culpa zuena, Bala-
 an bera izan ta culparic etzuen asto ga-
 ssoa maquillatzen, ta gaizqui tratatcen
 zuen. Au berau guertatzen zaigu guri
 ere ascotan. Emacume ascoc beren se-
 narra, edo humea eri icusten badute,
 barautcen asitzen dira, jazten dute cili-
 cioa, ta azotatcen dute beren gorputza,
 Davidec orrelaco motivo bategatic be-
 zala. Ai cristau maitia, tratatcen de-
 zu gaizqui zure asto gassoa, castigat-
 zen dezu zure gorputza, baña ez dú o-
 rrec zure miñian, ta Jaungoicoac zure
 contra bere ezpata jasot ian culparic;
 corriji zazu zure senarraren adoratzal-
 lia dan viotz ori; sufritu diozca ere vi-
 otz orrec vicio asco semeari, ta sober-
 via vanidade, ta andinayetaraco desti-
 natua, edo pensatua ceucan. Erortcen
 dá guizon bat chit maiz lujuriaco peca-
 tuan, bere conciencia leyalac estutcen
 dú Jaungoicoaren justiciaren bildurra-
 requin, ta bereala beregan biurturic a-
 ren viotzac esaten dú; há aragui trai-

doria, há gorputz villauba, zuc saldu
 nazu; ta asitzen dá bereala bere gor-
 putza puscatzen barau disciplina, ta ci-
 licio gogor, ta izugarriaquin. Ai anima
 gassoa; Balaanen astoac bezala zure
 gorputzac itz eguin albalezaque, esan-
 go lizuque; anima nereea, zure contra
 armatzen dú Jangoicoac bere venganza,
 zu cera gaizqui eguin dezuna. ¿ Cer-
 gatic eramaten nazu conversacio gaiz-
 toetara? ¿ Cergatic arrimatzen cenitu-
 en zuc nere belarriac, nere escuac, ta
 ezpañac lujuriara? ¿ Cérgatic inquietat-
 zen nazu imaginacio gaiztoaquin? Izan
 itzatzu zuc pensamentu onac, ta ez det
 orduan nic muguimentu gaiztoric izango,
 trata zazu persona cástu, ta garbiaquin,
 ta ez naiz orduan gauza gaiztoetara ten-
 tatua izango. Ay nere errucarria! zuc
 surtara botatzen banazu. ¿ Nola nai dezu
 erregabe egotia? Botatzen dirazu beguie-
 tara quea, ta ez dezu guero, gorritzia nai.
 Onelaco ocasioetan, cristau maitia, Jan-
 goicoac seguru esaten dú, castigatu, au-
 tsi; zauritu, ta puscatzitzute batez ere
 zuen viotzac, cergatic orien contra al-

chatu dá nere aserria. Eguiaz, sarnatic sendatceco, ez dá aiñ bearra garbitcia, ta bañuac artcía, nola odol gaiztoric garbitcia, ta guibela errefrescatcia, ala ere gure vicioetatic sendatceco dudaric gabe gorputza mortificatcia gauza ona dá, baña gueyena bear dana dá aficio gaiztoetatic viotza garbitcia, ta errefrescatcia. Azqueni-an esaten det, ez dala iñolaz ere conveni Confesoriarequin consejatu gabe gorputzeco mortificacioetan asitcia.

XXIV. CAPITULO A.

Conversacioen, ta erretiroaren gañian:

Conversacioac billatcia, eta ayetatic igues eguitia, biac dira errenditcecoac munduan vici bear duen cristauvagan. Igues eguitiac desprecioa, ta progimoaren estimacioaren falta aditcera ematen dú, billatciac berriz, ecer servitcen ez duen alferqueria clara. Gueren buruac bezala gure progimoa amatu bear degu. Gueren burua amatcen degula ezagutceco egon

bear degu gueren buruaquin gaudenian ,
 ta gueren buruaquin , bacarric gaudenian,
 gaude. Pensa zazu lembici zure personan,
 ta guero bestietan esaten dú San Bernar-
 doc. Ez baldin bazaitu cerbaitec obligat-
 cen besterequin itz eguitera joatera , edo
 bestec ematen dizun conversacioa erreci-
 bitcera , gueldi zaitez zure bacarrian , ta
 diverti zaitez zure viotzarequin ; baña o-
 frecitcen bazaitzu conversacioa , edo mo-
 tivo justuren batec artara convidatcen ba-
 zaitu , zuaz Jaungoicoarequin cristau mai-
 tia , ta veguira zaiyozu viotz onarequin
 zure progimoari , ta ez begui gaiztoaquin.

Conversacio gaiztoac dira fiñ gaiztoa-
 requin eguiten diran guztiac , edo conver-
 sacioa eguiten dutenac viciosoac , pruden-
 cia gabeac , ta Jaungoicoaren bildur gabe-
 ac diranian ; ta igues eguizu abetatic erliac
 listorretatic , ta eblitzar andietatic igues e-
 guiten duten bezala , cergatic nola chacur
 amurratuac jaten dituztenac icerdia , as-
 nasia , ta chistua peligrosoac dituzten , ba-
 tez ere aurrentzat , ta persona delicaduent-
 zat , ala onelaco persona vicioso , ta Jaun-
 goicoaren bildurric ez dutenaquin tratat-

cia , gauza chit peligrosoa dá , batez ere virtutian orañdic flacochoac diranentzat.

Badira conversacioac pisca bat divertitceco bestetaco servitcen ez dutenac. Neque serioctatic , ta andietatic pisca bat alibiatceco eguiten dira conversacio abec , ta ala motivo onen gatic , beste diversioen lecuan gueyegui gabe eguin ditezque.

Badira conversacioac politicagatic , edo criantza onarequin cumplitciá gatic eguiten diranac , nola diran alcarrequico visitac , ta progimoa honratcia gatic asco ocaiotan eguiten diranac ; ez dá conversacio abec eguitera gueyegui empeñatua izan bear , baña ez da ere criantza gabea izan bear , bat ere eguin gabe utcita , ez bada erantzun bear zayo obligacioari modestiarequin , orrela arinqueriatic , ta descortesiatic berdiñ igues eguiteco.

Conversacio provechu garrien gañian itz eguitia orañ falta zait , ta onelacoac izaten dira persona devota , ta virtuosoenac. Gauza guztiz ona izango dá zuretzat , cristau maitia , onelaco couersacioetan empleatcia. Olivoaren artian dagoen matsag matsale aicetsuac , ta aceitunen gusto-

tocoac izaten dituzte, cristau virtuosoen artian egoten dan cristauvac ez dá posible ayen calidadiac ez participatcia Listorrac berac bacarric eciñ eguin dute ez-tiya, baña erliaquin batian eguiten laguntcen dute; asco dauca virtuteraco aurreratu cristau virtuosoaquin maiz tratatcen duen cristauvac.

Conversacio guztietan, toles gabe, gozotasun, modestiarequin, ta llano tratatcia procuratu bear dá. Asco personac beren itz, ta muguimentu guztia aimes-te ceremoni, ta artificiorequin eguiten dituzte, ce enfadatcen dituzte guztia, ta nola, eguiten dituen pauso guztia contactcen dituela ez bada bestela ibilli nai ez duena, ez ta ere itz eguin, ez bada cantatcen, guztientzat enfadagarria izango litzaquien, ala ere itz eguiteco, ta gendia-requin tratatceco modu estudiatuac, ta ceremoniaz betiac dituztenac, gende guztia enfadatcen dute. Etzaye onelaco personai beren buruaz presunciorenen bat faltatcen. Conversacioetan alegriya prudente bat aguertcia on dá. San Romualdo, ta San Anton chit alabatuac dira, cerga-

tic berac aĩn penitenciac baciran ere, beren arpeguian, ta conversacioetan alegriya, contentua, ta cortesia aditcera ematen zuten. Eguin parra parraz daudenaquin esaten dũ San Pabloc, ta arequin batian berriz diot, zaude beti alegre, baña Jaungoicoagan, ta zure modestia agueria izan bedi guztienzat. Jaungoicoagan alegratceco zure alegriyaco motivoac ez barric izan bear dũ ona, ez bada baita ere honestoa. Esaten dizut au, cergatic ez dũ cilleguĩ dan guztia honestoa, ta zure modestia ezagutu dedin, ez dezazula ascoc eguiten duen bezalaco eraqueri, ta lotsa gabequeriric eguin, bada dudatic gabe, erreprenditceco gauzac dira. Bestia erori eracitcia, ciquintcia, itz picantiac esatia, eroai gaitz eguitia, onelaco parrac, ta diversioac eroac, ta lotsa gabeac dira.

Bacartasun, edo espirituco erretiroaz gañera, (ceñatara lenago esan dizuran bezala (*)) munduco conversacioric andienetan ere erretira zaitezque) gustatu be-

(*) Libru onen bigarren parteco amabigarren capituloan.

ar zaitzu ere personetatic gorputcez erretiratcia ; ez det esan nai mendietara joateco Santa Maria Igitocoa , San Pablo hermitañoa , San Anton , San Arsenio , ta beste ayen demboraco hermitañoac bezala , ez bada zure guela , edo cuartoan , zure jardinian , edo beste lecuren batian jarrita , embarazo guehiagorequin zure espirituan zure viotcera erretiratceco , ta zure anima imaginacio , ta pensamentu santuaquin divertitceco ; edo dala libru onen baten leccioa mediante San Gregorio Nacianzoco Obispoac bezala , ceñac bere burua gatic modu onetan esaten dú : ni paseatcen nitzan , ni nerau , ichasoaren basterrian dembora pasa , cergatic costumbratu izan det nic errecreo , edo diversio au nere buruari ematia , Jaungoicoaren honran empleatceco indarrac artceco , ta comunqui izaten diran enfadu moduetatic pisca bat libratceco ; ta guero esaten dú an paseatcen cebillela cer consideracio santua izan zuen. (*) San Ambrosio ga-

(*) Libru onen bigarren parteco amairugarren capituloan.

tic ere S. Agustinec esaten dú , aren cuar-
toan sartcen zanian , iracurten topatcen
zuela , ta pisca batian ichoronta , obra ga-
iztoric ez eguitia gatic , itcic eguin gabe
ateratcen zala , pensaturic , aimbeste e-
guitcoren ondoren Santu animen artzañ
andi arc pisca bat indartceco , ta bere es-
piritua divertitceco artcen zuen dembora
pisca ura galeracitcia , etzala arrazoi. Ala
ere gure Salvadoriac etorri citzayozcani-
an Apostoloac predicatcetic , ta esan cio-
tenian , nola asco predicatu , ta trabajatu
zuten , esan cien : atozte mendico erreti-
rora , ta descantsa zazute pisca bat.

XXV. CAPITULO.

Jantcien decentciaren gañian.

San Pabloc emacumeac gatic , (orobat
dá guizonac gatic) esaten dú , erropa de-
centiaquin jantci bear dutela , lotsa , ta
templantza aditcera ematen duen moduan.
Jantcien , ta gorputceco beste adornuen
decenciaren izatia cer generocoac , cer mo-
dutacoac diran , ta garbitasunian dago.

Ta lembici garbitasunetic asitcen naitzala, onen gañian diot, guztio aldegun guztia garbi jantci bear degula; cuidado andia izan bear degu mancha, ta ciquin queriaric gabe gure arropac iruquitceco. Campoco garbitasunac barrengoa moduren batian ematen dú aditcera. Jaungoicoac berac encargatcen die gorputceco garbitasuna bere Ministroai. Cer generotacoac, ta cer modutacoac jantciac izan bear duten esateco, asco gauzari beguiratu bear zayo, demborari, edadiari, personen calidadiari, compañía, ta ocasio particularrai. Jayetan, egunari dagoquionaz bat, astegunian baño obetoago jaztia usatcen dá. Garizuma, ta beste onelaco penitenciaco egunetan ez dá iñor bere partetic, edo costumbratcen duen jazteco modutic asco guchitcen ez duenic. Eztayetan eztaietaco jantciac usatcen dira, ta progüetan progücoac. Erregueren Palacioan, edo aren vistan bestien artian baño obeagoac usatcen dira. Emacume ezcondua jantci diteque, ta jantci bear dú bere senarraren vistan senarrac gusto duen bezala, baña senarra campoan duen demboran aín

ongui jazten bada , gendiac galdetuco dú,
; noren beguiai gusto eman nai die orrec
jantci modu orrequin ? Nescachai permi-
titen zaizcate pichi gueyago , cergatic
badiruri , desea dezatequela ascori agrar-
darcia , ez baldin badute au beste mo-
tivo gatic eguiten , ez bada Matrimo-
nioraco bat erabazteagatic. Ez diruri ere
gaizqui , berriz ezcontcia pretenditcen du-
ten emacume alargunac , cerbait obeto-
sseago jaztia , deshonestac , ta eroac di-
rala , esateco motivoric , gendiari ematen
ez diotela ; ta abec nola izan diran fami-
liaco cargu dunac , ta alarguntasuneco ne-
queetatic pasatuac , espiritu argui , juicio-
soa , ta bear dan errespetocoa izaten dute.
Baña gorputcez , ta viotzez alargun dau-
den emacumeai etzaye conveni humilda-
dia , modestia , ta devocioa beste apain-
tzeric , cergatic , guizonac enamoratu nai
badituzte , ez dira eguiazco alargunac ,
ta ez baldin badituzte enamoratu nai ,
; certaco dituzte orretaraco instrimentuac,
nola diran apaintce oriec ? Campotarric
echian errecibitu nay ez duenac , quendu
bear ditu ehetic ostatuaren señaliac. Ez

dá iñor persona zarragatic parre eguiten ez duenic apaintcen dabillega icusi ezque-
ro, cergatic eraqueri au gaztietan bacar-
ric sufritu ditequena dá.

Jantci zaitez, cristau maitia, errespe-
to, ta garbitasunarequin zure gorputzian
ta gaizqui ipiñiric, edo iñor disgustatce-
co gauzaric ez dezula. Gurequin tratat-
cen dutenai desprecioa eguitia dá, iñori
gustatcen etzayon moduan jantcita ayen
aurrian aguertcia, baña utcitzatzu artifi-
cio, gueyegui iruritu nai, vanidade, e-
raqueri, ta curiosidadiac. Ibilli zaitez be-
ti toles gabe, eta modestiaren alderago,
cergatic au dá edertasunaren galaric eder-
rena, itsusitasunaren estalgarriric onena.
San Pedroc esaten die batez ere emacu-
meai, ez ditzatela illiac cuscurtuac era-
billi. Emacumeen guisa eraquerian jazten
diran guizonac ez guizon, ta ez emacu-
me dira, edo biac; ta emacume vanide
zaliac castidade guchi dutela ematen dute
aditcera beñepen, eciñ icusi dá aimbeste
eraqueriren artian, batere baldiñ badute
ere. Ez dutela gauza gaiztoric pensatcen
esaten dute, edo ez dutela intencio gaiz-

toric , baña nic bestietan esaten deran bezala , orañ ere diot , zuc ez badezu ere gaitcie pensatcen , deabruac beti pensatcen duela. Nic ere devoto , ta devota , aren compañian dijoacen beste guztiac baño , obeto jantcia nai nuque icusi , baña arroantz , ta dan baño gueyago iduri nairic gabe , ta Salomonen Sentencietaco libruan esaten dan bezala , gracia , ta errespetoz jantcia. San Luisec itz barian esaten digu , nola jantci bear degun ; gure estaduari dagoquion bezala , jantci bear degula dio , alaco moduan ce persona prudente , ta onac eciñ esan dezaque : zu gueyegui jazten cera , ez ta ere gazteac , zu guchiegui jazten cera. Baña contentatcen ez baldin badira gaztiac gure decenciarequin , obe dá jaquintsun , edo prudentiaï gusto ematia , ayei baño.

XXVI. CAPITULO A.

Itz eguitiaren gañian , ta batez ere nola Jaungoicoaren gañian itz eguin bear dan.

Medicuac personaren mingaña icus-

tearequin aren gaitzaren , edo osasunaren ezagüera andia artcen dute ; gure itzac ere, gure anima nolacoa dagoen ezagutceco , señale andiac dira. Gure Salvadoriac esaten digu , zure itcetatic izango cera justificatua , ta condenatua ere bai. Miñ sentitcen degun lecura bereala escua erama ten degu ; ta amatcen degun gauzara miñgaña ; ala bada Jaungoicoaz enamoratua baldiñ bazaude , cristau maitia , maiz itz eguingo dezu aren gañian echecoquin , adisquidequin , ta auzocoquin dituzua codversacioetan. Bai , cergatic justuaren aboac jaquinduria pensatuco dú , ta aren miñgañac juicio andico gauzac esango ditu. Ta nola erliac beren abo chiquiaquin eztiya baicic eguiten ez duten , ala zure mingaña Jaungoicoaren gozotasunaz betia egongo dá beti , ta ez dá arentzat gauza atseguñagoric izango , zure ezpañetatic Jaungoicoaren alabantzac , ta bendicioa ateratcen sentitcia baño ; nola contacten dan Aita San Franciscoagatic , Jaungoicoaren icen Santua aitaczen zuen guztian chupaczen , ta milliscaczen cituela ezpañac , gozotasun , ta atseguñ andiren bat

ayetatic atera uste baldiñ bazuen bezala.

Baña contu, Jaungoicoaz beti Jaungoicoaz bezala itz eguin bear dezu; au dá, errespeto, ta devocioarequin, ez Maisu, ta Predicadore bat baldiñ baciñaque bezala, ez bada alaitasun, amorio, ta humildiarequin, erortcen zaitzula poliqui zure ezpañetatic, Esposa Santac canta gozoetan dion bezala, devocioaren, ta gauza santuen ezti gozoa zure progimoaren belarrietara, escatcen diozula orduan bertan viotzarequin Jaungoicoari eman diozala zure progimoari itz santu ayetzaz aprovechatceco, ta aren amorioan iratzaquitceco gracia. Cuidado andia izan bear dezu ere conversacio abec atseguintasun, ta amorio andiarequin eguiteco, ez corregitceco moduan, ez bada amorioz progimoa gauza santuetara aficionatu desee dezun moduan, cergatic ez da posible esatia, ceñ indar andia duen viotzac erabazteco atseguintasun, ta amorioarequin gauza onen bat aditcera ematic.

Ez dezazula bada Jaungoicoaren, ta gauza santuen gañian cumplimentuz, ta jostatcez, edo diversioz bezala iñoiz itz

eguin , ez bada devocio , ta atencioarequin beti. Devotoen icena duten ascoc izaten duten vanidadia quentcia gatic esaten dizut au. Onelacoac itcetic ortcera esaten dituzte itz santu , ta devotoac cortesiaz bezala , cer esaten duten batere consideratu gabe , ta beren itzac aditcera ematen duten bezalacoac dirala uste izaten dute , ascotan chit diferentiac izanta.

XXVII. CAPITULO A.

Nolacoac izan bear duten gure itzac , ta cer errespetoa izan bear diegun personai.

Itcez peccaturic eguiten ez duena , perfectoa dá , esaten dú Santiago Apostoloac. Ez dezazula iñolaz ere itz deshonestoric esan , cergatic intencio gaiztoarequin zuc ez esana gatic , aditcen dituztenac intencio gaiztoan artu litzaquee. Virtute guchico viotcera erortcen dan olioa bezala zabaltcen dá viotcian , ta ascotan aren jabe aimbesteraño eguiten dá , ce betetcen , dú imaginacio , ta pensamentu ciquiñez , cer

gatic nola gorputceco pozoya abotic sar-
 rcen dan , ala animacoa edo viotcecoa be-
 larritic sartcen dá ; ta onelaco pozoya vio-
 tcera botatcen duen mingaña anima iltza-
 llia dá , cergatic bota duen pozoyac itz
 ura aditu duten viotcetán efectoric ez e-
 guña gatic , edo gauza gaiztoan ez con-
 sentitua gatic aditcen dutenac , cergatic
 pozoi contracoren batequin , edo pensa-
 mentu santuren batequin ongui armatuac
 ceuden , orregatic ere itz orien pozoiya-
 ren faltran ez dá guertatu , ayec gauza
 gaiztoren batian ez consenticia , ta peca-
 tu mortalarequin beren animac ez iltcia.
 Ta ez dú valio esatia , etzuela orrelaco
 gauzaric pensatcen , cergatic viotcen ber-
 ri daquien , Jesusec esan zuen ; viotza be-
 tia dagoen gauzaren gañian mingañaac itz
 eguiten duela. Ta guc gaitcic ez persatua
 gatic , demonioac beti pensatcen dú , ta
 itz orietzaz animaren bat galtceco beti va-
 liatcen dá. Angelica , edo Aingueru be-
 larra jaten dutenac gatic esaten dute , as-
 nasia gozoa , ta usai onecoa dutela beti,
 ala ere castidadia , ta honestidadia , ceña
 dan Aingueruzco virtutia , beren viotce-

tan dutenac , itz garbí , cortes , ta lotsa-
 tiac beti esaten dituzte. San Pabloc aitat-
 cia ere iñorc ez du nai gauza ciquiñ , ta
 eroric , cergatic berac dion bezala , con-
 versacio gaiztoac costumbre santuac gal-
 tzen dituzte.

Arte , maña , edo disimulo andiarequin
 itz oriec esaten badirá , orduan ascoz po-
 zoi gueyago dute , cergatic nola , cem-
 bat eta dardoaren , edo flecharen punta zo-
 rrotzagoa dán , ambat eta errazago gu-
 re gorputcian sartcen dan , ala ere cembat
 eta meagoac , edo disimulo gueygacoac
 diran itz oriec , ambat eta errazago sart-
 cen dira gure viotcetán ; ta orrelacoac cer-
 gatic esaten dituzten , abilidade andicoac
 dirala uste dutenac , ez daquite certara-
 co eguin ciran conversacioac. Conversa-
 cioetara , erle pilla bat eztiya eguitera ba-
 tutcen dan bezala , batu bear dá ; diver-
 sio , ta entretenimentu atseguíñ , ta vir-
 tuosoaren eztiya eguitera , ta ez ciquin-
 queriaren bat chupatcera batutcen dirán
 listorrac bezala. Juicio gabecoren batec
 itz ciquiñen bat esaten badizu , emayo-
 zu aditcera , etzaitzula gustatcen , arpe-

guia beste aldera giratuaz, edo beste moduren batian, zure prudentciac eracusten dizun bezala.

Burla eguiteco condicioa, cristauvac izan ditzaquien condicio gaiztoenetatic bat dá. Eciñ gueyagoraño aborrecitcen dú Jaungoicoac vicio au, ta castigu izugarriac eguin izan ditu onegatic. Ez dá caridiaren contraco, ta oraindic gueyago devocioaren contraco gauza gaiztoagoric proximoa despreciatcia baño. Besteri parrá, ta escarnioa eguitia, ez dá iñoiz proximoaren desprecio gabe izaten, ta orregatic da pecatu guztiz andia, ta ala arrazoi andiarequin esatendute theologoac, escarnioa, edo burla eguitia proximoari itcez eguiten zayozcan agrabioetan andiena dala, cergatic beste agrabioac proximoaz estimacioaren bat conservatcen dala eguiten dira, baño au desprecio, ta desestimacioarequin.

Modestia, alegriya consueloarequin eguitendiran itcezcó jostaquetac, Griegoac eutropelia esaten dioten virtutiaren exercicioac dira, ta guc eman diezaguque conversacio onaren icena. **Conversacio**

abec dirala medio artcen da diversio honesto bat gure imperfeccio, edo bacoitzac izaten ditugun falten gañian. Cuidado andia izan bear da orregatic ere diversio honestotic burlatarã ez pasatceco, ceñac proximoaren desprecioaren vitez parra eguitera mugitzen dute, baña diversioac, ta entretenimentuac libertade, confianza, ta adisquidetasuna mediante graciarequin esaten dan itzen baten medioz mugitzen dute, S. Luisi Religiosoac, Jaungoicoac ere revelatzen cituen gaucen gañian, jan ondoan itz eguiñ nai ciotenian, esaten cien, ez da orañ orretaraco ordua, ez bada piscabat divertitceco itz graciosoren bat bacoitzac alduen bezala honestidadiarequin esanaz; ta au. bere compañian ceuden Erreinoco personage andiac cortejatiagatic, ta ayec libertade ta confianzarequin egotiagatic eguiten zuen. Diverti gaitecen bada, christau maitia, ordu onian piscabat conversacioetan, baña animaric devocioric galdu gabe.

Juzgo temerarioaren gañian.

Ez dezazutela juzgatu , ta etcerate juzgatuac izango , esaten digu gure Salvadoriac. Ez dezazutela juzgatu dembora baño lenago Jaungoicoa etorri arteraño, ceñac aguertuco ditu illumbetaco gauza ezcutuac , ta emango ditu ezagutcera viotcen eguitecoac , esaten du San Pabloc. O cembat aborrecitcen dituen Jaungoicoac juzgo temerarioac. Guizonen juzguac dira temerarioac , cergatic ez dira bata bestiaren juezac , ta bata bestia juzgatciaz, Jaungoicoari escua arteen diote. Temerarioac dira , cergatic pecatuaren maliciatic principalena cer intencioarequin gauza eguiten dan , artan dago , ta guretzat au gauza ezcutua da. Temerarioac dira, cergatic badu bacoizac bere buruarequin cer eguiñ , besterequiñ ibilli gabe. Juzgatua ez izateco gauza abec biac berdiñ bear dira , besteric ez juzgatu , ta juzgatu bere burua ; cergatic Jesusec iñor ez juzgatceco esaten digu , ta San Pabloc gues

ren burua juzgatceco encargatcen digu,
 esanaz, guc gueran buruac juzgatcen ba-
 ditugu, ez guerala juzgatuac izango. O
 baña Jauna, guztia contrara eguiten degu,
 ez guera iñoiz gelditcen eragozten zaigu-
 na eguiten, instantetic instantera gure
 progimoa juzgatcen degula, ta aguintcen
 zaiguna, ceña da gure buruac juzgatoia,
 iñoiz eguiten ez degu.

Cer gauzaren gañian juzgo temerarioa
 eguiten dan, ala ere erremedioa, edo ari
 dagoquiona artu ber da. Badira viotzac
 beréz añ samiñac, ta vinagrezcoac di-
 ranac, ce errecibitcen duten guztia sami-
 ña, ta vinagre viurtcen dute, ta Profeta
 Santuac dion bezala, juzgoa vinagre bi-
 urtce dute, progimoaren obra guztia
 caridadiaren izpiric gabe gaiztora beti bo-
 tatcen dituztenac. Abec Medicu espiri-
 tual gucz on bat bear dute, cergatic ala-
 to viotza nola beren genioz duten, ez
 dira errazac erremediatcen, ta berez im-
 perfeccioa besteric ez bada ere genio ori,
 orregatic ere peligrosoa dá, cergatic juz-
 go temerarioac, ta murmuracioa animan
 sareracitcen dituzte. Beste batzuec juzgo

temerarioac eguiten dituzte , ez viotz sa-
 miñ , vinagrezcoaren motivoz , ez bada
 beren soberbia dala motivo , cergatic bes-
 teren creditua guchituaz berena gueitcen
 dutela iruritcen zaye. Espiritu soberbo,
 ta presumituac dira onelacoac , beren bu-
 ruaz arritcen diranac , ta beste guztiac
 ayen aldian ecer ez dirala pensatcen du-
 tenac. Ez naiz ni beste guizonac beza-
 lacoa , esaten zuen Fariseo arroac. Ez dute
 beste ascoc soberbia claro au , ez bada
 bacarric progimoaren gaitza icustiaz con-
 suelo písca bat , gaitz aren contraco berac
 dutela uste duten onian obeto gozatcia-
 gatic , ta besteren gaitzaz duten consuelo
 au añ ezcutua , ta eciñ ezagutua dá , ce vis-
 ta guztiz onarequin ez baldin bada , bes-
 tela eciñ icusi diteque , ta dutenac berac,
 ez dute ezagutcen , iñorc esaten ez ba-
 die , edo aditcera ematen ez badie. Beste
 batzuec beren buruac escusatciagatic , ta
 beren concienciaco deyac issiltciagatic
 erraz juzgatcen dute berac duten vicio
 artan , edo andiangoan bestiac viciosoac
 dirala , ta ayec bezala bestiac izatiac ayen
 pecatua chiquiagoa eguiten duela uste iza

ten dute. Asco dira ere juicio temerario-
 etan empleatcen diranac besteren costum-
 briac , ta eguitecoac adivinatcen divertit-
 cia beste motivoric ez dutela , ta suertat-
 cen baldiñ bazaye noiz bait asmatcia ,
 ñore eciñ utcieraci dien moduan gueitcen
 zaye genio ura. Beste bat-zuec pasioz
 juzgatcen dute , ta amatcen duten gauzaz
 beti ongui juzgatcen dute , ta aborrecitcen
 dutenaz beti gairqui guchitan guertatcen
 dan ocasioren batez campora , ceñian a-
 morio gueyeguiac juzgo gaiztoa eraguiten
 die amatcen duten gauzaren gañian ; gau-
 za arrigarria eguiatz , baña aren motivo-
 ari dagoquiana , ceña dan amorio ciquin
 imperfecto , turbatu , ta achacosoa , ta
 au da itz batian esateco, celoac, ceñac dira
 la motivo guztioac daquigun bezala , be-
 guiratce bacar bategatic , parra pisca ba-
 tegatic bereala juzgatcen da , lenago nai-
 cion personac galdu duela arganaco amo-
 rioa , ta bestegana viotza ipiñi duela. Bil-
 durrac , andinayac , ta gure beste argal-
 tasunac asco laguntcen dute sospecha , ta
 juzgo temerarioac eguiteco. Baña cer e-
 rremedio da , juzgo temerarioetan ez e-

rorteco ? Gende beltza jayotcen dán le-
 cuan izaten dan Erbesgorra esaten dioten
 belarraren ura eraten dutenai iruricen za-
 ye beguiratcen duten lecu gucietán sugas-
 tarra , edo serpientea , ta beste gauza i-
 zugarric icusten dituztela , ala ere so-
 bervoai , envidiosoai , andinayai , gorro-
 to dunai icusten duten guztia gaiztoa i-
 ruricen zaye. Esan deran ura eraten du-
 enac sendatu nai baldin badute palmaren
 ura eran bear dute , orobat diot esan di-
 taran gende modac gatic. Eran zazute al-
 dezuten guztia caridadiaren ardotic , pro-
 cura zazute progimoaren amorioa , ta o-
 rrec garbituco zaituzte juzgo gaiztoac e-
 guitera muguitcen zaituzten humore ga-
 izto orretatic. Caridadia , edo progimoa
 ren amorioa añ urruti dago gaitza billa-
 zetic , ce contrara , arquin topatcia bil-
 dur dá , ta noizbait topatcen baldin badu,
 arpeguia giratu , ta disimulatu eguiten du,
 ta progimoagan gaitzaric dan guchia
 senti badú , ez icustiagatic beguiac ichit-
 zen ditu ; ta nola progimoaren obrac par-
 te onera botatcera oitua dagoen , eguiaz
 sinisten dú , etzala alaco gauza gaiztoric

progimoagan , iduri eguin citzayola ; ta baldiñ noiz bait ezagutzen badu gauza gaiztoric progimoagan , aztutzera eguiten dú. Progimoaren amorioa erremedio andia dá gaitz guztietaraco , baña batez ere onetaraco. Tiricia , edo miñ oriyarequin daudenai , nola beguiac oriyac daucazquite , gauza guztiac oriyac iduritzen zaizcaten , ala juzgo temerarioco pecatua tiriciya espiritual bat dá eguiac , cergatic vicio ori dutenai gauza guztiac gaiztoac iruritzen zaizcate , ta sendatu nai dutenac erremedioa ipiñi bear dute , ez beguietan ez entendimentuan , ez bada beren animaco pasio , edo griñetan , (*) ceñac diran animaren oñac. Zure pasio , edo griñac atseguñac badira , juzgo atseguña eguingo dezu progimoagatic ; progimoaren amoriora inclinatuac badira , alacoa izango dá ere argatic eguiten dezun juzgoa. Esango dizquitzut onetaraco iru e-gemplo eder. Isaac Rabeca bere emaztea

(*) Esan nai dú : viotza garbitu bear dala soberbia , andinai , gorroto , celo , ta beste gauceratic.

gatic arreba zuela esan zuen, Abimelec
 Palestinaco Erregueac icusi zuen arequin
 jostatcen, edo chusqueatcen, au dá, ca-
 riño andiarequin maitatcen, ta aditu ba-
 zuen ere, arreba zuela, ala icusita, e-
 maztea zuela pensatu zuen. Begui gaizto-
 ren batec pensatuco zuen, Isaac, ta Ra-
 beca adisquide ciquiñen batzuec cirala,
 edo anai arrebac baciran ere, adisquideta-
 sun ciquiñian vici cirala, baña Abimelec
 caridadiaren aldera juzgatu zuen, alaco
 ocasioan izan cezaquian pensamenturic ca-
 ritativoena izan zuen. Onelasse eguin be-
 ar dá, cristau maitia, aldegun guztian be-
 ti progimoaren alde juzgatu; progimoac
 eguiten duen gauzac eun arpegui izan ba-
 ditzaque, beti ederrenari beguiratu be-
 ar diogu, beti parteric onenera bota be-
 ar degu. Ama Virgiña aurdun cegoela
 San Josec claro icusten zuen, baña nola
 beste aldetic Santa garbi, ta Ainguerutzat
 ceucan, etzuen juzgoric eguin bear etzan
 videtic ala ceguala, ta ala, utciteco as-
 moa artu zuen, Jaungoicoari bacarric juz-
 gaticia utzita. Ta gaizqui pensatceco ecin
 gueyagorañoco motivoa baldin bazuen

ere, etzuen orregatic ere, pensatu nai izandu. Baña cergatic? cergatic justua zan, dio Espiritu Santuac. Eciñ escusatu due-nian persona justuac, berac ontzat dau-can personac eguiten duen gaitza ez be-re izatian, ta ez intencioan, orregatic ere ez dú juzgatu nai izaten, ez bada pensa-mentu ura burutic quentcia procuratcen dú, ta Jaungoicoari bacarric juzgoa ut-citcen dio. Eciñ escusatu zuen guztiro gure Salvadoriac ura crucificatu zutenac ar-tan eguin zuten pecatua, baña procura-tu zuen pecatuaren anditasuna guchitcia badere, etcequitela cer eguiten zuten e-sanaz. Eciñ escusatu degunian progimoa eguin duan pecatuan, escusa dezaquegu nolaz bait esanaz, ez jaquiñian, edo ar-galtasunaz eguin duela, edo beste mo-duren batian, orrela gueroc, ta besti-ac artzaz erruquitu ditecen.

Beraz ez degu progimoa iñoiz juzga-tu bear, esango dezu cristau maitia. Ala dá, cristau maitia; ta munduco Justicia-ren tribunaletan ere gaizquillac Jaungoi-coac juzgatcen ditu, ta justiciaco personac Jaungoicoaren Ministro, ta interprete ba-

tzuec beneric ez dira. Aben abotic ematen digu Jaungoicoac aditcera gaizquilliarren contra ematen duen sententzia, ta ala justiciaco personac eciñ eman dezateque Jaungoicoac aditcera ematen ez dien, edo aren vorondatia dala ezagutcen ez duten sententziaric; ta baldiñ beren pasio gaiztoz governaturic contrara equiten badute, orduan berac izango dira Jaungoicoari escua artuta juzgatcen dutenac, ta orregatic beragatic berac ere juzgatuac izango dira, cergatic ez dú guizonac, guizona danez, beneric juzgatceco escuric.

Gauzaren bat icustia, edo ezagutcia ez dá juzgatcia, cergatic juzgoa (Escritura sagraduaren sentiduan beintzat) berez, edo iruriz guchi, edo asco erabaquitzen gaitzazan, gauzaren erabaquitcia aditcera ematen dú; orregatic esaten dú escritura sagraduac berac, sinisten ez duena, juzgatua dagoela, cergatic ez dago dudaric aren condenacionan. Esango dezu, ¿ez dá bada gaizqui izango ona, edo gaiztoa dan progimoagatic dudatcia? Ez, cergatic ez dago dudatcia devecatua, ez bada juzgatcia; baina ez dá orregatic ere cillegui dudatcen,

ta sospechatcen luzaro egotia , ez bada dembora chit laburrian arrazoyac orretaraco estutcen gaituztenian ; bestela dudac , ta sospechac temerarioac izango dira. Icusi izan bazuen begui gaiztoeren baret Jacob Raqueli putzuaren ondoan musu ematen , edo icusi izan bazuten Rebecca Eliecer Abranen morroyac , an inor ezagutcen etzuenac eman ciozcan belarri-coac , ta escu muturrecoac artcen , gaizqui pensatuco zuen seguru bi persona aien castidadiaz ; baña arrazoi , ta motivo gabe , cergatic gauza , edo obra bat berez gaiztoa ez danian , ura dala motivo gaizqui pensatcia , sospecha , edo juzgo temerarioa dá , ez baldin badú orretaraco beste arrazoiric ematen ; Eta ala juzgo temerarioa dá projimoac eguiten duen gauzaren batez , ura injuriatceco valiatcia , baña au guero claruago esango det.

Acabatcen det esanaz , beren concien-ciaz cuidado andia dutenac , juzgo temerario guchi eguiten dutela , cergatic nola erliac , turmoyarequin aicia errebolbitua sentitcen dutenian eztiya eguitera beren eultcetara erretiratcen diran , ala cristau

onac ez dira guelditcen pensatcen projimo-
aren obra errebolvituetan ez bada orretara-
co occasioa topatcetic ere beren conciencia-
ren gañian, ta vicitzaren emiendan pen-
satcera igues eguiten dute.

Alferren eguitecoa dá besteren vicit-
zac esamiñatcen ibiltcia, non ta ez dan
bere cargura daucazquienai contu egui-
tiagatic; orduan gauza santua dá, cergatic
familietaco, ta errietaco buruac, ta beste
onelacoac obligacio estua dute beren car-
gura daucazquitenai contu artceco. Cumpli
bezate bada abec amorioz beren obliga-
cioarequin, ta beste gañeracoan erretira
bitez beren concienciac esamiñatcera.

XXIX. CAPITULO.

Murmuracioaren gañian.

Juzgo temerarioac sortcen ditu inquieta-
cioa, progimoaren desprecioa, sobervia,
vanagloria, ta beste vicio asco, ta ayen ar-
tian murmuracioac dú lembicico lecua,
conversacioetaco eguiazco izurria dan be-

zala. O ceñec leucaquian Aldare santuco
brasa bat guizonen ezpañac arequin i-
cututa pecatutic garbitceco. Isaias profe-
ta santuari Serafin batec garbitu ciozcan
modura ; murmuracioa mundutic quen-
du ezquero pecatuen parte andia quen-
dua lego que.

Arrazoi gabe progimoari creditua quen-
tcen diona , eguiten duen pecatuaz gañera,
dago ere creditua biurcera obligatua beti
berdiñ ez bada ere, eguiten duen murmu-
rarioaz bat, cergatic besteren ondasunare-
quiñ eciñ iñor Ceruan sartu diteque, ta
mundu onetaco ondasunetan viciaz campo-
ra, creditu ona baño ondasun oberic ez dá.
Murmuracioa guizon iltcea dá , cergatic
guc iru vicitza modu ditugu, bata espiritu-
ala au dá Jangoicoaren gracion egotia, bes-
tia corporala , ta au dá gure gorputzaren
vicia ; ta irugarrena , personen artean vi-
citzeco bear deguna , ceña dán creditu
ona. Pecatuac quentcen digu vicitza es-
pirituala , edo animaren vicia ceña dán
Jaungoicoaren gracia ; eriorzac quentcen
digu gorputzecoa ; ta murmuracioac per-
sonen artian vicitzeco bear degun estima-

cioa, edo creditu ona. Murmuratcen due-
 nac iru eriotza eguiten ditu gueyenean
 golpe batequin. Itcen dú bere anima, ta
 murmuratcen aditcen dionarena, ta erioza
 espiritualac dira abec, eta quentcen dio
 personaren arteco vicitza, au dá creditua
 personari, ceñagatic murmuratcen duen.
 Ta San Bernardoc esaten dú murmurat-
 cen duenac, ta murmuracioa enzuten due-
 nac, biac dutela deabrua beren gañean;
 murmuratcen duenac mingañean, ta en-
 zuten duenac belarrían. Davidec murmu-
 ratzalleacgatic esaten dù, sugaztarrac be-
 zela dituztela zorrotzac mingañac. Suga-
 tarrac Aristotelec dionez, mingaña par-
 titua bezela, ta bi puntarequiñ dú; one-
 lacoa dá murmuratzallearen mingaña, cer-
 gatic golpe batean partitcen, ta puzoit-
 cen ditu aditcen dionaren belarríac, eta
 ceñegatic murmuratcen duen, aren cre-
 ditua. Escatcen dizut bada, cristau mai-
 tia, ez dezazula arren iñolaz iñor gatic
 murmuratu. Ez diozazula iñolaz ere pro-
 gimoari falso testimonioric asmatu, ez di-
 ozazula aren pecatua ezcutuan dagoana
 iñori aguertu; ez dezazula aguerian da-

goenic gueytu , edo ponderatu ez deza-
zula aren obra onagatic gaizquiric itce-
guin , edo parte gaiztora bota , ez deza-
zula argatic daquizun gauza onic ucatu,
ez ta ere galdetu ezagatic , esangabe ma-
liciaz utci , ez ta ere guchitu , cergatic
bestela gauza abetan gucietan asco ofen-
dituco dezu zure Jaungoicoa , baña ba-
tez ere falso testimonioa asmatcen bade-
zu , ta duen ona , aren agravioan ucatcen
badezu , cergatic bi pecatu dira batean,
guezurra esatia , ta orduan bertan pro-
gimoari agrabioa eguitea.

Progimoaz gaizqui esateco ura alabatcen
ta diversioan becela asiteen diranac mur-
murtzalle guztien artian fiñenac , ta pu-
zoiezcoenac dira. Esaten dute: eciñ ucatu-
co det nic person orri asco nai diorala,
ta beste gañeracoan person ona dá , ba-
ña eguia esateco , etzuen arrazoic one-
laco gaitztaqueri eguiteco ; urlia nesca-
cha , persona virtuosoa dá , baña enga-
ñatcen utci zan , onela beste milla artifi-
cio. ; Ez dezu icusten , cristau maitia,
murmuratceco artificio au ? Tiruztaiyan
flecha tiratu nay duenac alduan guztia

beraganotz tiratcen dio lembici flechari ; baña certaco ? indar gueyagorequin flecha tiratceco ; badiruri persona modu abec ere berenganontz tiratzen due-la murmuracioa ; baña indar gueyagorequin ateratceco izaten dá, orrela progimoaren falta aditcen dutenai obeto sinistueracitzeco. Parre eguiteco moduan eguiten dan murmuracioa, beste guztiaac baño gaiztoagoa dá ; cergatic nola otcerri belarra berez puzoi andicoa ez bada ere, ez bada erraz ermedia ditequena, baña ardotan sartcen baldin bada, eciñ ermedia ditequena dan, ala ere murmuracioa belarri batetic sartuta bestetic erraz ateraco litzaquena, bada ere ; itz graciosoren batequin nastuta esaten danian, chit gogotic sartzen da aditzen duenaren viotzian. David Erregue Santuac esaten duen sugue lotarien pozoya dute onelacoac beren ezpañen azpian. Sugue lotariac alde al-dian sentitcen ez dan moduan osca eguiten dú, ta atz nai atseguña sortcen dú, onen medioz viotza, ta errayac lasaitzen dira, ta errecibitzen dute po-

zoya , ta aren contra guero erremedio-
ric ez dá.

Ez dezazula iñor ordituric icusiaga-
tic ere , ordia dala esan , ez ta ere bes-
teren senar , edo emazterequin pecatu
eguiñagatic , adulteroa dala esan , ez ta
ere aidiaquin pecatu ciquiñ eguillia da-
la , orrelaco pecatua eguin duela jaquin
agatic , cergatic beingo gaitzac ez dio
ematen gauzari obra aren icena. Josue
Israelgo Capitanaren demboran egun
batian eguzquia gueldituric egon zan ,
alic eta are vitoria erabaci artian ; ta i-
llundu zan ere Jeus ilzanian , ¿ ta ce-
ñec esango du orregatic eguzquia ibil-
tzen ez dana , edo illuna dala ? iñorc ere
ez. Noe ordituzan bein , ta Lot beste bein ,
ta orretzaz gañera Lotec ordituric cego-
ela bere alabaquin seigarren mandamen-
tuaren contra usatu zuen , etzan orrega-
tic Noe ordia izan , ez ta ere Lot or-
dia , ta ez aidiaquin pecatuguillia , ez
ta ere San Pedro odolguiroa , edo crue-
la , cergatic Jesus preso artcera joan ci-
ranen aetaco bati belarria ebaqui cion ,
ez ta ere ernegua , cergatic bein erne-

gatu zuen. Vicioren baten, edo virtuteren baten icena cristauvac artzeco, edo pecatu generoren batian viciosoa dala, edo virtuteren batian virtuosoa dala esateco, costumbria izan bear du pecatu artan, edo virtute artan. Falso testimonioa dá bada urlia persona colericoa, edo lapurra dala esatia, cergatic bein coleran, edo lapurrerian icusi dan.

Bai ta ere persona bat vicioren batian luzaro ibilli bada ere peligro andia dá guezurra esateco, argatic viciosoa dala esatia. Simon Leprosoac Magdalenari peccataria deitu cion, cergatic lenago ala izan zan, ta orregatic ere guezurra esan zuen, cergatic orduan ala etzan, ez bada penitenta guztiz santa bat, ta orregatic Jesusec Simonen mingañetic defenditu zuen. Fariseoac Publicanoa peccatari andi bat zala uste zuen, ta bear bada adulteroa, lapurra, ta videgabequeriac eguiten cituena, baña engañatu zan asco, cergatic orduan bertan Jaungoicoarequin adisquide eguñic onduric guelditu zan. Añ andia dala-

ric Jaungoicoaren ontasuna , ce instante batian ipiñi lezaque persona bere adisquidetasunian ; ¿ cer seguridade izan dezaquegu , atzo pecatuan cegoana gaur ere ala dagoela pensatzeco ? Igarozan egunac ez du gaurcoa juzgatu bear , ez da ere gaurcoac igaroa , azque-necoac guztiac juzgatuco ditu.

Eciñ esan dezaquegu bada guezurra esateco peligro gabe , persona bat gaiztoa dala. Itz eguitia preciso danian esan dezaqueguna dá , onelaco gauza gaizto eguin zuela , onelaco demboretan gaizqui vicitu zala , edo oraiñ gaizqui eguiten duela , baña ecin atera dezaquegu atzotic gaurco conturic , ez ta ere gaurcotic atzocoric , ta guchiago vigarcoric.

Progimoagatic gauza gaiztoren bat jaquiñagatic ere cuidado andia izan bear degu ez esateco. Ez degu orregatic ere murmuarciotic libratciagatic , ascoc eguiten duten bezala , aren vicioagatic ongui itz eguin bear , edo alabatu bear. Persona bat murmuratzallia baldiñ bada , ez dezazula esan persona

clarua , edo malicia gabea dala , adis-
 quidetasun peligrosoa , ez diezazula e-
 man diversio inocente , edo onen ice-
 nic. Ez dezazula escusatu obedientcia-
 ren falta , celo santuaren icenarequin ,
 ez ta ere arrotasuna libertade santua-
 ren icenarequin , ez ta ere luxuria adis-
 quidetasunaren icenarequin. Ez cristau
 maitia , ez dá ongui murmuraciotic li-
 bratciagatic beste vicioac favorecitzia ,
 ta ontzat ematia , ez bada contrara , li-
 bertade guztiarequin esan bear dá ga-
 izqui gauza gaiztoagatic , ta errepre-
 ditu bear dá , ta Jaungoicoa honratu-
 co degu au eguitiaz esatera nuan condi-
 cioaquin , edo circunstanciaquin au
 eguiten badegu.

Besteren vicioac bear bezala erre-
 prenditceco , preciso dá , ceñen gatic
 ori eguiten degun , aren provechoac ori
 escatcia. Icusten baldiñ badet nic one-
 nelaco , edo alaco personen adisquideta-
 sun peligrosoac nesccaha baten aurrian
 contatcen aridirala ; edo onelaco perso-
 nac gauza ciquiñac eguiten dituela , ez
 baldiñ baditut nic gauz abec libertade

guztiarequin erreprenditcen , edo ayec
 gatic gaizqui esaten , ez bada contrara,
 escusatcia procuratcen badet , persona
 gazte ayec beste aimbesteraco occasioa
 artuco dute. Ayen provechuac escatcen
 du bada , libertade guztiarequin nic be-
 reala gauza ayec erreprenditcia , ez bal-
 diñ baderitzat obeto izango dala ayen
 provechuraco , ta gauza ayec eguiten
 dituzteneraco erreprentioa beste dem-
 bora bateco utcitcia. Ta baldiñ banaiz
 ni orrelaco gauzac esaten daudenen ar-
 tian dagoen personic principalena , or-
 duan arrazoi gueyagorequin tocatcen
 zait erreprenditcia , cergatic errepre-
 ditcen ezbadet , ontzat artcen derala
 pensatuco dute ; baña ni baño principala
 goric an baldin badago , etzait niri to-
 catcen erreprentio artan escuric artcia.
 Erreprenditcen deran casoan , cuidado
 andia izan beardet , dan baño gueyago
 itz bat ere ez esateco. Comparaciora,
 nic esaten badet urlia mutil, ta nescacha-
 ren adisquidetasuna gaizqui diruriena,
 ta peligrosoa dala , ó Jauna , cer cui-
 dadoa izan bear deran, dan baño gueya-

go ille bat ere ez ponderatceco. Adis-
 quidetasun peligrosoaren iruri bat bai-
 cic ez bada, ez det gueyago esan bear,
 imprudencia baicic ez bada, ez det gue-
 yago esan bear, ta ez baldin bada ez
 imprudenciaric, ta ez gaiztoaren iruri-
 ric, ez bada inclinacio gaitztoco per-
 sonen batec murmuratceco occasioa ar-
 tatic artu dezaquena bacarric, edo ez
 det ecer esango, edo esaten badet, ori
 esango det. Nic proximoa juzgatcen de-
 ranian, nere mingaña nere aboan zañen,
 ta mamia ezurren artian ebaqui nai duen
 Barberoaren escuan dagoen labaña be-
 zala dago. Nere migañarequin ematen
 deran golpiac añ justua izan bear du, ce
 ez gueyago, ta ez guchiago esan bear
 det. Ta izan bear degu batez ere cuida-
 doa, vicioagatic gaizqui esaten badegu
 ere, gaizqui eguin duen proximoa aldan
 moduric onenian escusatceco.

Ez dago dudaric peccatari infame, ta
 publicoac gatic itz eguin ditequela li-
 bertadiarequin, baña orregatic ere ca-
 ridade, ta erruquiarequin, ez soberbia,
 ta presuncioárequin, ez ta ere aren

gaitzaz alegratciagatic, cergatic au vi-
 otz villauvaren eguitecoa da. Beressten
 ditut guztietatic Jaungoicoaren, ta Eliz
 Ama Santaren etsai declaratuac, nola
 diran Heregeac, ta ayen doctrinac se-
 guitcen dituztenac, Aita Santuaren obe-
 dienciatic apartatuac, ta aben buruac;
 abecgatic gaizqui itz eguin bear degu a-
 leguiñ guztia; caridadia da otsoari oju
 eguitia ardien artian, edo beste eroceñ
 lecutan dagoenian. Dien afectoz bat e-
 rraz atrebitcen dira asco Erregueac-
 gatic, Erreino, ta Provincia osoacgatic
 ere murmuratcera. Ez dezazula, chris-
 tau maitia, onelaco gauzaric iñoiz e-
 guiñ, cergatic Jaungoicoari eguiten di-
 ozun ofensaz gañera, nai gabe asco iza-
 teco peligroan jarrico cera. Murmurat-
 cen aditcen dezunian procurazazu pro-
 ximoaren contra entzuten dezuna du-
 dacoa eguitia. (*) Ori ecin badezu, in-
 tencioa badere escusazazu; ta ori ere
 ecin badezu, emazu aditcera erruqui

(*) Balitzaquela guezurra izatia esanaz, e-
 do beste moduren batian.

dezula; procurazazu conversacioa islit-
cia, acordatcen cerala, ta bestiac ere
acordaeracitcen dituzula, pecatuan e-
rortcen ez diranac, Jaungoicoari esque-
rrac eman bear diozcatela, cergatic
bere escutic daucazquien; procura za-
zu modu onen batian, murmuratcen
ari diranac, eguiten duten gaizquia eza-
gututa, murmuracioari, utcitcia; esazu
murmuratcen dan personagatic gauz o-
nic baldin badaquizu.

XXX. CAPITULO.

*Beste aviso batzuec itz
eguitiaren gñian.*

Gure itz eguitiac atseguina, librea,
ascatua, tolesgabea, ta justoa izan bear
du. Engañuric, ta tolesgabe itz eguin be-
ar dezu christau maitia. Ez baldin bada
ere beti cillegui, daquigun gauza e-
satia, ez da orregatic cillegui, guezurra
esatia. Acostumbratu zaitez inoiz gue-
zurric ez esatera ez berariaz, ez escu-
saz, ta ez inolaco modutan, acordatcen

cerala , Jaungoicoa , eguiaren Jaungoicoa dala. Descuidoren batian guezurra esaten badazu , ta bereala erremediatu albadezaquezu , erremedia zazu , esandezun gauza beste moduz esplicatuaz , edo beste moduren batian. Eguiazco escusa batec guezur guztiac baño gracia gueyago du escusatceco. Ez dago dudarric , estali ditequela ascotan eguia modu disimulaturen batian , baña ez da orregatic ere au eguin bear , ez bada Jaungoicoaren honrac , ta servicioac ala escatcen duen ocasio esturen batian ; beste gañeracoan artificioac , ta disimuloac peligrosoac dira , cergatic, Escritura Sagraduac dion bezala , ez du Espiritu Santuac viotz tolesdunetan vici nai.

Ezda gauza añ on , fiñ , ta estimagarrriric nola tolesgabea izatia. Munduco prudenciac , ta artificioac mundutarraï tocatcen zaiztenac dira ; Jaungoicoaren semeac artificio , ta tolesgabe ibiltcen dira. Tolesgabe dabilena confianzarequin dabil , dio Espiritu Santuac. Guezurrac , atificioac , ta viotz tolesdunac espiritu flaco , ta ecer ez bat aditcera

ematen dute beti, San Agustiñec bere confesioetaco laugarren libruan esaten du, bere anima ta bere adisquidearena biac bat cirala, ta ura ill ezquero vicitciac ere enfadatcen zuela, cergatic viciaren erdiarequin etzuela vici nai, onengatic beragatic bildur bazan ere iltcia, bera il, ta aren adisquidea guztiro il etcedin itz eguite modu au artificiosa, ta engañosoa iruritu citzayonguero, ta ala beste libru batian desesan zan, ta eroqueria deitcen dio, itz eguiteco modu oni. Orra ceñ gaizqui iruritu citzayon San Agustiñi ala artificioan itz eguitia, ez bazuen ere ala itz eguin bere adisquidearen eriotzaz ceucan pena aditzera emateco bestetaco. Eguiaz, cristau maitia, leyalqui, artificio, ta toles gabe itz eguiteac asco edertcen du cristauven vici modua. David Erregueac esaten dú, esan zuela berac, contu eguingo ciela bere ibillerai, mingañarequin peaturic ez eguiteco. Ta Jaungoicoari esaten cion, i-piñi zayozu Jauna nere aboari guardia bat, eta nere ezpañac ate batequin ichi itzatzu,

San Luisec esaten digu, ez dezagula iñoiz iñor engañatu, guezurric ez esanagatic. Eguia claro erantzuteco, non ta orretatic pecatu, edo calte andiren bat nor baiti ez datorquion. Ta au, engaño orietatic sortzen diran ezda baida, ta quimerac eragoztiagatic, dá. Nor baiti contra eguin bear diogunian, edo arc esaten duenaren contra esplicatu nai degunian, aldan moduric onenian, errespeto ta paquetsuenian eguin bear degu; ez degu empeñatu bear ura gure iritzira nai ta nai ez ecarri nayian, cergatic modu gogor oriequin ecer erabazten ez dá.

Antziñaco Jaquintsuac aimbeste encargatzen duten guchi itz eguitia, ez dá precisamente itz guchi esatia aditzen, ez bada ecer servitzen ez duten guchi esatia, cergatic gauz onétan ez dá aimbeste beguiratzen, itzac cembat diran, nola cer modutacoac diran. Ez dá bada ez guchi, ta ez gueyegui itz eguin bear. Biac dira gaizqui diruriten gauzac, cergatic persona jaquintsun, ta grabetzat bere burua eguitia conversacio de-

centietan itz batequin ere lagundu nai ez duela, confiantzaren falta, edo desprecioren bat dala diruri. Bestiai beren gustora itz eguiteco lecuric eman gabe berac guztia itz eguinai izatia ere criantza gabea, ta presumitua izatia dá.

Etzitzayon ondo iruritzen San Luisi ascoren artian egonta batequin issillic itz eguitia, ta batez ere maian, cergatic gaizqui itz eguiten duela pensatzeco motivoa ematen dá. Ara cer esaten zuen Santuac; mayan compañia onarequin dagoenac, gustoco gauzaren bat esan nai baldin badú, guztiac entzuteco moduan esan bear dú, ta besteri esan nai diona importantciaco gauza baldin bada, ez dio mayatic jaiqui arteraño esan bear.

XXXI. CAPITULO.

Diversioaren gañian, ta lembici ñocentien gañian.

Preciso dá gure espiritua, ta gorpuzta diversioaren batequin noician beñ

divertiticia. Eiztari batec topatu zuen bein batian San Juan Evangelista eper bat escuan zuela, ura maitatcen zuela, ta esan cion; ea alaco persna izan ta, nola pasatzen zuen dembora aurqueri artan? Erantzun cion Santuac; ¿cergatic ez dacartzu zuc flecha tiratzeco ustaya, tiratzeco beti prestatua? Eiztariac erantzun cion; orrela iruqui ta indarra galdu dezan bildurrez, ta guero aren bear izaten naiceneco, ecer servitzen ez duela guelditu ez dedin. Esan cion orduan Santuac, etzaitecela bada arritu nere espirituco gauzac beti serenidadiarequin pensatzetic, descantsu piscabat artzeco, ni piscabat apartatziaz; ez det au bestegatic eguiten, ez bada guero bici-tasun gueyagorequin contemplacioan empleatzia gatic. Vicia dá duda gabe, ez beren buruai, ta ez besteri diversio piscabat artzen utzi nai ez dioten moduan gogorrac izatia.

Aidiac artzia, paseatzia, conversacio decenteren batian dembora piscabat igarotzia, guitarra, violina, edo beste

instrumenturem bat jotzia, musica cantacia, eician ibiltzia, guztiac dira añ diversio inocentiac, ze ayetzaz bear bezala usatzeco, ez dá prudencia pisca bat baicic bear, bear dán demboran, lecuan, ta bear dan moduan eguiteco.

Jocoac, ceñetan personaren habilidadia pagatzeco erabaziac serbitzen duen, nola diran pelota, urraqueta, edo sarepalaquin lumazco pelotan jocatzia, agedreza, dama jocoa, ta beste onelaco habilidadeco jocoac, guztiac diversio inocentiac, ta cillegui diranac dirá berez; bacarric cuidadoa izan bear dá ez dedilla gueyeguiric izan ez pasatzen dan demboran, ta ez jocoan ipintzen dán cantidadian, edo diruan, cergatic dembora asco pasatzen bada jocoan, ez dá diversioa izango, ez bada ocupacioa, ta ala etzayo ez gorputzari, eta ez espirituari gozamenic, ta descantsuric ematen, ez bada contrara, lenago baño ere necatuagoa guelditzen dá. Bost, edo sei ordu agedrecian jocatu ta ondoan, naguitua guelditcen dá espiritua diversioaren poderioz. Pelotan

dembora lucian jocatzia ez da gorputzari alivioa ematia, ez bada contrara, asco necatcia, ta penatcia. Diru asco jocoan ipintcen bada, erraz berotcen dira jocatcen dutenac, ta bear ez diaran gaucetara pasatcen dira. Ez da ere ongui dirurien gauza diru asco ipintcia importancia añ guchico, ta ecer servitcen ez duten habilidadietan, nola diran jocoac. Izan bear dezu ere cuidadoa, cristau maitia, diversio abetan afioric ez paratceco, cergatic diversioa, dan innocentiena izanagatic ere artan aficioa ta viotza ipintcia vicioa da. Ez det esan nai, diversioan gustoric artu bear ez dala (orrela ez litzaque diversioa izango) esan nai derana da, ez dala artan afioric ipiñi bear, ura deseatceco, artan beti pensatcen egoteco, ta eguin bear ditugun gauzac bear bezala eguitia eragozteco.

XXXII. CAPITULO A.

Joco debecatuen gañian.

Dado joco a, carta joco a, ta beste

onelacoac , ceñatan erabaztia habilidadi-
 an baño , fortunán gueyago dago , ez
 bacarric diversio peligrosoac dira danzac
 bezala , ez bada baita ere berez gaitzoac,
 ta erreprenditcecoac ; orregatic Erreino-
 etaco , ta Elizaco legueac eragotoi dituzte.
 Baña esango dezu ; cer bada orreiñ gaitz
 andia dago joco orietan ? Joco abetan era
 bacia ez dator arrazoyaz bat ez bada for-
 tunaz bat , ceñac gueyenian bere habili-
 dadia gatic batere mereci ez duenari ema-
 ten dio , ta onetan agrabioa eguiten zayo
 arrazoyari. Baña esango dirazu , ont-
 zat eman degu ori jocoan asi gueranian ;
 orrec valio du esateco , erabazten duenac
 ez diela bestiai agrabioric eguiten baña ez
 du valio esateco , zuec ongui eguin dezu-
 tela convenio ori eguitian , ta ez dala ori
 arrazoi guztiaren , ta jocoaren contra cer-
 gatic habilidadearen pagua izan bear duen
 erabacia , fortunaren pagua eguiten dezu-
 te , ta onec ez du mereci precioric , ta pa-
 guric batere , cergatic ez du personac
 artan ez arteric , ta ez parteric. Onetzaz
 gañera , jocoac diversioaren icena dute,
 ta onetaraco eguin ciran , baña ez dira

oriec inñolaz ere ala , ez bada ocupacio necosoac. ; Nola ez da izango ocupacioa, espiritua lotua, ta milla inquietacio requin, bildur , ta estuasunequin necatua iruquitcia ? ; Bada venturaz jocalarien atencioa baño tristeagoric, ta melancolia gueyagocoric? Orregatic ez da itcic eguiñ be- ar jocatceco demboran , ez ta ere ez parric ta ez eztulic , cergatic pesalumbria ematia izango litzaque.

Itz batian , ez da jocoan consueloric erabazten ez bada , ta consuelo au eciñ arrazoyezcoa izan diteque , cergatic ez da posible ori izatia contrarioaren consueloa galdu gabe ; villauba dá eguiaz consuelo au. Aditu zuen beñ batian San Luis Erregueac Anconaco Conde bere anayac ta beste personage andi bat jocoan ari cirala, oyan eri bacegoen eré jaiqui zan, ta joanzan ayec jocoan ari ciran guela . edo aposentora , artu cituen ayec jocatcen ari ciran ol , ta dadoac diru pusca batequin batian , bota cituen leyotic bera , ta biac gogotic erreprenditu cituen. Sara doncella Santac esaten cion Jaungoicoari ; ondo daquizu Jauna , ez derala inñoiz joca lariquin tratatu.

XXXIII. CAPITULO A.

*Danza , ta beste diversio , cilleguñ
badira ere , orregatic ere
peligrosoac diranen gañian.*

Danzac beréz ez onac , ta ez gaiztoac dira , baña gueyenian eguiten diran moduan gaitcera chit arrimatuac dira , ta orregatic beragatic chit peligrosoac. Arratsian, ta illumbetan eguiten badira , erraz dá bear ez diran milla gaucetan erortcia berez añ peligrosoac izanic. Oriec dirala motivo arratsian berandu echeratcen dá, urrengo goician berandu jaiquitcen dá, gaitcen dá beragatic goiz ayetan Jangoicoa servitceco modua ; ta itz batian esaten det , beti dala eroqueria andia arratsac egun eguitia , edo egunarequin trucatcia , arguia illunarequin , obra onac eroqueriaquin. Vanidadia eramaten dute guztiaac bata bestiaren leyan dantzara , ta disposicio añ andia dá vanidadia , aficio gaizto , ta amorio peligroso ta gaiztoetaraco , ce erraz sortcen dá danzan guztia.

Dancen gañian , cristau maitia , Medi

cuac cizac gatic , ta perrechicuac gatic esaten dutena esaten dizut ; onenac batere balio ez dutela ; ta nic esaten det danzaric onenac ez dirala chit onac. Baña orregatic ere cizac noiz bait jan bear badi-tuzu , procura zazu ondo guisatuac egotia : esan nai dizurana dá , ecin escusa dezaquezun ocasioren batian danzara joan bear badezu , procura dezazula , zure danza ongui guisatua egotia ; Baña nola izango dá au esango dezu ? Erantzuten dizut , modestiarequin , errespetoarequin , ta intencio onarequin danzatu bear dezula. Guchi , ta guchitan jan bear dirala perrechecuac esaten dute Medicuac , cergatic aldan onguiena guisatuac egonagatic ere , asco , edo ascotan jatiac pozoi biurtcen ditu. Guchi , ta guchitan danzatu bear dezu , cristau maitia , cergatic bestela aficionatuco cera vanidade orretara.

Nola cizac , (orobat perrechicuac) arroac , ta eciñ conta ala zulo chiqui chiquiac dituztenac diran , erraz berengantcen dute aien aldian dan puzoi antza guttia , ta ala sugastarraren , edo serpientiarren aldian baldin badaude , ayen pozoiiaz

cutsuteen dira. Danzac, ta beste onelaco
 junta peligrosoac berenganatcen dituzte
 gueyenian errian diran vicioac. Sortcen
 dira orietatic aserriac, envidiac, burlac, ta
 amore eroac, ta nola iriquitcen dituzten
 diversio oriec danzatcen diranen gorput-
 ceco zulo chiqui, chiquiac, ta ecñ icu-
 si diranac, ala ere viotzarenac iriquitcen
 dituzte; ta ala sugastarraren antcecoren
 batec esaten badú itz ciquiñen bat, ca-
 riño engañagarriren bat, edo beste ero-
 queriren bat, edo ersuguo, edo basilisco-
 aren antcecoren batec beguiratce cariñoso-
 ren bat eguiten badie, chit prest daude
 viotzac pozoitceco, bear ez dan gauzan
 consentitceco.

Diversio ero oriec, cristau maitia, chit
 caltegarriac dira gueyenian, galtcen dute
 devocioco espiritua, flacateen dituzte a-
 nimaco indarrac, oztutcen dute Jaungoi-
 coaren amorioa, ta milla pasio gaizto a-
 niman sortcen dituzte, ta orietzaz usatu
 bear baldin bada, aldan prudentciaric an-
 dienarequin usatu bear dá.

Medicuaac esaten dute, perrichecuen ga-
 ñian ardo ona eran bear dala; ta nic ere

diot, eguin bear dirala danzatu onduan consideracio santuren batzuec, ayetan artu dan gustoac gure animan eguin ditzaquien calteac eragozteco. Baña cer consideracio? Ara bertan.

Considera zazu lembici, zu dantzan cembiltzan demboran asco anima ceudela infernuan penatcen diversio orietan eguin cituzten pecatuac gatic, edo oriec cirala motivo eguin cituztenac gatic.

Considera zazu bigarren, zu dantzan cembiltzan demboran nola asco Religioso, ta Religiosa, ta persona devoto Jangoicoa alabatcen, ta aren ontasuna consideratcen ceuden. O cembat, zuc baño, obetoago dembora empleatcen zuten!

Considera zazu irugarren, nola zu dantzan cembiltzan demboran asco anima congoja andiaquin mundu onetatic atera ciran; nola orduan bertan padecitcen cituzten eciñ conta ala trabaju, ta eritasun andiac, batzuec beren echean, besteac hospitalean, ichasoan, ta lecu ascotan; batzuec gota, bestiac mal de de ijada, bestiac sayetseco miña, ta onela asco pena genero baterę descansuric gabe. Erruqui

zaitez, ta pensa zazu zu ere bear bada egu
nen batian beste aimbeste padecitcen e-
gongo cerala, zu oraiñ bezala bestiac dan-
zaten dabilzan demboran.

Considera zazu laugarren, nola Jesu-
sec, Ama Virgiñac, ta Aingueru Santu-
ac danzan icusi zaituzten, ¡ O ceñ erru-
qui ciñuzten zure viotza eroqueri aye-
quin añ bat eguiña icusita!

Cosidera zazu bostgarren, nola zu an-
ceunden demboran, dembora igaro zan,
ta eriotza alderatu zan, beguira zazu no-
la zutzaz burlatu dan, ta bere danzara
deitcen dizun, ceñian zure aideric urre-
nen negarrac izango dira zure bioliñac,
ta ez dezu danza artan vicitzatic eriotza-
ra igarotcia beste mudanzaric eguingo.

XXXIII. CAPITULO.

Noiz jocalu, ta noiz danzatu ditequean.

Bear becela jocalceco, ta danzatecco
preciso dá ez afieioz, ez bada diversioz
gauza abec eguitia, dembora guchian,

ta ez necatu, ta espiritua galtceraño, ta guchitan ere izan bear dú, cergatic ez litzaque bestela diversioa izango, ez bada ocupacioa. ; Noiz jocatu, ta danza diteque bada? Danzatzeco, ta devecatuac ez dauden jocoetan jocatceco ocasio justuac gueyagotan izaten dira; joco devecatuetan jocatceco guchiagotan, ta orretzaz gañera joco abec gaizquiago diruritenac, ta peligrosoagoac dira. Baña itz batian esaten dizut, danzatu, ta jocatu dezazula lenago esan dizquitzuran condicioaquin nor baiti gusto ematia gatic zure prudenciata discrecioac consejatcen dizutenian, cergatic besterequin cumplitu naiá nola progimoaren amoriotic datorren, beréz ez onac, ta ez gaiztoac diran gauzac, onac eguiten ditu, ta peligrosoac diranac cillegui eguiten ditu, ta nola bait gaiztoac diranai ere quentcen die beren gaiztoatasuna. Arrazoi onegatic fortunaco jocoac berez devecatuac badira ere, besteri gusto ematiagatic ayetan pisca bat jocatcen degunian, ez dira ocasio artan guretzat devecatuac. Asco alegratu nau San Carlos Borromeoc, beste gañeracoan añ go-

gorra , ta estua zan gaucetan Esguizaro-
 ai gusto ematiac berac deseo zutena e-
 guñaz. Bai ta ere San Ignacio Loyolaco-
 ac bestec jocatcera convidatuta artan gus-
 to ematia. Santa Isabel Ungriacoa danza-
 tzen zan noiz , edo noiz diversioco com-
 pañian arquitzen zanian devocioari calte-
 ric eguin gabe , ceña añ sartua cegoen
 aren animan , ce nola Reatico ondoco i-
 chas ur andia inguratzen duten arrocac
 ichasoaren bagaquin acitzen diran , alá
 Santa onen devocioa ere acitzen zan bere
 izate andiarequin cumplitu bearrac ipint-
 cen zuen munduco vanidadien artian. Ai-
 cetan gartzen diran sú andiac dira abec,
 baña chiquiac , estalita eramaten ez badi-
 ra , itzali eguiten dira (*)

(*) E san nai dú , onelaco ocasioetan virtute
 andico personac sendoagoac eguiten dirala vir-
 tutian , baña virtute chiquicoac galdu eguiten
 dirala ecin gueyagorañoco cuidadoa paratzen
 cz bada.

XXXV. CAPITULO A.

*Leyalac izan bear degula gauz andi,
ta chiquietan.*

Esposo Santuac canta gozoetaco libruan esaten dú, Esposa Santac eramandiola viotza bere begui batequin, ta bere buruco ille batequin. Campotic agueri diran gorputzaren parte guztietan ez da beguiac baño gauza estimagarriagoric, dala bere izate moduagatic, dala bere almen, edo gauza ascotara luzatzen dan poderioagatic; ez ta ere illiac baño provechugarriagoric. Nai dú bada eman aditcera esan deranarequin Jangoicoac ez bacaraic obra andiac dirala aren gustocoac, ez bada bai ta chiquiac, ta aren gustora vicitceco nola andietan, ala chiquietan izan bear degula contuzcoac, cergatic nola batzuec, ala bestiac dirala medio quendu diozaquegu amorioz viotza.

Zaude bada prest, cristau maitia, Jangoicoagatic trabaju andiac sufrítceco, bai ta ere martirioa. Zaude vorondate osoarequin, zuc gueyena estimatcen dezun

gauza berari emateco, berac artu gusto badú; dala aita, dala ama, anaya, senarra, emaztea, humea, zure beguiac, zure bicitza, cergatic onetaraco guztiraco prest iruqui bear dezu zure viotza. Bana Jaungoicoaren providenciac orreñ gauza andiac bialtcen ez dizquitzun ezquerostenic, ta beguiac escatcen ez dizquitzun ezquero, emayozcatzu illiac badere.

Esan naidet; agrabio chiquiac gustora sufritzatzu: sufritzatzu incomodidade chiquiac, ondasunen galera chiquiac, ceñac ascotan guertatcen diran gauzac dira, ta padecitceco ocasio abetzaz paciencia, ta amorioarequin aprovechatuaz, erabacico dezu guztiro Jaungoicoaren viotza, ta aren jabe eguingo cera. Eguneroco nequecho abec, buruco miña, ortzetaco, edo aguiñetaco oñacia, beguietaco jarioa, senarraren, edo emastearen aserre antza, vaso bat austia, desprecioa, edo arpeguigaiztoa bestec ipintcia, guantiac, edo e-raztuna edo pañueloren bat galtcia, arratsian goiz oyeratciaz sentitcen degun incomodidadia, goician goiz oracioraco, ta comulgatceco jaiquitceco, devocioren

batzuec aguirian eguitian, sentitcen de-
gun lorsa, ta beste onelaco neque chi-
qui asco gogo onarequin artcia eciñ gue-
yagoraño gustatcen zayo Jaungoicoari, ce-
ñac vaso bat ur gatic ere prometitua dauca
consuelo guztien ichasoa bere adisquidiai,
ta nola sufrimentu chiqui abetaco ocasioac
añ maiz izaten diran, ongui artu ezque-
ro, medio andiac dira animaco ondasun
asco eguíteco.

Santa Catalina Senacoaren liburuan ira-
curri nuenian, aimbeste bider espirituan
sentiduetatic ateratcia, aimbeste itz ja-
quintsu, ta aimbeste sermoi berac egui-
ñac, ez nuen dudatic ipiñi, contemplacio-
co begui onequin bereganatu zuela Ceru-
co Esposoaren viotza, baña ez nintzan
guchiago consolatu, iracurri nuenian, cer
humildadiarequin empleatcen zan bere ai-
taren sucaldian burrunziari eraguiten, su-
eguiten, jana componcen, oguia eguiten,
ta eheco beste lan guztietan Jaungoicoa-
ren amorioz beteric; ta ez nuen guchia-
goan iruqui eguite humill ayec cirala me-
diante izaten zuen meditacio chiquia, ta
humilla, bere sentiduetatic ateraturic, Ja-

ungoicoarequin contemplacioan izan ci-
tuen egote gozoac baño, ta balitzaque
etcirala izango contemplacioco consuelo
ayec, ez bada eguiten cituen consideracio
humillen paguan. Ara cer consideracio-
ac eguiten cituen echeco eguitecoetan ce-
billela.

Bere aitaren jana prestatcen arizanian
pensatcen zuen, Santa Marta bezala Je-
susenzat prestatcen ari zala. Amari, Ama
Virgiña izango baldiñ bazan bezala be-
guiratcen cion, ta anaiai, Apostoloac izan-
go baldin baciran bezala, ta ala esan di-
turan personac servituco baldiñ bacituen
bezala, servitcen cituen bere echecoac, ta
orregatic beragatic consuelo andiarequin
empleatcen zan echeco cer eguin ayetan
ura zala Jaungoicoaren gustoa ezaguturic.
Exemplo au esan dizut, christau maitia,
zuri eracustiagatic, cembat valio duen
gure obra onac chiquiac izanagatic Jaun-
goicoaren serviciora encaminatcia.

Orregatic encargatcen dizut viotz guz-
titic, christau maitia imita dezazula Salo-
monec aimbeste alabatcen duen emacume
indarsu au, ceñac, berac dion bezala, be-

re escua gauza andi, noble ta guztiz estima garrietan ipintcen zuen, ta orregatic ere etzuen irutia utcitcen. Ipiñi zuen bere escua gauza andietan, ta aren biatzac ardatza artu zuten, dio Salomonec. Ipiñi zazu christau maitia, gauza andietan escua, au da emplea zaitez oracioan, meditacioan, ta Sacramentuac errecibitcen, progimoen viotzac Jaungoioaren amorioan irazaquitcen, conseju onac ematen, itz batian importanciaco obra santu andiac eguiten, zure estaduari ongui dagoqui-onaz bat, baña etzaitecela orregatic zure ardatzaz, ta linayaz aztu; esan naidet, virtute chiqui, ta ecer ezac diruritenac ere exercita ditzatula, ceñac loreac bezala acitcen dira gurutciaren oñian; pobriac socorritcia, eriyac visitatcia, familiari contu eguitia, ta eheco beste eguitecoac cumplitcia, ta beste onelaco gauzac; ta procura zazu orietan guztietan Santa Catalina Senacoac bezalaco consideracioren batzuec eguitia.

Jaungoicoa gauza andietan servitceco occasioac guchitan izaten dira, baña chiquietan servitceco, instantetic instantera,

ta gauza guchian leyala dana , gauza andian ipiñia izango dala , dio Jesusec. Zure obra guztia Jaungoicoaren icenian eguitcitzu , ta ongui eguiñac izango dira guztia: jan dezazula , eran dezazula , lo eguin dezazula , diverti zaitecela , gira dezazula burruntcia , edo beste eroceñ gauza eguin dezazula , zure ondasunac bear bezala aprovechatcen badituzu , Jaungoicoaren vorondatia cumplitcia gatic gauza abec guztia eguiñ ezquero , beraren aurrian asco erabacico dezu.

XXXVI. CAPITULO A.

Justu , ta arrazoyezcoac izan bear degula.

Ez guera guizonac ezbada arrazoyagatic , ta orregatic topatcen dira eguiaz arrazoyezco persona guchi , cergatic gueren amorioac gueyenian apartatcen gaitu arrazoyatic , eraguiten dizquigula sentitcen ez degun moduan milla videgabequeri , ta maldade modu , chiquiac izanagatic ere peligrosoac , ceñac Canta gozoetaco libru-

an contatcen diran azari chiquiac bezala
galtcen dute mastiya ; (*) cergatic nola
chiquiac diran ez da ayetzaz casoric egui-
ten , ta nola asco diran calte andia egui-
ren dute , gauzacho batzuec orañ esango
dizquitzut ta esango dirazu guero , mal-
dadiac , ta arrazoi gabeco gauzac diran,
edo ez.

Gauza guchi gatic ere gaizqui juzgat-
cen degu gure progimoagatic , ta ezditugu
juzgatcen gueren buruac gauza andian ere ;
garesti saldu nai degu , ta merque erosi,
nai degu bestiac castigaticia , ta guri bar-
caticia ; gure itzac bestiac onera artcica nai-
degu , ta guc besterenac gaitcera artcen
ditugu ; bere precio justua eman nai dio-
gun ezqueroz , nai guenuque guri proxi-
moac bere gauza saltcica , ; ez da arrazoya-
go berac iruquitcica ? quejatcen guera cer-
gatic ez gaituzten officio , edo empleoren
batian acomadatu nai ? ez da arrazoyago
officio artan dagoena quejatcica , cergatic
bere acomodua quendu nai diogun ?

gauza batera oitutcen baldiñ baguera,

(*) Animan calte andiac eguiten dituztela.

beste guztia despreciatcen ditugu , ta gu-
 re gustocoa ez dan gauzaric icusi nai ez-
 degu. Baldin badegu gure genioarequin
 ongui ez datorren miraberen bat edo le-
 nago aborrecitu deguna, arc eguiten duen
 guztia gaizqui eguiña iruritcen zaigu , ta
 beti ura penatcen , ta erreprenditcen ari-
 guera ; beste bat berriz , guere gustocoa
 baldiñ bada , eguiten duen gaitz guztian
 ere escusatu nai izaten degu. Asco hume
 virtuoso dira gurasoac icusi nai ez dituzte-
 nac gorputcian duten faltaren bategatic ;
 beste batzuec berriz viciosoac izanagatic,
 estimatuac dira gurasoen gandic gorputce-
 co prenda , edo gauza estima garriren ba-
 tegatic. Gure estimacioric andienac abe-
 ratsac eramaten dituzte , pobriac baño
 calidade , ta virtute gueyagocoac ez izana-
 gatic. Orobat , onguiena janciac dira gu-
 retzat estimatuenac. Artcecoac cobratceco
 puntualac guera, baña ez zorrac pagatceco,
 ta etzaigu ere gustatcen escatcia , guri gu-
 re artcecoac escatcia guztatcen bazaigu
 ere. Tocatcen zaigun jarlecua contuare-
 quin guardatcen degu , baña bestiac hu-
 millac , ta bestiai beren lecua utciçia nai-

degu. Erraz quejatcen guerra progimoagatic, ta ez degu gugatic inor quejatcia nai. Beste gatic eguiten deguna asco iruritzen zaigu beti, ta bestiac gugatic eguiten dutena ecer eza beti iruritzen zaigu. Itz batian, Paflagoniaco eperrac bezala guc ere bi viotz ditugu bata atseguina, ta cortesa guerontzat, ta bestia, gogorra, ta estua gure progimoarenzat. Ditugu ere bi pisu, bata gure convenienciac ventaja guztiarequin pisatceco, ta bestia, progimoarenacaldan laburrena pisatceco. Ta Escritura Sagraduac esaten duen bezala, ezpan enganoac viotz batian, ta viotzarequin itz eguiten dute; esan nai du, bi viotz dituztela. Ta bi pisu iruquitcia, bat andia errecibatceco, ta bestia chiquia emateco, gauza gorroto garria da Jaungoicoaren beguetan.

Justua izan zaitez, christau maitia, zure gauza guztietan. Jarri zaitez cerori progimoaren lecuan, ta ura zurean ipini zazu, ta orrela ongui juzgatuco dezu. Izan zaitez saltzallia erosten dezunian, eta eroslia saltcen dezunian, ta orrela beardan bezala erosi, ta saldu eguingo dezu.

Vide gabequeri abec guztiaq chiquiac dira, cergatic, errestitucioric eguitera obligatcen ez dute, ez baldin bada pasatcen gure provechuraco diran gaucetan esan deran bezala estuac, ta contuzcoac izatetic, baña emendatu bear degu orregatic ere orietan, cergatic arrazoyaren, ta caridadiaren contraco defecto andiaq dira, ta guezurretan, ta embusterietan azquenian gelditcen dira, ta ecer galtcen ez da viotz justu berdin, ta arrazoyezcoarequin generosoac, prestuac, ta cortesac izatiaz. Examina zazu maiz zure viotza, ea alacoa dan zure progimoarentzat, nolacoa naico cenuquien izatia zure progimoarena zuretzat, aren lecuan baldin baceundeque; au dá eguiaz arrazoyezcoa izatia. Trajano Emperadoria gatic esaten zuten librieguia zala; eroceñequin tratatcen zuela, bere igual batzuequin bezala, bere buuari errespetoric, ta anditasunic ecartcen etciola. Adituzuenian au esan cien; eguia diozute; baña ezdet nic nere cargura daucazquidanaquin, ta beste guztiaquin alaco Emperadoria izan bear, nolacoa naico nuquien nere Emperadoria izatia zuec

dezala persona particularra , edo mendean
lagoena baldin banintz?

XXXVII. CAPITULO A.

Descoen gañian.

Guztiac daquite gauza gaiztoric dese-
atu bear ez dala , cergatic gauza gaizto-
aren deseoaac gaiztoaac eguiten gaitu. Baña
nic gueyago esaten dizut, christau maitia,
ez dezazula anima galtceco peligroco gau-
zaric deseatu , nola diran jocoac , danzac,
ta beste onelaco diversioac , ezta ere hon-
rac , ta officio honracoac , ezta ere zure
sentiduac galduric Jaungoicoarequiñ con-
templacioan egotia , edo modu miragarri-
an Jaungoicoac bere gauzac zuri aditcera
ematia , cergatic vanidade , ta engañuco
peligro andia da gauza abetan. Ez deza-
zula deseatu guertatceco orañdic dembo-
ra asco falta dan gauzaric. Ascoc eguiten
dute , au , estutcen dira , ta consumitcen
dute provechu gabe beren viotza , ta in-
quietacio andiac izateco peligroan jartcen-
dira. Guizon gazte batec dembora alle-

gatu baño lenago , officioaren bat deseat-
 cen badu , certaraco servitcen dio deseo o-
 nec? Emacume ezcondu batec Monja iza-
 tia deseatcen badu , certaco servitcen dio
 deseo orrec? Deseatcen baldiñ badet nic
 nere progimoaren gauzaren, bat, arc salt-
 cia deseatu baño lenago, ezda au dembo-
 ra galtcia? Eri nagoela , deseatcen badet,
 predicatcia , Meza esatia ; eriyac visitat-
 cia ta osasunian dagoenac eguiñ ditza-
 quien beste obra onac eguitia , ; ez dira
 abec alferricaco deseoac? bada ala nagoe-
 la ez dago nere escuan gauz oriec eguitia,
 ta bitartian alferricaco deseo oriec ocu-
 patcen dute beste deseoac izan bear lute-
 quien lecua , nola dan sufritia , Jaungoi-
 coaren vorondatian conformatua , mor-
 tificatua , ta paquetsua nere gaitcetari iza-
 tia , ta au da orduan ni gandic Jaungoicoac
 deseatcen duena ; baña gu gueyenian aur-
 dun dauden emacumeac bezala guera gure
 deseoetan ; onela dauden emacumeac gue-
 reciac, ta marrubiac uda azquenian nai iza-
 ten dituzte , ta mats frescuac uda berrian

Etzait niri iñolaz ere gustatcen estadu
 batian dagoen personac estadu arequin

ongui ez datorren vici moduric deseatecia,
 ez ta ere daucan estaduarequin ongui ez
 datorren devocioco egercicioric ; cerga-
 tic onec viorza divertitcen dú , ta emple-
 atu bear duen egercicio santuetan emplea-
 tceco oztu eguiten dú. Cartujuac aimbat
 erretiro nic deseaten badet, dembora gal-
 tcia baicic eguingo ez det , ta deseo onec
 ocupatuco dú , daucandan empleoarequin
 ongui cumpliteco, izan bear deran deseoa-
 ren lecua. Ez nuque nai ere entendimen-
 tu gueyago izatia deseatecia , cergatic au
 ere alferricaco deseoa dá , ta bacoitzac due
 naz aldan guztia aprobechatceco izan be-
 ar duen deseoaaren lecua ocupatcen dá , ez
 ta ere Jaungoicoa servitceco era gueyago
 izatia , ez bada danaz aldan onguiena a-
 provechatcia ; ansia andiac gatic , ta
 ehit maiz izaten diranac gatic , entendi-
 tcen dá , ez noician beingo ansia gabeco
 deseoaac gatic , cergatic abec ez dute in-
 quietacio , ta beste calteric eguiten.

Ez dezazula deseatu oraindaño aditce-
 ra eman dezun sufrimentuarequin ongui
 ez datorren penaric, cergatic aguerian da-
 go ; gauza parragarria dala, martirioa de-

searcia , injuria chiqui bat eciñ sufricuta. Etsayac sortcen dizquigu ascotan iñoiz izango ez diran gaucen deseoc , orain ditugunetic divertitciagatic , ceñac chiquiac izanagatic ere animaco on andia eguingo liguteque bear dan bezala aietzaz aprobexatu ezquero. Garaitcen ditugu gure ustian Africaco sugastar , ta beste gauza izugarriac , ta utcitcen guera iltcen atencioaren faltaz , vidian dauden sugue , ta beste ecer ececo animalien gandic. (*)

Ez dezazula tentacioric deseatu , cergatic gueyeguico atrevimentua izango litzaque ori , ez bada zaude animo andi batequin etortcen zaizquitzunai contra eguiteco , ta ayetatic defenditceco.

Janari diferentiac , batez ere asco jaten bada , beti cargatcen dute estomagoa , ta flacoa , edo ingar guchicoa baldin bada , guztiro galtcen dute. Ez dezazula zure viotza deseoc gueyeguiac bete , ez mundo gaucenarequin , ta ez animacoare-

(*) Esan nai du : gauza andiac sufrituco guenituquela uste degula , erociñ simplezac paciencia galtcen digularic.

naquin , cergatic munduco gaucenac guz-
 tiro galtcen dute , animacoarenac guey-
 egui ocupatcen dute ta eguin bear duena
 eguitia eragozten diote.

Pecatuetatic , ta bear ez diran aficioe-
 tatic gure anima garbitua dagoenian , gau-
 za santuen apetitu guztiz andi bat izaten
 dú , ta ala deseatcen dú empleatcia mi-
 lla devocio modutan , mortificacioan hu-
 mildadian penitencian , caridadian , ta o-
 racioan. Señale ona dá , cristau maitia ,
 baña beguira zazu ongui , jateco gogoa
 dezun guzia digeritu aldezaquezun. Ar-
 tutcitzu deseatcen dituzun gauz orietatic
 zure aita espiritualaren consejuarequin o-
 raiñ eguin ditzaquezunac , ta procura za-
 zu orieć ongui eguitia. Au eguiñ ezque-
 ro , Jaungoicoac bialduco dizquitzu gue-
 yago bere demboran , ta onela ez dezu
 demboraric galduco alferricaco deseoetan.

Ez det esan nai deseo onac utzi bear
 dirala , ez bada bacoitza bere demboran
 cumplitu bear dala , ta oraiñ cumplitu e-
 cin dana gordetzeco viotzian bere dembo-
 raraco , bitartian cumplitu oraiñ dembo-
 ra dutenac , ta ez diot au gauza santueta-

co deseoac gatic bacarric , ezbada bai ta
ere munduco eguitecoen deseoac gatic ,
cergatic bestela sosegu , ta descantsu ga-
be bicico guera.

XXXVIII CAPITULOA.

Ezconduentzat a visoac.

Matrimonioa Sacramentu andi bat dá,
nic diot Jesu Cristo-gan , ta Eliza-gan.
Honratcecoa dá guztiengandic , guztietan
ta guztiro , au da , bere parte guztietan.
Honratcecoa da guztiengandic , cergatic
virgiñac , edo ezcondu gabeac berac ere
honratu bear dute bera humildadiarequin.
Honratcecoa dá guztietan , cergatic nola
aberatsetan , ala pobreetan gauza santua
dá. Honratcecoa dá guztian , cergatic Sa-
cramentu onen sortcia , fiña , provechuac,
celebratceco , edo eguiteco modua , ta
gaya gauza santuac dira. Ceruraco escogi-
tuen numeroa cumplitceco , mundua cris-
tauvez betetcen duen cristandadeco muñ-
teguia dá , ta ala Matrimonioco ona con-

servatcia guztiz importa zayo munduari,
 cergatic ura gabe ecer valioco ez luque.
 Ojala Canango eztayetara deitu zuten be-
 zala, beste eztaya guztietara ere deituco
 baluque Jesus, ez litzayeque novio, ta
 noviai inoiz faltatuco animaco consueloen
 ta bendicioen ardo gozoa, ta au gueyen-
 an ezcondu, ta lembicico egunetan guchi
 baicic ez izatia, izaten dá, cergatic Je-
 sus, ta Ama Virgiña eramán bearrian,
 Adonis, ta Venus beren eztayetara era-
 maten dituzte. (*)

Arcume eder, ta colore ascotacoac Ja-
 cob bezala izan nai dituenac, ipiñi bear
 ditu arc bezala ardiñ aurrian humea ar-
 tcera batutcen diranian, cigor eder, ta
 colore ascotacoac, ala ere matrimonio ona
 suertatcia nai duenac, ipiñi bear lituque ez-
 contcera dijoanian beguien aurrian Sacra-
 mentu onen santutasuna, ta anditasuna,
 baña onetzaz azturic milla picardia guer-
 tatcen dira, diversio, jate, ta conversa-

(*) Esan nai dú: honestidadiarequin cele-
 bratu bearrian eztayac, lujuriarequin celebra-
 tcen dirala.

cioetan , ta ez dá guero arritcecoa azquen gaiztoac suertatcia.

Ezconduai nic Espiritu Santuac aimes-
te encargatcen dien alcarrequico amorioa
encargatcen diet beste guztiaz gañ , ta
ez dá au esatia , ama ditecela amorio ja-
torrizco , edo naturalarequin , cergatic o-
rrela usa tortolac ere alcar amatcen dute ,
ez ta ere guizatasunac berez escatcen du-
en amorioarequiñ , ori Gentillac ere eguiñ
izan dute , ez bada San Pablореquin bati-
an diorana dá : amaitzatzute senarrac zu-
en emazteac Jesu Cristoc Eliza bezala ;
amaitzatzute emazteac zuen senarrac Eli-
zac bere Salvadoria amatcen duen bezala.
Jaungoicoac batu zuen Eva gure lembici-
co aita Adanequin emaztetzat ematen cio-
la , Jaungoicoac zuec ere batu zaituzte ,
cristau maitiac , Matrimonioan , ; cerga-
tic bada etcerate amatcen amorio guztiro
santu , ta Jaungoicozcoarequin ?

Amorio onec zuetan lembici eguin be-
ar duena dá zuen viotzac iñoiz aparta-
tucó ez diran moduan alcarrequin bat e-
guitia. Bi piñu ól litsaquia , edo cola-
requin bat eguiten badira , litsaquia fi-

ña baldin bada añ irauncorra izango da bat eguite ura , ce lenago autsicoda ól ura beste eroceñ aldetic , litsaquiaren aldetic baño ; Jaungoicoac batutcen ditu senar-emazteac bere odol propioan , ta ala bat eguiñic egote au añ iraun corra da, ce lenago apartatu bear dute animac , ta gorputzac , senar ta emazteac bata bestia gandic baño ; ta bat eguiñic egote au batez ere aditcenda viotz afecto , ta amorioaren aldetic ; abequiñ bat eguiñic egotia da batutceric principalena.

Amorio onétatic bigarrenge, jayo bearduena da alcarganaco leyalac izatia. Escritura sagraduac dionez , antciñaco zarrac ezcutuan , ta ichiyan egotia nai zuten gauzac , biatcian usatcen zuten erraztunarequiñ sellatcen cituzten. Au da bada ezcontceco demboran Elizan eguiten dan ceremoniaren secretoa. Bedeincatcendu Sacerdotiac eraztun bat , ta ura novioari lembici emaztiac , aditcera ematendu , sellatcenduela erraztun arc aren viotza sacramentu aú dala medio , bere emaztea viciduen artian iñoiz gueyago beste emacumeren ez icenic , ta ez amorioric bere viorci

an ez errecibitceco. Guero novioac erraz-
 tun ura bera ipintcen du noviaren escuan,
 edo biatcian , arc ere jaquin, dezan artcen
 duen guizona vici dan artian, ez diola bes-
 te guizonen aficiori lecuric eman bear.

Matrimonio santuaren irugarren fru-
 tua aurren izatia , ta ayen crianza ona da.
 Honra andia da zuentzat, ezconduac , Ja-
 ungoicoac, bera beti bedeincatu , ta alaba
 dezatequen animac gueitu nai izanic , o-
 bra añ andiraco zuetzaz valiatu nai izatia
 berarequiñ bat gorputzai izatia ematen
 diozutela , ceñatan, ecer ecetic sortcen di-
 tuen animac Ceruco intza bezala sart-
 cen ditu. Conserva zazute , bada guizo-
 nac, amorio cariñoso, irauncor, ta viotce-
 coa zuen emaztienganaco , orregatic izan
 zan emacumea guizonaren viotzaren alde-
 enian dagoen sayez ezurretic ateria , edo
 sortua, izan cediñ guizonagandic viotcetic
 amatua. Etzaituzte aserratu bear ta bear
 ez dan gaucetara pasatu bear zuen emaz-
 tien enfermedadiac , dirala gorputcecoac,
 dirala animacoac , ez bada contrara , erru-
 qui atseguin , ta amorioso batera mugui-
 tu bear zaituzte , bada Jaungoicoac e-

guñ ditu orrelacoac , zuen bear izan ta
 orrela honra , ta errespeto gueyago izan
 dizazuten , ta alaco modutan laguntzat i-
 zan ditzatzuten , ce zuec buru , ta aguin-
 tari izan zaitezte. Ta zuec , emacume-
 ac , amaitzatzute viotcetic Jaungoicoac
 eman dizquitzuten senarrac , baña erres-
 peto , ta erreverencia andico amorioa-
 requñ , cergatic ez dago dudatic , o-
 rregatic eguñ dituela Jaungoicoac zuec
 baño entendimentu , ta gorputz indarsua-
 gocoac , ta emacumea guizonari dicho-
 cana izatia nai izan zuen , aren ezurren
 ezurra , aren mamien mamia , ta aren be-
 soaren azpico sayets ezurretic ateria , aren
 escuaren , ta gobernoaren azpian egon
 bear duela , aditcera emateco. Escritura
 Santa guztia encargatcen dizute sujecio-
 au , ceña ere Escritura Santac berac egui-
 ten dizute atseguña , ez bacarric sujecio o-
 ri amorioz eramatia nai izanarequiñ , ezba-
 da baita ere amorio andiarequin , cariño ,
 ta modu onarequiñ trata zaitzatela sena-
 rrai aguinuarequiñ. San Pedroc esaten
 du ; porta zaitezte , senarrac modu onian
 zuen emaztequin , autsitcen errazagoac

diran vasoaquin bezala, zortzayen hon-
ra ematen diezutela.

Exortatcen zaituztet bada alcarganaco
aldezuten amoric andienera, baña con-
tu amorio au celo biurtu ez dedin, cer-
gatic ascotan guertatcen dá sagarric o-
nenetic, ta humaoenetic arra jayotzen
dán becela, ezconduen artian celoac ja-
yotcia amoric andienetic, ta viciene-
tic, ta galtcen dute amorioaren izatia,
cergatic sortcen dituzte piscaca, piscaca
aserriac, erriertac, ta alcargandic apar-
tatciac. Ez da eguiaz inoiz celoric icus-
ten eguiazco virtutiaren gañian eguiña
dagoen adisquidetasuna dutenen artian,
arrazoi onegatic bear becein garbia ez
dan amorioaren señale ciertoac dira ce-
loac; amorio zacar onec artcen dú, vir-
tute guchi, aldacorra, ta erraz confi-
antza galtcen duenaren vlotza, ta sor-
cen dira celoac. Orregatic dá eraqueri
andia celoaquin adisquidetasuna honra-
tu nai izatia, edo bestiari cion amorioa
ayequin aditcera eman nai izatia, cer-
gatic ez dira amorio on garbi, ta per-
fecctoaren señaleac, ez bada esan deran

bezala , amorio zacar , ta moduren bati-
tian ciquiñarenac.

Ez dute bada celoac adisquidetasun
perfectoric aditcera ematen celoac zayoz-
can personarequin , cergatic adisquideta-
sun perfectoac virtutiaren confianza esca-
tten dú amaten duen personagan , ta
celoac dituenac , ez du confiatcen bestiac
baduela berac argan deseo duen virtu-
tia , ez bada contrara , errecelotan da-
go , falta duen , edo ez , leyalala dan ,
edo ez.

Nai baldiñ badezute senarrac , zuen
emazteac leyalac izatia , emayezute ceroc
exemploa. Zuec ciquinquerian vici bace-
rate ; ; Cer arpeguirequiñ escatcen diezute
zuen emazteai garbitasuna? esaten du
San Gregorio Nacianzocoac , ; Nola es-
catcen diezute ematen ez diezutena? Nai
baldiñ badezute , ayec garbiac izatia , i-
zan zaitezte ayequiñ garbiac , esaten zuen
Santuac ta San Pabloc esaten zuen beza-
la; icasi beza bacoitzac bere gorputza san-
tutasunian conservatcen. Baña baldiñ con-
trara , ceroc ciquinqueriac eracusten badiz-
catzute , ezta arritcecoa izango , aiec zuec

deshonratzia. Ta zuéc, emacumeac, badaquizute, ta honestac ez bacerate zuen honra galdua dagoela, conserva zazute zuen honra, ta ez diozazutela eman lecuric honra ori galtzeco gauzari. Igues eguizute ocasioetatic, dan chiquienac izan ta ere; ez dezazutela iñoiz cortejuric consentitu, zuen edertasuna, ta donarioa alabatzen duten guztiac sospechosotzat iruqui bear dituzute, cergatic eciñ erosi duen gauza bat alabatzen duena, ura ostutzeco chit tentatua dago gueyenian, ta baldiñ norbaitec zuéc alabatu; ta zuen senarra despreciatzen badu, asco ofenditcen zaituzte orrelacoac cergatic claro dago, ez bacarric galdu nai zaituztela, ezbada bai ta ere erdi galdutzat zaucazquitela ya, cergatic precioaren erdia eguiña dago bigarren sal-gauzarequin, lembicicoa despreciatu ezquero.

Nola anciñaco damac aia oraiñgoac, costumbratu izan dute perla asco belarrietatic cincillie ecartzia eguiten duten soñua aditzian sentitzen duten gustoagatic, dio Plinioc, baña nic nola

daquidan Isaac Patriarca Santuac bere amorioaren lembicico señaletzat, bialdu ciozcala Rebecari belarricoac, uste det apaingari misterioso onec ematen due-la aditzera senarrac emazteari erabaci bear dion lembicico gauza, ta emazteac leialqui guardatu bear diona belarria dala, ezdediñ an sartu beste soñu, ta itzic, ez bada conversacio garbi, atseguñ, ta santuac, ceñac dira Evangelio perlac, cergatic beti acordatu bear degu, gure gorputza abotic bezala, viotza belarri-tic pozoitzen dala.

Amorioac, ta leyaltdiac biac bati-an satisfacioa, ta confiantza sortzen du-te, orregatic asco Santu, ta Santa ez-conduc maitatze modu asco usatu dituzte beren artian, maitatze eguiazcoac, cariñosoac, baña tolesgabeac; ala Isaac, ta Rebeca anciñaco demboraco ezcon-duetatic garbienac icusi cituen Abime-lec leyo batetic alaco moduan alcar maitatcen, ce gauza gaiztoric eguiten ez-bazuten ere, bereala ezagutu zuen senar emazteac cirala. San Luis bere gorputzarentzat añ gogorra bazan ere,

añ cariñosoa zan bere emaztearentzat ,
 ce bein erreprenditu ciozcaten gueiegui-
 cotzat bere maitatziac , eguia dá ala-
 bantza baicic etzuen mereci , cergatic
 ongui cequien ezconduen arteco amori-
 oa conservatzeco precisoac diran mai-
 tatciai bere neurria ipintzen ; ta amo-
 rioaren señale chiqui abec ez baldin ba
 dituzte ere viotzac lotcen , orregatic e-
 re inguratcen dituzte , ta bata bestiaren
 arteco conversacioraco entretenimentu
 atseguinac dira.

Santa Monicac San Agustin orandic
 sabelian zuela ascotan consagratu cion
 cristandadeco Religio Santari , ta Jaun-
 goicoaren servicioari , San Agustinec
 berac contatzen duen bezala , itz abe-
 quin : probatu zuela oraindic bere ama-
 ren sabelian cegoala Jaungoicoaren gatz
 misteriosoa. Onetatic icasi bear dute e-
 macumeac beren errayetaco frutua , o-
 raindic sabelian daucatela , jaungoicoa-
 ri ofrecitcen ; cergatic viotz humillare-
 quin , ta vorondate onarequin eguiten
 zayozcan ofrendac , gusto andiarequin
 errecibitzen dituen Jaungoicoac , bede-

incatzen ditu gueyenian orrelaco gurasoen humeac. Eguia onen testigu dira Samuel Santua , Santo Tomas Elizaco Doctorea , ta beste asco. San Bernardo-ren amac , jayotzen ciran beceñ laster ofrecitzen ciozcan , bere aurrac Jesusi , ta ordutic errespeto andiarequin amatzen cituen Jangoicoari consagratu - ricaco gauzac bezala ; ongui logratu cituen guero bere deseocac , bada izan cituen zazpiac guztiz santuac izandu ciran. Erreguiña Doña Blancac ascotan esaten cion bere seme San Luisi , nere seme maitia , nayago ciñuquet nere beguien aurrian illic icusi , pecatu mortal bat eguiten icusi baño , ta añ gogotic artu zuen San Luiseac bere amaren esan au , ce guero berac esaten zuen bezala bere vicitza guztian egunero artzaz oroitzen zan , ta altzuen cuidado guztia ipintzen zuen , bere amaren conseju ura cumplitzeco. Eguiaz razai , ta generacioai echeac deitzen zaie gureitz eguiteco moduan , ta Isrrael tarrac ere aurrac izatiari eche eguitia deitzen cioten , cergatic sentidu onetan esan zan Igitoco

emaguiñai Jangoicoac echeac eguin cistela. Ta onequin guztiarequin aditzera eman nai dá, eche on bat eguitia, ez dagoela ondasun ascoren jabe ura eguitian, ez bada aurrac Jaungoicoaren bildurrian acitzian. Pocic artu bear litzaque eroceñ neque onetaraco, cergatic humeac gurasoen honra dira. Ala Sta. Monicac San Agustiñen griña gaiztoai contra eguin cien, ta añ gogotic, ce jarraitu cion ichasoz, ta legorrez, ta zori obeagocoa izanduzan ura, conversioa zala mediante bere negarren seme eguitian, ari gorputzeco izatia ematian baño.

Emacumearen cargura utzitzen dú San Pabloc echiaren cuidadoa, ta orregatic ascoren iritzia dá, provechugarriagoa dala ayen devocioa familiarentzat senarrarena baño, ceñac ez dira aimbeste demboran familian egoten, ta beragatic eciñ añ erraz eracutsi diozaque Ceruco videa; orregatic Salomonee aditzera ematen dú, familiaren zori onna, emacumea bear becelacoa izatian dagoela.

Escritura Sagraduan contatzen dá:

Isaac Patriarca Santuac icusiric Rebe-
 ca bere emazteac etzuela aurric iza-
 ten, erregutu ciola bere emazteagatic
 Jaungoicoari, Israeltarrac diotenez, be-
 re emaztearequin arpeguiz arpegui jar-
 rita, bada batec oratorioaren alde ba-
 tetic errezatcen zuen, ta bestiac beste-
 tic, ala aditu zuen Jaungoicoac Isaac
 Patriarcac bere emazteagatic eguin zu-
 en oracioa. Senar emazteac devocioco
 gaucetan alcarrequin empleatzia, dá ba-
 tutze, edo unioric andiena, ta prove-
 chugarriena, ta onetara oitu bear lute-
 que. Badira frutuac ira-sagarra becela
 conservan ez bada bestela beren samin-
 tasunagatic eciñ jan ditezqueanac, edo
 gustocoac ez diranac, badira ere beste
 asco guereciac, ta albericoquiac bezala,
 chit delicaduac izanaren poderioz con-
 servan ez bada bestela luzaro eciñ gor-
 de ditezquenac. Ala emacumeac procu-
 ratu bear dute beren senarrac devocio-
 co conservan sartuac egotia, cergatic
 devocio gabeco guizona, animali sogor
 aserre, ta zacar bat dá; senarrac dese-
 tu bear dute beren emazteac devotac

izatia , cergatic devocio gabeco emacu-
 mea guztiz argala , ta virtutetic apar-
 tatzen erraza dá. San Pabloc dio , fiela
 ez dan guizona santututzen dala emacu-
 me fielagatic , ta fiela ez dan emacu-
 mea santututzen dala guizon fielagatic,
 cergatic Matrimonioco adisquidetasun
 andia dala mediante erraz alcar virtu-
 tera eraman dezateque. ; O ta cer zori
 on andia dan senar emaztienzat Jaun-
 goicoaren bildur santuan alcar santu
 eguitia !

Azquenic añ sufrituac izan bear dute
 alcarrequiñ ce ez dute batian alcarre-
 quiñ iñoiz aserratu bear , icusi ez dediñ
 ayetan demanda , ta errietaric, Ez du-
 te erliac egon nai izaten arri viciac ot-
 sac eguiten dituen lecuetan , ez ta e-
 re Espiritu Santuac ojuac , ta errietac
 beste paqueric ez danetan.

San Gregorio Nacianzocoac esaten
 du , ezconduac aren demboran ezcondu-
 ciran eguna urtero celebratcen zutela;
 alegratuco nintzaque costumbre aú sar-
 tucó balitzaque , ta ezcondú ciran egu-
 na celebratuco baluteque , ez jan , eran.

ta beste eraqueriaquiñ, ez bada egun artan biac confesatu, ta comulgatciarequiñ, besteetan baño gogoticago beren Matrimonioaren ona Jaungoicoari encomendatcen diotela, alcarrequico adisquidetasun ta leialtasunarequiñ ura gueyago, ta gueyago santificatceco propositoac berritcen dituztela, ta Matrimonioaco cargac Jaungoicoagatic eramateco animo andiac artcen dituztela.

XXXIX. CAPITULO A.

Cer garbitasunarequin Matrimonio santuaz usatu beardan.

Matrimonio santuaz garbitasunarequiñ usatu bearda San Pabloc esaten duen bezala cergatic gure lembicico gurasoac Jaungoicoac ipiñi cituen jardiñ ederrian eguiña izan zan, ceñian etzan orduraño iñoiz izan araguiaren grña, eguiteco gaiztoric, ta gauza ciquiñic.

Badute cer bait alcarren antza araguiaren gustoac, ta jatian artcen danac, cergatic biac dira gorputzaren gustuac; eguia da araguiaren gustoaren

icenarequiñ bere animal carriagatic sei-
garren mandamentuaren contracoac a-
ditcen dirala, ta ala abec gatic eciñ esan
derana bestiagatic esaten deranarequiñ
esplicatuco det.

Personac conservatciagatic ipiñi zu-
en Jaungoicoac jatia. Nola bada man-
tentciagatic, ta vicitza conservatciaga-
tic bacarric jatia gauza ona, ta santua,
ta Jaungoicoac aguindua dan, ala hu-
meac sortceco, ta gueitceco preciso be-
ar dana Matrimonioan eguitia gauza o-
na ta santua da, cergatic ori da ezcont-
zaren fiñic principalena.

Ez preciso vicia conservatciagatic, ez
bada besteri gusto ematiagic, gendiare-
quin cumplitciagatic, ta ayequin ongui
iruquitciagatic jatia, da gauza ona, ta
ongui diruriena, ala ere alcarri gustoa
ematia gatic edo ondo iruquitcia gatic,
Matrimonioaz usatcia, gauza ona da, ta
oni deitcen dio San Pabloc zorra, ta añ
zor andia, ce esaten du eciñ batac utci
dezaquela zor ori cumplitcia, bestiaren
vorondate oso gabe, ezta devocioco o-
bretan emplitciagatic ere, ta onen ga-

ñian cer bait esan det comunionaren ga-
ñian itz eguin deran capituloan ; cem-
bat guchiago escusa diteque bada obli-
gacio au pagatcetic, bere antoju, colera,
ta aserriac gatic?

Nola gendiarequiñ cumplitciagatic
jaten dutenac gogoz ari dirala aditcera
ematen duten moduan jan bear duten,
ta ez gogo gabe aridirala aditcera ema-
ten dutela, ala ere Matrimonioco obli-
gacioa gogoz cumplitu bear da, ta aurra
izatia espera baldin baliz bezala, noiz-
bait esperanzaric ez izanagatic ere.

Ez vicia conservatciagatic, ta ez bes-
teri gustoa ematiagatic, ez bada bacoit-
zac bere apetituari gusto ematiagatic
jatia, alabatcecoa ez bada ere sufri di-
tequien gauza dá. Esan det alabatcecoa
ez bada ere, cergatic gorputzaren gus-
to utsa eciñ izanditeque alabatceco o-
braric arequiñ eguiteco diña, asco da di-
simulatu, edo sufri ditequena izatia.

Ez apetituari gusto ematiagatic ba-
carric, ez bada bai ta ere gueyegui, ta
vicioz jatia erreprenditceco gauzada gu-
chi, edo gueyago, cembat dan gueye-

guia. Gueyegui jatia ez da aditcen ba-
 carric jaten dan cembat, edo cantidadi-
 agatic, ez bada baita ere jateco modua-
 gatic. Eztiya gauza guztiz ona, ta pro-
 vechugarria da erlientzat, baña orrega-
 tic ere ascotan eritcen dira arequiñ, no-
 la dan udaverrian gueyegui jaten dute-
 nian, cergatic beracoac ematen die, ta
 ascotan erremedio gabe artatic iltcen
 dira, egoac ta muturra eztiz cargatuac
 daucaz-quitentan bezala. Matrimonio
 santuaz usatcia gauza ona, santua, ta
 munduarentzat provechugarria da egui-
 az, baña usatcen dutenentzat peligrosoa
 da, cergatic asco eritcen dituzte ascotan
 pecatuvenialez beren animac, nola guer-
 ratcen dan cerbait gueyegui artan pa-
 satcen diranian, ta beste ascotan iltcen
 dituzte pecatu mortalarequiñ, nola guer-
 tacen dan Matrimonioa eguinzan fiñaren
 contra usatcen dutenian, ta fiñaren
 contra guchi, edo gueyago nola usat-
 cen duten, ala izango da pecatuen andi-
 tasuna, guztia mortalac izango baldin
 badira ere batzuetan andiangoac, bestie-
 tan chiquiangoac.

Nola Matrimonioaren fiñ principala aurrac izatia dan , eciñ iñoiz pecaturic gabe usaditeque orretaraco beardan moduaren contra , orretaraco beardan moduan usatuagatic aurric ez izatia noiz bait guertatu al baliteque ere , nola guertatcen dan persona soilla danian , ta aurdun dagoenian. Onelaco ocasioan Matrimonioaz usatcia ez da gauza gaiztoa bear dan bezala usatcen bada ; bear dan bezala , usatcen bada diot , cergatic aurrara sortuco dala esperanzaric ez izatiac ez du libertaderic ematen Matrimonia eguinzan fiñ principalaren contra artzaz uzatceco. (*) Thamarren senar Onan ceritzanac eguin zuen gauza infame ciquiña Jaungoicoaren disgustocoa izanduzan , Escritura Sagraduac berac esaten duen bezala. Ta gure demboraco asco herege , San Pabloc Efesocoai escribitu cien cartan San Geronimoc contatzen dituen Cinicoac esaten eieten Filosofoac baño gaiztoagoac esaten badute ere,

(*) Usatuco baldin bada Matrimonioaz , aurrac sortceco moduan usatu bear dá , sortuco dalaco esperanzaric ez izanagatic.

guizon gaiztoaren intencioa bacarric Jaungoicoaren disgustocoa izan zala, ta ez obra bera, Escritura Sagraduac contra aditzera ematen dú, ta claro esaten du, eguin zuen eguiteco villauba bera Jaungoicoaren chit disgusto andico gauza zala.

Espiritu villaubaren señalia dá, jateco dembora baño lenago jatecoetan pensatzia; oraindic gueyago jan ezquero jan zuten gauzaren gustoan gozaten egoitia pensamentuz, ta itzez, irabiratzen dutela beren pensamentua jan gauza aboan chiquitzen izan duten gustoan, jan baño lenago beren pensamentua burruncian, ta guero plateretan iruquitzen dutenac bezala, sucaldeco chacurrac izateco egoquiac, tripa Jaungoicotzat daucatenac, San Pabloc dion bezala. Errespeto, edo honraco personac ez du mayan pensatzen, an dagoenian bestee-tan, ta jan ezquero escuac, ta aboa garbitu eguiten ditu, janaren ez gustoric, ta ez usairic guelditu ez daquion. Elefantia animali ichusia dá, baña beste guciac baño garbitasun, ta juicio gueyago

duena dá : esan naí det cerbait aren honestidadiaren gañian ; bere casta conservatzeco beñ lagunzat artzen duena, ez dú iñoiz aldatzen ; amaten dú cariño andiarequin , ta orregatic ere ez dá iru urtetic iru urtera baicic hume artzera arequin batutzen, ta orduan ere bost egunian bacarric , ta alaco disimuloarequin , ce ez dú artan iñorc icusten ; baña seigarren egunian ongui ezaguna dá cergatic bereala urtara joaten dá bere gorputz guztia garbitzera , ta ez dá besien artian aguertzen ongui ongui garbitu artian. Zoragarriac dira duda gañe animali onen condicioac , ceñaquin eracusten die ezconduai Matrimonioco gustoric gogoan ez iruquitzeco , ez bada orretzaz usatu ezquero , garbi deztela lembait len beren viotza gauz orretatic , orrela espirituco libertade gueyagorequin gauza santuagoetan emplea ditecen. Aviso au cumplitziaz cumplitzen dá San Pabloc Corintocoai esaten ciena: dembora laburra dá , esaten cien , orregatic procuratu bear dú ezcondua dagoen guizonac emazteric ez baldin ba-

luque bezala vicitzia, cergatic San Gregorioc dion bezala, obra santuetan Matrimonioagatic atzeratzen ez dan guizona, emazteric ez baldin baluque bezala vici dá, ta senarragatic esaten dana bera aditcen dá emaztiagatic ere. Munduaz usatzen dutenac, artzaz usatuco ez baldin baluteque bezala vici bitez, dio San Pabloc. Usabezate guztiac munduaz beren estaduaz bat, baña beren vitzac munduco gauzaz aficionatzen utzi gabe, orrela Jaungoicoa servitceco libre egon ditecen, munduaz usatuco ez baldin baluteque bezala. Personen gaitzic andiena dá, dio San Agustiniñec, usatu baicic eguin bear ez lituquien gauzac gozatu nai izatia. Gozatu gauza espiritualaz, edo animacoaz eguin bear degu, ta usatu, gorputzecoaz, edo munducoaz; ta usatu baicic eguin bear ez diran gauza abec, gozatu eguiten badiugu, gure anima ere animalien antcecoa eguiten dá. Uste det cumplitu derala onembesterequin capitulo onen asieran eman nuen itza, ta eman naizala aditzera, esan nai ez nuena aitatu gabe.

Emacume alargunentzat avisoad.

San Pabloc Timoteoren personan Elizaco beste Aguintari guztiai esaten die: honratzitzu eguia^z alargunac diran emacumeac. Emacume alarguna, eguia^z alaraguna izateco, orain esango dituran gauzac bear dira.

Lembici; ez dú emacumeac gorputzaz bacarric alargun izan bear, ez bada bai ta ere viotzaz; esan nai det, ñoiz gueyago ez ezcontzeco, garbi conservatzeco asmoarequin egon bear due-la, cergatic berriz ezcontzeco occasioa izan arteraño alargun ez diran emacumeac, ez daude apartatuac guizonetic, ez bada gorputzez, viotza ayequin bat eguiña daucate. Eguiazco alargunac castidadeco votoa eguiten badú, apaintze eder bat emango dio bere alarguntzari, ta asegurotucó dú ezcondu gabe egoteco daucan asmoa, cergatic icusiric ez dagoela aren escuan,

votoa eguiñ ezquero, Cerva galdu gabe
 berriz ezcontcia, cuidado añ andiarequin
 vicico dá, ce ez die instante batian ere be-
 re viorzian lecuric emango ezcontceco
 pensamentuai, ta ala castidadeco votoa,
 muralla sendo bat bezala izango dú, ez-
 condu gabe vicitceco asmoa galdu dezate-
 quien pensamentu guztietatic defenditce-
 co. San Agustíñec viorz guztitic encargat-
 cen die promes santu au cristau emacume
 alargunai; ta orígenes jaquinsua aurrerago
 pasatcen dá, ta encargatcen die emacu-
 me ezconduai, eguin dezatela promesa,
 berac baño lenago senarra iltcen bazaye,
 beti alargun vicitceceo, orrela Matrimo-
 nioan dauden demboran ere alargun vici-
 tceco promesaren merecimentua logra de-
 zaten, alde aurretic eguiten duten voto,
 edo promesa dala mediante. Votoz obli-
 gaturic eguiten diran obrac, voto gabe
 eguiten diranac baño Jaungoicoaren gus-
 to gueyagocoac dira, ta indartcen dú ere
 anima obra ayec eguiteco. Ta votoa e-
 guiten duenac, ez bacarric ematen diozca
 Jaungoicoari obrac, ceñac diran gure vo-
 rondatiaren frutu batzuec bezala, ezba-

da bai ta ere vorondatia bera , ceña gure
 obren arbola bat bezala dá. Castidadeco
 virtutia dala mediante ematen diogu gu-
 re gorputza Jaungoicoari , baña gorput-
 ceco gustoac artceco libertadia utci gabe,
 baña castidadeco votoa dala mediante guz-
 tiro entregatcen diogu gure gorputza , be-
 rriz gorputceco gustoac artceco libertadia
 ere utcita , onela Erreino guztia baño
 obea dan esclavidia zori onian artcen
 degula , Jaungoicoaren esclabo, votoa da-
 la mediante , eguiñaz. Bi guizon andi a-
 ben conseju abec , ontzat eramaten ditut,
 baña deseaten det , conseju santu abec
 cumplitu nai dituzten anima zori oneco-
 ac , ez dezatela au erraz eguin , ez bada
 prudentcia andiarequin , orretaraco beren
 animaco indarrac ongui esamñaturic , Ja-
 ungoicori orretaraco bere arguia escatu-
 ric , ta Aita espiritual jaquintsun , ta de-
 voto batequin consejaturic , orrela guztia
 provechuarequin eguingo dá.

Bigarren , emacumea eguiaz alarguna
 izateco , berriz ezcontceco duen asmoa ,
 bacarric Jaungoicoa obeto servitcia gatic,
 ta bere viotza arenarequin bat eguitia ga-

tic izanbear du , cergatic baldin humeac
 aberatsago utcitcia gatic , edo munduco
 beste motivoren bategatic ezcondu gabe
 guelditu nai badu , balitzaque mundua-
 ren aurrian alabantza izatia , baña ez Ja-
 ungoicoaren aurrian , cergatic ez dú aren
 beguietan ecerc alabantzatic mereci , ez
 bada bera gatic eguiten danac.

Irugarren , emacumea eguiaz alargun i-
 zateco , egon bear dú bere vorondatez
 alegriya eroetatic apartatua. Gustoetan vi-
 ci dan emacume alarguna , viciric dagoen
 la illa dago , dio San Pabloc. Alarguna
 izan nai , ta orregatic ere cortejatua izatia
 gustatcia , danza , sarao , ta beste eroque-
 rietan ibilli nai , magalac colozez eguiñic,
 burua usayez betia , ta vanidadez jancia
 au da gorputzaren aldetic alarguna vici-
 ric egotia , baña animaren aldetic illa. E-
 san zadazu arren ; cer importa dá Adoni-
 sen echiaren , edo amorio gaiztoaren se-
 ñalia , lumage baten , edo arpegiaren
 inguruan sareen antcera zabaldutaco ve-
 lo mé beltz baten guisa dauden , luman-
 dor zuriyaquin eguiña izatia , baldin va-
 nidade gueiagorequin gueienian ipintcen

bada ederrago iruriciagatic? Onelaco gusto eroetan empleatcen dan emacume alarguna bada viciric dagoela, illa dago, ta eguia esateco, ez dá alarguntzaren idolo, edo Jaungoico falso bat baicic.

Podatceco dembora etorri dá, usa-tortolaren canta gure errian aditu dá; esaten da Canta gozoetaco liburuan. Utcí bear ditu munduco aficioac Joungoicoaren servicioan empleatu nai duen eroceñec, ta batez ere emacume eguiatz alarguna danac, ceña usa tortola garbi bat bezala bere senarraren falta gatic negarrez vicida. Noemi Moabtic Belena viurtu zanian, ezcondu berrian ezagutcen zuten errico emacumeac alcarri galdetcen cioten, ¿ez dá au Noemi? Aditu zuen au berac, ta esan cien, ez dirazazutela arren Noemi deitu, cergatic Noemic ederra esan nai dú, deitu zadazute Mára, au da, samiña, cergatic Jaungoicoac samintasunez bete dú nere viotza. Au, cergatic senarra il citzayon, esan zuen; ala emacume alargun devotac ez dú iñorc ederra deitcia, ta edertzat iruquitcia nai, ta Jaungoicoac ura izatia nai duenarequin con-

tentatcen dá ; au dá , humilla bere be-
guietan.

Usai oneco olioa duten lamparac , usai
ona banatcen dute irzaltcen diranian , ala
Matrimonioan amorio garbia izan duten
emacume alargunac , beren arguia , au da
beren senarra iltcen zayenian , virtute ,
ta castidadiaren usai ohea banatcen dute.
Vici dan artian senarra amatcia , ez da
arritcecoa , baña il ezquero besteric nai
ez izateraño amatcia , emacume eguiaz a-
largunen amorioa dá. Senarragan espe-
ratcia , cergatic laguntcen dion , ez dá arri-
tcecoa , baña laguntce ura gabe dago-
enian , Jaungoicoagan esperatcia , ala-
bantza andico gauza dá , orregatic alar-
guntzaco demboran errazago ezagutcen
dá cer virtute izan dituen personac Matri-
monioco demboran.

Emacume alarguna aurraquin gulditcen
bada , ta aren bear badira bear dana icas-
teco , ta gobernatceco , ta batez ere be-
ren animaren oneraco , eciñ utci ditzaque
ta ez ditu inñolaz ere utci bear , cergatic S.
Pablo Apostoloac claro esaten dú , onetara
obligatuac daude ayen gurasoac beraquia

eguin zutena orrela pagatceco , bai ta ere cergatic berien , ta berez ere bere familiaren cuidadoric ez duena gentilla baño gaiztoagoa dá , baña ez baldin badu humeac amaren cuidadoaren bearric , orduan emacume alargunac bere aficio , ta pensamiento guztiac Jaungoicoaren amorioan gueyago , ta gueyago aurreratcen ipiñi bear ditu.

Ez baldin badute nai ta nai ez obligatcen emacume eguiaz alarguna campoco embarazoetara , nola diran auciac , consejatcen diot , aparta dedilla guztiro orientatic , ta valia dedilla bere negocioac tratceco aldan moduric paquetsu , ta sosegatuenaz , probechu garriena ez dala irurituagatic , cergatic auci orientatic etorri litezquien provechuac chit andiac izan bear luteque , soseguac dacarren onarequin comparatceco ; ta orretzaz gañera , auciac ta orrelaco beste ezta , baidac galtcen dute devocioa , ta ascotan castidadiaren etsayaí atia iriquitcen diete , cergatic ascotan gure negocioan ongui ateratceco bear ditugunai gusto ematia gatic Jaungoicoaren disgustoco bear ez diran asco gauza esguiten ditugu.

Oracioac izan bear dú emacume alargunaren betico egercicioa , cergatic nola ez duen izan bear amoric ez bada Jaungoicoarentzat , ala ez dú Jaungoicoarentzat ez bada besterentzat itcic izan bear : ta nola diamantia aurrian daucanian arri imanaganontz joateco eragotcia dagoen burniac , diamantia aurretic quendu ezquero , arri imanari seguitcen dion ; ala emacume alargunaren viotza , senarra vici dan arrian , Jaungoicoaren servicioan empleatceco , aibeste conveniencia-requin ez dagoena ; senarra il ezquero be-reala equiñ bear dio devocio andiarequin Jaungoicoaren servicioari , Esposa Santac bezala esaten diola , O Jauna , orañ guztia neronena naizan ezqueroz , artu nazazu guztia zuretzat , eraman nazazu zure ondoren , zure uquenduaren usayaren ondoren juango guera.

Emacume alargun Santai dagoquien virtuteric egoquienac dira modestia andibat , honren , empleo andien , visiten , icen andien , ta beste orrelaco vanidadien desprecioa , pobriac , ta eriyac servitcia , affigituac consojatecia , doncellai Ceruco

videa eracustia, ta emacume guztientzat
 virtutien imagiña bat izatia. Preciso be-
 ar dana, ta andi antz gabe jaztia, dira a-
 ren soñecoen ongui iruriric onenac, hu-
 mildadia, ta caridadia aren obren apain
 gayac; honestidadia, ta mansotasuna a-
 ren itcen edergayac, modestia, ta lotsa a-
 ren beguien disdisac, ta Jesus crucifica-
 tua aren viotzaren amorio bacarra. Itz ba-
 tian emacume eguiatz alarguna cristanda-
 dian, Marchoco violalore chiqui bat beza-
 la dá, bere devocioco usayarequin gozo-
 tasun andia banatcen duena, bere humil-
 dadiaren orripian alduen guztia beti gor-
 detcen dala, ta bere mortificacioaren tes-
 monioa, argui guchi eguiten duen arpe-
 guiac ematen duela: lur otz, ta compon-
 tzen ez diranetan jayotcen dá; bere vi-
 otceco frescura ondasunen, honren, ta a-
 more gaiztoen deseoen berotasunetic obe-
 to guardaciac, mundutarren conversa-
 cioetic igues eguiten duela. Zori onecoa
 izango dá bera, onela vicitcen irauten
 badu.

Beste asco gauza esango nituque gauz
 onen gañian, baña guztia esana egongo

idá esaten badet, bere honra estimatzen duen emacume alargunac iracurri ditzala atencio andi batequin San Geronimoc Furia, ta Salviari, ta aita añ andiaren espirituco alabac izateco dicha izan zuten emacumeai escribitu cizten carta jaquintsuac, bada arc esaten duen baño gueyago eciñ esan diteque; ez bada advertenciachoa au, ez duela iñoiz emacume eguiaz alargunac gaizqui esan bear bigarren, irugarren, edo laugarren aldian ezcontzen diran emacumeac gatic, cergatic asco ocasionatan ala disponitcen dú Jaungoicoac bere honra gueyagoraco, ta beti iruqui bear dute gogoan antciñaco zarren doctrina au, ez alarguntzac, ta ez doncellatasunac dutela Ceruan, humildadiac señalatzen dien baño lecu altuagoric.

XXXI. CAPITULO.

Nescachai itz bat.

Ez dizutet, nescachac iru gauza abec besteric esan nai, abetatic bestiac atera-

co dituzute. Ezcontceco asmoac baldin badituzute, gorde zazute zuen lembicico amorioa, izaten dezuten lembicico senararentzat. Engañu andia dala uste det, viotz oso, ta engañuric gabecoaren lecuan viotz usatu, engañoso, ta besteren amorioz cutsatua artu nai dan senarrari presentacia. Baldin zuen dicha onac ezta, castu, garbi, ta espiritualetara deitzen bazaituzte, beti doncellac guelditu nai badezute; ; jauna! conserva zazute zuen amorioa aldan delicadezarican andienarequin Ceruco zuen esposoarentzat, ceñac, garbitasuna bera nola dan, ez dú garbitasuna baño gueyago ecer amatcen, ta gauza guztien primiciac berari zor izanic, batez ere amorioaren primicia zor zaio. S. Geronimoren cartac, bear dituzuten aviso guztietzaz beteco zaituzte, ta zuen estaduac obediencian vicitcera obligatcen zaituzten ezquero, escogi zazute aita espiritual on bat, aren govierno dala mediante, emplea dezazuten obeto zuen anima, ta gorputza Jaungoicoaren servicioan.

*DEVOCIOZCO VICITZARACO SARRE-
raren laugarren partia, ceñian ematen di-
ra gueyen comun izaten diran tentacioac
ventzutceco conveni diran avisoac.*

I. CAPITULO A.

*Ez degula casoric equin bear mundua-
ren esan besanaz.*

Ezagutzen duten beceñ laster mundua-
tarrac, devociozco vicitzari equin nai dio-
zula, milla falso testimonio, ta murmu-
rario zure contra esango dituzte. Gaiz-
toenac esango dute ipocrita, ta embustero
bat equin cerala; esango dute, munduac
arpegui gaiztoa ipiñi dizula, ta cergatic
arc beregandic bota zaituen, Jaungoicoa
gana arrimatcen cerala. Zure adisquidiac
emango dizquitzute asco conseju, beren
ustez chit prudentiac, ta caridadiac esca-
tzen dituanac. Esango dizute melancolia
gaiztoren batian sartcera azquenian ere e-
torrico cera: galdaco dezu munduarequi-

co creditua , ta ñore eciñ sufrituco zai-
 tuen becelacoa eguingo cera , dembora
 baño lenago zartuco cera , zure echecho e-
 guitecoac ez dituzu bear becela cumplitu-
 co , munduan , munduan bezala vici be-
 ar da , salva gaitezque Jaungoicoari gra-
 ciac orrembeste cuidado bague , ta bes-
 te onelaco gauzac.

Cristau maitia , au guztia ezta berrichu-
 quera zoro , ta ecer servitcen ez duen bat
 baicic. Onelaco persona moduac ez dute
 ez zure salvacioaz , ta ez zure eguitecoaz
 batere cuidadoric. Zuec , munducoac bal-
 din baciñateque , amatuco luque mundu-
 ac bere gauza , baña cergatic munducoac
 etceraten , orregatic aborrekitcen zaituzte,
 dio Jesusec. Icusten ditugu Caballero , ta
 Señora principal asco arrats guztian , edo
 oveto esateco arrats ascotan seguituan age-
 drecian , ta cartetan ; ; báda venturaz au
 baño atseguñ guchiagoco , melancolia ,
 ta tristura gueyagoco eguitecoric ? Ta or-
 regatic ere ez dute mundutarrac gauza
 orrengatic itcic esango , ta adisquidiac ere
 ez dute gaizqui eramaogo ; baña icusten
 bagaituzte ordu bete meditacioan pasat-

een, edo comulgatceco prestatceco bestie-
tan baño cerbait goizago jaiquitcen, guzti-
ac dijoaz Medicuaren esque melancolia sor-
tcen duen humore gaiztotic, ta tiricia, e-
do miñ oritic senda gaitzan. Igaroco di-
tuzte dancetan oguey ta amar arrats, ta
ez da orregatic ere iñor quejatuco, ta e-
güarri arratsa bacarric Elizan, edo ora-
cioan igarotcen badute, ez da urrengo e-
gunian ez tul gaberie ta tripan miñ duela
esaten ez duenic bat izango. ; Ceñec ez du
icusten, mundua juez gaizto bat dala, a-
tseguña, ta favorabilia bere semeentzat,
baña contrarioa, ta gogorra Jaungoicoa-
rentzat?

Eciñ egon gaitzezque bada ongui mun-
duarequin, arequin barian galdu gabe, e-
ciñ acertatu diteque ere aren gusto arequin,
cergatic ecin contentatu, ta aldacorra da.
Juan Bautistac ez dú jaten, ta eraten, ta
esaten dezute, demoniñatua dagoela; (*)
guizonaren semeac jaten, ta eraten dú,
ta Samaritanoa dala, esaten dezute. (*)

(*) Jesusec.

(*) Esan cien Jesusec Farissoai,

Ez dago dudarik kristau maitia, ce baldin
 bestiai gusto ematiagatic entregatcen ba-
 guera mundutarren diversio, jocu, ta
 dancetara berac escandalizatuco dirala, ta
 berriz orrelaco gaucetatic igues eguiten
 badegu, ipocritac, ta melancolicoac gue-
 rala esango dute, apaintcen baldin bague-
 ra, fin gaiztoraco apaintcen guerala esan-
 go dute; apaintcen ez baguera, ecer ezac,
 ta simpliac guerala esango dute; gure a-
 legriay eraqueri gaiztoac deituco diete, ta
 gure mortificacioay tristura, ta onela beti
 begui gaiztoarequin beguiratcen digutela,
 eciñ inoiz ayen gustocoac izan gaitzque.
 Ponderatcen dituzte gure imperfeccioac,
 ta peccatutzat publicatcen dituzte; gu-
 re peccatu venialac peccatu mortalac egui-
 ten dituzte, ta argaltasunaz eguiten di-
 tugun uts eguitiac, maliciazco peccatuac
 dirala esaten dute. Ta ala San Pabloc di-
 on becela, Jaungoicoaren amorioa bere-
 quin daucana viotz bera, ta intencio o-
 necoa da, baña mundutarrac guztia con-
 trara dira. Jaungoicoaren amorioa bere-
 quin daucanac, ez du inoiz gaitcic pen-
 satcen, baña contrara, mundutarrac beti

gaitz pensatcen dute, ta gure obrac gatic
 eciñ gaizqui itz eguin dutenian, intencio,
 edo fiñ gaiztoarequin eguiñac dirala esa-
 ten dute. Naiz izan ditzatela aariac ada-
 rrac, naiz ez, naiz izan ditecela zuriyac,
 naiz belzac, ez ditu orregatic otsoac al-
 baditu, jan gabe utcico. Eroceñ gauza e-
 guiñ dezagula, munduac beti guerra e-
 guingo digu. Confesatcen dembora asco
 igarotcen baldin badegu, esango dute, ; ea-
 cer guenuen añ espacioz confesorearequin
 egoteco? Dembora guchi igarotcen bade-
 gu, esango dute, lasterregui despachatu
 degula, ez ditugula pecatu guztiacon-
 fcsatu. Gure muguimentu guztiai conta
 artcen ibillico dira, coleraco itz bacar ba-
 tegatic esango dute ecer sufricen ez da-
 quigula. Gure negocioaz artcen degun cui-
 dadoa guticia irurituco zaie, gure man-
 sotasuna, eraqueria: baña mundutarren
 colerari animo andiaren icena emango di-
 ote, ayen guticiari bear dan cuidadoa iza-
 tia, ayen alcarrequico libertade gaiztoay,
 diversio honratua; onela armiarmac imi-
 tatcen dituztela, ceñac aritcen dira beti;
 erliac eguiten duten bearra gaitcen.

Urci diozagun , cristau maitia , mundu
 ichurari , eguin dezala nai baldin badu on-
 tzac bezala oju egunezco choriac inquie-
 ratceco ; iraun dezagun gure intencio , ta
 propositoetan , irautiac emango digu adi-
 tcera guztiro ciertoa dan , edo ez , Jaun-
 goicoaren serviciora , ta devociozco vicit-
 zara entregatu gueran. Izazqueac , ta izar-
 colocac biac alde aldean berdiñac dirurite
 arguitsuac izatian , baña Izarqueac instan-
 te batian beguetatic ayenaten dira , cer-
 gatic aideco su batzuec baicic ez dira , ba-
 ña Izarcolocac , beti irauten duen arguia
 dute , ala ipocresiac , ta eguiazco virtu-
 tiac campotic alcarren antz andia dute , ba-
 ña erraz ezagutcen da , ceññ dan ipocresia,
 ta ceññ eguiazco virtutia , cergatic ipocre-
 siac iraupenic ez du , ta quez becela ecer
 ecera biurten da goratu ezquero , baña e-
 guiazco virtutiac firme irauten du. Gure
 devocioaren asiera aseguratceco ez da di-
 cha chiquia argatic desprecioac , ta mur-
 muracioac padecitcia , cergatic ori dala me-
 dio libratcen guera vanidadian , ta sober-
 bian erortceco peligrotic , ta bi vicio a-
 bei aguintcen die infernucos Faraonec , gu-

re animan jayotcen dan ona , jayo beceñ
 laster galteco. Igitoco Faraonec Emagui-
 ñai aguintcen cien bezala Israelgo seme
 guztiaç , jayotcen ciran instantian , iltceco.
 Crucificatuac gaude munduarentzaco , ta
 munduac ere crucificatua egon bear du
 guretzaco. Arc erotzat gaucazqui , guc
 bera iruqui dezagun.

II. CAPITULO A.

Animo ona iruqui bear degula.

Arguia berez ederra , ta gure beguiac
 deseaten dutena bada ere , illumbetan lu-
 zaro egon ezquero ofenditen ditu lembi-
 cico beguiratcian. Erriren bateco gendia-
 requin tratatera eguiñ arteraño , berac a-
 gradatu , ta agasajo andicoac izanagatic
 ere , satisfacio guchi ta tristura piscaren
 bat beti izaten degu. Balitzaque , cristau
 maítia , munduari utcira Jangoicoaren ser-
 vicioan asitcen ceran lembicico onetan sen-
 tituco dituzula zure barrenen inquietacio,
 ta tentacioaren batzuec , au da , balitzaque

munduco eraqueriaz , ta pecatuco vide
 guztiaz eguin dezun despeidac tristuraren
 bat , ta animoren faltaren bat zure viot-
 zian sortuco duela : guertatcen bazaitzu o-
 nelaco gauzaric , escatcen dizut izan de-
 zazula arren paciencia piscabat , cergatic
 ez da ecer izango , ez bada vicitzaren al-
 datciac sortuco duen izu piscaren bat , orĩ
 igarotcian , consuelo gueyago errecibitu-
 co dituzu. Balitzaque izango dituzula lem-
 bician neque piscaren bat mundutar ero ,
 ta burlatzalliac beren eroqueriaquin ema-
 ten cizuten estimacioa , ta alabanzac utcia-
 tcen , ; O Jauna ! ; naico dezu zuc Jaun-
 goicoac eguiaz emango dizun betico glo-
 ria galdu ! Gogoratuco zaizquitzu orañdic
 orañdaño izan dituzun eraqueri , ta diver-
 sioac , ta zure viotza berriz berenganatu
 naico dute , baña ; izango dezu animoa i-
 raupenic ez duten mundu onetaco vani-
 dadiac gatic betico zori ona utciteco ? Si-
 nis zadazu, cristau maitia , ce irauten bade-
 zu zure proposito santuetan , dembora as-
 co igaro baño lenago alaco viotceco con-
 suelo zoragarriac izango dituzula , aitor-
 tucoco dezu , mynduac beazuna besteric ez

duela devocioco eztiaren aldian, ta devocioco egun batec mundutarren vicimoduco milla urtec baño gueyago valio duela.

Baña ongui icusten dezu, cristau maitia, cristautasuneco perfeccioaren mendia eciñ gueyagoraño dala altua. O Jauna esango dezu, ¿nola igo ninteque ni ara? Animo, cristau maitia; erlecumeac erliaren figura artcen ari diranian Ninfac deitzen zaye, ta ez daquite orduan oraindic egatcen ez lore gañera, ta ez mendietara, ez ta ere aldeco mendi montoi chiquietara, eztiya batutceco, baño beren amac eguiten duten eztiya janaz piscaca piscaca acitcen dira, jayotzen zaizcate egoac, ta aimbeste indar guero artcen dute, ce egatcen dute mendi guztietatic ezti gai billa; nola gu oraindic devocioan erle chiquichoac gueran, eguia da, eciñ igo guerala bereala asmoa artu degun lecura, perfeccioaren gallurrera, baño gure deseo, ta asmoen videz figura artcen asitcen baguera, asico zaizquigu egoac jayotcen. Confiatu bear degu bada, izango guerala egunen batian erle espiritualac, ta egatucog degula; mantendu gaitecen vitartian lena-

goco devotac eman cizquiguten aimbeste
 conseju , ta egemplo santuen eztiarequin ,
 esca diozagun Jangoicoari , usuen lumac
 bezalacoac dizquigula ; orrela ez bacarric
 ega dezagun mundu onetan gueran vitar-
 tian , ez bada bai ta ere descansa dezagun
 Ceruco glorian.

III. CAPITULO A.

*Tentacioen gañian , ta ceñ gauza diferenti-
 ac diran tentacioa sentitcia , ta
 artan consentitcia.*

Pensa zazu , cristau maitia , bere senar-
 rac chit asco nai dion Erreguiña gazte bati
 bialtzen diola intencio gaiztocoren batec ,
 ura galtciagatic , ta bere senarrari bear di-
 on leyalasuna galeracitciagatic mandatar
 infameren bat , bere desco gaiztoa aditcera
 ematera. Lembici , mandatar onec ema-
 ten dio aditcera Erreguiñari bestiaren de-
 seo gaiztoa ; bigarrena Erreguiñac ontzat
 artcen du , edo contrara , despreciatcen du
 mandatu gaizto ura ; irugarrena , etortcen
 da artan , edo contrara , ez da etortcen ,

edo artan consentitcen. Onela bada demonioac, munduac, ta araguiac anima Jangoicoarequin desposatua icusi ezquero, bialcen diozcate tentacioac, ceñac mediante lembici aditcera ematen zayo pecatua, bigarrena, onen ondoren gustatcen zayo, edo contrara, etzayo gustatcen pecatua, ta azquenic irugarrena, consentitcen du, edo contrara, ez du consentitcen pecatuan. Abec dira peatura jechitceco iru escallera mallac, tentacioa, gustoa, ta consentimentua; ta ez baldin badira ere pecatu guztietan claro ezagutcen, ezagutcen dira orregatic ere pecatu andietan.

Pecatucot tentacioac vicitza guztian irungo baliguque ere, eciñ eguin gaitzaque Jaungoicoaren disgustocoac, ez bazaigu gustatcen pecatua, ta artan consentitcen ez badegu. Ta da arrazoia, cergetic etortcen zaigunian tentacioa, edo sentitcen degunian, ez degu guc artan ez arteric, ta ez parteric; ez bada gure vorondatiac artan parteric ez duela, tentacioac icutu eguiten gaitu, edo esaten dan bezala, padecitu eguiten degu tentacioa, ta gure vorondatez artan gustoric artcen

ez degun ezqueroztenic, eciñ artan culpante izan gaitezque. San Pabloc demboran lucian padecitu cituen seigarren mandamentuaren contraco tentacioac, baña nola etzuan ayetan consentitcen, ez cion Jaungoico-ari ayec gatic disgustoric eman, ez bada contrara gusto andia. Santa Angela Fulginocoac ere tentacio añ izugarriac padecitu cituen seigarren mandamentuaren contra, ce erocēñ erruquiramugui diteque berac nola contatcen detuen aditu ezquero. Andiac izan ciran ere S. Franciscoc, ta San Benitoc padecitu cituzten tentacioac, ayec ventzutceco, batac larren gañera, ta bestiac elurretara beren buruac bota cituztenian, ta etzuten orregatic Jaungoicoaren gracia batere galdu, ez bada contrara, asco gueytu zuten.

Animo andia iruqui bear dezu, cristau maitia, tentacioetan, ta ez iñoiz ere zure burua ventzututzat eman, gustatcen etzaizquitzun artian; bada ongui contuan iruqui bear dezu, tentacioac sentitcetic aietan consentician dagoen diferencia, ta da, senti ditzaquegula gustatu ezagatic, baña eciñ consenti ditzaquegula gustatu gabe,

cergatic consentitcera allegatceco , gustoa
 da gueyenian videa. Ipiñi ditzaquigutela
 bada gure animaco etsayac pecaturaco nai
 diruzten tentacio , ta maitatce guztiaç , e-
 gon ditecela nai baldin badute beti gure
 viotceco atectan barrena sartceco aleguiña
 eguiten , itz batian , valia ditecela nai du-
 ten tentacio modu guztiaz , ayetan con-
 sentitcen ez degun artian , eciñ Jaungoi-
 coa ofenditu dezaquegu. Nola lenago e-
 san deran Erreguiñaren senar Erreguea e-
 ciñ Erreguiña gatic sentitua egon diteque
 bialdu cioten mandatu infamea gatic , ez
 baldiñ bacitzayon Erreguiñari mandatu u-
 ra batere gustatu , ala ere eciñ gugatic Ja-
 ungoicoa sentitua egon diteque gure etsa-
 yac bialtzen dizquiguten tentacioac gatic ,
 ez baldin badegu ayetan gure vorondatez
 batere gustoric artcen. Bada orregatic ere
 esaten gauden gauzan diferenciaren bat
 gure animaren ta esan deran Erreguiñaren
 vitartian. Erreguiñac mandatu gaizto ura
 aditcen duenian bere escuan dauca berea-
 la mandatari gaizto ura despeitcia , baña
 ez dago beti animaren escuan tentacioa ez
 sentitcia , aren escuan badago ere ez con-

sentitcia , ta arrazoi onengatic , luzaro iraunagatic ere tentacioac , eciñ calteric e-
guin dizaquegu consentitcen ez degun bitartian.

Tentaciotic sortcen dan gustoaren gañian contuan egoteco jaquiñ bear dezu bi porcio , edo parte ditugula gure animan; bata arrazoyaren aldecoa , ceñac beti arrazoyac , ta Jaungoicoaren legueac escatcen duenera muguitcen gaitu , ta nola gorputzarequin dagoen gure anima , bestia gorputzaren aldecoa da , ta onec beti arrazoyaren contraco gaucetara muguitcen gaitu , alde onetatic animalien antza du , ala ascotan guertatcen da , alde onetatic animac bere vorondate guztiaren contra gustoa sentitcia . Au da San Pabloc aditcera ematen duen bere buruarequico guerra , esaten duenian ; araguiac espirituaren contra deseaten duela ; bere barrenian bi legue dituela bata araguiarena , ta bestia espirituarena , ta beste onelaco gauzac.

; Ez dezu iñoiz icusi , cristau maitia , braserõ andi bat sú ascorequin estalita , andic amar , edo amabi ordura erabiltcen bada autsa , súric dan icusteco , ez dala

arquitzen erdian pisca, pisca bat baicic,
 ta ura batutceco ere nequea izaten dala?
 baña orregatic guero arequin lenago illac
 ceuden icatz asco piztutcen dirala? Oro-
 bat guertatcen zaigu bada guri gure tenta-
 cio andietan Jangoicoaren amorioarequin,
 ceña dan gure animaco vicitza espirituala,
 cergatic tentacioac, gorputzaren aldetic
 animac duen partera atseguintasuna bota-
 ra, badiruri estaltcen duela autsez anima,
 ta Jangoicoaren amorioaren suba añ chin-
 gar chiquira viurtcen du, ce ez da archi-
 tcen ez bada viotzaren erdi erdian, edo
 beerenian, ta an topatcia ere nequea cos-
 tatcen da, baña ez dago orregatic ere du-
 daric an dagoela, cergatic gure animan,
 ta gorputzian guztia turbatua badago ere,
 pecatuan ez consentitceco animo osoare-
 quin gaude, etzayo gure animari, gor-
 putzaren aldetic sentitcen duen gustoa
 gustatcen, ta gusto gaiztoa vorondatia-
 ren inguruan badabil ere, ez dago aren
 barrenen; ta onetan ezagutcen da, ez da-
 la vondatezcoa gusto ura, ta beragatic e-
 ciñ izan diteque pecatua.

IV. CAPITULO A.

Esan deran gauzaren gañian bi ejemplo eder

Chit asco conveni da gauz au ongui entenditcia , ta orregatic gueyago esplicatuco det. San Geronimoc contatcen duen mutil gaztiac , ceña tafetanezco guerricoaquin delicadeza andian loturic oi zuri eder baten gañian ipiñi zuten , ta pecatura mugitceco arequin etzin zan emacume gaiztoac escuz, ta itzez milla ciquinqueria eguiten ciozcan, ceñec ez du bada ezagutcententacio , ta muguimntu ciquiñ izugarriac orduan bere gorputzian sentituco cituela ? Aren sentiduac sentituco zuten gusto ciquiña , aren imaginacioa ciquinqueriayetaz betia egongo zan. Ez dago dudaric , baña orregatic ere tentacio añ izugarrien artian eman zuen aditcera , etcegoela ventzutua aren viotza , ta etzuela aren vorondatiac iñolaz ere consentitcen , bada icusiric aren espirituac , guztiac bere contra , ta eciñ bere gorputcian mingañaz ez bada bestezaz baliatu zala , e

baquí zuen ortzaquin , ta tiratu cion bere arpeguira borrero guztia atormentatu cezaqueten baño , gueyago atormentatcen zuen emacume galdu ari. Ala , penaquin ventzutuco zuela esperanzaric etzuen Erregue , edo Tiranoac , gustoquin ventzuticia pensatu zuen.

Miragarria da ere onelaco tentacio bantian Santa Cataliana Senacoac izan zuen pelea. Itz guchitan esango det. Eman cion Jaungoicoac licencia deabruari icuitcen etzuen casoan Santa au seigarren mandamentuaren contra nai zuen becela tentatceco, Asi zan bada tentatcen ; bete zuen aren viotza milla tentacio ciquiñez , ta gueyago muguitceco , bere lagunaquin guizon ta emacumeen figuran jarriric , pensa alditezquien porqueria guztia aren aurrian eguiten cituen , aiequin bat milla itz deshonesto esaten cituen ; ta gauza abecompotic baciran ere , orregatic ere etzuen sentitcen videz Santaren viotcian guchi sartcen , Santac berac guero esan zuen becela , bacar bacarric animaren arrazoi aldeco partetic vorondatia libre ceucan , ceña etzuen muguitu gusto ciquiñen tem-

pestade izugarri arc. Tentacio onec guz-
 tiac denbora lucian iraun zuen , ta onen
 ondoren aguertu citzayon Jesus , ta San-
 tac esan cion , ; non egondu cera nere Ja-
 un maitia , nere viotza ainbeste illuntasu-
 nez , ta ciquinqueriaz betia egon danian ?
 Erantzun cion Jesusec , zure viotzaren ba-
 rrenen nenguen , nere alaba ; Santac esan
 cion : nola vici ciñan Jauna ainbeste ci-
 quinqueria ceuden viotzian ? ; cer , vici-
 tzen cera zú lecu añ ciquiñetan ? Jesusec
 erantzun cion ; esan zadazu , ; zure viot-
 ceco pensamentu ciquiñ aiec gustoa , edo
 pena eman cizuten ? nai gabea , edo atse-
 guiña ? Santac etantzun cion ; O Jauna !
 etciraten ez contenturic ematen , ezbada
 eciñ gueyagorañoco nai gabea , pena , ta
 tristura , etcitzaizquidan iñolaz ere gusta-
 tzen , ezbada contrara , pena andia artcen
 nuen. Jesusec orduan esan cion , ; norc
 ipiñi zuen zure viotcian nai gabe , ta tris-
 tura ori , ezbada nic zure viotzaren erdi-
 an ezcutatua nengoan onec ? Sinis zada-
 zu , nere alaba , ce ni an egon ez baldia
 banintz zure vorondatiaren inguruan ce-
 biltzan pensamentu ayec , ta eciñ vent-

zutu zutenac , ventzutuco zutela falta gabe , ta sartuco citala barrenen , baña nola ni an barrenen nengoen , nai gabea , ta disgustoã zure viotcian ipiñi nuen , ta onen medioz aibeste indartu zan , ce tentacioari contra eguin cion , ta cergatic nai zuen aibat eciñ zuen , disgusto , ta aborrecimentu gueyago aren contra sentiitcen zuen , bai ta ere bere buruaren contra , ta pena abec zuretzat merecimentu , ta erabaci andiac izan ciran , bai ta ere zure virtutia , ta indarrac gueitceco.

Ez dezu icusten , cristau mairia , nola sú au , (au da Jaungoicoaren amorioa) autsaz estalia cegoen , ta tentacioa , ta gustoa viotzaren barrenen sartu cirala , inguratu zutela ere vorondatia , ceñac bacarric bere Salvadoriaren laguntciarequin contra eguin cien nai gabe , pena , ta aborrecimentua mediante , pecatu artan iñoiz ere ez consentitceco asmoan firme irauten zuala. O Jauna ! cer pena Jaungoicoa amatzen duen personarentzat berequin daucan , edo ez , ez jaquitia utsa ere , ta guardatu nai duen Jaungoicoaren amorioa , argan guztiro acabatu dan edo ez ! Baña

áu da Jaungoicozco amorioaren lore fiña,
 amantiari amorioa-gatic sufrieracitcia, ta
 padecieracitcia, bera defenditcen duen a-
 morioa, berequin daucan ez daquiela.

V. CAPITULOA.

*Tentacioetan dagoen cristavaren
 animagarria.*

Ez ditu, cristau maitia, tentacio andi,
 ta izugarri abec Jaungoicoac iñoiz permi-
 titcen, ez bada bere amorio andi batera jaso-
 nai dituen animen contra. Baña ez da or-
 regatic ere falta gabe guertatcen dan gau-
 za, tentacio andi aben ondoren, amorio
 andi artara cristauva allegatcia, cergatic
 ascotan guertatcen da, onelaco tentacio
 andietan erori gabe iraun zutenac, cerga-
 tic guero Jangoicoaren graciari bear bece-
 la erantzun ez cioten, tentacio chiquiagoe-
 tan ventzutuc izatea, ta au esaten dizut,
 orrelaco tentacio andiac noizbait izaten
 badituzu, jaquin dezazun, Jaungoicoac
 mesede andi batequin favorecitcen zaitue-

la, bada ematen dizu aditcera, andia e-
 guin nai zaituela beraren beguietan; bai
 ta ere esaten dizut au, Jaquin dezazun,
 Jangoicoac orrela favoreciten bazaitu ere,
 beti humill, ta bildurrac bici bear dezu-
 la, zure buruaz fiatu ta confianzaric ar-
 tu ez dezazun, tentacio andiac garaitu,
 edo ventzutu ezquero, chiquiac ventzu-
 tucodituzula; non ta etceran guztiz ley-
 ala Jaungoicoari.

Erocein tentacio, ta erocein gusto ga-
 izto datorquizula bada, zure vorondati-
 ac ez tentacioan, ta ez gustoan consenti-
 tzen ez duen bitartian, bazaudezque es-
 tutu gabe, cergatic ez dezu ofenditu Ja-
 ungoicoa. Vicitzaren señaleric ematen ez
 duen moduan accidentatua dagoenian per-
 sona, escua viotzaren gañian ipintzen za-
 yo, ta dan muguimenturic chiquiena an-
 sentitcen bada, señaile da vici dala, ta es-
 pera diteque ur precioso, edo senderaria-
 ren bat dala mediante bere indarrera, ta
 ezaguerara etorrice dala. Ala guertatcen
 da ascotan gure animarequin; badiruri
 tentacioen poderioz gure anima indarric
 batere gabe guelditu dala, ta accidenta-

tuac becela ez vicitzaric, ta ez muguimentu
 tu espiritualic ez duela; baña nai baldin
 badegu ezagutu, vici dan, ipiñi dezagun
 gure escua viotzaren gañian, beguira de-
 zagun arc, ta vorondatiac muguimentu
 espiritualic oraindic ote duen; au da, ten-
 tacioari, ta gustoari contra eguiten die-
 ten, au ala baldin bada, seguru gaude, Ja-
 ungoicoaren gracia, ceña dan gure anima-
 ren vicia, gurequin dagoela, ta Jesu Cristo
 gure Jauna, ezcaturic badere, gure ba-
 rrenen dagoela, ta ala betico oracioaren,
 Sacramentuen, ta Jaungoicoaganaco con-
 fiantzaren videz gureganatuco dirugu gu-
 re indarrac, ta izango degu vicitza be-
 tico, ta atseguin bat.

VI. CAPITULOA.

*Tentacioa, ta gustoa nola peccatu
 izan ditezquian.*

Lenago (*) esan degun Erreguina

(*) Liburu onen parte onetaco irugarren ca-
 pituloan.

gazteac etzuen inoiz culparic izan eman
 cioten mandatu gaiztoan, cergatic e-
 san degun becela, aren vorondatiaren
 contra mandatu urá izan zan. Baña bes-
 tiac mandatu gaizto urá bialtzeco moti-
 voren bat berac nola bait eman izan ba-
 zuen, mandatu urá bialtzen cionaren vi-
 otzian bereganaco amorioa sartu nay-
 an, culpante izango zan dudaric gabe
 mandatu artan bertan; ta guero artara
 etorri nai ez izanagatic, orregatic ere
 erreprensioa, ta castigua mereci zuen.
 Onela guertatzen dá ascotan tentacioa
 izatian bertan guc pecatu eguitia, cerga-
 tic artaraco motivoa ematen degun.
 Comparaciona: ezagutzen det nic jo-
 catzen asi ezquero, erraz aserratzen
 naizala, juramentu, ta erneguae egui-
 ten diturala, onelaco jocoac tentaciot-
 zat servitzen didala; onelaco ocasioan
 bada culpante naiz jocoan izan dituran
 tentacio guztietan. Orobat baldin ba-
 daquit nic onelaco, edo alaco conversa-
 cioc tentacioren bat sortzen dirala, ta
 orregatic ere nere vorondatez artara jo-
 aten banaiz, an sortzen zaiztan tenta-

cio guztietan culpante izango naiz.

Tentacioarequin batian datorren gustoa utzi albaditeque, errecibitzia pecatu dá beti, guchi, edo gueyago nola dan artzen dan gustoa, ematen zayon consentimentua chiquia, edo andia, laburra, edo lucia. Erreprenditzeco gauza egingo luque esan deran Erreguiñac baldin eguiten diotenian pretensio gaizto urá, ez bacarric aditzen, ez bada baita ere aren gañian bere artian gozaten egongo balitzaque, cergatic bestiaren gusto gaiztoa cumplitu nai ez izanagatic, orregatic ere viotzaz artan consentitzen dú artzen duen consueloa mediante, ta beti dá gauza gaiztoa viotzian, edo gorputzian gauza ciquiñari lecu ematia, edo obeto esateco viotzaz consentitzian dago gaitz guztia, cergatic au gabe gorputzaz gauza ciquiñetan egotia, ez dá pecatu.

Pecaturen batera tentatua ceranian bada, pensa zazu eman dezun zure vorondatez tentacio artaraco motivoric, ta eman badezu, orretan bertan pecatu eguiñ cenuen, cergatic zure voronda-

tez pecaturaco peligroan jarri ciñan. Au
aditcen dá , tentacioraco occasio ura er-
raz utzi albadezaquezun nai izatera , e-
do ezagutu bacenuen , edo ezagutu be-
ar bacenuen tentacio urá etorrico citza-
itzula ; baña ez baldiñ badezu tentacio-
raco iñolaz motivoric eman , etzera i-
ñolaz culpante tentacioan. Tentaciotic
sortu zan gustoa utzi albacitequian , ta
orregatic ere utzi ez bada , beti izango
dá faltaren bat guchi , edo gueyago , no-
la artan dembora igaro degun , ta nola
coa dán gusto urá sortu digun gauza.

Emacume batec pretensio gaiztoric ,
edo gauza ciquiñic berari eguiteco mo-
tivoric ez emanagtic , gustatzen bazaio
orregatic ere , bestec cortejatzia , ta pre-
tensio gaiztoac eguitia , erreprensioa me-
reci dú , gauza gaiztoagocoetara pasat-
zeco asmoric ez izanagatic. Compar-
ciora , urá cortejatcen duen majo ciqui-
ña guitarra chi ongui jotzen ari dala ar-
tucó baluque arc gustoa , ez mutil arc e-
guiten diozcan amorioaren pretensio ,
edo eraqueric gatic , ez bada guitarra-
ren soñua gatic , onetan ez litzaque pe-

caturic izango, eguia dá, ez luque luzaro gusto abetan egon bear, ortic galayaren cariñoetan gusto artcera allegatu ez dediñ. Orobat, eracutsico baldin balizquiraque niri norbaitec, nere etsayaz vengantza artzeco artificioac, edo moduac, ta ez baldin banuque nic nere etsayaz vengatzeco gustoric, edo consentimenturic artuco, ez bada arc orretaraco pensatu dituen artificioetan bere habilidadiagatic bacarric gusto artzen egongo banintzaque, ez nuque pecaturic eguingo: eguia dá, ez nuque luzaro gusto onetan egon bear, venganzaz gusto artzera piscaca, piscaca allegatu ez nadin.

Ascotan, eragotzi ditequien baño lenago, bat batian sortzen zaigu tentacioarequin batian gusto gaiztoa, ta eciñ izan diteque ori pecatu venial bat baño gueyago; baña guelditzen baguera naguitasunez dembora piscaren batian artan, andiagoa eguiten dá, ta orandic andiagoa baldiñ ezagutu ezquero guelditzen baguera naguitasunez, gugandic botatceco ecer eguin gabe; baña artzen

baldin badegu asmioa gure vorondatez gusto ayetan gozatzeco, asmo au bera pecatu mortala izango dá, gauza andian baldin bada gusto urá. Vicio andia dá emacumeagan, adisquide eroarequin dituen amorio lotsagarrietan seguitzia, aurreragoco lanetaraco libertaderic ari eman nai ez izaganatic.

VII. CAPITULOA.

Tentacio andien contraco erremedioa.

Tentacioren bat zugan sentitzen dezun beceñ laster eguizu, aurchoac otsoa, edo artza campoan icusten dutenian eguiten dutena; corrica joaten dira bereala aitaren, edo amaren besoetan beren burua guardatcera, edo oju eguiten die beñepen laguntzeco: zuaz zú ere orrela Jaungoicoa gana bere misericordia, ta laguntzia escatzen diozula. Au dá gure Jesusec eracusten digun erremedioa; eguizute oracioa, tentaciogan sartu etzaitezten. Icusten badezu,

badiraubela orregatic tentacioac, edo gueytzen dala, zuaz consideracioaz Jesusen gurutzia laztanga artzera, Jesus Crucificatua zure aurrian iruquico baldin bacenuque becela. Esayozu ez dezula inñolaz ere tentacioan consentitu nai, ta lagun dizazula, ta segui zazu tentacioac diraben dembora guztian beti esaten, ez dezula inñolaz ere artan consentitu nai.

Baña tentacioan consentituco ez dezula onela Jaungoicoari itzac eman ezquero, ta consentitzetic igues eguin ezquero, ez diozazla tentacioari beguiratu, ez bada zure Jesusi, cergatic tentacioari beguiratzen badiozu, batez ere andia danian, peligro andian jarrico cerá consentitzeco.

Diverti zazu zure imaginacioa ocupacionen batzuetan, cergatic abec viotcian sartu ezquero, ta beren lecuá an ocupatu ezquero, botaco dituzte campora tentacioac. Tentacio chiqui, ta andiac ventzutzeco erremedio andia dá gure viotza gure aita espiritualari aguertzia, ta aditzera ematia ditugun

tentacio, ta griñalda gaiztoac, cergatic deabruac anima engañatzeco lembici procuratzen duana dá, ura issillic ego-tia cer pasatcen zayon iñori aditzera eman gabe, nola nescabc, edo emacumeac pecaturaco engañatu nai dituztenac lembicico esaten dien, ez diezateela eman aditzera gurasoai, edo senarrai ayequin cer darabilten, contrara, Jaungoicoac aditzera ematen digu, emateco parte gure aita espirituarari cer pasatzen zaygun gure barrenen.

Ta onen guztiaren ondoren leyatzen bada tentacioa, ventzutu bear gaitaela, ez degu beste gauzaric eguin bear, ez bada iraun gure tentacioa despreciatzen, ta esaten, ez degula iñoiz ere artan consentitu nai, cergatic nola eciñ ezconduditequien nescacha nai ez duela berac esaten duen bitartian, ala anima ere turbatua egonagatic eciñ iñoiz tentacioac gaitcic eguin diozaque, artan consentitu nai ez duela esaten duen bitartian.

Etzaitecela jarri demandan zure et-sayarequin, ta ez diozazula ere beste it-zic esan, ez bada gure Jesusec esan cio-

na, ta ceñarequin lotsaturic bialdu zu-
 en, au da; *quen ari nigandic Satanás,*
cergatic escribitua ceagoc; zure Jaun-
 goicoa adoratuco dezu, ta ura bacarric
 servituco dezu. Ta nola honraco ema-
 cumeac ez dion bateré itzic erantzun
 bear, ezta arpeguira beguiratu bear ere
 gauza ciquiñen batera muguitu nai du-
 en infamiari, ez bada atziac emanta,
 bere viotza bere senarra-ganontz ipiñi
 bear duen, ta Matrimonioan leyala i-
 zateco eman cion itza berritu bear du-
 en bere viotzian, infame arequin cum-
 plimentuetan, ta tratu eguiten becela
 guelditu gabe, ala animac ere tentacio-
 ren bat sentitcen duenian, ez du are-
 quin iñolaz ere izquetan guelditu bear,
 ez bada Jesus ganontz biurtu bear du be-
 reala, ta eman bear dio berriro leyala
 izateco itza.

VIII. CAPITULO A.

Etzayela tentacio chiquiai
lecuric eman bear.

Tentacio andien contra animo andia-

requiñ peleatu bear bada ere, cergatic
 eciñ gueyagorañoco provechoa dator-
 quigu ayec ventzutzetic, balitzaque o-
 rregatic ere, etzaigula provechu guchi-
 ago etorrigo tentacio chiquien contra
 ongui peleatcetic, cergatic nola andiac
 chiquiai calidadian eramaten dien, ala
 chiquiac andiai cembatian, edo nume-
 roan asco eramaten die; alaco moduan
 eze ayec ventzutzetic datorren prove-
 choa berdincatu diteque andiac ventzu-
 tzetic datorren provechuarequin. Otso-
 ac, ta artzac ebliac baño peligrosoago-
 ac dira dudaric gabe, baño ezdigute en-
 fadatceco aimbeste motivo ematen: er-
 raz da iñor ez iltcia batec, baña ezda e-
 rraz colera chiquiac ez izatia; ceñata-
 raco ocasioac puntutic puntura izaten
 dira. Erraz da adulterioric ez eguitia,
 baña ezda añ erraz beguiratce cariñoso,
 maitatce, erregalo, itz, ta beste onela-
 co modu cariñosoric, ta enamoratuen
 anzecoric ez eguitia. Ez da gaitz sena-
 rrari, edo emazteari gorputzaz leialtasu
 na ez faltatcia, baña ez da añ erraz viot-
 zaz ez faltatcia. Erraz da besterequico

ibilleraquin Matrimonioa ez ciquintzia,
baña gaitz da, Matrimonioco amorioa
ez despreciatcia. Erraz da besteren on-
dasunac ez ostutcia, baña gaitz da ez de-
seatcia. Erraz da Justiciaren aurrian
juramentu falsoric ez eguitia, baña ga-
itz da conversacioetan guezurric ez esa-
tia. Erraz da ez moscortcia, baña gaitz
da, janian, ta eranian beardan templan-
za guardatcia. Erraz dá besteri iltcia
ez deseatcia, baña gaitz dá beste gaitz
chiquiren bat ez deseatcia. Erraz dá pro-
jimoari credituric ez galtcia, baña gaitz
dá ez despreciatcia. Itz batian, colera,
sospecha, envidia, zelo, amorio, eroque-
ri, vanidade, tolesqueri, jantci gueiegui,
pensamentu ciquiñ, ta beste onelaco ten-
tacio chiquiac dira gueyenian Jaungoi-
coaren bildurrecoen tentacioac, ta o-
rregatic, christau maitia, cuidado an-
diarequiñ prestatu bear degu, aben con-
tra peleatzeco, ta seguru egon gaitezque
ce cembat victoria erabazten ditugun
tentacio chiqui aben contra, aimbeste
arri precioso ipiñico ditugula Jaungoi-
coac prestatzen digun gloriaco coroan.

Arrazoi onegatic diot, tentacio andien
 contra (etortcen badira,) ongui, ta ani-
 mo andiarequiñ peleatcia procuratcen
 degula, ala ere ongui, ta cuidado andia-
 requiñ defenditu bear guerala tentacio
 chiquietatic.

IX. CAPITULO A.

Tentacio chiquien contraco erremedioac.

Tentacio chiqui aben gañian, nola di-
 ran vanidade, sospecha, inquietacio,
 envidia, celo, amorio ero, ta beste o-
 nelaco aurqueric, ebliac, edo elchuac
 becela gure beguien aurretic pasatzen
 diranac, batzuetan arpeguian, ta bes-
 tietan sudurretan picatzen gaituztela;
 aytatic guztiro eciñ libre egon gaitez-
 quien ezqueroztenic, esaten dizurana
 dá, ayen contra eguin ditequien gau-
 zaric onena, ez penatzia dala, cergatic
 enfadatu baguintzateque, eciñ gaitzic
 eguin dizaquegute, Jaungoicoa servit-
 zeco asmo firmian, irauten badegu.

Despreciatztzu bada tentacio chiqui

oriec , ta ez zaitecela cer esan nai dizuten pensatzen ere guelditu ; utzi zayezu , ega dezatela nai duten guztia zure belarrien inguruan , ta dabilzala ebliac becela gira biraca zure inguruan ; ta picatzera eguiten dizutenian , ta zure viotzera allegatu nai dutenian , ez diezazula beguiratze gaizto bat baicic eguin ayequin peleatzen , ta erantzuten guelditu gabe , ez bada tentacioen contraco obrac eguiten dituzula , ta batez ere Jaungoicoaren amorioaco actoac. Nere iritzia seguitu nai badezu , ondoena izango dá , sentitzen dezun tentacioaren contraco virtutia orduan ipintzen ez empeñatzia , cergatic bestela ayequin demandan jartzia besteric izango ez litzaque. Cer tentacio modu dan ezagutzeco , dembora baldin badezu , eguizu tentacio aren contraco acto bat , ta au eguin ezquero biur zazu zure viotza Jesus gana , ta aren amoriozco actoa dala mediante bere oñetan muñ eguiozu. Au dá etsaya ventzutze moduric onena nola tentacio chiquietan , ala andietan , cergatic nola Jaungoicoaren amorioac

beste virtute guztien perfeccioac, beregan daucazquien, ta virtutiac berac baño ere obequi ala ere, vicio guztien contraco erremedioric onena dá. Ta acostumbratzen bacera eroceñ tentaciotan erremedio onetzaz valiatzera, ez dezu cer beguiratu, ta examiñaturic izango, cer tentacioc inquietatzen zaituen, ez bada turbatua sentitzen cerán beceñ laster, erremedio andi au billatuco dezu, ta onetzaz gañera añ icaragarria dá deabruarentzat erremedio au, ce icusten duenian aren tentacioac Jaungoicoaren amiora muguitzen gaituztela, bereala guelditzen dá gú perseguitzetic. Asco dá esan derana tentacio chiqui, ta maiz guertatzen diranentzaco, ceñen contra bat banaca ocupatu naico luquenac, necatu bai, ta beste provechuric ateraco ez luque.

X. CAPITULO.

Nola indartu bear degun gure espiritua tentacioen contraraco.

Examiña zazu noician beñ cer pasio,

edo grñac aguintzen duten gueyena zure animan, ta oriec ezagutu ezquero, artu zazu vicitza modu bat guztiro orien contracoa nola pensamentuetan ala itzetan, ta obretan. Comparaciara: sentitzen bacera vanidadera inclinatus, consideratzitzu zure pecatuac, ta mundu onetaco gaucen ecer eza, ta miseria; ceñ guchi gustatuco zaizquitzun vanidadiac eriotzaco orduan, nola ez duten mereci orrelaco gauzac viotz presu batec orietan pensatcia, bada ezdira eraqueriac, aurren jostaquetac, ta ayen engaña garriac baicic.

Itz eguizu maiz vanidadiaren contra, ta onetan gusto guchi sentitcen badezu ere ez dezazula orregatic ere desprecia- tu gabe utci, vide onetatic orren contraco virtutiarequin adisquidetuco cera, ta gauza baten contra itz eguiñaren poderioz, muguitcen guera ari gorrotua izatera, lembician aficio piscaren bat baldiñ baguenion ere.

Eguintcitzu eguiñ alditzaquezun humildadeco acto guztiac zure gogoaren contra dirala irurituagatic, bada vide o-

netatic humilla izaten icasico dezu, ta alaco moduan vanidadiari indarrac quenduco diozcatzu, ce ez dio, tentacioa datorrenian, zure inclinacioac zuri consenti eracitceco aimbeste lagunduco, ta orrela aren contra indar gueyago izango dezu.

Guticiara inclinatua senti bazera, pensazazu cer buru gabequeri andia dan pecatu ori, bada guri servitceco eguiña danaren esclavo eguiten gaitu, ta eriotza etorri ezquero guztia nai ta nai ez utci bearco degula; balitzaquela guztia bereala galduco ditunaren escuetan gueldituco dirala ondasun orieci, ta oriequiñ gure ondoren guelditcen danac, bear bada orieci dirala motivo galduco duela bere anima; ta beste onelaco gauzac pensatzitzu. Itz eguizu gogotic vicio onen contra, ta alaba zazu gogotic munduco gaucen desprecioa. Zure barrenac contra eguiten badizu ere eguiñ cizquitzu maiz limosnac, ta caridadeco beste obrac, ta gueldi zaitez ere erabazvideren batez aprovechatu gabe.

Senti bacera amore eroaquiñ beste-

fic amatcera inclinatua , edo gustatcen bazaitzu , bestiac zu modu orretan amacchia , pensa zazu maiz ceñ peligrosoa dan eraqueri ori nola zuretzat , ala bestienzat , ceñ arrazoi gabeco gauza dá gure animaren obraric onena eraqueri orietan empleatcia , ceñ erraz esan ditiquien , orrelaco persona deshonesto bat dala. Itz eguizu beti castidadiaren , ta viotzeco tolesgabe tasunaren alde , eguizu ere aldezun guztia , au aditcera ematen duten obrac , tolesqueria , ta cortejoen eroqueria guztia utciric.

Paquedo demboran , aú dá inclinatua ceran pecatuco tentacioac , paquean utcitcen dizutenian , egercita zaitez ayen contraco virtutietan , ta orretaraco ocaioric ofrecitzen ez bazaitzu , cedorrec billa zazu , bada vide onetatic indartuco dezu zure viotza berriz tentacioa izaten dezuneco.

XI. CAPITULO A.

Inquietacioaren gañian.

Inquietacioa ez dá tentacio utsa , ezba-

da tentacio ascoren iturri bat becela, onen gañian cerbait esango det. Tristura ez da beste gauzaric, ez bada gure gogoaren contra gugan dagoen gaitcen baten viotceço pena: edo izan dedilla gure barrenecoa, nola dan ez jaquintasuna edo ignorancia, obra onetaco gogoaren, ta atseguintasunaren falta, edo tentacionen bat: edo izan dedilla campocoa, nola dan beartasuna, eritasuna, edo desprecioa. Ezagutcen duenian bada animac beregan gaitcen bat, pena ematen dio ura izatiac, ta au da tristura: guero bereala deseaten du artatic libratcia, ta ura beregandic quentceco moduac izatia, ta arrazoya dauca oneraño, cergatic berezco gauza da, ona deseatic, ta gaitcetic igues eguitia.

Gaitcetic libratceco erremedioac Jaungoicoaren amorioagatic deseaten baditu animac, pacienciarequin, mansotasunarequin, ta sosegwarequin billatuco ditu, artatic libratcia gueyago confiatcen duela Jangoicoren ontasunian, ta providencian, bere indar, habilidade, ta diligencian bano: bere buruaren amorioa gatic deseaten badu gaitcetic libratcia, orduan estu-

tu, necatuco da artaraco moduen billa,
 artatic libratcia Jaungoicoagan baño be-
 ragan gueyago baldio balegoque becelas;
 ez det esaten, berac ala pensatcen duela,
 baña bai ala pensatuco baldin baluque be-
 cela, estutcen dala.

Deseatcen duena, bereala arquitcen ez
 badu, inquietatcen da, ta gaitcen du pa-
 ciencia, au dala motivo gairza quendu be-
 arrian, gueytu eguiten zayo, ta alaco tris-
 turan sartcen da, ce iruricen zaio, ez da-
 la aren gaitzaren contraco erremedioric.
 Ezagutcen dezu emendic, nola lembician
 tristura arrazoyezcoa zan, nola guero in-
 quietacioa sortcen duen, ta azquenian in-
 quietacio onec eciñ gueyagoraño peligro-
 soa dan tristura sortcen duela.

Animari, pecatuaz campora etorri alda-
 quiquion gaitcic andiena, inquietacioa da,
 cergatic nola erri batecoac alcarrequin di-
 tuzten alboroto, ta aserriac erri guztia gal-
 tcen duten, ta campocoen-gandic defen-
 ditceco moduric gabe utcitcen duten, ala
 gure viotzac, bere artian turbatua, ta in-
 quietatua egon ezquero, gaitcen du inda-
 tra lenago cituen virturiac conservatceco,

ta bere etsaiaren tentacioetatic defenditce-
co, ceñac bereala eguiten ditu aldituen
diligencia guztiac, esan oi dan becela, ut
arrear arranza eguiteco.

Inquietacioa sortcen da sentitcen dan
gaitcetic libratceco, edo deseatcen dan o-
na logratceco deseo gueyeguitic, edo as-
cotan arrazoi gabecotic, ta orregatic ere
ez da gauzaric, orrec aibat gaitza gueit-
cen duenic, ta deseatcen dan ona lograt-
cetic gueyago apartatcen duenic.

Choriac sare, ta lazoetan preso gueldi-
tzen dira, cergatic ayetan beren burua i-
custen dutenian, bereala alborotaturic an-
dic libratu naian indarca asitcen dira, ta
onela guero ta presuago guelditcen dira.
Gaitcen batetic libratceco, edo ónen bat
logratceco deseoarequin preso senti cera-
nian bada, eguizu aleguin guztia zure vi-
otza sosegatceco; procura zazu zure en-
tendimentua, ta vorondatia paquean jar-
tcia, ta guero valia zaitez sosegu andiare-
quin zure gaitcetic libratceco ta deseo
dezun ona logratceco egoquiac diran mo-
duaz. Esaten deranian soseguz valiatceco,
ez det esan nai nagui ibiltceco, ez bada

ansiaric, alborotoric, ta inquietacioric ga-
be ibiltceco; ez badezu onela eguiten zu-
re deseoa logratu bearrian, guztia galdu
eguingo dezu, ta lenago baño gaizquia-
go gueldituco cera.

Davidec esaten cion Jaungoicoari: O
Jauna, nere anima beti nere escuetan da-
go, ta zure legueaz aztu ez naiz. Exa-
miña zaitez egunian ascotan, edo guchiena
goician, ta arratsian, zure anima zure
escutan ote daucazun, edo pasio, edo in-
quietacioren batec eramán ote dizun. Exa-
miña zaitez zure viotza zure escuetan ote
daucazun, edo igues eguin ote dizun, be-
ar ez dan amorio, gorroto, envidia, gu-
ticia, bildur, aserre, alegria, edo bear ez
dan beste aficioren batian nastutceco; ta
escapatu baldin badizu, bereala billa za-
zu, ta eramazu poliqui, poliqui Jaungoi-
coaren aurrera, zure aficio, ta deseoa guz-
tiac beraren obediencia, ta vorondatera
sugetatcen dituzula, cergatic gauza esti-
maturen bat galicia bildur diranac, escu-
an ongui estututa iruquitcen dute: ala Da-
videc becela esan bear degu: O Jauna, ne-
re anima peligro andian dago, orregatic

dacart beti nefe escuetan , ta onela zure
 legueaz aztu ez naiz. Ez diezazula utci
 zure deseo , diran chiqui , ta importancia
 ric guchienecoai ere zu inquietatcen , cer-
 gatic bestela , guero andiac , ta impor-
 tanciacoac alborotatceco , ta inquietatceco
 prestatuagoa billatuco zaituzte.

Inquietacioren bat datorquizula ezagut-
 cen dezunian , encomenda zaitez Jaungo-
 icuari, ta artu zazu asmo firmia zure dese-
 oac escatcen dizun gauzaric batere ez egui-
 teco , inquietacioa pasatu artian , bereala
 eguitia escatcen duen gauzaren bat ez bal-
 din bada , bada orduan ere zure desea
 sosegatceco aleguina eguin , bear dezuna ,
 ez deseoaz bat , ez bada arrazoyaz bat
 eguiteco.

Aguertu zaiozu albadezu zure inquieta-
 cioa zure Confesoriari , edo adisquide de-
 votoren bati, ta sosegatuco cera duda ga-
 be , cergatic gure animaco gaitzac beste-
 requin comunicatciac , beti calenturan da
 goen gorputzari sangriac eguiten dion me-
 sedea bera , gure animari eguiten dio. Er-
 remedio guztien erremedioa da au. Con-
 seju au eman cion bere semeari Franciaco

Erregue San Luisec esan cion bada : zure
viotcian penaren bat sentitcen badezu, e-
saiozu bereala zure Confesoreari; edo bes-
te persona onen bati, ta errazago sufritu-
co dezu orrela zure pena arc emango di-
zun cosueloarequin.

XII. CAPITULO A.

Tristuraren gañian.

Motivo santuetatic sortcen dan tristu-
rac gure animaren oneraco dan pena era-
cartcen digu, baña munduco gauceratic
sortcen danac, eriotza eracartcen digu, e-
saten zuen San Pabloc. Tristura bada izan
diteque ona, ta izan diteque gaiztoa, no-
laco efectoac gugan eguiten dituen. Eguia
da onac baño, gaiztoac gueyago egui-
ten dituele; onac bi baicic ez dira, ceñac
diran misericordia, ta penitencia; baña

gaiztoac ; guchiaena sei badira , ta abec dira , estutasuna , naguitasuna , enfadua , zeloac , envidia , ta pacienciaren falta ; orregatic esaten zuen Jaquintsuac , tristurac asco iltzen dituela , ta inñori provechoric ecartzen ez diola , cergatic tristuratic bi on badatoz , sei gaitz datoz. Tristuraz valiatcen da etsaia bere tentacioac christau onetan sartzeco , cergatic nola procuratcen duen beren pecatuetan gaiztoac alegraticia , ala ere procuratcen du onac-beren obra onetan tristeticia ; ta nola eciñ eraguiñ dezaquien gauza gaiztoric gustosoa iduritu gabe , ala ere eciñ eragotci dezaque gauza ona enfadagarria , edo disgustocoa iduritu gabe. Alegratcen da etsaya gu tristiciac , ta melancolicoac egotiaz , cergatic bera tristia , ta melancolicoa nola dan , ta beti izango dan, orregatic nai luque beste guztia ere ala izatia.

Tristura gaiztoac , alborotatcen , ta inquietatcen du anima , bildur andiac sortatcen ditu , quentcen du oracioco gustoa , tontotcen , ta necatcen du burua , ecertaco ez dala anima utcitcen du , quentcen ditu indarrac , ta itz batian esateco lurra-

ri bere edertasuna ; ta animalia beren vitasuna quentcen dien negu gogor bat bezala da , bada quentcen dio animari bere gozotasuna , ta bere potenciaz eciñ valiatu dala utcitendu.

Sentitcen badezu bada noiz bait christau maitia tristura gaiztoren bat , valiazaitez orañ esatera nuan erremedioaz , aralembicicoa : triste senti danac eguiñ beza oracioa , dio Santiago Apostoloac ; erremedio andia da oracioa tristuraren contra , cergatic jasotcen du gure espiritua gure alegriya , ta consuelo bacarra dan Jaungoicoa gana. Ta onelaco ocasioan oracioa eguiten dezunian , Jaungoicoagan confianza , ta amorioa aditcera ematen duten viotceco , edo abozco oracioren batzuetzaz valiatu bear dezu, nola diran, O Jaungoico misericordiosoa , ; Jaungoico neurri gabe ona ! O nere Salvadore maita garria ! nere viotceco Jaungoicoa , nere alegriya , nere esperanza , nere Esposo maitia , nere zoragarria , ta beste orrelaco irzac.

Eguizu aleguiña , tristurari lecuric ez emateco , ta oztasun , tristura , ta gusto gabe gauza guztia eguiten dituzula iruri-

tuāgatic, ez ditzatzula örregatic ere eguiñ gabe utci, cergatic nola etsayac guri gauza onac eguiteco gogoa galtcia tristura dala medio procuratcen duen, icusten badu, ez ditugula örregatic ere eguiñ gabe uicitcen, ta orrela nequetan eguiñac gueyago valio dutela Jaungoicoaren beguie-tan, utcico digu paquean.

Cantatcitzu canta santuac, bada au ere gauza ona da guri paquean utzitcera etsayac obligatceco. Saul tristurara muguitcen zuen espiritu gaiztoari Daviden musicac alde era guiten cion.

Da ere gauza ona, eguitecoren batzuetan empleatcia, ta ez beti batzuetan bere-tan, ez bada aldan guztia aldatcen dirala, beñ abetan, guero bestieran tristura sortcen digun gauzatic onela atencioa quentceco, ta gure gorputceco espirituac garbitceco, ta berotceco, cergatic tristurac bere zaña gorputceco humore otz, ta legorra du.

Eguizquitzu, naiz dala gusto gabe gauza devoto abec, Jusus crucificatuari laztan eldu zayozu, zure pechuan estuzazu, bere escu, ta oñeran muñ eguiozu zure begui, ta escuac Cerura jasotcen dituzula, ta

amorezco , ta confianzaco itz abequin Jaungoicoari itz eguiten diozula : nere Jaungoico maitia neretzat , ta ni arentzat ; nere Jesus maitia mirtazco lorapilla gozobat bezala da neretzat , ta nere pechuan gueldituco da : zu icusi deseoz iltcen naiz , nere Jaungoico maitia , ta esaten det : noiz consolatuco naiz Jauna ? O Jesus , izan zaitez nere Jesus , ta vicicoda nere anima . ; Ceñec quenduco nau nere Jaungoicoaren amoriotic ? ta beste onelaco itzaz valia zaitezque.

Gueyegui gabeco diciplina bat artcia ere gauza ona da tristura quentceco , cergatic au dala mediante gorputzac artcenduen miñac viotceco consueloa eracarcendu , ta anima , gorputcian miñ sentituaz , barrengo penaz aztutcen da.

Maiz comulgaticia ere guztiz ona da tristuraren contraco , cergatic Sacramentu Santu arc indartcendu viotza , ta alegratcendu espiritua.

Aguertu bear diozcatzu humil , ta leyalqui zure Aita espiritualari tristuratic sortceu zaizquitzun tentacio , ta gauza gaizto guztiac.

Trata zazu ere triste senti ceran dembo-
 ran aldezun guztia persona espiritualaquin
 procurazazu sentitcen dezun tristura paci-
 enciarequin eramatia zure lenagoco alegria
 eroen castigoan bezala, ta ez dezu cer du-
 daturic Jaungoicoac, onela probatu ezque-
 ro, libratuco zaituela trabaju orretatic.

XIII. CAPITULO A.

*Jaungoicoac ematen dituen consuelo espi-
 ritualen gañian, ta nola ayetan go-
 vernatu bear gueran.*

Jaungoicoac mundu onen izatia inoiz
 guelditcen ezdan aldatce batequin conser-
 vatcen du, ceña dala motivo eguna aldat-
 cen dá arratsera, uda berria udara, uda u-
 da azquenera, uda azquena negura, ne-
 gua uda berrira, ta egun guztia diferenc-
 ciatcen dira certan, edo artan bata bestia-
 gandic; batzuec goi belduac, ta bestiac
 ebitsuac icusten ditugu, batzuec legorrac
 bestiac aircetsuac, ta diferencia onec guz-
 tiac edertasun andia ematen dio mundu-
 ari. Orobat guertatcen da personagan, ce-
 ña antciñaco jaquintsuac esaten zuten be-

zala mundu chiqui bat da. Ez dago inoiz izate batian persona, ta aren vicitza, ura lurraren gañetic bezala, muguimentu diferentiac dirala medio joaten da; añ laster jasotcen da esperantzarequiñ, añ laster lurreratcen da bildurrarequiñ, añ laster giratcen da escoyerontz consueloaquiñ, añ laster ezquerrerotz penaqueiñ, ta aren vicitza guztico egun bat bacarra, ezta ere ordu bat bacarra, ezda guztian bestiaren antcecoa.

Asco importa du gauza onen jaquiñian egotia, ta procuratu bear degu aleguiñ guztia aldatce, añ diferentietan beti viotz berdiñarequiñ egotia, ta gauza guztiac aldatuagatic, procuratu bear degu orregatic ere viotz berdiñarequiñ gure Jaungoicoagana beguiratcia, ta arganontz beti joatia.

Naiz joan dedilla ontzia eguzquia ir-teten dan aldera, naiz sartcen dan aldera, naiz juan dedilla eguardi aldera, naiz ifar aldera, naiz izan dedilla eroceñ aice modurequiñ zatitua, orregatic ere aren norteco orratzac norteco izar ederrari beti beguiratcen dio. Naiz goicoaz bea gauza

guztia, ez bacarric gure inguruan, ez bada baita ere gure barrenen, jo dezatela, naiz egon dedilla alegre gure anima, naiz triste, consueloetan, edo penetan, naiz paquean, naiz estutasunian, naiz espirituco arguitan, naiz illumbetan, tentacioaquin, edo ayec gabe, naiz gustoan, naiz naigabean, gauza onac eguiteco gozotasunarequin, naiz ura gabe, naiz eguzquia erre dezala, naiz intzac fresca dezala, beti procuratu bear degu gure viorzaren puntac, gure spirituac, gure vorondatiac, ceña dan gure orratza, bere Jaungoico, Criadore, Salvadore ta on bacarraren amoriora beguiratcia beti, ta arganontz joatia. Naiz vici gaitecela, naiz il, Jaungoicoarenac baldin baguera San Pablo cion bezala, ; norc quenduco gaitu Jaungoicoaren amoriotic? Ez, ezgaitu amorio onetatic ecere ere quenduco, ez estutasunac, ez penac, ez eriotzac, ez vicitzac, ez miñac, ez gueroco gaitcen bildurac, ez infernuc deabruac, ez consueloen, ta ez penen anditasunac, ez devocioaren gozotasunac ez orren faltac, ez dira abec guztia asco izango Jesu-Christi

togan cimentatua dagoen amoriotic gu
quentceco.

Jaungoicoa iñoiz ez utxitceco, ta aren
amorio gozotic iñoiz ez apartatceco asmo
santu au da gure animarentzat ontciarent-
zat carga ordecoa bezala, ez batera, ta ez
bestera erori ez dedin, cergatic conserva-
tzen ditu gure animac berdintasun santu
batian mundu miserable onetan guertate-
cen zaizquigun aimbeste gauza diferen-
tietan. Aice bolada andiren barec erliac
eultzatic campoan arrapatcen dituenian,
eultzara errazago allegatceco, ta aiciagan-
dic defenditceco, arti chiquichuac acha
parretan artcen dituzte, ala gure animac
Jaungoicoaren amorioan firme egoteco
asmoa artu ezquero, beti batian irauten
du animaco, ta gorputceco, barrengo, ta
campoco consuelo, ta penen artian.

Etzaitecela bada aztu, christau maitia,
asmo santu ori artceco conseju santuaz,
baña preciso da orretzaz gañera zuri beste
conseju batzuec ematia. Esaten dizut bada
lembicico, ez dagoela devocioaren izatia,
negar, ta suspirioetara muguitcen gaituz-
ten, ta obra onac eguitian atseguintasu-

na ematen diguten viotceco gozotasun atseguintasun, consuelo, ta biguntasunian. Ez christau maitia ez; ez dira biac bat au ta devocioa, cergatic christau asco dira biguntasun, ta consuelo abec dituztenac, ta orregatic ere viciosoac diranac, ta beragatic ez dute Jaungoicoaren egui azco amorioric, ta guchiago egui azco devocioric. Saulec iltceco perseguitcen zuen David; egun batian David Engadico mendietan Saülen iguesi cebillela, joan zan Saúl aren billa, ta David cueba andi batian gorde zan; sartuzan Saúl cueba artan, David an cegoela pensatu gabe, ta etzuen David an icusi, baña bai Davidec ura; bere escuan ceucan Saúl iltcia, ta orretara lagunac muguitcen zuten, baña orregatic ere etcion gaitcic eguin nai izandu, ez bada contentatu zan bere inocencia probateco capatic pisca bat isillie quenciarequin. Atera zanian Saúl cuebatic, atera zan ere David laster aren ondotic, ta bere caparen pusca eracutsiaz, eman cion aditcera bere inocencia, bada vicia quentcia bere escuan iruquita, etcion batere gaitcic eguin. ; Cer eguin etzuen orduan

Saulec bere viotza Davidenganaco bigundu zala adircera emateco ? Deitu cion bere semea , eguin zuan negar gogotic , alabatu zuan , aitortu zuen aren ontasuna , erregutu cion argatic Jaungoicoari , esan cion Israelgo Erregue izango zala , encomendatu ciozcan bere semeac bera il ezquero. ; Cer vlotzeco gozotasun , ta biguntasun gueyago adircera eman cezaqui an ? Ta orregatic ere lenago beceñ gaiztoa guelditu zan aren viotza David-enganaco , lenago beceñ gogotic perseguitu zuen. Onela dira cristau asco ; Jaungoicoaren ontasuna , ta Jesusen pasioa consideratcen dituentan aimbeste biguntcen zaye viotza , ce eguiten dituzte negar , ta suspirioac , oracio , ta Jangoicoari esque-rrac emate devocio andicoac , alaco moduan , ce eroceñec esango luque devocio andiaz betia daucala viotza ; pruebara allegatcian ezagutcen da , ce nola udaco ebi beroaquin lurraren gañera erortcen diran tantoac ez diran barrena sartcen , ta ez duten ere bestetaco servitcen , ez bada perrechicuac , ta cizac jayotceco , ala negar , ta biguntasun abec viotz viciosoaren

gafian erorita barrena sartu gabe, ecertaco ere valio ez dute, cergatic orregatic guztiagatic, ez dute onelaco persona erruquigarriac gaizqui eramana daucaten bereren ondasunetatic marabedi bat ere biurtuco, ez dute beren aficio gaiztoetatic dan guchiena ere utcico, ez dute nequeric dan guchiena ere Jaungoicoa seruitcea gatic artu naico, ta ala izan cituzten muguimentu onac perrechicu espiritual batzuec baicic ez dira, ta ez dira eguiazco devocioac, ez bada etsayaren engañio andiac gueyenian; bada ecer ececo consuelo abequin animac divertituta chit pagatuac, ta contentatuac guelditcia procuratcen, du eguiazco devocioa billatu ez dezaten; ta onen izatia, Jaungoicoaren gustocoa dala ezagutcen dan eroceñ gauza eguiteco vorondate sendo, erraz, ta prest arquitcen danian, dago.

Aur batec gogotic negar eguingo du, icusten badu sangratceco lantceta amari sartcen diotela, baña escuan daucan sagar, edo confitiac orduan bertan amac escatugatic, ez diozca eman naico, onela diragure devocio berac, edo bigun gueienac.

Consideratcen degunian gure Jesusen vi-
 otza lanza-requin iriqui zutela, negarra
 saltatcen zaigu ascori. Ai cristau maitia!
 arrazoi da bai Jesus gure Aita, ta Erre-
 dentoriaren vicitza, ta pasio dolorosoaga-
 tic negar eguitia, baña, ; cergatic ez dio-
 gu gusto guztiarequin ematen añ gogotic
 escatcen digun escuan daucagun sagarra?
 au da, gure viotza, amorioaren sagar ba-
 carra, ceña guztiz gogotic escatcen digu
 gure Salvadoriac. ; Cergatic ez diogu a-
 more onez bere escuetan entregatu nai gu-
 re aficio, gusto, ta atseguñac, gure es-
 cutic quen du nai dizquigunac, ta ecin du,
 cergatic gure confiriac dira, ta aren gracia
 baño gueyago gustatcen zaizquigu? Ai!
 amorio, ta adisquidetasun abec, aurren
 adisquidetasunac becela dira, amoriosoac
 baña indar guchicoac, adisquidetasunaren
 antz utsac, ta fruturic gabeac. Ez dago
 bada devocioaren izatia beratasun, ta sen-
 timentu amorioso abetan, ceñac ascotan
 viotz, ta genio, berez biguñetic, ta ero-
 reñ gauza sentitzen erraza danetic jayot-
 cen dira, beste ascotan berriz etsaiac sor-
 tzen ditu onelaco sentimentuaquin gu di-
 bertituac iruquitciagatic.

Orregatic ere beratasun, ta atseguintasun abec provechugarriac dira ascotan, cergatic muguitcen dute anima gauza santuetara, indartcen dute espiritua alegria-santu batequin empleatcen guera Jaungoicoaren servicioan, ta onen medioz munduaren beguietaco ere ederrac izaten dira gure obrac. Au da Jaungoicozco gauce-tan izaten dan gustoa, ta onen gañian esaten dio Davidec Jaungoicoari: O Jau-ua, ceñ gozoac diran nere mingañarentzat zure itzac! ezti guztiaç baño gozoa-goac dira. Ta eguiaz, Jaungoicoren ser-viceoan izaten degun dan consueloric chi-quiencac ere, munduco consuelo guztiaç baño gueyago valio du. Titiaç, ta esnia, au da, Jaungoicoac animari ematen dioz-tan consueloac, munduco diversio guztiaç baño obiaç dira. Consuelo abec pro-batu dituanac, munduco consuelo guztiaç vinagre, ta biazunac dirala uste du, ta no-la Escillica esaten dioten belarra aboan ira-oliten dutenac, gusto añ andia sentitcen duten, ce ez dute goseric, ta egartitic sentitcen, animaco consuelo abec Jaugoicoac eman diozcanac, ez ditu deseaten,

ta errecibitcen munduco consueloac, ta guchiago ayetan gozatu. Bera billatcen duten animai Jaungoicoac Ceruan ematen dizquien consueloen iduri chuiqui batzuec dira. Abec dira bere semeai, gauza ónetara aficionatceco ematen dizquien confitiac. Viotza confortatceco, edo indartceco ematen dizquien úrac dira, ta ascotan Ceruan emango dizquien consueloen señaliac. Alexandro Mangno gatic contacen dute, ichasoz cijoala, sentitcen zuen usai gozotic ezagutu zuela Arabia zori onecoa non cegoan, ta onela animatu zuan bere burua, ta berequin cijoacenac, ala guc ere mundu miserable onetan izaten ditugun animaco cosueloaquin probatcen ditugu moduren batian, allegatu deseo degun Ceruco consueloac.

Baña esango dirazu, cristau maitia, animaco consuelo abec batzuec onac, ta Jaungoicoa gandic datocenac, ta bestiac ecer servitcen ez duenac, peligrosoac, ta caltegarriac, personaren geniotic, ta etsayaren engañiotic sortcen diranac diran ezquero, ; nola ezaguru nezaqué ceñ diran onac, ta ceñ gaiztoac, ta ecer servi-

tzen ez dutenac? Au ezagutceco erregla
 seguru, cristau maitia, beratasun, ta
 consuelo orietatic jayotcen diran frutuai
 beguiratcia da. Gure viotzac dira arbolac
 gure griñalda, ta aficioac, ayen adarrac,
 ta obrac fautuac. Griñalda, ta aficioac o-
 nac dituen viotza, ona da, ta obra onac
 sortcen dituzten griñalda, ta aficioac, o-
 nac dira. Baldin animaco atseguintasun,
 beratasun, ta consueloac humillagoac, pa-
 ciencia andiagocoac, tratatcen errazagoac,
 progimoa ganaco erruquitsuagoac, ta in-
 clinacio gaiztoac mortificatceco gogo gue-
 yagocoac, gure egercicio santuetan ira-
 uncorragoac, obeditu bear diogunai su-
 getoagoac, ta toles guchiagoco viotz du-
 nac eguiten bagaituzte, ez dago dudaric,
 cristau maitia, Jaungoicoa gandic datoce-
 nac dirala consuelo oriec; baña baldin at-
 seguintasun oriec ez badute gurerzat, ez
 bada, besterentzat atseguin, eguiten ba-
 gaituzte guztia jaquin nayac, humore ga-
 iztacoac, gure honraren estimacioan deli-
 caduac; paciencia gabeac, gure progimo-
 aganaco viotz gogordunac, setatiac, co-
 lericacoac, presumituac, ta Santu chiqui ba-

tzuec egnin guerala pensatuta, ez badegn
 besteren correcciora sugetatu nai, ez dira
 inoiaz ere onac, ta Jaungoicozcoac senti-
 tzen ditugun consueloac, cergatic arbol
 onac ez du fruta gaiztoric ematen.

Animaco consueloac izaten ditugunian,
 humildu gaitecen aleguin guztia Jaungoi-
 coaren aurrian, ta ez dezagula inoiz pen-
 satu cergatic consuelo abec ditugun. Ez,
 cristau maitia, ez, ez gaituzte consuelo a-
 bec obiac eguiten, cergatic lenago esan
 deran becela, ez dago onetan devocioaren
 izatia. Esan dezagun bai, O ceñ ona dan
 Jaungoicoa argan esperatcen durenentzat,
 ta billatcen duen animarentzat! Aboan
 azucria daucanac eciñ esan dezaque, aboa
 gozoa duela, baña esan dezaque azucria
 gozoa dala, ala ere bada, animaco consu-
 elo au chit ona bada ere, ta au emanten di-
 gun Jaungoicoa guztiz ona, eciñ orrega-
 tic esan diteque, consuelo ori errecibitcen
 duena ona dala.

Ezagutu dezagun esniaren premia de-
 gun aurchoac guerala oraindic, ta cerga-
 tic oraindic espiritua indar guchicoa, ta
 delicadua daucagun, confite abec ematen

zaizquigula , ta orren delicadua dagoela-
co , aurrac becela engaña garriac bear di-
tu Jaungoicoaren serviciora aficionatceco.

Errecibi ditzagun humildade andiare-
quin consuelo , ta mesede abec , ta estima
ditzagun valio andicoac becela , ez aim-
beste beréz ala diralaco , nola Jangoicoac
bere escuz gure viotzian ipiñiac diralaco ,
amac aurrari maitatciagatic confitiac bat
banaca aboan sartcen diozcan becela , cer-
gatic aurrac uso arrazoyezcoa baldin ba-
luque , gueyago estimatuco luque amac a-
ditcera ematen dion cariñoa , ta amorioa ,
confitia - ren gozotasuna baño ; ala bada
cristau maitia , gauza estimagarria da atse-
guintasun abec izatia , baña atseguintasun
guztien atseguintasuna da consideratcia
Jaungoicoac berac bere escu cariñoso , ta
amorosoarequin aboan, viotzian, animan ,
ta espirituan ipintcen dizquigula. Onela
consuelo abec humildadiarequin errecibi-
tu ezquero , valia gaitecen orietzaz Jaun-
goicoac deseo duen fiñetaraco. ; Cergatic
uste dezu . cristau maitia , atseguintasun,
edo consuelo abec ematen dizquigula ?
Gure progimo guztientzat atseguiñac , ta

berarentzat amoriosoac eguitiagatic. Aurriari amac confitiac aurrac musu ematia-
gatic ematen diozca, eman diozagun bada
guc musu aimbeste atseguintasun ema-
ten digun Salvadoriari. Salvadoriari mu-
su ematia, da berari obeditcia, aren man-
damentu santuac cumplitcia, aren voron-
tia eguitia, aren desoac cumplitcia, itz
batian, obediencia, ta leyaltasunarequin
jaztan eldutcia. Animaco consueloren bat
izaten degunian bada, arrazoi da, egun ar-
tan Jaungoicoaren servicioan, ta humilda-
dian gogo gueyagorequin empleatcia.

Onetzaz gañera conveni da, consuelo,
ta atseguintasun abec noician bein utcit-
cia viotza ayetatic apartatuaz, ta aditcera
emanaz, ce humildadiarequin errecibitcen
baditugu ere, ta estimatcen baditugu ere
cergatic Jangoicoac bialtzen dizquigunac
diran, ta beraren amoriora muguitcen gai-
tuzten, orregatic ere guc billatcen degu-
na ayec ez dirala, ez bada Jangoicoa, ta
aren amorio santua; ez consueloa, ezba-
da consolatzalia, ez atseguintasuna, ezba-
da Ceruco, ta Munduco atseguintasuna
bera dana, ta afecto santu onequin presta-

tu bear degu Jaungoicoaren amorioan firme guelditceco guse vicitza guztian iñoiz consueloric errecibituco ez baguenueque ere; ta Taborco mendian beceñ gogo onez calvarioan esateco. O Jauna, gauza ona da neretzat zurequin egotia dala gurucian, dala glorian.

Azquenian beste gauzacho bat esan nai dizur, ta au da, consuelo, beratasun, negar, ta atseguintasun andi, ta guchitan usatuen batzuec izaten badituzu, edo beste gauza ez usaturen bat ayetan, eman diozazula aditcera leyalqui zure Aita espiritualari, nola governatu bear ceran eracutsi dizazun, bada escribitua dago, ezta topatcen dezunian, ez dezazula bear dezun baño gueyago jan.

XIV. CAPITULO A.

Animaco legortasunen gañian.

Esan deran becela eguin bear dezu bada, cristau maitia, animaco consueloac izaten dituzunian. Baña ez du beti iraun-

go consueloetaco dembora zoragarriac, ez bada batere consueloric, ta devocioric sentitzen ez dezula guelditu cera ascotan, ta aimbesteraño, ce iñoiz maniatu ez dan, ta fruturic emateco valio ez duen lurra beela idurituco zaitzu zure anima, ceñian ez da vide chigorric, ta ez videric Jaungoicoa topatceco, ez ta ere gracia renuric erregatzeco legortasunen motivoz, bada abec, frutua emateco, modu guztia, quendu diotela, diruri. Ai ceñ erucarria dan estadu onetan arquitcen dan anima, batez ere animaco legortasun andia danian, bada orduan David becela gabaz, ta egunaz negarraz mantentzen da, negarrez pasatcen ditu gabac ta egunac bitartian etsaiac desesperatciagatic milla tentacio modurequin burla eguiten diola, ta esaten diola: há miserabilia, ¿non da ire Jaungoicoa? Ceñ videtatic topatuco dec? ¿Nola logratuco dec onezquer guero aren gracia santuaren alegría? ¿Cer eguingo dezu bada onelaco demboran, cristau maitia? Examiña zazu zure gaitza nondic datorren. Guerocizaten guerra ascotan gure legortasunen, ta devocioaren faltaren motivoa.

Nola ez dion amac aurrati azucria eman
 nai izaten, cergatic chissariac eguiten dioz
 ea, ala ere Jangoicoac guri quentzen diz
 quigu consueloac, cergatic aietan vanida
 deren bat artcen degun, ta cergatic sober
 biaco chissariac eguiteco peligroan icusten
 gaituen. On da, Jauna, neretzat zuc ni hu
 milcía, bai, cergatic zuc ni humildu or
 duco, ofenditu ciñuran. Jaungoicoaren
 amorioaren erregaloac ta arseguintasunac
 demboraz biltceco naguiac gueranian,
 quentcen dizquigu aren Divina Magesta
 diac gure naguitasunaren castiguan. Goiz
 cian goiz Maná biltcen etzuen Israel tar
 rac, eguzquia irten ezquero eciñ bildu zu
 en, cergatic elurra becela urtureen zan.
 Ascotan oian naguituric becela ecer eguin
 gabe egoten guera onelaco consueloetan,
 Canta Sagraduan esaten dan esposa bece
 la. Gure animaco esposoac jotcen dú gu
 re animaco arietan gure egercicio espiritua
 letara joan gaitrecela aditcera emanaz, ba
 ña guc, cergatic pena ematen digun con
 suelo ayec utcitciac, luzapena ematen di
 ogu, motivo onegatic pasatcen da aurre
 ra, ta locaziuac utcitcen gaitu, ta guero

topáru nai degunian etzaygu guchi cos-
 ratcen. Ongui merecítua izaten degu, a-
 ren amorioari añ legue gabeac, ta esquer
 gaiztocoac gueran ezqueto, bada lurreco
 gauzac gatic utcítcen degu aren amorioan
 empleatcia. Ai! etzaygu emango Ceruco
 Maná, cergatic Igitoco iriña degu. Etza-
 ye erliai habilidadez eguiten dan loreric
 gustatcen, ta Espiritu Sautuaren atseguin
 tasunac ere ez datoz ongui mundu oneta-
 co consueloaquin.

Confesioetan, ta espirituco confere-
 cietan leyalqui ta tolesgabe ez esplicatce-
 tic ere sortcen dira ascotan animaco legor
 tasun abec, ta devocioaren faltac, cerga-
 tic, cristau maitia, Espiritu Santuari zuc
 guezurra esaten diozun ezquero, ez da
 arritcecoa, arc zuri bere consueloac quen-
 tcia. Ez dezu zuc, cristau maitia, aurcho
 bat becela maliciaric, ta tolesgabea izan
 nai, bada etzaizquitzu aurraren confitiac
 emango.

Munduco consueloz betetcen bacera, ez
 da arritcecoa animaco consueloac naigabia
 ematia. Esan oidan becela, aseac dauden
 usuai samiñac irurítcen zaizcate guereciac;

ta Ama Virginiac bere cantan esan zuen ;
 gose ceudenac ondasunez bete cituen , ta
 aberatsac utsic utci cituen. Munduco con-
 sueloz aberats daudenac eciñ artu dezate-
 que Ceruco consueloric. Errecibitu diu-
 zun consueloen frutuac ongui conserbatu
 badituzu , emango zaizquitzu berriac du-
 daric gabe : cergatic daucanari , gueyago
 emango zayo , baña eman zayona conser-
 vatu ez duanari , ez duena ere queduco
 zayo ; esan nai derana da , emango citza-
 yozcan graciaç gabe gueldituco dala. Gau-
 za jaquiña da au ; ebiac piztutcen ditu o-
 rañdic igartu gabe dauden landariac , ba-
 ña igartuac daudenai , piztutceco modua
 gueyago , ta gueyago quentcen die , cer-
 gatic usteldu , ta ecer ecera biurtcen ditu.

Esan dituran motivoac gatic galtcen di-
 tugu ascotan espirituco consueloac , ta e-
 racartcen diozcagu gure animari legorta-
 sun espiritualac , ta devocioaren faltac. E-
 xamiña ditzagun bada gure concienciac
 onelaco faltatic gugan ote degun edo ez ,
 ezagutceco ; baña contu , cristau maitia ,
 ez dezu examiña au inquietacio , ta cui-
 dado gueyeguirequin eguin bear , ez ba-

da soseguz , ta justuqui , ta au eguini ez-
 quero , topatcen badezu zure animan le-
 gortasunen motivoa , emayozcatzu esque-
 rrac Jaungoicoari , cergatic erdi sendatua
 dago gaitza , aren zaña ezagutu ezquero.
 Ez baldin badezu animaco legortasun ori-
 en motivoric zugaran topatcen , etzaitezela
 gueyago examinatcen necatu , ez bada e-
 satera nuana humill eguizu.

Hnmildu zaitez aleguin guztia Jangoi-
 coaren aurrian zure ecer ezaren , ta mise-
 riaren ezaguetarequin esazu : Ai nere er-
 raquigarria ! Cer da naizan au ? ; ta cer na-
 iz netetzat ? ez besteric , Jauna , ez bada
 lur legor bat , cefiac alde guztietatic iri-
 quiriric dagoela , ematen du aditcera Ce-
 rucio ebiaz daucan egarria , ta bitartian ai-
 clac igartcen du , ta auts biurtcen du.

Dei zayozu Jaungoicoari , ta escazai-
 ozu bere alegria , Jauna , zure alegria san-
 tua atcera indazu : libra nazazu , albaldin
 bada , Aita nereca , caliz onetatic . Zuaz ni-
 gandie nere anima legortcen dezun vicio
 gaitzoa , ta atoz zu , consueloetaco aice
 atseguina , ta nere animaco jardinian aice
 eguizu , usai onez bereco da , ta ala ba-
 natuco du.

Zuaz zure Confesoria gana , ta aguer-
 zayozu leyalqui zure viotza ; emayozcat-
 zu aditcera zure animaco tolestuta guz-
 tiac , artutcitzu humil ematen dizquitzun
 consejuac , cergatic nola Jaungoicoa obe-
 dienciaren amantia dan , ascotan eguiten
 ditu provechugarriac beste gandic arcen-
 diran consejoac ta batez ere Confesoriac
 ematen dituztenac , berez provechugari-
 ac ez idurituagatic ere ; ala eguin zuen
 provechugarria , ala ez bacirurien ere ,
 Jordango ibaya Naaman lepratic garbit-
 ceco , cergatic Eliseo Profeta Santuac a-
 guindu cion an garbitceco.

Onen guztiaren ondoren , ez dá legora-
 tasun espiritual orietan gauza añ prove-
 chogarriric , nola dan ez estutcia , ta ez
 empeñatcia ayetatic libre icusi nayian. Ez
 det preciso esan nai , ez dala libratceco
 deseoric izan bear , ez bada ez dala ansia
 andiarequiñ desatu bear , ta conformatu
 bear degula Jaungoicoaren vorondatian,
 gusto duen bitartian aranza aben bitartian
 egon gaitecen , ta deseo abec mediante
 guzaz servi dedin. Onelaco ocasioan Jan-
 goicoari esan diozagun, O nere Aita, libra

nazazu, inolaz albaldiñ bada Caliz oneta-
 tic; baña esan beardegu ere bereala animo
 andi batequin: ez dedilla orregatic nere vo-
 rondatia eguin, ez bada zuria; ta iraunde-
 zagun onetan aldegun soseguric andiena-
 requin, cergatic conformidade onequin i-
 cusi ezquero, consolatuco gaitu Jaungoi-
 coac gracia, ta mesede gueyagorequin,
 ala eguin zuen Abranequin, beraren amo-
 rioagatic Isaac bere semea gabe guelditce-
 co pronto icusi zuenian; alegratu zan Ja-
 ungoicoa conformidade onen gatic ta con-
 solatu zuen icuste zoragarri batequin; ta
 bendicio chit gozoaquin, guertacen zai-
 gunian bada eroceñ trabaju, dala espi-
 rituala, dala corporala, ta animaco con-
 sueloen faltetan, esan beardegu viotz
 guztitic humildade andi batequin: Jaun-
 goicoac eman dizquit consueloac, ta Ja-
 ungoicoac quendu dizquit, bedeincatua
 izan dedilla beraren icen santua: cergatic
 humildade onetan iraun ezquero, conso-
 latuco gaitu Job Santua bezala, ceñac be-
 re pena guztien artian conformidade an-
 diatequin iraun zuen esan dituran bezala:
 co itzac esaten.

Ez dezagun bada, cristau maitia, gure animaco legortasunetan, ta consueloen faltetan iñoiz ere animoa galdu, ez bada berriz consolatuac icusico gueralapacienciarequin confiatuaz, segui dezagun Jaungoicoaren servicioan, gure egercicio santu guztiac lenago becela eguiten, ta albaldin badegu lenago baño gueyago. Ta eciñ esqueñi diogun ezquero Ceruco gure esposoari conserva licurtia, esqueñi diozagun legorra, cergatic, esqueintzen diozcan viotza bera amatceco asmo sendoarequin egon ezquero, guztia bat dá. Udaberria ederra danian, erliac ezti gueiago, ta hume guchiago eguiten dute, cergatic dembora onaren motivoz aimbeste ichutzen dira loreaquin ezti eguiten, ce aztutzen dirá humeac sortziaz, baña udaberri gaiztoa, ta turmoi ascocoa danian, hume gueyago, ta ezti guchiago eguiten dute, cergatic nola beargaya billa eciñ atera diran, humeac sortziari beguiratcen diote. Ascotan guertatzen dá, cristau maitia; consueloetaco udaberri ederrian animac bere burua icusten duenian, ain-

beste divertitzen dá aiec biltzen, ta aietan gozaten, ce motivo onen gatic, consueloetan dagoenian, bestela eguingo cituen baño obra on guchiago eguiten ditu, ta legortasunaquin, ta consueloen faltan dagoenian, cembat eta devocioaren, edo consueloaren falta gueiago sentitzen duen, ambat eta gueyago gueitzen ditu obra on sendoac, sortzen ditu ere ugari bere animan paciencia, humildadia, bere buruaren desprecioa, Jaungoicoaren vorondatian conformatzia, ta bere amorio propioari contra eguitia.

Engaño andian vici dirá bada asco, ta batez ere emacumeac sinisten dutenian, etzayozcala Jaungoicoari aimbeste gustatzen gustoric gabe, viotz legorrarequin, esaten dan becela, batere devocioric gabe eguiten zayozcan servicioac, nola gustoarequin eguiten zayozcanac. Ez dá bada au eguia, ez bada contrara dá guztia; gure obra onac arrosa becela dirá. Arrosac frescuac, ta legortu gabe daudenian ederragoac badira ere, orregatic legortuac daudenian usai, ta indar gueyago dute, orobat

gure obra onac, consuelo, ta gusto andiarequin eguiten ditugunian gueyago gustatzen bazaizquigu ere guri, cergatic ez diogu guc gure gustoari besteri beguiratzen, orregatic ere legortasun andiarequin, ta consuelo gabe eguiten ditugunian usai, ta valio gueyagocoac dira Jaungoicoren beguietan. Bai, cristau maitia, animaco legortusunarequin gaudenian gure vorondatiac fortzaz, edo nai ta nai ez becela eramaten gaitu Jaungoicoaren serviciora, ta beragatic consueloetaco demboran baño indarsua goa, ta sendoagoa izan bear dú vorondatiac. Ez dá gauza andia paqueco demboran, ta Corteco atseguñetan Erregue servitcia, baña guerran, ta persecucio, ta alborotoetaco demboran servitzia, viotz andi, ta leyalaren señale clara dá. Angela Fulginoco veneragarriac esaten dú, Jaungoicoari gueyena gustatcen zayon oracioa, gogoaren contra, ta nai ta nai ez becela eguiten dana dala, au dá, ez sentitzen degun gustoagatic, edo degun inclinacioagatic, ez bada Jangoicoari gusto ematiagatic ba-

carric eguiten dana; ta gure vorondati-
 ac onetara nai ta nai ez becela, ta ani-
 maco legortasunai contra eguiñaz, era-
 maten gaitu. Ta au erocēñ obra onen
 gañian esaten det, cergatic cembat e-
 ta naiz animaco, naiz campoco etsai
 gueyago ditugun ayec eguiten, ambat
 eta valio gueyagocoac izango dira Ja-
 ungoicoaren beguetan. Cembat eta gus-
 to guchiago degun obra ónetan, ambat
 eta gueyago aguertuco dá ayetan Jaun-
 goicoaren am orioa. Erraz ematen dio
 aurrac amari musu, gozoa ematen dio-
 nian, baña asco nai dion señalea, vina-
 gria, edo beste erari samiñen bat eman-
 ta, musu ematia dá.

XV. CAPITULO A.

*Ematen dá obeto aditcera esan dan guz-
 tia ta ipintzen dá onetaraco
 egmplo eder bat.*

Esan deran guztia obeto aditzera e-
 mateco nai dizut contatu S. Bernardo-
 ren historiatic pusca bat. Escritore ja-

quintsu , ta prudente batian topatu nu-
 en becela. Onela dio bada : Jaungoicoa
 servitzen asitzen diran gueyenai guer-
 tatzen zayen gauza dá , ce nola ez dau-
 den oituac animaco legortasunetará , ta
 consueloaren faltara , faltatzen bazaye
 devocioco gustoa , ta Jaungoicoaren ser-
 vicioan empleatzera muguitzen dituen
 argui atseguña , animo guztia galduric,
 ta tristura andian guelditzen dirá. Ja-
 quinsuae onen arrazoia ematen dute esa-
 naz: eciñ iraun dezaquela personac den-
 bora lucian animaco , edo gorputzeco
 consuelo gabe , ta nola animaco consue-
 loquin dagoenian , gorputzecoaz erraz
 aztutzen dan , ala animaco consuelo ga-
 be bere burua icusten duenian , nola bes-
 te aldetic gorputzecoac ere falta zayoz-
 can , ta ez dagoen oitua eguiazco Eguz-
 quiari , edo Jaungoicoaren consueloari
 pacienciarequin ichoroten , ez dagoela
 ez Ceruan , ta ez munduan iduritcen za-
 yo , animaco consueloa falta zayon Ja-
 ungoicoaren servicioan asitzen dan cris-
 tauvari , betico arrats batian enterra-
 tua guelditu bearco duela : ta nola aur-

choac titia quentcen diotenian ura gä-
 be beren burua icusita , tristetzen dirán
 negar eguiten duten , ta enfadagarriac ,
 ta necosoac beren buruentzat eguiten
 dirán , ala ere onelaco animac negar e-
 guiten dute , ta beren burua eciñ sufri-
 tu izaten dute. Au bera guertatu citza-
 ion Gaufrido ceritzan bati religioan sar-
 tu zan lembicico artan. Icusu zuenian ba-
 da bat batian bere burua animaco con-
 sueloric gabe , legortasun andiarequin ,
 ta ez guchiagoco barrengo illuntasuna-
 requin , asizan gogora ecartcen munduan
 cituan adisquidiac , aidiac , ta utzi cituem
 ondasunac , ta onela tentacio añ gogo-
 rrac equin cion , ce bere lagun adisqui-
 de batec arpeguitic ezagutu cion ceñ pe-
 natua ceucan barrena. Adisquide onac,
 onela icusiric , esan cion secretoan a-
 morio andiarequin ; ¿cér dá au Gaufri-
 do ? ; nola bestietan ez becela orreñ i-
 ssilla , ta tristia zaude ? Orduan Gaufri-
 doc suspirio andi batequin erantzun ci-
 on : ai nere anaia ! ez det espero nere
 vicitza guztian iñoiz alegratuco naizala.
 Entzun zuenian au adisquideac , artzaz

erruquituric , joantzán San Bernardori
 contatzera , ceña au adituta , e7 aguturic
 ceñ peligro andian cegoen Gaufrido , sar-
 tu zan bereala topatu zuen lembicico E-
 lizan argatic Jaungoicoari erregutcera.
 Bitartian Gaufrido bere tristurarequin
 arri baten gañian burua macurturic ce-
 goela loacartu zuen ; baña dembora gu-
 chiren buruan alchatu cirán biac , bata
 oraciotic escatcen zuena logratuta , ta
 bestia lotatic arpegui añ alegriarequin ,
 ce ala icusita bere adisquide ona arritu
 zan , ta erreprenditu cion amorioz le-
 nago erantzun ciona. Gaufridoc esan ci-
 on , lenago esan banizun , ez nintzala i-
 ñoiz gueiago nere vicitza guztian alegre
 egongo , orañ esaten dizut , ez naizala
 iñoiz gueyago triste egongo. Au guerta-
 tu zan , cristau maitia , Gaufridorequin.
 Ta egemplo onetatic icusi bear dezu:

Lembicico , nola Jaungoicoac gueye-
 nian berá servitzen asitzen diranai ema-
 ten dizquien consuelo abec , orrela mun-
 duco gustoetatic apartatzeco , ta beraren
 amorioan empleatcera animatzeco , a-
 mac aurra bularra artcera aficionatze-

co, titian eztia ipintzen dion becela.

Bigarrenge, nola orregatic ere gure Jaungoico onac bere jaquinduri andiarequin quentcen digun ascotan consueloen esnia, ta eztia, orrela bularra quenduta icasi dezagun pena, ta tentacioen prueban egercitatzen dan devocio sendoaren ogui legor, ta sendoagoa jaten.

Irugarrenge, animaco legortasunen motivoz ascotan tentacio guztiz andiac sortzen dirala, ta gogotic peleatu beardala orduan ayen contra, cergatic ez datoz oriec Jaungoicoa gandic; baña paciencia andiarequin eramanean bearditugu ere animaco legortasunac, cergatic Jaungoicoacala disponitcen ditu.

Laugarrenge, ez degula iñoiz animoa galdu beard animaco legortasunetan, ta ez degula Gaufridoc bezala esan beard, iñoiz geyago alegre egongo ez naiz; cergatic gabaren edo animaco illuntasunen erdian arguia esperatu beardegu: ta espirituco alegriyaric andienian egonagatic ere, ez degu iñoiz esan beard, iñoiz triste egongo ez naiz; cergatic Jaquintsuac dion bezala, etzaitecela aztu egua

ónetan egun gaiztoaz. Esperatu bearda penen artian, ta bildur izan bear dá consueloen artian, ta nola batian, ala bestian humildu bear guerá.

Bostgarrenge, erremedio andia dala, gure gaitzian consolatu algaitzaquien adisquide espiritualen bati aditzera ematia.

Seigarrenge, advertencia aben azquenian esaten dizut, pensatu ta ezagutu dezazula nerequin batian, beste eroceñ gaucetan becela legortasun abetan ere pretensio contrarioac dituztela Jaungoicoac, ta gure etsayac, cergatic Jaungoicoac legortasun oriec dirala medio eramán nai gaitu viotceco garbitasun andirá, beraren servicioaren aldetic batre gure interes, edo provechuric ez beguiratzerá, ta gure buruaren despreçiora; baña etsayac legortasun abetzaz guri animoa galtceco, ta munduco gustoetara viurtzeco valiату nai izaten dú, ta azquenic guretzat, ta bestientzat enfadagarriac eguinta, orrela devocio santua deshonoratcia procuratcen du. Baña eman dizquitzurán consejuac cumplit-

zen badituzu, asco gueituco dá zure perfeccioa animaco legortasun abetan izango dezun egercicioa mediante. Ta aztu baño lenago beste gauza bat esan bear dizut, ta au dá: ascotan obra ónetan gustoric ez izatia, ta animaco legortasunac gorputzaren disposicio gaiztotic sortzen dirá, nola dan loaren faltarequin ta barau gueyeguiquin guztiz necatua, ló gurá, buru astunecoa, ta beste onelaco trabajuaquin dagoenian, cergatic trabaju abec gorputzecoac izanagatic, sentierazotzen diote orregatic ere espirituari, anímac, ta gorputzac alcarrequin duten batizate, edo unioa gatic. Onelaco ocasioetan bada procuratu bear degu virtutezco acto asco eguitia arrazoyaz governatzen dán vorondatiarequin, cergtic gure anima loaz, ta nequez cargatua, ta indarric batere gabe dagoela baldin badiruri ere, ez dirá orregatic ere Jaungoicoaren gusto guchia-gocoac gure spirituco obrac, ta esan dezaquegu onelaco ocasioetan Esposa Santac becela; ni lotan banago ere, nenerre viotza belan dago. Ta lenago esan

deran becela , onela trabajaten gusto
 guchiago baldiñ bada ere , merecimen-
 tu , ta virtute gueyago da. Baña one-
 laco occasioan legortasun , ta devocioa-
 ren falta quentzeco erremedioa da gor-
 putzari alivioaren bat ematia diversio
 honestoren batequin , ta orretaraco con-
 venidiran beste gauzaquin. Modu onetan
 Aita S. Franciscoac bere Religiosoai e-
 saten cien ; alaco moduan trabaja ceza-
 tela , ce etcezatela orregatic devocio
 santua galdu. Ta occasio batian Santu
 glorioso au espirituco melancoli añ an-
 diarequiñ egon zan , ce nai ta nai ez ere
 bere obretan aditcera ematenzuen , bada
 Religiosoquiñ conversacioa eguin nai
 baldiñ bazuen , eciñ zuen , ayetatic al
 de eguiten baldin bazuen , bere burua
 gaizquiago arquitcen zuen , baraubac ta
 gorputceco beste mortificacioac penat-
 cen zuten , ta oracioac iñolaz ere con-
 sueloric ematen etcion. Modu onetan bi
 urtian añ neque andia padecitu zuen , ce
 Jaungoicoa gandic guztiro apartatua ce-
 goela uste zuen ; baña humildadiarequin
 trabaju añ andia sufritu ezquero , eman

cion azquenian bat batian sosegu guztiz
 atsegufin bat bere Salvadoriac. Emendic
 ezagutuco dezu Jaungoicoaren adisqui-
 deric andienac ere onelaco animaco le-
 gortasunac padecitcen dituztela, ta ez-
 dutela Jaungoicoaren adisque de chiqui-
 agoac, noiz bait izaten badituzte, ica-
 ratu bear.

DEVOCIOZCO VICITZ ARACO
*sarreraren hostgarren partia, ceñian
 ematen dira exercicio, ta conseju bat-
 zuec anima proposito santuetan berrit-
 ceco, ta confirmatceco.*

I. CAPITULOA.

*Conveni dala proposito santuac be-
 rritcia orañ esatera nuan
 egercicioac mediante.*

Egercicio aben lembicico puntua da
 ongui consideratcia cembat importa du-
 ten.

Laster oztutcen da persona bere pro-

posito santuetan bere argaltasun , ta araguiaren griña gaiztoagatic , ceñac necatcen dute , ta lurreco gaucetara marcurtcen dute , ez baldiñ bada alchatcen asmo santuac berrituaz , nola choriac lurrera erorico liraquian , beren egoac erabillico ez balituzteque.

Orregatic berritu bear dituzu ascotan , christau maitia , Jaungoicoa seruitceco asmo santuac bildurturic ce au eguiten ez badezu , erori zaitezquela lenagoco estadu gaiztoan , edo gaiztoagoan , bada erortce espiritalac propiedade au dute , devociora igo guiñanian guenuen baño estadu bajuagoan ipintcen gaituzte beti.

Ezda erloju añ onic ascotan beguiratu , ta cuerda edo soca eman bear etzayonic , ta onetzaz gañera urtian beñguchiena ascatu bearda garbitceco , gas-tatu diran curpilla , edo ruedac compon-tceco , ta oquertu diranac chucentceco , ala ere bada bere animaren cuidadoa duenac jaso beardu Jaungoicoagana goician , ta arratsian libru onen lembico partian esan nituen egercicioac median-

te. Onetzaz gañera , examinatu bear du bere salvacioco gaucetan nola dagoen, topatcen dituen faltac erremediatceco. Ta azquenic urtian beñ guchiena ascatu bear du guztia esateco moduan , ta aren parte guztia bat banaca beguiratu bear ditu; esan nai det, aficio, ta grinalda guztia beguiratu bear dituela, faltaric arkitzen badu erremediatzeco.

Ta nola eriojuguilleac erlojuaren ruedac, ayen ortzac, ta ayec sartzceco zuloac muguimentu atseguinagoa izateco, ta erdoitu gabe conservatzeco olioarequin bustitzen dituen, ala persona devotac, esan deran becela, animaren, edo viotzaren ascatzia eguin ezquero, Confesioco, ta Comunioco Sacramentu Santuac artziarequin busti bear du, obeto berritzeco. Egercicio Santu onec zugnaco dizquitzun animaco indarrac, irazaquico du devocioan zure viotza, berdetuco ditu zure proposito santuac, ta loratuco ditu zure animaco virtutiac.

Lembicico cristauvac urtero eguiten zuten, au Jesus batayatu zan egunian, ceñian, San Gregorio Nacianzocoac esa-

ten duen bezala , berritcen zuten , Bat-
tajoan eguiten dan profesa, ta deabruaz,
ta aren gauza guztiaz eguiten dan des-
peida. Eguizu zuc ere onela , christau
maitia , cuidado , ta gusto andiarequin
orretaraco prestatuta, orretan empleat-
cen cerala.

Zure Aita Espiritualaren consejuare-
quiñ orretaraco dembora señalatu ez-
quero , ta espirituarequiñ , ta gorputza-
requiñ bestietan baño gueyago erretira-
tu ezquero , eguiñ bear dituzu bat , bi ,
edo iru meditacio orañ esango dizquitzu-
ran puntuen gañian libru onen bigarren
partian señalatu dizuran moduan.

II. CAPITULO A.

I. MEDITACIO A

Lenago esan degun protestacioaz ()
bat Jaungoicoac bere serviciora deit-
ciaz eguin digun mesedearen gañian.*

Consideratcitzu lembicico eguin ce-

(*) Libru onen lembicico partian.

nuen protestacioco puntuac. - Lembici-
coa dá utci, apartatu, ta despeitu ce-
nituala betico pecatu mortal guztia.

Bigarrena dá, consagratu cenituala
Jaungoicoaren amoriora, ta serviciora
zure anima, viotza, ta gorputza beren
potencia, ta sentidu guztiaquin.

Irugarrena dá, pecaturen batian eror-
tzen baldin baciñan, bereala procuratu
co cenuela jaiquitzia Jaungoicoaren gra-
ciarequin. Esan zadazu, cristau maitia,
¿ez dirá abec asmo ederrac, nobleac,
ta arrazoiarequin chit ongui datocenac?
Pensa zazu ongui cein santua, cein jus-
tua, cein arrazoyezcoa, ta maitagarria
dán protestacio au.

Considera zazu bigarrengo, ceñi eguin
dionun protestacio au, bada ez diozu Ja-
ungoicoa baño guchiagoco personari e-
guin. Baldin guizonac ematen dizquigu-
ten arrazoiezco itzac aimeste obligat-
cen bagaituzte cumplitzera, cembat
gueyago Jaungoicoari ematen diozca-
gunac? O Jauna, esaten zuen Davidec,
zu cerá nere viotzac esan diona, nere
viotzetit itz on au atera dá, ez naiz o-
rretzaz inoiz aztuco.

Considera zazu bostgarrenge, cer den-
 boretan asmo santu abetara Jaungoicoac
 mugitu ciñuen, cergatic gaztetasunian
 izan bazan, ó cer dicha chit berandu bai-
 cic ecin icasi deguna, goiz icastia! San
 Agustin oquei ta amar urte cituenian con-
 vertitu zan, ta Jaungoicoari chit penatu-
 ric, esaten cion: O antziñaco edertasuna,
 ceñ berandu ezagutu zaitudan! Icusten ci-
 ñudan, ta ez nuen zugar pensatcen.
 Zuc ere esan dezaquezu, cristau maitia,
 O antziñaco atseguintasuna! ; cergatic
 etzaitut lenago probatu? Balitzaque
 orduan ere mereci ez nuela. Motivo o-
 nengatic, Jaungoicoac gaztetasunian de-
 itciaz eguin dizun mesedea ezaguturic, e-
 esango dezu Davidec becela; O nere Ja-
 ungoicoa, nere gaztetasunetic zuc argui
 eguin dirazu, ta nere viotcian icutu nazu,
 ta beragatic beti publicatuco ditut zure mi-
 sericordiac. Ta baldin zartu ezquero dei-
 tu badizu Jaungoicoac, au gracia especi-
 ala dá, cristau maitia, zure urtiac bera o-
 fenditcen empleatuta, eriotza baño lenago
 bere adisquidetasunera deitcia, eriotzac
 pecatuan arrapatuta condenatu etzaitecen.

Consideratcitzu, seigarrengo, Jaungoicoaren deitce onetatic sortu zaizquitzun animaco ondasunac, ta icusico dezu ceñ zori oneco aldarzia, edo mudanza eguindezun, lenago ciñanetic ceñ besteric zauden, ; Ez daucazu dicha anditzat oracioa dala medio Jaungoicoarequiñ itz eguiten jaquitia? ; Jaungoicoa amatceco deseoa izatia? Zure griña gaiztoac ematen cizuten neque andia gabe guelditcia? ; Pecatu, ta concienciaco embarazo ascotic igues eguitia? ; ta azquenic lenago eguiten etcenueña, añ ascotan comulgatcia, onela gracia guztien iturriarequin bat eguiten cerala? O ceñ andiac diran cristau maitia, mesede abec! mereci dute ongui considerarcia, ta estimarcia. Jaungoicoaren escoyeco escuac au eguindu. Jaungoicoaren escuyeco escuac eguin du virtutia, dio Davided, aren escoiac jaso nau: ez naiz ilco, ez bada vicico naiz, ta cantatuco ditut viotzarequin, aboarequin, ta obraquin aren ontasunaren mirariac.

Consideracio aben guztien ondoren, ceñac icnsten dezun becela efecto santuz beciac daude, Jaungoicoari esquerrac emat-

ñaz, ta esan degunian aprobechatceco de
 seoaz beneric gabe, acabatu bear dezu
 meditacioa, erretiratcen cerala Jaungoico-
 agana humildade, ta confianza andi bate-
 quiñ, ta asmo santu aben acabera egerci-
 cio onetaco bigarren puntua eguin artera-
 ño, utci bear dezu.

III. CAPITULO A.

*Devocioco vicitzan animac eguin dituers
 aurrerapenen examina.*

Egercicio onetaco bigarren puntu au
 cerbait lucia da, ta au eguiteco esaten di-
 zut, ez dala preciso guztia batian eguitia,
 ez bada asco da puscaca; nola da bein nola
 Jaungoicoarequin portatu ceran, beste
 beñ, nola zure buruarequiñ, beste beñ
 berriz, nola progimoarequiñ, ta laugar-
 rengo, zure pasio, edo griñalden consi-
 deracioa.

Ez da preciso, ta ez da ere conveni e-
 gercicio au guztia belaunico eguitia, ez-
 bada asiera, ta azquena, ceñian daude a-
 fecto santuac; examen onetaco beste pun-

tuac eguin ditzaiquitzu nai baldiñ bade-
 zu pasiatcen zabilzala , ta obeto oyan , lo-
 ac artu gabe , ta ongui esnatua , dembo-
 ra pusca batian an egon albazaitezque; ba-
 ña onetaraco ongui iracurri bear dituzu
 lenago. Procuratu bear dezu orregatic e-
 re bigarren puntu guztia iru egun , ta a-
 rrats bitan luceena acabatcia , egun , ta a-
 rrats bacoitcian aldezun dembora orreta-
 raco artzen dezula; cergatic baldiñ egerci-
 cio au dembora lucian eguingo balitzaque
 orañ pusca bat , ta guero beste pusca bat ,
 bata bestiaren bitartian dembora asco iga-
 rotcen dala , galduco luque bere in-
 darra , ta provechu guchiagocoa izango
 litzaque. Examen onetaco punto bacoit-
 zaren ondoren artu bear dezu gogoan cer-
 tan faltatu dezun , ta cer falta daucazun,
 orrela zure Aita Espiritualari aguertu za-
 yozcatzun , ta emendatceco animo andia
 artu dezazun. Ez baldiñ bada ere preciso
 egercicio au eguiten dezun egunetan con-
 versacioetatic guztiro alde eguitia ; procu-
 ratu bear dezu orregatic ere arrasetan ba-
 dere piscabat erretiratcia , orrela goizago
 pyeratceco , ta gorputzaren descantsuari,

beardan dembora emateco. Egunaz ere as-
 cotan itz equiñ beardiozu Jaungoicoari itz
 devotoren batzuequiñ, baita ere Ama Vir-
 giñari, Aingueru Santuai, tz cerutar guz-
 tiai. Procuratu bear dezu ere Jaungoicoa-
 ren amorioan, ta zure animaren perfeccio-
 aren deseoa irazaquiric egercicio au e-
 guitia.

Examiña au eguiteco, jarri zaitez lem-
 bici Jaungoicoaren presencian, beraren
 aurrian, ta vistan zaudela fede vici bate-
 quin pensatuaz. Bigarrego dei zayozu
 Espiritu Santuari, escatcen diozula zure
 burua ongui ezagutzeco arguia, San A-
 gustiñec humildade andiarequiñ Jaungoi-
 coari esaten cion bezala, O Jauna, eza-
 gutu zaitzadala nic, ta ezagutu nadilla ne-
 rau; ta Aita San Franciscuac esaten cion;
 ; Ceñ cera zu Jauna, ta ceñ naiz ni? Esan
 bear diozu Jaungoicoari, ez dezula zure
 animaren aurrerapena, zure buruan ale-
 gratceco examinatu nai, ez bada Jaungoi-
 coagan beragan alegratceco, ezta ere zu-
 re buruaz, gloriatciagatic, ez bada Jaun-
 goicoa honratciagatic, ta esquerrac ema-
 tia gatic.

Emaiozu ere itza, ce, uste dezun bece-
 la guchi aprobechatu dezula, edo aurre-
 ratu bearran atceratu eguin cerala ezagu-
 tua gatic, ez dezula orregatic ere animoa
 galduco; ez bada contrara, gueyago, ta
 gueyago nai dezula animatu, humillatu,
 ta Jaungoicoren gracia mediante zure fal-
 tac emendatu.

Au eguin ezquero, examiña zazu pa-
 que, ta sosegu andiarequin, nola vicitu
 ceran Jaungoicoa ganaco, zure burua ga-
 naco, ta progimoa ganaco.

IV. CAPITULO.

*Gure animac Jaungoicoa ganaco izan duen
 vici moduaren examiña.*

Nola dago zure viotza pecatu morta-
 laganaco? ; Badaucazu iñolaco modutan ez
 eguiteco asmo firmea? ; Ta asmo onec zu-
 re protestacioa eguin cenuenetic oneraño
 iraun dizu? Asmo firme onetan dago vi-
 citza espiritualaren cimendua.

¿ Nola dago zure viotza Jaungoicoaren

mandamentuen ganaco? ; Onac , gusto-
coac , ta atseguñac iruricen zaizquitzu?
Ai cristau maitia, mingañeco gustoa; ta es-
tomagoa galduac ez daucazquienac , jana-
ri onari gusto artcen dio , ta gaiztoa eta
zayo gustatcen.

; Nola dago zure viotza pecatu venialen
ganaco? Eguia da , ez dala posible batian
edo batian ez erortcia , baña balitzaque
inclinacio particularra batzuen ganaco zue
izatia , ta oraindic gaiztoagoa dana , bai-
ta ere bear bada aficioa , ta amorioa.
; Nolacoa dago zure viotza egercicio es-
piritualenganaco , ta cer aficio diezu? ; A-
matcen dituzu? Estimaten dituzu? ; Et-
zaizquitzu gustatzen? ; Necaten zaituz-
te? ; Ceñetara inclincio gueyago senti de-
zu? ; Jaungoicoaren itza entzutera? ; I-
racurtcera? ; Aren gañian itceguitera?
; Ura meditatcera? Jaungoicoari itz amo-
riosoac esatera? ; Confesatcera? ; Conse-
ju espiritualac errecibitcera? ; Comulgat-
ceco prestatcera? ; Comulgatcera? ; Zu-
re griña gaiztoac sujetatcera? Ta arqui-
tzen baldin badezu gauza abetacoren ba-
ti aficio guchi diozula , edo gogoan jot-

cen zaituela, examiña zazu nondic datorren nai gabe ori, ta cer dan orren motivoa. Examiña zazu nolacoa dagoen zure viotza Jaungoicoagan beraganaco. ; Poztutcen da zure viotza artzaz acordatcen danian? ; gozotasun, edo atseguin andia sentitcen du onetan? Davidec esaten zuten: Jaungoicoaz acordatu naiz, ta gozatu naiz. ; Ezagutcen dezu zure viotzian erraztasun andi bat bera amatceco, ta gusto especiala amorio onetan empleatcen? ; Gozatcen da zure viotza aren neurtu ecintasuna, ta atseguintasuna consideratcen? Gogoratcen bazaitzu Jangoicoa zure eguitecoetan, ta vanidadien artian, ematen diozu lecu zure buruan, ta zure viotcian? Uste dezu Jaungoicoaren aldecoa eguiten dala zure viotza, ta moduren batian bera errecibitzera aurreratcen dala? Ez dago duderic, cristau maitia, badirala onelaco anima bedeincatuac.

Guizon ezcondu bat viage luceren baretic etortcen danian, emazteac aren itza entzun ezquero, eroceñ eguitecotan ari dedilla, ta naiz gauzaric dan andiena pensatcen dagoela, bereala utcitcen du guz-

tia, ta bere pensamentu guztiac senarragan
 empleatcen ditu. Orobat guertatcen zaye
 Jaungoicoaz enamoratuac dauden anima
 ascori, ocupacioric dan andienian egon-
 agatic, ta eroceñ pensamenturequin be-
 ren burua ocupatua iruquiagatic, Jaun-
 goicoa acordatu ezquero, nai ta nai ez ere
 alegratcen dira, ta argan pensatu gabe e-
 ciñ egon dira; ta guztiz señale ona da au-
 ; Nolacoa dago zure viotza Jesus, Jaun-
 goicoa, ta guizon eguiazcoa ganaco?
 ; Gustatcen zaitzu arequin egotia? Asco
 gustatcen zaie erliai beren eztiaren aldian
 ibiltcia, ta eblizarrai berriz ciquinqueria-
 ren aldian; ala ere bada cristau ónac be-
 ren consuelo guztia Jesusen aldian egotia
 dute, amoriozco atseguin andia sentitcen
 dute arequin: baña gaiztoac vanidadietan
 dituzte beren consueloac.

; Nola dago zure viorza Ama Virgíña ga-
 naco, santuen ganaco, ta zure Aingueru
 guardacoa ganaco? ; Aien ontasunian con-
 fiantza especiala dezu? ; Gustatcen zaiz-
 quitzu ayen imagiñac, ayen vicitzac, ta
 alabantzac?

Zure mingañaren aldetic, examiña za-

zu, nola itz eguiten dezun Jaungoicoa-
requin, gustatcen zaitzun edo ez aren ga-
ñian devocioarequin itz eguiten egotia zu-
re estadu, ta jaquinduriaz bat, gustatcen
zaitzun edo ez Psalmoac, edo Elizaco
cantac, ta officioac cantatcia.

Zure obren aldetic, examiña zazu dau-
zazun edo ez zure viotzian Jangoicoaren
honraren celoa, ta aren honra gatic ero-
ceñ gauza eguiteco deseoa, cergatic Jaun-
goicoa amatcen dutenac, deseaten dute
Davidec becela, bera honratua izatia.

Examiña zazu, gustatcen citzaitzun gau-
zaren bat Jangoicoaren amorioa gatic utci
dezun, bada ez da amorioaren señale ga-
iztoa, amatcen danaren amorez cerbait
utcitcia. ; Cer da bada Jaungoicoaren a-
morez zue utci dezuna ?

V. CAPITULO A.

*Zure buruaren aldetic animan nola zauden
ezagutceco examina.*

; **N**ola amatcen dezu zure burua ? A-
matcen dezu bear baño gueyago mundu

onetaraco? Orrela baldiñ bada, beti e-
 men gelditcia deseatuco dezu, ta orreta-
 raco aleguñac eguingo dituzu, baña Ce-
 ruraco amatcen bacera, Cerura joatia de-
 seatuco dezu, edo orrembeste ez bada e-
 re, conformatuco cera beñepen Jaungoi-
 coac gusto duenian mundu onetatic ate-
 ratcian.

Arrazoyac escatcen duen bezala zure
 burua amatcen dezu? Bada jaquiñ bear
 dezu, ez dala gauzaric aimbeste gaitz a-
 niman eguiten duenic, nola arrazoyaren
 contraco gure buruaren amorioa. Arrazo-
 yac escatcendu gorputza baño gueyago a-
 nima amarcia, arrazoyac escatcendu beste
 gauzac baño, virtutia guganatceco cuida-
 do gueyago izatia, munduco honraz ba-
 ño, Jaungoicoaren honraz cuidado gue-
 yago izatia. Arrazoyaz governatcen dan
 viotzac esaten du bere artian: ; cer esan-
 go dute Aingueruac nic onelaco gauza
 pensatcen, esaten, edo eguiten badet? ta
 ez, cer esangodu munduac?

Cer amorioa diozu zure viotzari? Go-
 go gaiztoarequiñ eramaten dituzu aren gait-
 zac, ; Ai christau maitia! beguira zazu

arren, lagundu bear diozula aleguñ guz-
tia bere pasio, edo grinalda gaiztoac pe-
natcen dutenian, ta onen gatic beste guz-
tiari utci bear diozu.

¿Cembatzat daucazu zure burua Jaun-
goicoaren beguetan? Ecer ezatzat nos-
qui. Ez da humildade andia mendi baten
comparacioan ebli batec bere burua ecer
ezatzat iruquitcia, ezta ere ur tanto batec
fichasoaren comparacioan, edo chimista ba-
tec eguzquiaren comparacioan. Eguiazco
humildadiaren izatia bestiac baño gueya-
gocotzat gure burua ez iruquitcian, ta
bestiac baño estimatuagoac ez nai izatian
dago. ¿Nola dago onetan zure viotza?
Zure mingañaren aldetic, ¿alabatcen dezu
nolaz bait zure burua, edo bestec estimat-
ceco gauzaren bat zure buruagatic esa-
ten dezu?

Zure obren aldetic, ¿artcen dezu zu-
re osasunaren contraco gustoren bat, esa-
naidet, gusto ero, ta ecer servitcen ez
dutenac, motivo justu gabe arratsac velan,
edo loric eguin gabe igarotciac, ta beste
onelacoac?

*Gure anima progimoaganaco nola dago
en ezagutceco examina.*

Asco amatu bear dute senar emazteac bata bestia amorio atseguin, ta sosegatuarequin, sendo ta beti irauten duenarequin; ta onec lembicico izan bear du, cergatic Jaungoicoac ala nai du, ta aguintzen du. Orobat esaten der humeen, ta aide urren gñian, baita ere adisquidien gñian, ba-coitzari tocatcen zayon moduan,

Baña orañ progimo guztiai beguiratcen diegula, esan zadazu; Nola dago zure viotza zure progimoen ganaco?; Amaten dituzu viorcetic, ta Jaungoicoaren amorioagatic? Au ezagutzeco, ecarrizatzu gogora persona enfada garriren batzuec, cergatic orrelacoetan egercitatcen dá Jaungoicoaren progimoaganaco amorioa, ta orañdic gueyago obraz, edo itcez guri gaitcen bat eguin digutenaquin. Examinazazu, zure viotzac ayenganaco nequeren bat sentitcen duen, ta amarcia asco costatcen zayon.

Erraza ceta progimoaren contra, ta batez ere amaten etzaituztenen contra murmutatceco? Eguiten diozu progimoari nolaz bait gaitcen bat? Asco necatu gabe ezagutuco dezu.

VII. CAPITULOA,

Gure afisioen gañeco examina.

Esan dituran puntuetan cerbait luzatuder, cergatic ayen examinatic ezagutcenda gure animac Ceruco vidian eguin duen aurrerapena, bada pecatuen examina Ceruco videan, edo perfeccioan aurreratcia pensatcen ez dutenen confesioetacoa da.

Ez da bada precisoa puntu abetan bacoitcian asco necatcia, ez bada sosegu andiarequiñ examinatu bear degu cer modutan dagoen gure anima ayetaco bacoitcian devociozco vicitzan empleatceco, edo perfeccioan aurreratceco artu guenituen asmoetatic onera, ta cer faltac izan ditugundembora orretan. Baña au guztia laburtceco examina guztia gure griñalden eza güerara empleatu bear degu, ta esan dan

bezala guztiz bat banaca examinatciac necatcen bagaitu, examina dezaquegu, nola coac izan gueran, ta nola portatu gueran.

Lembici, Jaungoicoa ganaco, progimoa ganaco, ta gure burua ganaco amorioan.

Gure, ta bestien pecatuen ganaco gorrotoan, cergatic nola batzuec, ala bestiac acabatcia deseatu bear degu.

Ondasunen, atseguintasunen, honren deseoa. Pecatuan erortceco, ta ondasunac galtceco peligroen bildurrian, cergatic azqueneco au asco sentitcen da gueyenian, baña bestia chit guchi.

Munduco gaucetatic sortcen dan tristurran, chit andia baldiñ bada.

Alegriyan, chit andia baldiñ bada, ta arrazoi ez dan gauzac gatic.

Ta itz batian, cer aficioc, ta grñaldac gure viotcian lecuaduten, ta certan gueyena faltatu duen.

Cergatic gainalda, edo pasioen examinatic ezagutcen da nola dagoen anima perfeccioco videan. Ta nola guitarra jotzalliac guitarraren cuerdac edo socac nola dauden bat banaca erregistratu ta tem-

placien dituen , ta guztia ongui ipintcen dituen , ala ere gure amorioa , gorrotoa , deseoia , bildurra , esperanza , tristura , ta alegriya examinatu ezquero , bear dan bezala ez daudela ezagutcen badegu , templatatu , edo ipiñi ditzaquegu bear dan bezala Jaungoicoaren gracia ta , Aita Espiritualaren consejoac mediante.

VIII. CAPITULO.

Examinaren ondoren eguin bear diran afectoen gañian.

Examinaco puntu bacoitza soseguz consideratu ezquero , ta ceñetan zauden icusi ezquero , eguingo dituzu afectoac modu onetan.

Lembici , eman bear diozcatzu esquerac Jaungoicoari zure vicitzan ezagutu dezun emienda gatic , ta bera seruitceco artuac daucazquitzun asmoac gatic , ta aitortuco diozu , bacarric aren misericordiarri zor diozula zure animan icusten dezun on guztia.

Bigarrenge , humildu zaitez aleguin

guztia beraren aurrian, ezagutzen dezula, ce ez baldin bacera gueyago aurteratu perfeccioan, zure faltaz izan dala ta cergatic ez diezun leyalqui, ta firme erantzun Jaungoicoac eman dizun arguari, ta zure viotcian eguin dizquitzun deyai, dala oracioa mediante, dala beste moduren baten medioz.

Irugarrenge, emayozu itza, alabatuco dezula beti griña gaiztoeratic aterata, izan dezun emienda piscara allegatceco, eguin dizquitzun mesedeac gatic.

Laugarrenge, ezcayozu barcacioa, cergatic aren graciai, ta mesadeai bear bezala eratzun ez diezun.

Bostgarrenge, escañi zayozu zure viotza, orten jabe guztiro eguin dedin.

Seigarrenge, escayozu, berarequico beti leyala eguin zaitzala.

Zazpigarrenge, ipiñitzatzu bitarteco Santuac, Ama Virgiana, zure Aingueru guardacoac, zure Patroya, San José, ta beste zure devociocoac.

IX. CAPITULO A.

Gure asmo santuac herritceco consideracio egoquiac.

Esan deran examina eguiñ ezquero, ta zure falten gañian, ta ayetan emendatceco zertaz valiatu bear dezun zure Aita Espiritualarequiñ consultatu ezquero, artucitzu orañ esango dizquitzurán consideracioac, ta eguizu egunian bat egunero eguiten dezun meditacioaren orde, ta libru onen lembicico partian dauden meditacioen moduan berian, au da, Prestera, afecto, ta beste gañeraco gauzaquiñ, jartcen cerala gauza guztien aurrenetic Jangoicoaren presencian, ta escatcen diozula bere amorio, ta servicioan irauteco gracia.

X. CAPITULO A.

Gure animaren anditasunaren gañian.

Considera zazu ceñ noblia, ta estimagarria dan zure anima, bada du entendimentu bat, ceña mediante ezagutcen du

ez bacarric mundu au , ez bada baita ere Aingeruac , ta Ceruco gloria ; etzagutcendu badala Jaungoico bat guztiz andia , guztiz ona , ta esan ditequien baño gueyagocoa ; ezagutcen du , badala eternidade , edo beti izate bat , ta mundu onetan vicitceco , ta Aingueruaquin Ceruan Jaungoicoa beti gozatceco bear dan guztia.

Orretzaz gañera badu ere animac vorondate guztiz noble bat , ceña mediante ama dezaque Jaungoicoa , ta eciñ aborreçitu dezaque bere personan. Considera zazu ceñ noblia dan zure viotza , ta nola erliac eciñ jarri , edo descantsatu diran gauza ustelduan , ez bada bacarric lorien gañian ; ala zure viotzac eciñ topatu du descantsuric Jaungoicoagan ez bada beste gauzetan ; ez dira asco criatura guztiaç ura asetceco. Pensa zazu gogotic lenago estimatcen cenituen diversioric andienetan , ta ezagutuco dezu dudaric gabe , milla naigabez betiaç cirala , ta zure viotza ayen artian sosegu gabe ta milla pensamentureqiñ , ta cuidadorequin martirizatua egoten zala. Onela ibiltcen dan gure viot-

za ansiaz beterie criaturen , ta mundu onetaco gaucen ondoren bere deseoa guztiro cumplituco dituelaco ustian , baña aiec topatu beceñ laster , ezagutcen du bere erroqueria , ta eciñ ecerc ere ase dituela aren deseoa mundu onetan. Noeren chatic irten zan usoac etzuen topatu non descantsatu , orregatic biurtuzan atcera chachara ala ere , ez du nai Jaungoicoac gure viotzac mundu onetaco gaucetan descantsuric topatcia , orrela atcera beragana biur dediñ. Oceñ noblia dan gure viotzaren izatia ; ¿Cergatic iruquico degu bada bere gusto aren contra criaturen servicioan ?

Esan diozaquezu zure buruari , ; O nere anima zoragarria ! zuc ezagutu , ta ama dezaquezu Jaungoicoa. ¿Cergatic bada guchiagorequin ocupatcen cera. Pretendi dezaquezu eternidadia ? cergatic zabiltza bada instante batian baicic iraungo ezduten gaucen ondoren. Evangelioac conatcen duen seme galduaren sentimentue-ratic bat au izanduzan ; bere aitaren echean , ta maian erregalo andian vici citequela , cherriaquiñ batian ayen janaria jaten arizala. ; O nere anima ! amatu , ta gozatu

dezaquezu zuc Jaungoicoa; zure zori gaiz-
tocola, ura baño guchiagorequiñ conten-
tatcen bacera. Emplea zazu gogotic zure
anima consideracio onetan, ongui aditce-
ra emayozu, nola betico dan, ta Jaun-
goicoa beti gozatceco diña dan: anima za-
zu orretara.

XI. CAPITULO A.

II. CONSIDERACIO A.

Virtutien gañian.

Considera zazu, virtutiac, ta devocio-
ac ez bada bestec eciñ contenta dezaque-
la zure anima mundu onetan. Considera-
zazu ceñ ederrac diran. Ipiñitzatzu virtu-
tiac alde batian, ta ayen contraco vicio-
ac bestian. Cer paquea paciencian vengat-
zaren comparacioan, cer paquea ta sose-
gua mansotasunian ira, ta aserriaren com-
paracioan, humildadian, soberbiaren, ta
andinayaren comparacioan, prestua iza-
tian, guticiaren comparacioan, progimo-
aren amorioan, envidiaren comparacioan;
castidadian lujuriaren comparacioan, jan

eranian templatua izatian, gularen comparacioan. Gauza zoragarri au dute virtutiac, egercitatatu ezquero, atseguin zoragarri batequin consolatcen dute anima, baña contrara vicioac, necatua, galdua, ta penatua utcitcen dute. ; Cergatic ez degubada aleguiña eguiño virtutien atseguintasun au logratcia gatic ?

Vicioetatic guchi dituena ez dago contentu, ta asco dituena are guchiago, baña virtutietatic guchi duena contentu dago, ta cembat eta gueyago duen are contentuago. ; O devociozco vicitza, nola ceran ederra, gozoa, atseguña, ta maita garria ! Zuc eguiten dituzu gozoac penac, ta consueloai beren modua ematen diezu. Zu gabe on guztia gaiztoa, ta pena, ta atseguintasunac, ta diversioac inquietacioz, alborotoz, ta eroqueriaz betiac dira. ; O nola ongui ezagutcen zaituenac Samariaco emacumeac bezala arrazoyarequin esan diozaquien Jaungoicoari ! indazu, Jauna, ur au. Beste fiñetaco bazan ere ascotan valiatcen ciran itz abetzaz Santa Teresa, ta Santa Catalina Genovacoa.

XII. CAPITULO A.

III. CONSIDERACIO A.

Santuen egemploen gañian.

Considera zazu estadu guztietan , cer egemploac eman dizquiguten Santuac. ; Cer eguin etzuten ayec Jangoicoa amatececo , ta beraren devotoac izateco ? Consideratcitzu Santu Martiriac cein sendoac fedean , ta beste virtutietan. ; Cer penac sufritu etcituzten orieac gatic ? Baña batez ere doncella gazte eder , inocentiac , lirioac baño zuriagoac castidadian , arrosa baño gorriagoac Jaungoicoaren , ta progimoaren amorioan ; batzuec amabi urtecoac , bestiac amairucoac , bestiac amabostecoac , ogueicoac , oguei ta bostecoac sufritu cituzten milla martirio modu , ez barric fedea ez galtzia gatic , ez bada bai ta ere beste virtutiac conservatcia gaiic ; galtcen zutela beren vicia modu izugarrian batzuec castidadia ez galtcia gatic , bestiac eriai , ta afligituai laguntcia gatic , ta consolatcia gatic , bestiac illac obiratu , e-

do enterratcia gatic, ta onela beste virtuetan ez faltacia gatic. O Jauna, cein viotz indartsua, ta sendoa aguertu zuten trance ayetan persona gazte, ta berez añ delicaduac ciran ayec.

Beguirazazu, beste Santu ascoc cer animo andiarequin mundua despreciatu zuten, cein firme iraun zuten beren asmo santuetan, etzuen ecerc ere indarric izandu beren proposito santuac ayei galeracitceco; artu cituzten gogotic, ta aleric ere utci gabe iraun zuten ayetan. O nere Jaungoicoa! cer esaten du San Agustinec bere ama Santa Monica gatic?; Cein firme iraun zuen Jaungoicoa servitceco propositoetan nola Matrimonioan, ala alargundu ezquero! Ta San Geronimoren espirituco alaba Santa Paulac berriz, Santuac berac esaten duen becela aimbeste difficultade, ta aimbeste atsegaberen artian! Baña, cer izango da motivoa guc ere alaco Patroyaquin ala ez eguiteco? Gu becela araguzcoac ciran ayec ere. Guc servitu bear degun Jaungoicoa gatic bera gatic, ta guc egercitatatu bear ditugun virtuetiac gatic berac gatic ayec ala eguin zuten:

z cargatic ez degu guc ere bacoitzac bere
 estaduan beste aimbeste eguingo Jaungoi-
 coaren servicioan empleatceco artu gueni-
 tuen pensamentu santuac gatic ?

XIII. CAPITULO A.

IV. CONSIDERACIO A.

Jesusec digun amorioaren gañian.

Considerazazu, cer amorio andiarequin
 padecitu zuen Jesusec gugatic, batez ere
 Getsemanico baratzan, ta Calvarioco men-
 dian. Beguiratcen cizun andic bere amo-
 rioarequin, ta bere pena, ta neque guz-
 tiac gatic logratu cituen bere Aita Eter-
 noa gandic zure vlotzarentzat asmo san-
 tuac, pena, ta neque ayec gatic berac ga-
 tic logratu zuen asmo santu oriec conser-
 vatceco, indartceco, ta cumplitceco bear
 cenuen guztia. ; O Jaungoicoa servitceco
 asmo santua cein noblia ceran alaco ama-
 gandic, ceña dan nere Salvadoriaren pa-
 sio santua, jayoa izanic ! O nere anima,

cembat estimatu bear ceran , bada ain am-
matua izan ciñan nere Jesus ona gantic !
O nere Salvadore maitagarria , zuc zure
vicia eman cenuen niri asmo santu abec lo
gracia gatic ; indazu gracia Jauna , lena-
go iltceco , abec utci baño.

Sinis zadazu , cristau maitia , ez dagoe-
la dudacic gure Jesus maitiaren viotzac i-
cusi zuela zuria gurutcetic , ta amatu zue-
la , ta amorio au dala motivo alcantzatu ci-
ozcan gozatcen dituzun , ta gozatuco di-
tuzun animaco ondasun guztia , ta ayen
artian asmo santu abec. Bai , cristau mai-
tia , guztio esan dezaquegu Jeremias Pro-
feta Santuac becela : O Jauna , sortuco
nintzan baño ere lenago beguiratzen ceni-
dan , ta nere icenarequin deitzen cinidan ;
cergatic ez dago dudacic Jaungoicoaren
ontasunac alde aurretic prestatcen dituala
bere amorioan , ta misericordian salvatce-
co bear ditugun gauza chiqui , ta andi guz-
tiac , ta bera gatic bai ta ere gure asmo
santuac. Nola aurra eguiteco dagoen ema-
cumeac aurra eguin baño lenago prestat-
cen dituen siasca , aurra biltceco , ta jaz-
teco bear dituan zapiac , ta erropac , bai

ta ere ascotan ura aci bear duen ama inu-
 dia , ala ere gure Jaungoicoac bere amo-
 rioa gatic zu eguiteco cegoela , Ceruraco
 jaiotcia , ta acitcia deseaturic , prestatu zu-
 en gurutceco arbolan zugatic eguin zuen
 guztia , zure siasca espirituala , zure aur
 zapiac , aur oyalac , ta beste erropac , zu-
 re ama inudia , ta zure zori oneraco bear
 zan guztia. Abec dira zure anima perfec-
 ciora eramateco valiatcen dan medio , dei-
 tce , ta gracia guztia. Ai nere Jaungoi-
 co maitia , cein gogotic sartu bear gue-
 nuquian au gure memorian. ; O Jauna ,
 nere Salvadoriac aibeste amatu nauela ?
 nigan pensatcen zuela ? ta nitzaz acorda-
 turic , bera gana ecarri nauela ? ; Cembat
 amatu , ta estimatu bear degu bada au ?
 ta orretzaz gure animaren provechuraco
 aprobechatu bear ez degu ? ; O cein atse-
 guina dan consideracio au ! Zure Jaungoi-
 coaren viotz maitagarriac pensatcen zuen
 zugaran , cristau maitia , amatcen cinuen ,
 ta logratu cizquitzun zure salvacioraco
 bear cenituen guztia. Pensatcen zuen zu-
 gan beste criaturaric , ceñetan peusatu i-
 zango ez baldin bazuen becela. Nola e-

guzquiac munduaren parteric chiquienari munduco beste parteri argui eguingo ezbalioque becela, bere argui guztiarequin argui eguiten dion, ala ere gure Salvadoriac alaco moduan pensatcen zuen, ta cui datcen zuen gutzaz, ce bacoitcian pensatcen zuela, bacirurien etzuela batian baicic pensatcen. Amatu ninduen Jesusec, ta entregatu zan ni gatic esaten zuen S. Pabloc. Esango baldin bazuen becela, ni gatic bacarric, bestegatic entregatu ez baldin bazan bezala, entregatu zan. Beti gogoan iruqui bear dezu au, cristau maitia, zure asmo santuetan seguitceco, ta irau reco, bada aimbeste amorio aditcera eman cizun Jesusec, ta aren amorioari asmo santu oriec zor diozcatzu.

XIV CAPITULO A.

V. CONSIDERACIO A.

Jaungoicoac eternidadetic izan dignu amorioa.

Considera zazu Jaungoicoac eternida-

detic izan dizun amorioa , cergatic Jesu-
 sec gurutcian zugatic padecitu baño lena-
 go Jaungoicoac zu eguitia pensatcen zuen,
 bere izatean icusten ciñuen , ta ecin gue-
 yagoraño amatcen ciñuen. Baña noiz asi
 zan zu amatcen ? Bera Jaungoicoa izaten
 asi zanetic ; Ta noiz asi zan ? Iñoiz ez ,
 cergatic beti izan da asieratic , ta acabe-
 ratic gabe , ta ala beti amatu zaitu eter-
 nidadetic , ta orregatic prestatu cizquitzun
 eguin dizquitzun gracia , ta mesedeac.
 Bere Profetaren abotic berac esaten dizu :
 berico amorioarequin amatu ciñudan , ta
 orregatic zutzaz erruquituric ni gana eca-
 rri ciñudan. Beste asco gauzaren artian e-
 ze pensatu zuen bada zuri bere servicioan
 empleatceco asmo santua artceco gracia
 ematia.

¡O Jauna, cer asmoac diran abec , ba-
 da Jaungoicoac eternidadetic pensatu , ta
 moldatu cituen ! ¡ceñ estima garriac izan
 bear duten guretzat ! Cembat padecitu be-
 ar guenuquien ayetatic bat bacarra ere ez
 galtceco ! Eguiatz , orietan irauteco mun-
 du guztiac galdua izan bear baluque ere,
 cergatic ez du mundu guztiac anima batec

arinbat valio, ta Jaungoicoaten servicio-
an irauteco asmoric gabe animac ecer va-
lio ez du.

XV. CAPITULOA.

*Esan diran consideracioen gañian afec-
toac ta egercicioaren acabera.*

O nere viotzeco asmo santuac! zuec-
cerate Jangoicoac bere escuz nere viotza-
ren erdian landatu duen vicitzaco arbola,
ta nere viotz au nere Salvadoriac bere o-
dolarequin erregatu nai du, bear dan fru-
tua eman dezan. Lenago sufrituco ditut
milla eriotza nere asmo santuac utci baño.
Ez vanidadiac, ez gustoac, ez ondasunac,
ta ez trabajuac apartatuco naute iñoiz ne-
re asmo santuetatic.

Baña ai nere Jesus! zuc landatu cenu-
en, ta zure Aita Eternoaren pechuan gor-
de cenuen arbol misterioso au nere jardi-
ñeraco. O cembat anima diran niri bezala
mesede au eguiñ ez diezunac, ; Noiz hu-
mildu nintequa bada ni zure misericordi-
aren aurrian bear arimbat?

¡ O asmo santu , ta zoragarriac ! nic conservatcen bazaituztet , zuec conservatuco nazute , nere animan vicitcen bacerate , nere anima zuetan vicico da. Vici zaitzte bada betico nere asmo santuac , bada beticoac cerate nere Jaungoicoaren misericordian , egon zaitzte , ta vici zaitzte beti nigan , etzaituztet nic ere iñoz utcico.

Afecto santu aben ondoren procuratu bear dezu asmo santu abetan irauteco egoquiac diran moduac artcia , ta esan bear dezu zure viotcian , zure asmoa dala le-yaltasunarequin ayetan aprovechatcia , maiz oracioa eguitiaz , Sacramentuaz , obra santuaz , ezagutzen dituzun falten emiendan , ocasio gaiztoetatic igues eguiten , ta onetaraco ematen dizquitzen consejoaz.

Au eguin ezquero , gueyago animoa artceco esan bear dezu beñ , ta gueyagotan , seguituco dezula asmo santuetan ; ta zure viotza , zure anima , ta zure vorondatia zure escuetan baldin baceneucazqui bezala , consagratu , ta escañi zayozcatzu Jaungoicoari , esaten diozula ; ez dituzula gueyago artuco , ez bada aren escuetan

urcico dituzula guztian, ta guztiro aten vorondatia eguiteco. Esca zayozu Jaungoicoari, bedeınca zaitzala guztia, ta bedeınca ditzala ere zure asmo santuac, ta eman dizazula ayetan irauteco gracia. Ipiñitzatzu bitarteco Ama Virgiña, zure aingueru guardacoa, San Jose, ta beste Santuac.

Zure viotza onela mugituric zuaz zure Aita espiritualala gana, ta acusa zaitez azqueneco confesio generalitic oneraño eza gutcen dituzun faltaric principalenaz, ta errecibi zazu absolvicioa lenagoco confesio generalian becela. Berritu izatzu beraren aurrian zure asmo santuac, ta au eguin ezquero, zuaz zure viotz berritua zure Salvadoria-requin Comunioco Sacramentu Santuan bat eguitera.

XVI. CAPITUOA.

Egercicio santu onen ondoren cer eguin bear dan.

Asmo santuac berritiaz zure viotza berkitcen dezun egunian esan bear dituzu

beñ ta guyagotan viotz , ta aboarequin
 San Pabloc , San Agustinec , Santa Ca-
 talina Genovacoac , ta beste Santu as-
 coc esaten cituen itz devoto abec : ez
 naiz onezquer guero nereca , naiz vici na-
 dilla , naiz il nadilla nere Salvadoriare-
 na naiz ni. Ez det ere nigandic , ta ne-
 reric ; Jesus da nereca ; ta nere izatia a-
 ren izatia dá. O mundua , zu beti cero-
 ri cera , ta ni beti nerau izan naiz , ba-
 ña emendic aurrera ez naiz nerau izan-
 go. Ez , ez guera onezquer guero gu gue-
 roc izango , cergatic viotza mudatua i-
 ruquico degu , ta oraindaño munduac a-
 imbeste engañatu bagaitu , emendic a-
 urrera berá gugan engañatua izango da,
 cergatic nola ez duen ezagutuco piscaca
 ez bada gure mudanza , Esaúen aldeco-
 ac (*) guerala usteco du , orduraco Ja-
 coben (*) aldecoac gú izanic. Pensa-
 mentu santu abec gogotic sartu bear di-
 tugu gure viotzian gure eguitecoetan , ta
 conversacioetan a yetzaz acordatuta be-

(*) Gaiztoen aldecoac.

(*) Onen aldecoac.

ar dan cuidadoarequin gabiltzan, gure
 asmo santuen frutua galdu ez dezagun,
 baña espirituari, ta gorputzari indarric
 eguin gabe soseguz procuratu bear de-
 gu pensamentu santu abec gogoan i-
 ruquitcia.

XVII. CAPITULO.

*Erantzuten zaie devociozco vicitzan sar-
 tzezo liburu onetan diran consejuen con-
 tra esan ditezquien bi gauzari.*

Esango dizu bear bada munduac, cris-
 tau maitia, aimbeste dirala egercicio,
 ta conseju abec, ce abec cumplituco ba-
 dira beste gauza guztiai utzi bearco za-
 yela. Ai cristau maitia, au besteric e-
 guingo ez baguenuque ere ez guenuque
 guchi eguingo, bada mundu onetan e-
 guin bear deguna eguingo guenuque. Ba-
 ña ez da ez orrelacoric; ez degu abec
 cumplitceco beste gauzari utzi bearric. E-
 san dituran egercicio, ta conseju guztia
 egunero eguiñ bear baliraque, ez dago

dudarie gueiegui ocupatuco guñuzteque
 la, baña ez da ori ala, ez bada bacoitza
 bere denboran, ta occasioac escatcen du-
 enian bacarric eguiñ bear dira. Empera-
 doriac, Erregueac, ta munduco beste A-
 guintariac ipiñi dituzten cenbat legueta-
 ra obligatuac ez gaude? Baña ez gaude
 egunero guztiaac cumplitcera obligatuac,
 ez bada bacoitza occasioac ala escatzen du-
 enian. Baña esan nai dizut beste gauzaric

David Erregue Santuac milla eguite-
 coz betia cegoela, nic emen ipiñi diz-
 quitzuran baño exercicio gueyago eguiñ
 cituen. San Luis Erregueac guerraco,
 ta paqueco demboran miragarriac, ta
 cuidado andiarequin justicia, ta eguite-
 coac cumplitcen cituenac, entzuten ci-
 tuen egunero bi meza, errezatcen citu-
 en vezperac, ta completac bere Cape-
 llabarequiñ, eguiten zuen egunero ora-
 cio mentala, visitatcen cituen hospita-
 lac, ostial guztietan confesatcen, ta di-
 ciplinatcen zan, chit ascotan sermoyac
 entzuten cituen, ascotan animaco gau-
 cen gañian conferenciac eguiten cituen,
 ta orregatic ere etzuen bere Erreino-

aren oneráco zan eguitecoric cumplitu
 gabe utci, ta iñoiz baño obeto egondu
 zan Franciaco Erreinoa aren demboran
 Eguin cizquitzu bada devocio andiare-
 quin egercicio abec, esan dizquitzurán
 bezala, ta emango dizu Jaungoicoac
 beste eguitecoac cumplitceco bear dan
 dembora, ta indarra, orretaraco eguz-
 quia guelditu bearco baldin baluque ere,
 Josueren demboran eguiñ zuen bezala:
 Beti eguiten degu asco, Jaungoicoare-
 quiñ trabajatcen degunian.

Munduac esango du, gauza jaquint-
 zat, edo ciertotzat ematen derala nic,
 devociozco vicitza eguiñ nai duenac i-
 zan bear duela oracio mentaleraco do-
 aya, ez dutela guztia au: ala libru o-
 netan eman diran consejuac ta exerci-
 cioac alferric dirala. Eguia da gauza ja-
 quintzat bezala eman derala nic ori, ta
 eguia da ere ezdutela guztia doai ori,
 baña orregatic ere eciñ iñorc ucatu de-
 zaque, eroceñec izan dezaquela, orre-
 taraco Maisu onac izan ezquero, ta ori
 icastiac importa duen bezala, icasteco
 aleguiña eguiten bada. Ta baldiñ balit-

zaque ere iñor onetaraco batere doairic ez duenic, (ceña chit guchitan guertatuco da) erraz eracutsico dio Aita Espiritual prudente batec onen falta erremediatcen, edo leccio espiritualian, edo meditacioetan ipintzen diran consideracioetan atencio andia ipiñiaz.

XVIII. CAPITULOA.

Iru aviso guztiz onac orañ daño esan deran guztiaç gueyago aprovechatceco.

Berritu bear dezu illaren lembicico egun guztietan libru onen lembicico partian meditacioen azquenian esan degun Jaungoicoa servitzeco asmoa, edo protestacioa, ta beste demboretan ere aldezun maicena berritu bear dezu Davidec bezala esanaz: ez ditut Jauna zure Mandamentu Santuac iñoiz aztuco, cerगतले ayetan vistu nazu. Ta zure anima cerbait distraitua, edo cerbait devocio-guchirequiñ icusten dezunian, artu zazu escuetan zure protestacioa, ta viotz guz-

titic Jaungoicoaren aurrian humilduric,
 esazu viotz guztitic, ta icusico dezu,
 nola zuganatuco dan devocioa. Emayo-
 zu zure obretan mundu guztiari aditce-
 ra, devotoa izan nai dezula, ta ezde-
 zazula lotsaric izan Jaungoicoaren a-
 moriora encaminatcen gaituzten, edo
 Jaungoicoaren servicioco gauza regula-
 rrac eguiteco. Emazu aditcera, oracioa
 eguitiaz tratatcen dezula, ta nayago
 dezula vicia galdu, iñoiz pecatu mor-
 talic eguiñ baño; nai dezula seguitu Sa-
 cramentuac maiz errecibitcen, ta cum-
 plitu nai dituzula zure Aita Espiritua-
 laren consejuac, utci baditeque ere as-
 cotan arrazoi asco gatic icentatu gabe.
 Jaungoicoa servitu nai degula, ta aren
 amoriora consagratu guerala onela li-
 bertadiarequiñ aditcera emate au Jaun-
 goicoaren chit gusto andicoa da, cer-
 gatic ezdu nai beraz, ta beraren gurut-
 ciaz guc lotsaric izatia, ta quentzen
 degu ere modu onetan munduac armat-
 cen dituen lazoetaco videa, obligatcen
 gaitu ere gure honrac artu ditugun as-
 mo santuetan irautera. Antciñaco Filo-
 sofoac, munduac Filosofoac bezala vi-

citzen utci cizayeten , ematen zuten a-
 ditcera Filosofoac cirala , eman bearde-
 gu bada guc ere aditcera , devotoac i-
 zan nai degula , orrela vicitcen utci di-
 zaguten. Esaten badizu nor baitec , izan
 ditequela devotoa egercicio , ta conseju
 abec cumplitu gabe , ez diozazula uca-
 tu , ez bada erantzun zayozu modu o-
 nian , eguia dala , baña añ argala , ta mi-
 serabilia cerala zu, ce devotoa izateco bes-
 tiac baño lagutnce gueyago beardzula.

Azquenic , christau nere viotzecoa ,
 erregutcen dizut Jaungoicoagatic , Ce-
 ruan diran Aingueru , ta Santuac gatic,
 lurreco justuac gatic , Sacramentu San-
 tuac gatic errecibitu cenuen Bataio San-
 tuagatic , Jesusec eran zuen bularragatic,
 zu amaten zaituen beraren viotz amo-
 riosoagatic , ta zuc esperatcen dezun be-
 raren errai misericordiosoac gatic , se-
 gui dezazula , ta iraun dezazula devotoa
 izateco empeño onetan. Gure egunac
 badijoaz , ta eriotza ateetan dago. San-
 Gregorio Nacianzocoac esaten zuen :
 erretiratcera jotcendu trompetac , ba-
 coitza presta bedi , cergatic aldian da-
 go Juicioco eguna. San Sinforianoren

amac, bere semea martirizatcera cera-
matela icusi zuenian, atcetic deagar e-
guiten cion esanaz; nere semea, nere
semea, acordazaitz betico vicitzaz Ce-
rura beguira zazu, ta icusizazu an da-
goen zure Jaungoicoa, instante batian
vicia galduta ara allegatuco cera. Oro-
bat esan dizequezut nic ere zuri, cris-
tau maitia; beguira zayozu Ceruari; ta
ez dezazula mundua gatic utci; beguira
zayozu inferuari, ta ez dezazula zure
burua ara bota, instante batian acabatu-
co diran mundu onetaco gauzac gatic.
Beguira zayozu Jesusi, ta ez diozazula
munduagatic utci, ta devociozco vicit-
zan empleatzia gauza necosoa, ta gogo-
rra iruritzen zaitzunian cantazazu Aita
San Franciscoac bezala.

Emengo trabajuetan,
Ceruan pensatu ezquero,
Nagoela diversioetan,
Uste izaten det guero.

*Vici bedi Jesus, ceña Aitarequin, ta
Espiritu Santuarequin izan dedilla bon-
ratua, ta alabatua orañ ta beti Amen.*

ERIOZARACO PRESTAT-
ceco egercicioa San Francisco Sale-
sen librutic ateria, illaren lembicico
igandetan, edo beste egunen
batian eguin ditequena.

Zaudete esnatuac, ta eguizute ora-
 cioa, cergatic ezdaquizute cer ordutan,
 ta ez cer egunetan guztien jueza etorri-
 co dan, esaten digu Jesusec. Ongui ilt-
 ceco prestatceco gauza chit onada asco
 personec eguiten duten bezala illian beñ
 egun batian eriotzaren gañian conside-
 ratcera erre iratcia. Eracutsi naidizut
 bada eriotzaren gañian egercicio au e-
 guiteco modu on bat. Escogizazu egerci-
 cio onetaraco illaren lembicico igandia,
 edo beste egunen bat. Iracurri zazu vez-
 pera gabian liburu devotoren batian e-
 riotzaren gañian, edo cer fiñetaco sor-
 tua izan ciñan. Onela urrengo egunera-
 co meditacioa prestatuic zuaz oyera,
 ta pensazazu urrengo eguna izango da-
 la bear bada zuretzat azquenecoa.

Goician esnatcen ceranian emaiozca-
 tzu esquerrac Jaungoicoari penitencia e-
 guiteco eman dizun demboragatic, ta e-

guizquitzu gauza guztiaç eriotzaco egu-
nian eguin naico cenituquien bezala. A-
rratsian iracurri cenuen gauzaren gañi-
an eguizu meditacioa, ta examiñazazu
cerc emango lizuquien penaric andiena
egun artan il bear bacenu.

Confesa zaitez azqueneco confesioa
baldiñ balitzaque bezala, ta baldiñ vi-
citzá pasatuco peaturen batec quezca-
ric ematen badizu, obeto eguingo dezu
ura confesatcia zure conciencia sosegat-
ceco.

Entzun zazu meza aldezun devocio-
ric andienarequin, ta Sacerdotiac Ostia,
ta Caliza consagratu ezquero jasotzen
dituenian, escazayozu Jesusi eriotza on
bat eguiteco gracia. Prestazaitez comul-
gatceco aldezun devocioric andienare-
quiñ, ta errecibizazu Jaun ura vicitzaz
etsiric azqueneco eritasunarequiñ oyan
baldiñ baceundeque bezala.

Comulgatu ezquero, pensazazu on-
gui ceñ daucazun zure pechuan, adora-
zazu aldezun errespetoric andienare-
quiñ, eguizquitzu acto fedeco, esperan-
zaco, amoriozco, ta contriciocoac; en-
tzunzazu zure viotzera cer esatendizun,

ta emayozu itza esaten dizua guztia e-
guingo dezula.

Goiceco beste orduetan emplea zai-
tez liburu devotoren batzuec iracurt-
cen, ta batez ere Santuen vicitzac, no-
la dan S. Joserena, S. Bernardinorena, S.
Alejorena, edo besteren batzuenac.

Arrasaldian Elizaco funcioac acaba-
tu ezquero erretira zaitez zure guela,
edo aposentora, ta eguizu ordu beteco
meditacioa modu onetan.

Esca zayozu belaunico jarriric Espi-
tu Santuari, argui dizazula entendimen-
tua zure pecatuac ezagutzeco, ta erre-
mediatzeco. Jaiqui zaitez bereala, ta
paseatzen zabiltzala, edo eserita zaude-
la, considera zazu puntu abetan.

Lembici, orain daño nola vicitu ce-
ran; naico ote cenuquien zauden bece-
la eriotzac arrapatzia, ta aurrera nola
vici naico ote dezun.

Bigarren, cer mesede particularrac Ja-
ungoicoac eguin dizquitzun, ta nola a-
yetzaz orañ daño a provechatu cerán.

Irugarren, cer pecatuc duen zure ani-
man indar gueiago; igaro dan illian ce-
ñetan gueyena erori cerán, ta eguizu

aleguiña orien sustrayac , ta efectoaac ezagutzeco , bai ta ere aurrera orietan emendatceco moduac.

Laugarren , artu zazu ongui gogoan ezagutu dituzun pecatuetan emendatceco artu dezun propositoa , ta examiñatu bear dezu arratsero nola cumplitzen dezun proposito ori, señaala zazu ere datorren illeraco examen ori eguiteco izan dezun motivoa examinatcia ; escribi zazu ere aurrera cer eguiteco asmoac dituzun.

Bostgarren , meditacioco ordua cumplitu ezquero jarri zaitez belaunico , ta emayozcatzu esquerrac Jaungoicoari eguin dizquitzun mesedeac gatic , ta zure propositoac cumplitzeco itza emaiozu.

Visita zazu aldareco Sacramentu Santua , adora zazu aldezun errespetoric andienarequin , orrela nolaz bait erremediatceco orain daño bere Elicetan eguin diozcatzun erreverenciaren faltac. Au eguin ezquero , albadezu auspez lurrian jarric esca zaiozu aldezun humildaderic andienarequin aurrera bere amorioan , ta servicioan gogotic empleatzeco gracia.

Arratsian zure devocioac , ta concia-
 co examiña eguin ezquero , iltzeco ordu
 guchi faltatuco balitzaquezu becela , e-
 guiozcatzu cedorrec zure buruari ongui
 iltzen laguntzalliac eriarri trance artan
 eguiten diozcaten guztia. Comulga zai-
 tez espirituarequin , viaticoac , edo comu-
 nioa artuco baldiñ bacenuque bezala , ta
 guero Jesus Crucificatuaren imagiñ bat
 artu , ta emaiozu zure buruari asco San-
 tuc bezala Extremauncio modu au : zu-
 re beguien gañian Jesusen llagac ip ñi-
 ric esazu : Jesus nere viotcecoa , barca
 zaizquidatzu arren nere beguiaquiñ e-
 guiñ dituran pecatuac. Ta guero Jesu-
 sen oñai , escuai , ta aboari muñ eguiñaz
 esazu : Jesus nere viotcecoa , barca zaiz-
 quidatzu arren esatez , entzutez , ta i-
 cuitcez eguin dituran pecatuac. Azque-
 nic imagiñ Santua zure viotzaren gañi-
 an ipiñiric esazu : Jesus nere viotzecoac ,
 barca zayozcatzu arren nere viotzari e-
 guin dizquitzun esquer gabetasun guzti-
 ac. Emen daucazu bere indar , guztia-
 quin amatcen zaituen viotz damutu , ta
 humil bat , ta ezdu onesquer guero zugar
 ez bada bestetan pensatu nai.

Eguizu guero bereala Sacerdotiae a-
gonian dagoenaren anima encomendat-
ceco eguiten duena , esayozu zure ani-
mari, atera zaitez nere anima, atera zai-
tez gorputz orretatic , zuaz, ta aguertu
zaitez zure Juezaren aurrera , zure o-
brac mereci duten bezala juzgatua iza-
teco ; pensa zazu zaudela an Ceruaren ,
ta infernuaren bitartian. ; Ai nere erruca-
rria ! icusi zazu certara etorri heran. Ó
nere Jaungoicoa, nere aita maitagarria ,
izan zazu nitzaz misericordia. Ceruco
Erreguiña nere ama María Santísima ,
arren lagundu zadazu ; nere devocioco
Santuac , nere Aingueru gaurdacoa , la-
gun zadazute arren azqueneco trance o-
netan. Onen ondoren esazu ; zure escu-
etan Jauna, nere anima encomendatcen
det. Ta Jesus, María, esanta zuazoyera.

VICI BEDI JESUS.

*Jaungoico bacarrari
Honra, ta alabanza
Ni pecatariyari
Ceruraco seguranza.*

LIBRU ONETAN DAUDEN CAPITULOAC

LEMBICICO PARTIAN.

<i>Capituloac.</i>	<i>Dauden hojaen numeroa.</i>
I. Fguiazco devocioa cer dan	9
II. Devocioaren propiedade ta excelenciac	15
III. Persona modu guztiai conveni zaye- la devocioco virtutia.	21
IV. Cesi bearra dan Aita Espirituala de- vocioan a provechatzeco.	26
V. Devocioco videari animaco gaitzac garbitzetic asiera eman bear zayola.	32
VI. Pecatu mortaletic lembici garbitu be- ar degula.	37
VII. Devociora allegatu nai duenac bi- garrengo eguin bear duena pecatuco aficioetatic viorza garbitzia dala.	40
VIII. Cer modutan eguin bear dan peca- tuco aficioetatic anima garbitce au.	44
IX. Meditacioa , gure sortziaren gañian.	47
X. Meditacioa , Certaraco sortuac izan guñian.	52
XI. Meditacioa , Jaungoicoac eguin diz- quigun mesedien gañian.	57
XII. Meditacioa , pecatuen gañian.	62
XIII. Meditacioa , eriotzaren gañian.	67
XIV. Meditacioa , azquen juicioco egu- naren gañian.	72
XV. Meditacioa , Infernuaren gañian.	77
XVI. Meditacioa , Ceruco gloriaren gañian	80
VVII. Meditacioa , berriz ere Ceruco glo-	

- riaren gañian Infernuarequin compara-
ratuta, ea bietatic cefi escogitzen ote
dezun. 83
- XVIII.** Meditacioa, cristauvac devocio-
co vicitzaz eguiten duen auquerazco
moduan. 87
- XIX.** Confesio generala nola eguin bear
dan. 93
- XX.** Jaungoicoa servitceco asmoa viot-
zian ongui sartzeco, ta confesioa on-
gui acabatzeco protesta. 96
- XXI.** Animaren lembicico garbitze onen
acabera. 100
- XXII.** Garbitu bear dala anima pecatu
venialen aficioetatic. 102
- XXIII.** Garbitu bear dala viotza ecer ser-
vitzen ez duten, ta peligrosoac diran
gaucen aficioetatic. 107
- XXIV.** Garbitu bear dala viotza griña
gaiztoetatic. 110
- B I G A R R E N P A R T I A N .**
- I.** Cefi bearra dan oracioa 113
- II.** Meditatcen icasteco erregla labur,
ta erraz bat, ta lembicico Jaungoi-
coaren presenciaren gañian, cefia dan
prestaeraren lembicico puntuz. 120
- III.** Ongui meditatzece edo meditaciotic
frutua ateratceco Jaungocoari gracia
escatciaren gañian, cefia da prestae-

- raren bigarren puntua. 125
- IV. Consideratu bear dan puntua pres-
tatziaeren gañian, ceña da prestaera-
ren irugarren puntua. 127
- V. Consideracioaren gañian, ceña da Me-
ditacioco bigarren puntua. 129
- VI. Afectoac, ta asmoen gañian, ceñac
dira Meditacioaren irugarren puntua 131
- VII. Acaberaren, ta consideratzen dan
gauza gogoan artziaren gañian. 133
- VIII. Aviso guztiz provechugarriac me-
ditacioraco. 134
- IX. Oracioan izaten diran legortasunen
gañian. 139
- X. Goiceco egercicioa. 142
- XI. Arratseco egercicioa, ta concienciaco
examina. 146
- XII. Bacartasun espiritualaten gañian. 148
- XIII. Viotz guztitic eguiten diran oracio
laburren, ta pensamentu onen gañian 154
- XIV. Meza santuaren gañian, ta cer mo-
dutan entzun bear dan. 165
- XV. Beste egercicio santuen gañian. 171
- XVI. Honratu, ta deitu bear diegula San-
tuai. 173
- XVII. Jangoicoaren itza nola entzun, ta
iracurri bear dan. 176
- XVIII. Jaungoicoac ematen dituen viotz
muguidac, edo inspiracioac nola erre-
cibitu bear diran. 179

XIX.	Confesioco Sacramentuaren gañian.	185
XX.	Maiz comulgatziaren gañian.	193
XXI.	Nola comulgatu bear dan.	200

IRUGARREN PARTIAN.

I.	Virtutien egercicioaz eguin bear dan auqueraren gañian.	203
II.	Seguitzen da itz eguiten virtutien egercicioaz bear dan auqueraren gañian.	214
III.	Pacienciaren gañian.	223
IV.	Camptic aguertzen dan humildadiaren gañian.	232
V.	Barrengo humildadiaren gañian.	239
VI.	Humildadiac amaeracitzen digula gueren desprecio propioa.	249
VII.	Nola conservatu bear dan creditu ona humildadia egercitatuz.	257
VIII.	Nola progimoaganaco mansoac izan bear degun, ta iraren contraco erremedioaren ganian.	266
IX.	Nola gueren buruaquin mansoac izan bear degun.	274
X.	Cuidadoarequin tratatu bear baditugu ere munduco negocioac, estutasun gueiegui, ta inquietacioric gabe cuidado onec izan bear duela.	280
XI.	Obedienciaren gañian.	284
XII.	Ceñ bearra dan castidadia.	290
XIII.	Castidadia conservatzeco consejua.	297
XIV.	Espirituco pobreza ondasunen artian	

- nola guardatu bear dan. 303
- XV. Nola aberatsac izatia utzi gabe po-
briac izan bear degun. 309
- XVI. Nola egercitatu bear dan espirituco
aberastasuna pobrezaren artian 357
- XVII. Adisquidetasunaren gañian, ta
lembici gaiztoaren, ta ecer servitcen,
ez duenaren gañian. 328
- XVIII. Amorantien gañian. 326
- XIX. Adisquidetasun eguiazcoen ga-
ñian 334
- XX. Adisquidetasun eguiazco, ta vano-
en arteco diferentcia. 340
- XXI. Adisquidetasun gaiztoaren contraco
avisò, ta erremedioac 345
- XXII. Beste aviso batzuec adisquidetasu-
naren gañian. 352
- XXIII. Gorputceco mortificacioen gañian. 357
- XXIV. Conversacioen, ta erretiroaren
gañian. 369
- XXV. Janteien decenciaren gañian. 375
- XXVI. Itz eguitiaren gañian, ta batez
ere nola Jaungoicoaren gañian, itz
eguin beardan. 379
- XXVII. Nolacoac izan bear duten gure
itzac, ta cer errespetao izan bear
diegun personai. 382
- XXVIII. Juzgo temerarioen gañian. 387
- XXIX. Murmuracioaren gañian. 397
- XXX. Beste aviso batzuec itz eguitiaren.

gañian.	409
XXXI. Diversioen gañian, ta lembici ino- centien gañian.	413
XXXII. Joco devecatuen gañian.	416
XXXIII. Danza, ta beste diversio cille- gui badira ere peligrosoac diranen gañian.	419
XXXIV. Noiz jocatu ta danza ditequien.	423
XXXV. Leyalac izan bear degula gauz andi, ta chiquietan.	426
XXXVI. Justu, ta arrazoyezcoac izan be- ar degula.	431
XXXVII. Deseoen gañian.	436
XXXVIII. Ezconduentzat avisoac.	441
XXXIX. Cer garbitasunarequin Matrimo- nio santuaz usatu bear dan.	456
XXXX. Emacume alargunentzat avisoac.	464
XXXVI. Nescachai itz bat.	473

LAUGURREN PARTIAN.

I. Ezdegula casoric eguin bear mundu- aren esan besanaz.	475
II. Animo ona iruqui bear degula.	481
III. Tentacioen gañian, ta ceñ gauza di- ferentiac diran tentacioa sentitcia, ta artan consentitcia.	484
IV. Esan deran gauzaren gañian egem- plo eder bi.	490
V. Tentacioetan dagoen cristauvaren a- nimagarria.	494
VI. Tentacioa, ta gustoa nola pecatu i-	

- zan ditezquien. 496
- VII. Tentacio andien contraco erremedioa. 501
- VIII. Etzayela tentacio chiquiai lecuric eman bear. 504
- IX. Tentacio chiquien contraco erremedioac. 507
- X. Nola indartu bear degun gure espiritua tentacioen contraco. 509
- XI. Inquietacioen gañian. 512
- XII. Tristuraren gañian. 518
- XIII. Jaungoicoac ematen dituen consuelo espiritualen gañian, ta nola aye-tan governatu bear gueran. 523
- XIV. Animaco legortasunen gañian. 537
- XV. Ematen da obeto aditcera esan dan guztia, ta ipintcen da onetaraco e-gemplo eder bat. 548

BOSTGARREN PARTIAN.

- I. Conveni dala proposito santuac berrit-cla orafi esatera nuan egercicioac mediante. 556
- II. 1. Meditacioa. Lengo esan degun protestacioaz bat Jaungoicoac bere servicia deitciaz eguin digun mesedearen gañian. 559
- III. Devocioco vicitzan animac eguin dituen aurrerpenen examina. 563
- IV. Gure animac Jaungoicoa ganaco izan duen vicimoduaren examina. 566

- V. Zure buruaren aldetic animan nola zauden ezagutzeco examiña. 570
- VI. Gure anima progimoa ganaco nola dagoen ezagutzeco examiña. 573
- VII. Gure aficioen gañeco examiña. 574
- VIII. Examiniaren ondoren eguin bear diran afectoen gañian. 576
- IX. Gure asmo santuac berritzeco consideracio egoquiac. 578
- X. 1. Consideracioa. Gure animaren anditasunaren gañian. 578
- XI. 2. Consideracioa. Virtutien gañian. 581
- XII. 3. Consideracioa. Santuen egemploen gañian. 583
- XIII. 4. Consideracioa. Jesusec digun amorioaren gañian. 585
- XIV. 5. Consideracioa. Jaungoicoac eternidadetic izan digun amorioa. 588
- XV. Esan diran consideracioen gañian, afectoac ta egercicioaren acabera. 590
- XVI. Egercicio Santu onen ondoren cer eguin bear dan. 592
- XVII. Erantzuten zaye devociozco vicitzan sartceco libru onetan diran consejuen contra esan ditezquien bi gauzari 594
- XVIII. Iru aviso guztiz onac orain daño esan deran guztiac gueygo a provechatceco. 597

CAPITULO BACARRA.

Eriotzaraco prestatzeco egercicioa. 601



CAPITULO DE AEREA

Epitafio de exercicio. 601





